

# Kuba-ko euskal jatorrizko hiztegi biografikoa\*

(Biographical dictionary of basques in Kuba)

Anakabe Ansuategi, Karmelo

Eusko Ikaskuntza. Pº de Uribitarte, 10 behea. 48001 Bilbo  
kanakabe2012@gmail.com

BIBLID [1136-6834 (2012), 38; 495-643]

Jaso: 15.12.2000  
Onartu: 18.07.2012

---

*Euskal historia bati dagozkion jatorrizko pertsonaiak gain, obra honek baditu ezohizko bereizgarriak. Ohizko Euskal Herria, Espainia eta Europako eszenatokietako itsasoaz haraindiko, Kubako kolonizazio aldiari dagozkion, antzinako jazoera historiko eta ekonomikoak, eta horien etnografiari zein antropologiari buruzko zehaztasun ugariak. Baita herrialde hura, Antillak, Mexikoko Golkoa, Ipar eta Erdialdeko Amerikako geografiari abxikituriko leku arrotzak ere. Nazio berri baten sorrerako atala da.*

*Giltza-Hitzak: Euskal jatorrizkoak. Kuba. Jazoera historiko eta ekonomikoak. Kolonizazioa. La Habana. Etnografia. Antropología. Antillak.*

*Además de los personajes correspondientes a la historia vasca, la presente obra presenta particularidades que no resultan habituales. Fuera de los escenarios habituales de Euskal Herria, España y Europa, se recogen antiguos sucesos históricos y económicos correspondientes a la época de la colonización ultramarina de Cuba, junto con abundantes precisiones etnográficas y antropológicas. Y también además de lo referente a aquel territorio, se hace mención de las Antillas, el Golfo de Méjico y otros lugares adscritos a la geografía de América del Norte y Centroamérica. Es una parte del nacimiento de una nueva nación.*

*Palabras Clave: Oriundos vascos. Cuba. Sucesos históricos y económicos. Colonización. La Habana. Etnografía. Antropología. Antillas.*

*Outre les personnages spécifiques d'une histoire basque, cet ouvrage présente des caractéristiques hors norme. Il aborde en effet les événements historiques et économiques anciens concernant la fin de la colonisation de Cuba et survenus sur les anciens territoires d'outre-mer du Pays basque, de l'Espagne et de l'Europe, le tout illustré d'une foule de détails ethnographiques et anthropologiques. On y trouve de même des précisions sur les sites géographiques concernés dans les Antilles, le Golfe du Mexique et en Amérique du Nord et Centrale. C'est un chapitre relatant la naissance d'une nation.*

*Mots-Clés : Origines basques. Cuba. Événements historiques et économiques. Colonisation. La Habana. Ethnographie. Anthropologie. Antilles.*

---

\* Lan honek Eusko Ikaskuntzaren 2000. urteko Ikerketa Laguntza jaso du.

## 1. SARRERA

Gure aro osteko urteotan (97-117 a.o.)<sup>1</sup>, Plutarko filosofo greziarra izan genuen bere *Bizitza paraleloak* izeneko literatur obra bidez, Grezia (Perikles-Demostenes) eta Erromako (Fabio Maximo-Zieron) gizon ospetsu hauen bizitzak landuaz, eremu historiografikoa lehenbizi taxutu zuena<sup>2</sup>, mendebaldeko gure kulturaren behintzat.

Euskal Herrian, XIX. mendetik harrezkero batik bat, badira historiografian zehar hainbat saio biografiko eginak, Bizkaiko herrialdea (Delmas, J.E.), Gipuzkoako probintzia (Soraluze, N.); baita han-hemenka argitaraturiko aldizkari apurreta-ko (*Euskal Erria*, *Euskalerrriaren Alde*) heriotz eta bizitza-oharrak ere. XX. mendean, Auñamendiren Euskal Hiztegi Enziklopedikoaren 29 liburukiak (1970-1994) eta Nafarroako antzinako erresumako enziklopedia nagusia (1990), guztiak oro pertsonaiak edota leku bitxigarrien berri jakinarazteko burutuak<sup>3</sup>.

Gaur egungo euskal hiztegi biografikoak aztertu aurretik, aipatu beharrezkoa da lehenengo, Fausto Arozenaren<sup>4</sup> hiztegia, nolabait Donostiako pertsonaia ospetsuen inguruan (Juan Inazio eta Kristobal Gamon, Migel Alduzin, Juan Martinez de Alduzin...) burutu zituen bizitzak medio, hiribilduko tokiko jazoera berriak aurkitu zituelako. Baita Jose Garmendia Arruebarrenarena<sup>5</sup> ere, errolda tankerakoa izanagatik, XVI-XVIII. mendeetako Amerikako euskal presentziaren lekuko eta gida aparta bilakatzen zaigulako.

## 2. EUSKAL HIZTEGI BIOGRAFIKOAREN BILAKAERA

Gaurdainoko azken 20 urteotako euskal hiztegi biografikoaren bilakaera, Eusko Ikaskuntzako Historia sailak 1987ko urtetik aurrera tokiko ikerketak egiteko egitaraua hasi zueneko da. Ekimen hau, tokiko historiografia ireki edo zegoenaren tradizioa berrartzeko helburuaz burutuko zen. Baita gure praktika historiografikoa berritzeko ere; hau da, akademiako unibertsitate eremuaz gaindiko ezaguera historiografikoaren sozialtzearen alde egiteko, eguneroko bizitza zibilarren gizarte esparruetan<sup>6</sup>.

---

1. PLUTARCO. *Cómo sacar provecho de los enemigos*.- Hitzaurrea: José García López. 2. arg. Madrid: Siruela, 2002; 13. or.

2. PLUTARCO. *Vidas paralelas*.- Hitzaurrea: Joaquín del Moral Ruíz. Madrid: Promociones y Ediciones, 1984; 5,9. orr.

3. AGIRREAZKUENAGA, J. (zuz.) *Diccionario biográfico de los Diputados Generales, burócratas y patricios de Bizkaia (1800- 1876)*. Bilbao: Juntas Generales de Bizkaia-Bizkaiko Batzar Nagusiak, 1995; 27.or.

4. AROCENA, F. *Diccionario biográfico vasco*.- Donostia-San Sebastián: Auñamendi, 1963.

5. GARMENDIA, J. *Diccionario biográfico vasco: méritos, servicios y bienes de los vascos en el Archivo General de Indias*. Donostia: Eusko Ikaskuntza, 1989.

6. AGIRREAZKUENAGA, J. (zuz.). *Bilbao desde sus alcaldes: Diccionario biográfico de los alcaldes de Bilbao y gestión municipal, en tiempos de la revolución liberal e industrial*. Vol. I 1836-1901. Bilbao: Ayuntamiento de Bilbao, 2002; 21. or.

Hildo berri honen eredia *Baskoniako euskal parlamentarioen hiztegi biografikoaren* (1080 orr.)<sup>7</sup> lehen zatian aurki dezakegu. Ikerketako metodologiaren lehen oinarriak hementxe ezarriko dira. Pertsonaiak edo diputatuak aukeratzeko irizpidea geografikoa izango da, lehenengo. Ez zaio bere sorterriari erreparatuko, Baskoniako barrutietan hautatu izateari baino. Horretara, hementxe-bertan jaioriko andana bazterturik geratuko da. Hurrengo, biografien metodologia eta egitura erabakiko da, helburu bi kontutan harturik. Bata, Europa mailako parlamentarismoaren historiari ekarpena egiteko; eta bigarrena, Euskal Herriko biografien inguruko ikerlariei tresnak eskaintzeko. Horretarako, aukeraturiko diputatu bakoitzaren bizitzako atal desberdinak zertuko dira: izen-abizenak, jaiotza-data, heriotza eta senitartekotza; ikasketak eta ogibidea; ondarea eta errentak; jarduera parlamentarioaren zehaztasunak (hautaketa, mozioak, batzorde-partehartzeak, esku-hartzeak...); ohoreak eta tituluak; idatziriko obra, iturriak eta bibliografia. Guztira 293 biografia dira<sup>8</sup>.

Euskal parlamentarioen hiztegi biografiko honek, seinalatuko du gaur egungo historiografia berriztuaren aurrerabideak, baina hasiera hartako etorkizuneko argitalpen berri bakoitzak, ikerketaren bilakaerak inprimaturiko bere zigilu-marka (antropologiako berritasunak, politika garapena, tokiko bizitza, interpretazioak...) berezia izango du, dakusgunez.

Eredua eta metodologia horixe bai, aurretik erbestean landutakoen mailegu egokituak dira. Histori politikoaren arloan, hainbat hiztegi biografiko aurki ditza-kegu, guztiak hautagaien kidego talde desberdinak ikertzeko helburuaz eginak. Estatu Batuetako (*Biographical Directory of the United States Executive Branch 1774-1977*) ministroak, Frantzia (*Dictionnaire des ministres de 1789 à 1989*), Erresuma Batuan (*Biographical Dictionary of British Prime Ministers*), Portugalen (*Parlamentares e Ministres da 1ª República (1910-1926)*), Italian (*Governi, alte cariche dello Stato, alti magistrati e prefeti del Regno d'Italia*) eta Espainian (*Estructura de la Administración Central*)<sup>9</sup>.

Hiztegi biografiko bakoitzaren biografiatu-multzoaren aukeratze irizpideak, kasuan-kasuan ezberdinak izaten dira, halaberrez. *Bizkaiko diputatu nagusien, burokraten eta aiten hiztegi biografikoa* (578 orr.)<sup>10</sup> kontutan hartzen badugu, esate baterako eremua bistakoa da. Kasu honetan, aukeratze irizpidea bikoitza izan da. Batetik, Batzar Nagusietarako hautatu izaniko elite politikoa, hau da Jaurerriko burokrazia nagusia, Bizkaian jaiotakoak, Oñatiko Unibertsitatekoak, Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako Batzarrek finantzaturikoak. Bestetik, elite ekonomiko arloko pertsonaia esanguratsuenak<sup>11</sup>. Guztira 129 pertsonaiak dira.

7. AGIRREAZKUENAGA, J. [et al.]. *Diccionario biográfico de los Parlamentarios de Vasconia (1808-1876)*. Vitoria-Gasteiz: Eusko Legebiltzara-Parlamento Vasco, 1993.

8. *DICCIONARIO biográfico de los Parlamentarios de Vasconia...*; 19-21. orr.

9. AGIRREAZKUENAGA, J. (zuz.) [et al.] *Diccionario biográfico de los parlamentarios de Vasconia (1876-1939)*. Vol I. Vitoria-Gasteiz: Eusko Legebiltzara-Parlamento Vasco, 2007; 42. or. (3 v.).

10. *DICCIONARIO biográfico de la Diputados Generales, burócratas...*

11. *DICCIONARIO biográfico de los Diputados Generales, burócratas...*; 27. or.

Ez da berdin gertatuko esaterako, *Arabako diputatu nagusien, kontsultoreen eta idazkarien hiztegi biografikoa* (547 orr.)<sup>12</sup> kontutan hartzen badugu. XIX. mendetik aurrera, garrantzirik eta aginterik handiena duen magistratura Diputazio Orokorrena da; beraz, Diputatu Nagusi eta Nagusiordetan badugu biografiatuen lehen taldea. Honi, beste kidego birena gehituko diogu: Probintziako Aitak eta Aholkulariak. Amaitzeko, Gobernu Idazkariak ditugu, probintziako Administrazioburuak direlako. Guztira 60 pertsonaia dira<sup>13</sup>.

Prosopografiako ikerketaren iturriei dagokiela, lehen zatiko *Baskoniako euskal parlamentarioen hiztegi biografikoak* irekiriko hildoari jarraituko diote gainerako hiztegi biografikoek. Lehen hurbiltze bat egitea zegoen, edozein motatako okerrak zuzentzeko asmoaz. Bibliografia orokorrak (Palau, Del Burgo); euskal kasuari dagokiela Jon Bilbao bibliografoaren obra bikainaz osagarrituz. XIX. mendeko biografien liburuak azertu, Diputatuei zegokienak batez ere; baita *Espainia, Portugal eta Iberoamerikako Aurkibide Biografikoa* izeneko obra ere. Militarrei buruzko informazioa, Segoviako *Artxibo Orokor Militarra* delakoan; hauteskunde daten berri jakiteko *Diputatuen Legebiltzarreko Artxiboan*<sup>14</sup>. Kontsultatu eginiko artxiboen zerrenda luzea bilakatzen da, harik eta iturriak agortu egiten direneko. Baina bistakoa dena zera da, euskal historiografiaren ikerketa-iturrien ikusmuga (Madril, Paris...) erabat eraberritzen duela hiztegi biografiko honek, euskal geografiako mugak hautsiaz. Guztira 293 pertsonaia dira.

Alderantzizkoa gertatu zaie *Eusko Ikaskuntzako hiztegi biografikoaren* (331 orr.)<sup>15</sup> egileei, prosopografiako iturriak erakundearen bibliografiako artxiboan aurkitu behar izan dituztelako. Bestalde, Eusko Ikaskuntzako Boletinak eta Kongresuek dauzkaten informazio guztiak hustu dira. Jakina, biografiatu ospetsu garrantzitsuenetarikako bakoitzak biografia zabalagoa eskatzen du, mundu akademiko eta ideologiko oso desberdinetatik datozelako. Prosopografiako saio honen helburu nagusietariko bat zera izan da, ilun edo alboratu geratu arren, Eusko Ikaskuntzaren akademia eta zientzia komunitatea moldatzerakoan ekarpen ohargarri eta garrantzitsua egin duten askoren nortasuna nabarmentzea<sup>16</sup>. Guztira 150 biografia baino gehiago biltzen dira.

Eusko Ikaskuntzako hiztegi biografiko honetan esaterako, oso nabarmena da prosopografiaren arloko etnografiako (J.M. Barandian) eta antropologiako (J. Caro Baroja) ahozko iturriak erabili izana estraineiko aldiz hiztegi biografikoan. Bigarren taldeko biografietan, hau da, garai hurbilagokoetan, informazio iturri nagusia protagonistek berek adierazi eginiko datuetan oinarritu da. Bidaliriko galdeketari

---

12. URQUIJO, M. (zuz.). *Diccionario biográfico de los Diputados Generales, Consultores y Secretarios de Álava (1800-1876)*. Vitoria-Gasteiz: Diputación Foral de Álava, 2004.

13. *DICCIONARIO biográfico de los Diputados Generales, Consultores...*; 41-42. orr.

14. AGIRREAZKUENAGA, J.[et al.]. *Diccionario biográfico de los Parlamentarios de Vasconia...*; 22-23. orr.

15. AGIRREAZKUENAGA, J. [et al.]. *Diccionario biográfico de Eusko Ikaskuntza (1918-1998)*. Donostia: Eusko Ikaskuntza, 1999.

16. *DICCIONARIO biográfico de Eusko Ikaskuntza...*; 18. or.

erantzun dioten 75 pertsoneri eskerrak bihurtu nahi dizkiegu. Ahozko iturriak ezinbestekoak gertatu dira eta zenbat kasutan lehen aldiko pertsonen biografiak egiteko ere balio izan du. Hori, esaterako, Aniceto Duoren kasua eta Gonzalo Duok jakinarazitako ahozko informazioa<sup>17</sup>.

Edota 1987 hartan, Eusko Ikaskuntzak hasi zuen tokiko ikerketa egitarau hark, histori politikoaren ikerketari dagokion bidaidea aurkitzea bere jardunean. *Baskoniako euskal parlamantarioen hiztegi biografikoaren* lehen zatiko emaitza partzialek, ikerketa ikonografiko zehaztu bat eskainiko zioten, Lege Zaharraren kinkaldia aztertzeko Euskal Herriko Unibertsitateko Laborategiari. Unibertsitateko egitarau honen ikerketa eta datu-ikonografikoen oinarriak, *La transición del Antiguo Régimen vista por sus contemporáneos: Iconografía y cartografía de Vasconia (1789-1876)* izeneko ikerketa-proiektu baten barnean burutu dira 1991. urtean<sup>18</sup>. Harrezkero, euskal hiztegi gintza biografikoari kezka hau erabat atxikituko zitzaiozlarik.

Hau da, *Arabako diputatu nagusien, kontsultoreen eta idazkarien hiztegi biografikoaren* bilaketa elite politikoei hurbiltzean, Erregimen Zaharretik Berrirako igarobidean, Monarkia Absolututik Estatu Liberal berrira, haiek izan zuten parte hartzea jakitea da. Horregatik, hiztegi biografiko honen esparru eta denbora eremua, Antzinako Erregimen eta Berriaren igarobidean tartekatuko da. Igarobide hau, Iraultza Frantziarrarekin zabalduko da Europa osoan, eztabaida politiko eta soziala markatuz, XIX. mendeko lehen hamarkadetan<sup>19</sup>. Pertsonaiak 60 dira guztira.

Bidaidetasun honen arabera gainera, iraganeko jazoera historikoei buruzko interpretazio alorrean, hainbat berritasun aurkituko dugu hiztegi gintza biografiko honen sarreretan. Espainiako mila zortzirehun urteko hastapenetan, aldaketa bide bi behatuko ditugu, eta liberalismoaren sarrera. Alde batetik, Napoleon Enperadorearen aldekoek, 1808ko Konstituzioaz zabalduko zutena. Hemen, euskal foruei eta bere instituzioei buruzko erabakia luzatu egiten zen. Beste aldetik, Cádizeko Gorteek zabalduko, zein foru arazoa aztertzeko interes handikoa izango zelako. Konstituzioaren artikulatuan, ez dago euskal foru erregimenei buruzko inolako aipamenik<sup>20</sup>.

Hala nola, *Bilboko alkateen hiztegi biografikoa eta udal kudeaketa, iraultza liberala eta industrialaren garaietan* (640 orr.), zehazturiko interpretazioa. Bilboko memoria liberalaren leku eta esparru bereizgarriek enbarazu handia egingo zieten, karlistekin batera 1937. urtean setio berri baten parte hartu zutenei, euren helburu hau erdietsi zutelarik; setiatzaile ugari gainera, 1874ko setiatuen

---

17. *DICCIONARIO biográfico de Eusko Ikaskuntza...*; 18. or.

18. AGIRREAZKUENAGA, J. [et al.]. *Diccionario biográfico de los Parlamentarios de Vasconia...*; 27. or.

19. *DICCIONARIO biográfico de los Diputados Generales, Consultores...*; 15-16. orr.

20. *DICCIONARIO biográfico de los Diputados Generales, Consultores...*; 25. or.

oinorde genealogiko zuzenenak izan zirela. 1936-1939 gerra zibila osteko, gerra jazoeren eta euron literatur interpretazioak, ekintzaile eta protagonisten memoriaren distorsio ikaragarria sortuko zuen. Historiaren ikuspegitik, Bilbo liberala eta irekiaren errealitatea mozorrotzea, literatur asmakizunaren bidez ametiezina da<sup>21</sup>. Guztira 41 pertsonaiak dira.

Antzinako Erregimenetik Berrirako igorabideari, ikerketako gainerako aro historikoa zabalduko zaio *Baskoniako euskal parlamentarioen hiztegi biografikoa* (2834 orr.) bigarren zatiko 3 liburukiko obra mardularen eskutik. 1876-1939 aldiko parlamentarioen biografia burutzen da. Ikertzen dugun aldia, histori parlamentario espainiarrean kokatzen da, 1876ko Borboien Berrezarpenetik 1939ko II. Errepublikaren amaiera arte, une historiko oso ezberdin bi bildurik. Lehena, 1876ko Konstituzioak mugatzen duen monarkia parlamentarioa, eta 1931ko Konstituzioak itxuratzen duen II. Errepublika espainiarrarena. Guztira 317 parlamentario ditu<sup>22</sup>.

Bilbo eredu harturik, oso garrantzitsua da XX. mende hasierako histori politikorako *Bilboko alkateen hiztegi biografikoa eta udal kudeaketa, iraultza demokratikoa eta sozialaren garaietan* (411 orr.)<sup>23</sup>, laburbiltzen den orduko giroa. Masen matxinada eta instituzio sozial eta politikoen eraikuntza demokratikoarena. Langileak eta klase behargabeak, burgeseriaren oparotasunaren aurrean matxinatu egin ziren, aukera sozial eta kulturalen berdintasun gehiago baten eske, eta hiri europear asko iraultza sozialen eszenatokiak dira, 1917an San Petersburgon garatu antzean<sup>24</sup>. Guztira 20 pertsonaiak dira.

Pertsonaiak ostera garai hurbilekoak direnean, artxiboko eta bibliografiako iturriak hobetzeko, hein handi batean periodiko argitarenak, ikerketa proposografikorako iturri oso emankor bilakatzen direla. Horixe gertatzen zaio *Bilboko alkateen hiztegi biografikoa eta udal kudeaketa diktaduran* (540 orr.)<sup>25</sup> izenekolari.

Hiztegi hau ikertzeko prentsaren kontsulta informazio iturri garrantzitsua izan da. Horretarako, aldi frankistako hiru egunkari bilbotar hauek arakatu dira: *El Correo Español – El Pueblo Vasco* (1937-1979), *Hierro* (1937-1979) eta *La Gaceta del Norte* (1937-1979). Egunkari hauekin batera, Diputazioaren *Vizcaya* (1953-1972) eta Merkatariza Kamarako *Información* (1937-1975) aldizkariak

---

21. BILBAO desde sus alcaldes: *Diccionario biográfico de los alcaldes...* V.I.; 26. or.

22. AGIRREAZKUENAGA, J. (zuz.) [et al.]. *Diccionario biográfico de los Parlamentarios de Vasconia...*; 23. zka.; 47. orr.

23. AGIRREAZKUENAGA, J. (zuz.). *Bilbao desde sus alcaldes: Diccionario biográfico de los alcaldes de Bilbao y gestión municipal, en tiempos de revolución democrática y social. Vol. II 1902-1937*. Bilbao: Ayuntamiento de Bilbao, 2003.

24. BILBAO desde sus alcaldes: *Diccionario biográfico de los alcaldes...* Vol. II; 14, 18. orr.

25. AGIRREAZKUENAGA, J. (zuz.)... [et al.]. *Bilbao desde sus alcaldes: Diccionario biográfico de los alcaldes de Bilbao y gestión municipal en la dictadura. Vol. III 1937-1979*. Bilbao: Ayuntamiento de Bilbao, 2008.

eta *La Bilbaína* (1969-1975). Bilboko Udaleko prentsa ebakinen datu baseak erabali dira. Bertan, aipaturiko periodikoez gain, *Nuevo Diario*, *La Tarde de Málaga*, *Arriba*, *La Vanguardia*, *ABC*, *La Voz de España*, eta beste hainbeste arakatu dira<sup>26</sup>. Alkateak 10 dira guztira.

Euskal hiztegi biografikoen bilakaera amaitzeko, aipatu beharra dago ezinbestean Angel García-Sáenz Marcoteguiaren *Diccionario biográfico de los Diputados Forales de Navarra (1840-1931)* (Pamplona: Gobierno de Navarra, 1996); baita taldearekin buruturiko *Diccionario biográfico de los Diputados Forales de Navarra (1931-1984) y de los secretarios de la Diputación (1834-1984)* (Pamplona: Gobierno de Navarra, 1998) hiztegia ere (530 orr.). Bigarren hiztegiak 152 pertsonaia ditu. Sar ditzagun Nafarroako hiztegi biografiko hauek ere, euskal historiografiako azpiegiturako ondarean. Gaur arte eta aurrerantzean egin litezkeen obra berrien metodologiako helburu nagusia, historiografiako azpiegitura ekoiztea delako. Erabalariko metodología, jasoriko emaitzak eta proposaturiko helburuak kontutan harturik, esan dezagun historia soziala egiteko bide bat dela<sup>27</sup>.

### 3. HIZTEGI BIOGRAFIKO HONEN AURKEZPENA

1998-2000-ko urte haietan, Eusko Ikaskuntzako bi urte txandakako ikerketa diru-languntzak jaso nituela, ikertu nuen lan hau, herrialde hartako iturriak arakatzuz. Aurreko urtean baina, hango euskal presentziaren hurbilketa on bat eginga nuen jadanik. Orduantxe ikertu berri nuen ohizko bibliografia orokorra (Calcagno, Pezuela, Santa Cruz)<sup>28</sup>.

Lehen hurbilketa honen arabera azaleratu zitzaizkidan pertsonaiak kontutan harturik, eta helburua euskal jatorrizko hiztegi biografikoa egitea zela, kolonizazio garaiko XVI-XIX mendeetako kronologia ezarri nion ikerketari. Metodologiari dagokiola Joseba Agirreazkuenaga Zigorraga EHU/UPV-ko Gaur Egungo historiako katedradunak zuzenduriko *Bizkaiko diputatu nagusien hiztegi biografikoa (1800-1876)* izan nuen beti eredu gisa.

Biografiatuen hautaketa egiteko irizpe lehena noski, euskal jatorrizkoa izatean zegoen. Bigarrena, Kubako koloniako historian nolabaiteko eragina izatea. Guzti hau, eginiko lehen hurbilketan nabarmen azaleratuko zitzaidan. Perto-

---

26. BILBAO desde sus alcaldes: *Diccionario biográfico de los alcaldes de Bilbao...*V. III; 38-39. orr.

27. URQUIJO GOITIA, Mikel. "El diccionario biográfico de la élite política de las instituciones forales de Alava (1800-1876). En: *Historia contemporánea: revista del Departamento de Historia Contemporánea...*, 13-14 zka., 1996; 333-340 orr.

28. CALCAGNO, Francisco. *Diccionario biográfico cubano*. - New York: Imp. y Lib. de N. Ponce, 1878. PEZUELA, Jacobo de la. *Diccionario geográfico, estadístico, histórico de la Isla de Cuba*. Madrid: Imp. del Estab. de Mellado, 1863-66. 4 bol. SANTA CRUZ Y MALLEEN, Francisco Xavier. *Historia de familias cubanas*. La Habana: Editorial Hércules, 1940-50. 6 bol. Idem. idem. *Historia de familias cubanas*. Miami, Florida: Ediciones Universal, 1985-88. 3 bol.

naiok oro har, gobernariak, ondasundunak, elizgizonak, zientzialariak eta nobleak dira, besteak beste. Euskal Herritik herrialde hartara, era bateko edo besteko destinoa harturik joan izaniko euskal jatorrizkoak. Batera, familiak sortuko zituzten askok, krioilo izeneko identitate berria kimutuz, gaur arte.

Biografiaren metodologia eta barne egiturari dagokiola, euskal hiztegi gintza biografikoa oro har erabili duena da<sup>29</sup>. Baina prosopografiako ikerketarako iturriak, Araba, Bizkaia, Gipuzkoa eta Nafarroako eliza barrutietako artxiboetako pertsonaia asko hauon bataio agiriak salbu, Kubako artxiboetako eta biblioteketako lehen iturri, bibliografia ugari eta hemerrotekako nahikoa izan da.

Arakatu izaniko lehen iturriak Kubako Artxibo Nazionaleko agiri ugarietan aurkitu nituen; baita La Habana Hiriko Artxibo Historikoko udal agiri etako liburuetan eta Matanzas eta Cienfuegos hirietako artxibo historiko probintzietan ere. Iturri bibliografikoei dagokiela, La Habanako `José Martí` Biblioteka Nazionalean eta Literatura eta Liguistikako Institutuko bibliotekan, hemen gainera Elkarte Ekonomikoko artxibo eta hemerroteka agiriak ere bazeudela.

Amaitzeko zera adierazi, hiztegi biografiko honen onomastikako pertsona-izenak eta exonimiako leku-izenak euskal grafiara egokitzerakoan, Euskaltzaindiako arautegiari darraiodala, antzinako izendegiko erdal grafia lar ez desitxuratzeko, herri ahoskera kontutan harturik baina, eta aurkitugabeko leku-izenetan, neure kasa hartu izan dudana lizentzia gutxi salbu.

### 3.1. Eskerronak

Lehendabizi, Joseba Agirreazkuenaga Zigorraga doktoreari hura delako, hiztegi biografiko honen asmatzailea. Goragoko aurkezpenean, aipatu izan dudana urte bi haien aurrekotik harrezkero, eta urrunetik ezinbestean, Euskal Herriko Unibertsitateko Gaur Egungo Historiaren Saitetik lehenengo, eta Eusko Ikaskuntzaren bitartekaritaz gero, lana nik neuk burutzea berari otu zitzaiolako. Gainera, ikerketaren garapenean zain izan nuelako, zein metodologiako aholkuak eskaintzeko zein Kuban ikertzeko behar nituen baimenak lortzen laguntzeko.

Eta bigarrenago, Eusebio Leal Spengler La Habana Hiriko Historialari, hiztegi biografiko hau egiteko bere Bulegoko aholkulari tekniko izendatu eta iturrietan ikertzeko baimen ugari lortu zizkidalako.

Neure eskerronik sentikorrena bioi.

---

29. *DICCIONARIO biográfico de los diputados generales, burócratas...*; 28. or.



### 3.2. Biografia zerrenda

AGRAMONTE GAZTAÑETA, Klemente	GOIRI BEASKOETXEA, Frantzisko
ALDAMA ARETXAGA, Domingo Marko	GOITISOLO LEZARTZABURU, Agustin
ALKIZA GANBOA, Santxo	GOMEZ MARAÑON GONZALEZ, Manuel
APEZTEGIA APEZETXEA, Martin Felipe	GONZALEZ DE HEREDIA LARRINAGA, Bonifazio
ARANGO MONRROY, Pedro	IBARGUEN ESKARTZA, Ramon Fausto
ARETXABALA ALDAMA, Jose Teodoro	ILINTXETA JAURI, Jose
ARMONA MURGA, Jose Antonio	JAUREGI MAIORA, Juan Tomas
AROSTEGI LARREA, Martin	JUSTITZ ETXEBERRIA, Juan
AROSTEGI LARREA, Martin Esteban	LANDALUZE URIARTE, Biktor Patrizio
AZKARATE LASKURAIN, Gabriel Raimundo	LANTZ BERTIZ, Juan Batista
BASABE URBIETA, Frantzisko Antonio	LARRAZABAL CALVO, Lorentzo
BEITIA RENTERIA, Jose	LASA IRALA, Sebastian
BERROA URTARTE, Esteban	LIZUNDIA ODRIA DE ETXEBERRIA, Domingo
BILDASOLA GARDOKI, Jose Mateo	LOINATZ TORRES, Inazio
BILLATE DE LA HERA, Blas	MUNIBE OKINA, Andres
BITRIAN DE VIAMONTE NAVARRA, Juan	OTXOA DE ORBEA SANZ DE OTAOLA, Pedro
CASAS ARAGORRI, Luis	PORTILLO PORTILLO, Manuel
CHAO OLAORTUA, Frantzisko Alberto	SAENZ DE LA GUARDIA ESPINOSA, Jose Frantzisko
DELGADO AMESTOI, Ramon Klaudio	SOLA NANCLARES, Frantzisko
DIAZ DE ESPADA LANDA, Juan Jose	UGARTE ZUBIETA, Domingo
ETXEBERRIA LOINATZ, Martin Xabier	URANGA, Fernando
EZPELETA GALDEANO, Jose	URRITZA OLASO, Juan Inazio
FORCADE ARISBURU, Pedro	VELEZ DE ELORRIAGA ZARATE, Justo Maria
GALARTZA ZULOAGA, Bizente	XIMENO USAOLA, Jose Matias
GARTZIA BARRERAS, Manuel	ZULUETA AMONDO, Julian
GOIKOETXEA BALERDI, Jose Paskoal	
GOIKOURIA CASAL, Balentin	

### 3.2. Artxiboen laburdurak

B.E.H.A.	Bizkaiko Elizaren Histori Arkibua
C.A.H.P.	Cienfuegoseko Artxibo Historiko Probintziala
D.G.H.A.	Donostiako Gotzaindegiko Histori Agiritegia
G.E.A.H.	Gasteizko Elizabarrutiaren Artxibo Historikoa
I.G.A.	Iruñeako Gotzaindegiko Artxiboa
K.A.N.	Kubako Artxibo Nazionala
L.H.A.H.	La Habana Hiriko Artxibo Historikoa
M.H.A.P.	Matanzaseko Artxibo Historiko Probintziala

### 3.3. Gainerako laburdurak

bol.	bolumen
leg.	legajo
lib.	liburu
or(r).	orri (ak)
ps.	peso
zka.	zenbakia
ha.	hektarea

## 4. BIOGRAFIAK

### 4.1. AGRAMONTE GAZTAÑETA, Klemente

Nafarroan jaio bide zen. Bayamo-n (Kuba) hilko da.

Klemente Agramonte, Maria Ponce Gebararekin ezkondu zen. Emaztea, Gaztelako Antonio Ponce kapitain Bayamoko alkate arruntaren eta Isabel Gebara anderearen alaba zen. Graziana, Isabel, Frantzisko, Klemente, Diego Lope, Juan Xalbador eta Jazinto Agramonte Ponce seme-alabak eduki zituzten.

Bayamoko udaleko errejidore eta ondasunduna izan zen. Garai hartan, Kuba-ko gobernuak udalari bidaliriko despatxu baten bidez, Guaisabana-ko herrian parrokiarik ez zegoelako, hango indiar bizilagunak Kanelles goikora, gaur eguneko Donibane Ebanjelarira aldatzeko aginduko zion.

Ondoren, udalak Diego Marron de Santiesteban eta Klemente Agramonte errejidoreak izendatuko zituen, despatxuari zegokion ikustaldia egiteko. Hauek mandatari irten zirela, Guaisabanako Rodrigo Gonzalez alkatearekin bilduko ziren. Azken honek, bere udalerrian parrokiarik ez zegoela aitortuko zien; baina, hura eraikitzeko bi urteko epea eskatuko zion gobernari jaunari. Handik urte eta erdira, Santa Ana ohorezkatuko zuena eraikiko zuen.

Bayamoko udala ez zen hortan bakarrik geldituko. Gregorio Ramos alkate arruntak, Klemente Agramonte lotinantorde nagusiak eta Antonio Ponce errejidoreak idatziriko meagintzako araudiak onartuko zituzten gainerako errejidoreek, 1598ko maiatzaren 19an. Nahiz erakunde gorenek gaitzetsi izan, agiri aparta bilakatuko ziren araudiok, Kubako XVI. mende gailurreko ekonomia kontzeptuez eta arazo sozialez jabetzeko

1607. urtean, Indietako Kontseiluko fiskalak, Klemente Agramonteri lotinantordearen kargua beharrezko goraltasunez eta pregoiez saldu ez izana iritziko zuen, zeina 422 dukatetako enkantean jarri baitzuen. Urteak beranduago, 1675eko martxoaren 29ko kontseilu bereko ebazpenaz, alkatetza arrunterako hautatzeko botoa debekatuko zitzaion seme Frantzisko Agramonteri.

Juan Garcia de Navia Castrillon-ek Erret Kontseiluari, *Gobierno de Cuba de 1614 a 1618. Relación de los ingenios de azúcar, ganados y minas que hay en el Bayamo* zuzenduriko txostenaren arabera, hamaika azukre-errotatik, bi Klemente Agramonteri zetxezkiola zioen. Kontutan eduki behar da Bayamoko merkataritza uhartearen kolonizazioko lehen garaietako puntarenetarikoa izan zela.

Kauto ibaiaz haraindira, azukrea, kakaoa, anila, jengibre, banilla eta larruak garraiatzen ziren penintsulara, bela-ontzi eta fragatetan. XIX. mendearen erdialdean, baziren oraindik, Maria Agramontek anila ateratzeko, 80 beltzekin zeuzkan urtegiak eta gainerako tresneria.

Bere genealogi zuhaitzeko inor ospetsurik aipatzekotan, seme Jazinto Agramonte Ponceren bigarren odol-lerroko Inazio Agramonte Loinatz dugu. Puerto Principe hiribilduko Soledad parrokian bataiatu zuten, 1842ko urtarrilaren 6an. Abokatua izan zen. Hamar Urtetako Gerran, Yara-ko mugimendua bultzatuko zuen bere jaioterrian, 1868ko urriaren 10ean sortu bezain laster. Jimaguayu-ko moxaltokian eginiko miaketan hil zuten 1873ko uztailaren 1ean, jeneral nagusia zela.

#### **4.2. ALDAMA ARETXAGA, Domingo Marko**

Gordexolan (Bizkaia) jaio zen, 1787ko ekainaren 19an. San Juan Bataiatzaile Lepamoztuaren parrokian bataiatu zuten.

Aita, Amurrioko (Araba) Antonio Aldama eta ama, Gordexolako Balentina Aretxaga izan zituen. Aitaren aldetiko aitonak, Jose Aldama eta Baranbioko (Araba) Manuela Zulueta; eta amarenekoak berriz, Domingo Aretxaga eta Balentina Olabarrieta zituen. Aitabitxiak, Klaudio Otamendi eta Ageda Aretxaga izan ziren.

Domingo Aldama La Habana-ko Izpiritu Santuko parrokian ezkonduko da, Maria Rosa Alfonso Soler-ekin 1815eko azaroaren 26an. Rosa, Maria Angeles, Gontzalo eta Migel Aldama Alfonso seme-alabak edukiko zituzten.

1816. urtean, Matanzas-eko hiritik 40 bat kilometro hegoalderantz, Santa Rosa azukre-ola fundatuko zuen, San Andres deituriko etxaldean. Handik eta hirugarren urtera egingo zuen bere lehen uztaketa, 500 kutxa azukre inguru bilduko zuelarik. Uztaketen kopuruak goratuz joango ziren, 1828.ekoan 3.000kora iritsiz.

Azukre-ola hau, uharte osoko lehena izan zen, idiko errotaz hainbeste azukre-kutxa ekoinzteko lortuko zuena. 1836an, lurrun-makina ezarriko zion, eta 1849koan, Londreseko Pontifex and Wood etxearen tenperatura apaleko huts erako trenak.

Bere aitagarreba Gontzalo Alfonsorekin, famili aliantzaz gain, ekonomi arloko ugari hitzartuko du. Oso ezaguna zen Matanzaseko upelgintzako eta azukre-kutxako eskulangintzako Almacenes Aldama y Alfonso izenekoa. Compañía de

Caminos de Hierro de la Habana enpresa, 1842ko urtean sortu zenean, kapital hastapeneko 500 pesoko 1.600 akziotik, Aldamak eta Alfonsok 200na erosiko zuten. 1866an, konpainiako junta zuzendariko lehendakaria Gontzalo izango zen, Domingo hitzarmenlari ordezkoa zelarik.

Familia talde hau, Guines-eko barrutian kokaturik zegoen Armonia azukre-olaren ugazaba ere bazen. 872,95 ha.-ko hedadura zeukan, lurrin-makinaz txikitzen zuen kanabera eta huts erako trenaz garraiatu. Azukre-olatik kilometro batera zegoen Bolondron-eko geltokian pleitatzen zuten azukrea, La Habanako portura bideratuz. 1859-60 biurteko ekoizpena, 191,25 kiloko 11.746 kutxatara eta 607,50 kiloko 309 upeletara iritsiko zen.

Bere seme Migelekin Compañía de Crédito Territorial Cubano nekazari bankua sortuko zuen, 2.100.000 pesoko kapital hastapenez, 1859. urtean. Domingo lehendakaria izango zen, Migel lehendakariordea eta Rafael Maria Mendibe idazkaria. Konpainiaren aktiboa, San Martín, Nueva Echevarria, Santísima Trinidad eta Santa Susana azukre-olek osatzen zuten; dotazioa oster, 1.211 beltz esklaboz, 617 asiar kolonoz eta 1.047 idiz osotuko zelarik. 1862ko uztaketaren ekoizpena 777.000 pesotara iritsiko da eta batatzbesteko urteko uztaldiko kreditua 360.000ra.

Galíndez, Aldama y Cía. enpresa ere edukiko zuen seme Migel eta loba Antonio Galíndez Aldama gerentearekin. Uharteko fruitu salerosketa egiteko; eta oholak, buztinak, egurrikatza, finken maileguketarako behar ziren generoak zein halzariak eta azukreak gordetzen zituzten, biltegiak zeuzkaten, Matanzas hiriko Recurso y Canimar kalean. Enpresaren ondasunak, 7 txalupa, atoe-bapora, 40 esklabo, idiak, gurdiak eta gainerako tresneria ziren. Domingoren ordezkaritza %59koa zen, 210.290 pesotako kapitalaz; Migelena 38%koa 228.290koaz; eta erraztena Antonioren.

Hiri bereko Pueblo Nuevo auzoko San Juan Batista kalean, biltegi bat alokatzeko D. Manuel Bea y Cia., enpresari, hilean 42 peso ordainduz. Ugazaba Demetrio Manuel Bea Maruri, gueñestarra zen, Matanzasen burdindegia alorreko industriari handia izatera iritsi zena. Bea, Bellido y Compañía enpresa ere fundatuko zuen. Espainiako gorteetara diputatua izango da probintzia horretatik. Erre-sumako biziarteko senatorea eta Isabel Katolikaren ordena amerikarrekoko gurutze handia. Baita Bellamar-eko markesautza ere jaso zuena.

Santa Rosaz gain, Santo Domingo, San José eta Concepción azukre-olen ugazaba ere bazen. Guztiok zeuden Matanzaseko barrutian kokaturik. Euron hedadura guztia 3.000 ha.-koa zen; dotazioa, 731 esklabo beltzek, 505 asiar kolonok eta 989 idik osotzen zuten. Tartesio izeneko azukre-ola, esplotakuntzan baino ez zeukan, Crédito Territorial Cubano konpainiari alokairuan harturik; baita La Rosa, Santa Susana eta El Cangrejo moxaltokiak ere. Azken hauek orotara, 1.612 ha.-ko hedura zeukaten; 54 esklaboz eta 15 asiar kontratuz, baratzadiak lantzeko, abereak hazteko, kaobadiak zaintzeko, eta teileriarako erabiltzen zituelarik. Eta Zapata izeneko etxaldeko 402,60 ha.-ko lurrak.

Garai hartako kapitain nagusiak, instituzio eta gizabanako aproposi, beltz sarrerari buruzko iritziak eskatuko zizkien. Domingo Aldamari eta suhi Jose Luis Alfonsori, Kubako azukre klan garrantzitsuenaren jabeak zirelako, berdin luzatuko zien eskabidea. Hauek, exiliaturik zegoen Jose Antonio Saco jakintsu zaharrarengana joko zuten, bere iritziak idazteko eskatzera.

Horrela sortuko dira *Informe sobre el proyecto de inmigración de colonos africanos en Cuba, presentado en 30 de junio de 1861 por el Sr. Domingo de Aldama al Excmo. Sr. Gobernador y Capitan General de esta Isla D. Francisco Serrano* txostena eta Jose Antonio Sacoren *Introducción de colonos africanos en Cuba: sus inconvenientes* artikulua.

La Habanako udalkideek gehi probintziako hemezortzi aberatsenek gorteetako lau prokuradore hautatu behar zituztenez, Sustapeneko Juntak 1836ko irailaren 14ko batzarrean zerrenda bat prestatuko du. Domingo Aldama hamalauagarren aberatsena izendatuko dute.

Banco Español de La Habanako sorkuntzako akzioduna izango da 1855. urtean, eta urte bi beranduagoko ekonomi-krisialdiari aurre egiteko, bankuaren interbentzioaz gobernuak zabalduko 6.000.000 pesoren jesapenari, 58 kapitalista artean, Domingok 100.000-z erantzungo zion.

1859-60 biurtekoan, Santa Rosa, Santo Domingo, San José eta Concepción azukre-olen ekoizpena, 39.864 kutxatara eta 1.376 upeletara hobetuko zuen. Hau da, 88 tonako uztaketara gutxi-gora-behera, eta 1.000.000 pesotako baliora. 1869ko urriaren 6ko datara, Fesser y Cía. enpresarekin zeukan negozio bolumenaren zenbatekoa, 3.292 kutxei zegokien 142.000 pesotara iristen zen.

Azken urte honetan, Banco San José 2.152 pesotako depositua eta 35 akzio zeuzkan; Compañía de Vapores de la Habanako enpresan 7.000 ps. akziotan; Compañía de Seguros Marítimos aseguru-etxean 3.000 ps. akziotan; Sociedad General del Crédito Territorial Cubanoko lehendakaria zela, 142.960 ps. akzio eta kupoitan; Galíndez, Aldama y Cia. enpresako ordezkartzan 210.413 pesoko kapitala; Empresa de Almacenes de Depósitos por Hacendados biltegi 17 akzio; eta Ferrocarriles de Matanzas trenbidetako 164 akzio.

Data bereko hartzekodunen kartera, honakoa zuen: Empresa de Vapores de la Bahía de la Habanak 1.671 ps. akzionisten arteko jesapenagatik; Julio Ibarak 1.806 ps. azukreakgatik; Blas de Bouchel-ek 30.500 ps., Destino azukre-olari atxikituriko finkaren salmentagatik; eta Almacenes de Depósitos por Hacendados biltegiak, berari eginiko 2.000 pesotako jesapenagatik.

Zordunak berriz, honako hauek zituen: Compañía de Vapores de la Bahía de la Habanari 11.885 ps.; Sociedad General del Crédito Territorial Cubanori 566.160 ps. kreditutan; Galíndez, Aldama y Cia.-ri 64.812 ps. bere azukre-olaren maileguketa egiteagatik; Compañía de Caminos de Hierro de la Habanari 3.048 ps. azukre pleitagatik; eta Felix Biaggi suitzarrari 4.759 ps., Aldama jauregian eta azukre-oletako etxeetan eginiko tapizgintza eta margolanengatik. Orotara, 612.687 pesotako kontrako saldoa.

Baita Aldama jauregiaren eraikuntza aginduko zuen ere. XIX. mendearen lehen erdialdeko, La Habanako hiri etxalderik garrantzitsu eta luxukoena bilakatu da. Harresiz landa eraikiko du, San Luis Gonzaga galtzadako 1. zka.-n, zelai militarren aurrean, gaur egun Parque de la Fraternidad izenez ezagutzen den lekuan. Jose Carrera injineroak proiektatuko zuen, bere baitan etxebizitza bi bilduko zuen eraikina. Nagusia Domingo Aldamaren bizilekua zen, Reina-ko galtzadaz kantalegituen zuen. Bestea, Estrella kalerako kantala, alaba Rosa eta suhi Domingo Delmonte-ren etxea izango zena.

Testamentua Matanzasen egin zuen, Portocarrero-ren eskribautzan 1875eko abuztuaren 14an. Ondoko ondarea lagako zuen.

Ondasunak: La Habana hiriburuko San Luis Gonzaga galtzadako 1 zka.-ko etxea, 375.176 ps.; Amistad kaleko, 142 zka.-ko etxea, 26.854 ps.; Agiar kaleko, 134 zka.-ko etxea, 26.853 ps.; Guanabakoa udalerriko Errege kaleko 25 zka.-ko etxea, 31.758 ps.; Vista Hermosa kaleko, 31 zka.-ko etxea, orubea eta eraikinak, 10.549 ps.; Matanzas hiriko Gelabert kaleko 43 zka.-ko etxea, 21.134 ps.; San Juan Batista kaleko, 25 zka.-ko biltegiak, zehaztu gabeko balioa; Santa Rita kaleko, 99 zka.-ko orubea, 479 ps.; Matanzas barrutiko Santo Domingo azukre-ola, 512.537 ps.; San Jose azukre-ola, 560.262 ps.; Santa Rosa azukre-ola, 752.207 ps.; eta, Concepción azukre-ola, 624.918 ps.

Gainerakoak: Matanzaseko barrutian ere, Cangrejo eta La Rosa moxaltokiak; Santa Susana azukre-ola errautsia; eta Zapata etxaldeko lurrak. Beraz, azaltzen denetik Domingo Aldamaren heriotza ondoan geratu izaniko ondasunen balioa, 3.284.415 pesotara iritsi zen.

Urteak beranduago, 1888ko azaroaren 22ko dataz hain zuzen, bere suhi Jose Luis Alfonso, Montelo-ko markesak, Domingori zetxezkion enpresen eta sozietateen kupoi eta egiaztarien zerrenda eta balioak jaso zituen. Horra zehatz-mehatz: Compañía de Caminos de Hierro de la Habana, 81.500 ps. akziotan eta 150 pesotako kupoia; Compañía del Crédito Territorial Cubano, 48.000 ps. akziotan; Compañía de Depósitos, Prestámos y Descuentos San José, 5.000 ps. akziotan; Compañía de Vapores de la Bahía de la Habana, 1.500 ps. akziotan; Compañía de Seguros Marítimos de la Habana, 2.500 ps. akziotan; Compañía Caminos de Hierro de Matanzas, 19.500 ps. akziotan; Compañía Almacenes de Depósitos por Hacendados, 10.000 ps. akziotan eta 500 egiaztapenetan..

Bere oinordekotza ere zeharo aipagarria izan zen, euron ekonomi eta aberri aitzindaritzagatik batik bat. Seme Migel Aldama aipatzea besterik ez dugu horren frogagarri. XIX. mendeko finantzari aparta izatera iritsi zen, noblezia titulurik gabeko klase kapitalisten sorkuntza eta garapenaren abiapuntu. Haziendako kontseilaria ere izan zen aldi batean. Migel Aldamak gainera, Espainiaren asmo separatistak zituen. New York-eko hirira aldatuko zen 1869an, Kubako Errepublika Armetan erakundeko agentea izateko. La Habanako kale batek, honen izena daroa.

Bere bake plana matxinatuek ukatu eta indar boluntarioek izugarritzko presioa egiten ziotelako, Domingo Dulce gobernari eta kapitain nagusiak, urte horretako

maiatzetik harrezkero, opositoreen ondasunen enbargoa aginduko zuen. Horren arabera, uhartetik ihesi zuten milakaren eta matxinadan parte harturiko ondasun-dunen guztien artean, Domingo Aldama eta seme Migelen ondasunak ere enbargatuko zituen. Azkenean, Aldamatarren oinordekotza enkantera saldu zen.

### Iturriak eta obra

B.E.H. A. Bataioak: 10. lib. 411. or. Erreferentzi-Kodea: ES/AHEB-BEHA/F006.204 (2227/001-01)

K.A.N. Portocarrero-ren Eskribautza: 11/1 leg. zka. Enbargaturiko Ondasunak: 205/9 leg. zka. Sustapen Junta: 86/3560 leg. zka.

*Memorandum que D. Domingo Aldama, vecino y del comercio de la Habana, presenta a los Sres. Ministros del Tribunal Supremo de Justicia que han de ver, y fallar en su caso, el recurso de injusticia notoria interpuesto por la casa de comercio de la Habana Rebuelta Demestre y C<sup>o</sup>.- Madrid: Impr. Sancha, 1842.*

### 4.3. ALKIZA GANBOA, Santxo

Hondarribian (Gipuzkoa) jaio zen 1567ko martxoaren 31an. La Habanan hilko da, 1619ko ekainaren 6an.

Aita, Santxo Alkiza kapitaina eta Maria Ganboa izan zituen. Aitabitxiak ostera, Santxo Ganboa eta Katalina Alkiza. Andra Mari Jasokundeko parrokian bataiatu zuten.

Santxo Alkiza Ganboa kapitainak, eskaini zuen itsas eta militar zerbitzuei esker, Venezuela eta Guyana probintziako gobernua eta kapitania orokorra jasoko ditu 1608. urtean. Urte batzutara, jasandako gestio-epaiketaz libre atera zelako Kubako gobernua eskatuko du 1615eko maiatzaren 25ean. Hango belarontzietan itsasoratuko da, Gaspar Ruiz de Pereda uharteko kapitain nagusia, eta Santiago ordenako zalduna, 1616ko irailaren 7rako ondozkatzera.

Aurreko martxoaren 22an izendatu zuen erregek uharteko gobernaria izateko. Alkizak, Kubara bidean, Puerto Ricon behar baino gehiago iraun zuelako, Ruiz de Pereda gobernariak kexua goratu zuen idatziriko memorialean. Haren atzerapena zela medio, urtebete egon behar izan zuela La Habanan adieraziko du, ezelako ordainik jaso gabe.

Santxo Alkizak, Rui Gomez de Prado letratuordea nahiko du berarekin eroan, baina Ruiz de Peredaren ahalduak oso gogor oztopatuko du asmoa gortean. Hura Kuban sortua zelako, aurreko gobernariaren epaiketa egitean ezin zuela sekula ezpartziala izan, aitortu zuelarik.

La Habanako udalak goratasun izugarri hartuko du gobernurako, urteko irailaren 7ko batzarrean, Alkiza belarontzietako kapitaina. Honek, erregek sinaturiko zedula eta titulua aurkeztuko ditu batzarrean. Edukiak, gainera ahots betez irakurriko dira udalkideen aurrean.

Izendapena entzun eta ulertu ondoren, ohiturak agindu legez udalkide guztiek mun eman zioten eskuan Santxo Alkiza gobernari berriari. Gaspar Ruiz de Pereda mandatari ohiak La Habana hiriko aginteko eta Kubako uharteko kapitania nagusiko makila entregatu zion.

Alkiza gobernariak Ruiz de Peredaren kontrako auzia hasiko du. Baina, hura epaitzeaz aparte ez zionez epaiketaren kopiarik emango, gobernari ohiak irainei azkena ematea eskatu zuen Espainiara, baita auziaren espedientea ahalik arinen bidaltzea ere, Alkizari agintzea. Konfiskaturiko ondasunak berrizultzea eskatuko du halaber, zilarrezko ontziteria barne. Fiskalak eskari hauen alde erabakiko duenez, Santxo Alkizak 1617ko abenduaren 13ko kartaz, erregeri barkazioak eskatuko dizkio, aipatu auziari zegozkion agiriak ez bidaltzeagatik. Gainera, espedienteak hamar mila eskuizkribuko folioko edukiera zeukala jakinarazi zion.

Santiago de Kubako Prado-ko kobre-meatzetako ardurua berezia jasoko du kapitania nagusiko eskuduntzen barruan. Azken kontratua goititzean, Juan Egiluz kontulariarekin berriztatuko da, Santxo Alkizak gobernua hartu eta gutxira. Prado meatzetako kobreak hoberenak izanik, La Habanako urgintzara edo Espainiakoe-tara zuzenean, urtero 2.000 kintal mea garraiatzeko konpromezua hartuko du kapitaniak orduan. Baina, meak bialtzeko itsasontzi gabeziagatik batzuetan, kosten ezsegurtasunagatik bestetan, meagintzarako eskulan ezagatik askotan, tresneria txarragatik beti, eta esplotakuntza zuzentzen zuten meatzarien ezjakintasunagatik, laister hautsiko da hitzarmen berria. Ondorioz, kargu honetatik inhibitu egingo dute, eta gobernu politikoari erantsiko.

Bere fundazio garaitik harrezkero, hiriburuko ur eskasia beti izan zen unean uneko buruhaustea gobernari eta udalkideentzat. Kargua hartu bezain bizkor, azaroaren 11ko udal bilkuran hain zuzen ere, Alkiza gobernariak zera proposatuko du. Chorrera-ko ibaitik hirira ura hornitzeko ubidea oso lohi datorrelako, milaka ibilbide eta isurbidetatik ihes egiten ziola urak. Baita beharrezko konponketak egin behar zaizkiola ere galipot nahikoaz ubideko presari.

Errejidoreek eta hiriko obra-maisuak, ubidearen eta ibaiaren ikustaldia egin dezatela onartuko du udalak. Garcia de Cordoba maisua eta Pedro Alvarez Oñate prokuradorea izendatuko dira, uraren zainketa egiteko eta aipatu presa zein ubidearen konponketa lanen zerrenda aurkezteko, udaleko hurrengo lehen batzarrerako.

Batza honetan, Santxo Alkizak, Rui Gomez de Prado jeneralorde eta hiriburuko gobernari izendatu zuen. Baina, metropolian debeku handiak erabakitzen ziren koloniako gobernu erakundeetan krioiloek parte ez hartzeko, nahiz estatuko erakunde-eremura mugatu neurriok gehien bat. Horregatik, Frantzisko Venegas ondoko gobernariak, bere kontrako karguak formulatu zituen, Gomez de Prado bere ordeko izendatzeagatik, La Habanako bizilaguna izan eta bertan ezkondua egonik, debekaturik zegoelako. Izendapena, handik gutxira baliogabe geldituko da. Debekuon asmoa nepotismoa eta lagunkeria ekiditeko bazen ere, ez da ahaztu behar horri abaguneko krioiloen ahulezia intelektualaren teoria biltzen zitzaiola.



Beltz zimarro horrean oso eztabaidagarria suertatuko da, 1617ko azaroaren 3ko udaleko batzarra. Pedro Alvarez de Oñate kapitainak, hiriko eremuetan, landetxeetan eta abeltokietan, beltz zimarro ugari dela jakinaraziko du. Bidelapurretan zein ganaduak osten eta gainerako beltzak euren ekintzetara erakartzen ibili dabilzala. Erantzun arina eta zigorra eskatuko die gobernariari eta errejimentuari.

Prokuradore orokorrak eskaturikoa egiteko, Diego de Soto errejidore eta ermandade santuko alkateari hiriko landetxeak ikustatzea aginduko dio, beltz-erasotzaileek eta nazio guztietako beltzen laguntzarekin. Landetxeetara egin ikustaldian, errudunak zigortzeko agindua ere jasoko du Diego de Sotok.

Morro gazteluko fabrika obretatik ofizial eta beltz jornalari guztiak kalera botako zituen, euren lana ordaintzeko fondo nahikorik ez zegoelako, abenduaren 15eko agiriaz jakinaraziko zuenez. Bakarrik esklaboak eta bortxatuak geratuko zirela aitortu zuen; hargintzako ofizialak batzuk, arotzak eta errementariak besteak, zeintzuk maisu nagusiaren eta sobrestante biren agindupean baitzeuden. Data bereko beste agiri batez, libra bat edo biko 2.000 bala eskatuko zituen, itsaslapurrak oldartzeko armatzen ziren ontzietarako. Itsaslapurrok, Canal Vieja deituriko lekua aspaldidanik erasotzen zutenenez, kalte handiak egiten zizkieten Kanariar Uhartetatik iristen ziren ontziei.

Soldatak 200.000 maraira igo izan arren, oraindik urriak ziren. Horregatik, Alkiza gobernariak ofizialen eskariari laguntza eskainiko zion, baina soldatak ez ziren igongo. Modu guztietara, soldaduei, erregeren esklaboei eta ospitalerako harturiko bortxatuei eguneko 2 erreale ordaintzea erabakiko zuen. Gerora, botikak eta lurren garestitzea zela medio, soldatak 3 errealerara gehituko dira, 1629. urte-tik aurrera.

Errejidoreei alkatezatarako botoak eskatzeagatik izan zen akusatua Santxo Alkiza, 1619an. Areago larrituko zen bere gestioa, Diego de Soto, Nikolas Carreño, Antonio de Gebara eta Garcia de Cordoba errejidoreen botoan eragiteko, emazte Ana de Salas mezulari erabali zuelako. Bere asmoa ez zuenean lortu, errejidore dudatiak ezarmatu egingo zituen; gertakizun honek epaitu izatera behartu zuelarik.

Alkiza kapitainak uharteko gobernu hartu zuen sasoiaren, edonon ziren atzeritarak. Eurretari ospetsuarena Jose Furtado portugaldarra izan omen zen. Ontzi askotako maistruekin zituen harreman bereziak bitarte, hainbat kontrabando egiteko aukera izango zuen. Furtado honek, oso kidesun hurbila edukitzea lortu zuen Alkizarekin aldi luze batean.

Era berean, Alkizak La Habanako sartaldean dagoenik lurralderik ederrenetarikoa bati bere izena jarriko zion. Tabako-azienda bat sortuaz batera, orri honen hazleak ere sustatuko zituen. Alquizar izeneko herri honek, 1928. urtean 13.053 bizilagun zeukan.

Santxo Alkiza hil zenean 1619ko ekainaren 10eko udaleko batzarrak erregeari jakinaraztea erabakiko du. Abisua portuan prestuen zegoen ontziaz, Gaztelako

erresumetara despatxatzea erabaki zuen. Hil eguneko biharamunean, fraide agustinar jantzirik hilobiratuko dute San Frantziskoko komentuan, maiatzaren 23an hark sinatu zuen testamentuaren arabera.

1619ko irailaren 13an, Indietako Kontseiluak Alkiza ondozkatzeko, Frantzisko Venegas jenerala aurkeztu zion erregeri; aurrekoan ere, Ruiz de Peredaren ordezkotzat proposatu ziona, hain zuzen. Baina, erregek, 1619ko urriaren 19an luzaturiko zedulaz, Diego Vallejo gobernariordea izendatuko du Santxo Alkizaren ondozkatzaile.

### **Iturriak**

D.G.H.A. Bataioak: 1. lib. 14a or.

L.H.A.H. Udal Agiriak: 7. lib. 21-24, 37a-38,48-49, 50a orr.; 16. lib. 456-457a orr.

### **4.4. APEZTEGIA APEZETXEA, Martin Felipe**

Arantzan (Nafarroa) jaio bide zen. Familia honen fundatzailea izango da Kuban, XIX. mendearen lehen aldian hantxe kokatuko zelarik.

Aitaren aldetiko aitonak, Pedro Frantzisko Apeztegia eta Maria Magdalena Larrain izango zituen; amaren aldetikoak berriz, Jose Joakin Apezetxea eta Maria Frantziska Txoperena. Aita, Martin Jose Apeztegia Larrain izan zuen eta ama, Maria Josefa Apezetxea Txoperena. Gurasoek, Jose Frantzisko (1799.09.14), Jose Faustino, Jose Guillermo (1805.02.11) eta Martin Felipe semeak edukiko zituzten.

Martin Felipe Apeztegia, 1835ean ezkonduko da bigarrenez, Kubako Trinidad-eko parrokian, Josefa Mariana Tarafa Mechin anderearekin. Bere emaztea, La Habanako katedralean bataiatu zuten 1808ko urtarrilaren 31an; Jose Tarafa Buseras eta Victoria Agata Mechin senar-emazteen alaba zelarik. Euron seme-alabak Adela Zezilia, Ines Josefa eta Julio izango ziren.

Anaia Jose Faustino Apeztegia, La Habanako Izpiritu Santuko parrokian ezkondu zen 1825eko ekainaren 6an; eta Jose Guillermo Trinitadekoan, 1835. urtean. Jose Frantzisko abade sartu zen.

Trinitadeko hirian, 1831ko maiatzaren 19an, Apezteguia, Arrechea y Cia. azukre arloko merkataritza etxea sortuko zuen, Simon eta Antonio Arretxea, eta anaia Gillermorekin batera, laurok nafarrak zirelarik. 1830. hamarkadan sukurtsala zabaldu zuten Cienfuegos-eko hirian. 1849. urteko ekainaren 15era, elkar-tearen kapital sozialaren bolumena 146.330 pesotara iristen zen, eta Martin Feliperen partea guztiaren %63,30rena.

Elkartea, Constancia deituriko azukre-olaren ugazaba zen Cienfugoseko barrutian. Santa Luciako etxaldean zegoen kokaturik, eta 920 ha.-ko hedadura zeukan. Baina, hauetarik 698, etxaldeko Real Proclamacion-eko markesaren

maiorazkoarenak ziren; 26.000 peso aintzat hartu beharko zutelarik, urtero %10ren kanona ordainduz. Azukre-olaren dotazioa, 205 esklabok, abereek, makinek eta baratz lanabesek osotzen zuten, 110.000 pesotan zegoela tasaturik.

Trinidadeko hiriko Jesus Maria kaleko 11 zka., Gutierrez kaleko 41 zka. eta Cienfuegoseko Declouet kaleko 70 zka. etxeetako ugazabak ziren bazkideok, 24.300 pesotako balioa zutela. Amalia deituriko enbarkazioa ere bazeukaten, 2.300 pesotan; dirua gordetzen zuten burdinazko kaxa, 200 pesotan; kutxako 15.434 pesotako mozkina; eta 104.745 peso elkartearen ondasunen aldeko kreditutan.

Apezteguia, Arrechea y Cia. merkataritza etxea, 1844ko ekainaren 26an desegin egingo da. Martin Felipek, ordurako Cienfuegoseko hirian bizi zela, eta osasun egoera txarrean egon zegoelarik, Tomas Terry ondasundun ospetsuari salduko zion bere parte 85.056 pesotan. Hala ere, 1859-60 biurteko estatistika baten arabera, Constancia azukre-ola Apeztegiaren alarguntsaren izenean agertuko zen, 4.277 upeletako uztaketa ekoiztuz.

## Iturriak

C.A.H.P. Nietoren Protokoloak. 1849. tomo, 92-95a orr.

### 4.5. ARANGO MONRROY, Pedro

Baionan (Lapurdi) jaio zen 1647an. La Habanan hilko zen, 1695eko apirilaren 21ean.

Familia honen abizena, Asturiaseko antzinakoa eta nobleziakoa da. Gracia kontzejuan dauka bere leinu-etxea; jatorria Cuervo izeneko leinukoarena delarik. XVII. mendearen hastapenetan Puerto de Cudillero-n zegoen kokaturik. Handik Nafarroara pasatuko dira, eta mende horren azkenerantz La Habanara.

Aita Juan Domingo Arango Rodriguez lotinantordea izan zena, Cudilleroko Santa Maria de Piñera parrokian bataiatu zuten, 1615eko martxoaren 4an. Zangozako hirira joan zen bizitzera, eta Isabel Monrroy anderearekin ezkonduko da. Pedro Arango Monrroy seme bakarra eduki zuten. Jose Antonio Peguioiz-en aurrean testamentua egin zuen, 1684ko urriaren 6an.

Pedro Arango, Flandes-eko Tertzioetako kapitaina eta ontzijabea izanik, 1673. urtean La Habanan kokatuko den familia honetako lehendabizikoa izango da. Fernando de Cordoba gobernariak, milizietako konpainia habanar bateko kapitaina izendatu zuen. Enpresa-gizon argia zelako, laster 6.000 pesotako harategi bi, 500 pesotako baratzadia eta tabakoa txikitzeko errotarri bi erosi zituen. Gainera, aita Balerio Martinez fraide agustinarraren bitartez, gobernariaren aurrea joko du ostera, Agustin Valdes Kubako kontu kontuzainak saldu zion ofizioan iharduteko grazia eskatzera. Agintariak onartu egingo dio eskaera.

Hiriko katedralean ezkonduko da 1682ko martxoaren 20an, Josefa Loza Ramirez Apariciorekin. Hau Frantzisko Loza Romero kapitainaren eta Frantziska Ramirez Aparicio Mesa anderearen alaba zen. Teresa, Maria Ambrosia, Dionisia, Isabel, Juan, Pedro, Frantzisko, Migel Modesto eta Jose izeneko bederatzi seme-alaba edukiko zituzten. Testamentu egiteko ahalmena Juan Argote-ren aurrean eman zion emazteari, 1695eko apirilaren 20an. Ezkontzaz kanpo, Mateo Arango sasiko semea edukiko zuen Juana Barrios anderearekin. Lotinanta izatera iritsiko da, eta La Habanan hil zen 1727ko azaroaren 14an.

Arango kapitain eta kontuzainari atxikitzen zaio tabako txikiketaren industria sartzea uhartean, merkatari frantsesekin batera; hauxe zen behintzat txostengile izengabedun batek 1688ko maiatzaren 22ko dataz salatzen zuena. Honek, Pedro ere frantsestzat jotzen zuen, auzi eskandalugarri bat behartuz. Salatariaren arabera, hark tabakoa etengabe txikitzen ari zen errotarri bi zeukan, beste frantses baten laguntzarekin. Salaketaz aurretik, Arangok, 1684ko dataz jakinarazi zion erregeri Frantziako mugaldeko Baionan jaio zela 1647.urtean, aita espainiarra izanik han suspertzen egon zelako, Hondarribiako borrokalekuan erregeren alde zauritu egin ostean. Ondorioz, bere espainiartasuna aintzat hartzea eskatzen zion.

Salakuntzan, Gaspar Monte de Oca-ri, Arangorekiko naziotasunaz Kanariar Uhartetan agiri faltsuak lortzea leporatuko zaio. Hura, Kubatik ihes eginik zegoen Jamaikatik esklaboak mugaustearren Arangorekin batera. Orduan, Indietako Kontseiluaren lehendabiziko harrera ona erabat aldatu zen. Fiskalak, epaitegi gorenetan aurkezturiko agiriak, bide zakar eta debekatuez eskuratu izatea iritziko du, eta erregeren graziarik ez merezitzea erabakiko batera. Aldi berean, atzerritar kaltegarri eta lotsagabeko aitortuko du. Ondoren, ofizio guztiak gabetu, ondasunak konfiskatu eta Indietako erresumetatik kanporatzea aginduko du fiskalak.

Erabaki horrek aurrera egin orduko, Arango kapitainak memorial berri bat eta bere jatorria probatuko duen dokumentazioa igorriko du. Aita, Juan Domingo Arango lotinantordea eta ama Isabel Monrroy Espantoso, Madrileko bizilagunak zituela, eta aitona Agustin Arango zuela; hirurak, Astuariatara Gracia kontzejukoak zirelarik. Halaber, Montes de Oca eta Leonardo Lara lagunek bere baimenik gabe Kanariar Uhartetan prestatu zuten informazioa gaitzetsi egingo du. Gainera, erregeren alde eta zerbitzuan, itsaslapurren kontra Kuban berak armatu izandako enbarkazioak gehigarri gisa aipatuko zituen

Naturalizazio mesedea eskatuko zuen, 1676 eta 1680 urteak bitartean, Juan Leon, Diego Garzon, David Conigan frantsesa, Juan Morta irlandarra, Jose de la Kruz ingelesa, eta Frantzisko Fernandez Barreras, Antonio Almeida eta Manuel Fialo portugaldarrei eskaini zitzaizen antzera. Hauek 200, 150 eta 100 peso ordaindu zuten, hark graziagatik 400 agindu zuen.

Indietako Ganbarak, 1689ko maiatzaren 20 dataz, 6.000 pesotako fidantza ipini ostean, bere aurrean aurkeztea agindu zion. Betetzen zuen ofizioagatik eta metatu zuen kapitalak, zenbateko nagusiren indultua justifikatzen zuela iritziko zaio ganbarari. 4.000 ezkutu gehi erdi anatako 400ekoa ordaintzea erabaki

zuen; haren kontra zegoen akusazio ezberdinetako indultua, bereziki Frantziako Baionan jaio izanarena zelako.

Zaharra izan eta gaitzez jota zegoelako, 1691ean Kubako Erret Haziendako kontuzain nagusiko bere kargua eskualdatzeko baimena eskatuko zuen. Berari egoki irizten zitzaion pertsonari pasatzeko baimena jasoko zuen, baina 500 dobloiko zerbitzua ordaindu ondoren. Badirudi Diego Tome Ayalari eskualdatu ziola kargua, zein 1695ean hilko baitzen.

1697ko urtean, beste eskandalu handi batean azalduko da nahasturik. Nikolas Porcio baratzainak eginiko salaketaren ostean, 1682an hasiriko kausa zen. Honek, Batabano-ko lekura, Arangoren bazkide zen Gaspar Montes de Oca Jamaikatik zekarren esklabo-ontzi baten iritsiera salatuko zuen. Indietako Kontseiluak errudun joko zuen Arango, eta 4.000 pesotako izuna ordaintzera kondenatuko du. Baina, ezin izango zion sekula kobratu, delitua 1689an ordaindu zuen indultu orokorrean sartzen zelako.

Nahiz Pedro Arango izan, familia ospetsu honen fundatzailea Kubako herrialdean, berriloba Frantzisko Arango Parreño izango da erabateko izen handia emango ziona deiturari. Honen meritu guztiei esker, Gratitud-eko markesaren titulua jasoko du 1833. urtean.

#### **4.6. ARETXABALA ALDAMA, Jose Teodoro**

Gordexolan (Bizkaia) jaio zen 1847ko azaroaren 8an. Kardenas-en (Kuba) hilko da 1923ko martxoaren 15ean.

Jose Aretxabala eta Juana Aldama izango zituen bere senideak, eta Zubiete auzunean biziko ziren Jose semea munduratu zuteneko. Aitaren aldetiko aitonak, Bernardo Aretxabala eta Maria Lartundo zituen; Antonio Aldama eta Maria Gastaka amarenekoak. San Juan Molinarreko parrokian bataiatu zuten, San Juan Batailatzaile Lepamoztuko elizan, aitabitxiak Frantzisko Zubiete eta Frantziska Aldama zirela.

Jose Aretxabala Aldama, Bilboko portuan ontziratu zen Hermosa Trasmiera fragatan, 1862ko abuztuaren 29an. La Habanakoan lehorreratuko da irailaren 21erako, 15 urte zituela. Matanzasera pasatuko da berehala, Antonio Galíndez Aldama senide eta Domingo Aldama Aretxagaren loba eta bazkidearen, Galíndez, Aldama y Cia. enpresa garrantzitsuan enplegatu legez lan egitera. Gutxira, Gueñeseko (Bizkaia) Demetrio Manuel Bea Maruri Bea y Cía. etxean hasiko da lanean, hirian bertan. Enpresa hau burdindegí, banketxe eta ontzi-kontsignatzailea zen.

1873an, Julian Zulueta Amondo arabar ondasundun aberatsak, bere ahalorde izendatuko du. Orduan, Kardenaseko hirira aldatuko da, ugazaba berriaren negozioen kokalekura. Hurrengo urtean, Karmen Hurtado de Mendoza Gartzia anderearekin ezkonduko da, elizkizuna urtarrilaren 26an ospatuko delarik. Bost

seme-alaba haziko zituzten. Jose Nikolas (1875.09.10), Juana Mercedes (1877.09.5), Karmen Agustina (1879.07.17), Jose Antonio Bizente (1881.06.13) eta Mercedes Nikolasa (1883.03.5). Emaztea, Gordexolan hil zen 1919ko azaroaren 26an.

1878tik gerora, bere kontura ekingo dio Jose Aretxabalak, alkocholetan eta azukre gordinaren birfindegigintzan. La Vizcaya izeneko enpresa sortuko du, eta bere produktuak Gernikako Arbolaren ikurraz eta markaz komertzializatuko ditu. Enpresaren fundazioko destilagailua, Kubako zaharrena eta handiena da. Lehen-go hamarkadan, uharteko ipar kosta guztia hondatuko du hurakan bortitz batek, Kardenaseko eremuan. Hargatik, 50.000 pesotara goititzen ziren kalte guztiei eutsiko die gordexolar enpresariak.

Emazte Karmen Hurtado de Mendoza hiltzean, seme Jose Nikolasek Kardenaseko Lehen Instantziako Epaitegian idatzia (1920.08.20) aurkeztu zuen, bere amaren heriotza *ab intestato* aitortzeko. Epaitegiaren baiezko erantzunaren arabera, eta eginiko inbentario zein balantzeen ondorioz, honela zehaztu ziren Jose Aretxabala Aldama eta emazte defuntuaren ondasunak:

- Dirutan: 193.576 ps.
- Balio publikotan: Cuhan Silica Brick Glass Corporatium, S.A.-ren 100 akzioko 1.000 ps.; Central Aranjó, S.A.-ren 65 akzioko 65.000 ps.; Glis Kola, S.A.-ren 400 akzioko 5.000 ps.; La Paz Gaseosas, S.A.-ren 20 akzioko 10.000 ps.; Compañía Comercial de Fomento Cubano, S.A.-ren 220 akzioko 220 ps.; Havana Hotel Corporatium de New York, S.A.-ren 30 akzioko 3.000 ps.; Cárdenas, Sabanilla Petroleum, S.A.-ren 5.000 akzioko 50 ps.; Compañía Minera Yumurí, S.A.-ren 6.000 akzioko 600 ps.; Matanzas, Oil Company, S.A.-ren 200 akzioko 10 ps.; Compañía Central de Electricidad y Fracción de Ciego de Avila, S.A.-ren 10 bonuko 5.000 ps.; Tranvía Eléctrico de Ciego de Avila, S.A.-ren 25 bonuko 10.000 ps.; Compañía Manufacturera Nacional, S.A.-ren 150 akzioko 25.000 ps.; Cienfuegos, Palmira and Cruces Electric Rail Wayand Paver Company, S.A.-ren 250 bonu eta 250 akzioko 20.000 ps.; Compañía Industrial Sombrerera, S.A.-ren 1.000 akzioko 10.000 ps.; Compañía Minera Las Mercedes, S.A.-ren 100 obligazioko 10.000 ps.; Tranvía Eléctrico de Cárdenas, S.A.-ren 1.125 bonuko 5.625 ps.; Compañía Aseguradora de Accidentes de Trabajo Cárdenas, S.A.-ren 29.250 ps.
- Ondasun higigarriak eta azienda: ezkontetxeko altzariak, 5.000 ps.; Brocway markako ibilgailu kamioia, 2.000 ps.
- Gai higigarria: burdinazko 1.350 pipako 22.000 ps.; haritzeko 300 pipako 1.800 ps.; eztitako 21 gurdi-tanke handiko 24.124 ps.
- Lanabesa eta gainerako tresneria, laborategi osoa, 2.500 ps.
- Birfindegiko egonak: azukrea ontziratzeko 5 libra edukiko oihalezko 395.000 zakuto; 25 librako sail bereko 71.000 zakuto; azukretarako 9.000 upeletako 32.250 ps.; azukre zakuatarako paperezko 111.000

forrutako 13.200 ps.; 180 tona ikatzeko 50.400 ps.; 10.000.000 libra azukre birfinduko 1.000.000 ps.

- Destilategiko egonak: 1.000 upa armatuko 26.000 ps.; ezitiko 293 pipa erdiko 3.122 ps.; 560.000 galoi ezitiko 22.400 ps.; erregaiko 120.000 galoi petrolio arrunteko 4.800 ps.; 583.000 litro alkoholeko 75.790 ps.; 22.000 litro roneko 2.200 ps.; 8.000 litro pattarreko 640 ps.; 68.500 litro alkohol La Habanako hirian 10.275 ps.
- Kreditu eta eskubideak: La Habana hiriko R.Gonzalez kare uztiaketa eta harri salmenta enpresako komanditario gisako 25.000 ps.; Amerikako Estatu Batuetako koinatuari eginiko kreditu hipotekaduna, gehi erreklamazioarako lagatakoaren 50.000 ps.; Benantzio Mendez Garcia apaizari eginiko kreditu hipotekaduneko 4.500 ps.; La Habana hiriko erakunde eta pertsona ugari salduriko alkohol eta pattarrak sorturiko kreditutako 19.318 ps.; salduriko alkohol eta pattarrak ekoizturiko kreditutako 13.672 ps.; seme Jose Nikolasi eginiko kredituko 100.000 ps.; Faustino Zaballari eginiko kreditu bateko 12.000 ps.; Jose Inazio Lezamaren Central Simones enpresari eginiko 12.240 ps.; Martzelino Flores-i eginiko 1.500 ps.; Mackay, Wilson y Compañiari eginiko 11.524 ps.; seme Jose Antoniori eginiko 25.500 ps.; Laurentino Garciaren Central Progreso enpresari eginiko 40.566 ps.; alaba Juanari eginiko 17.093 ps.; beste alaba Mercedesi eginiko 20.000 ps.; Juan Mendezen Central Triunfo-ri eginiko 20.000 ps.; beste kreditu biko 80.457 ps.; eta Compañía Comercial y Fomento de Cubari eginiko kredituko 30.000 ps.
- Enbarkazioak: Rosita, Maria del Karmen, Juana eta Mercedes goletak, Niña, Gordejuela, Pilar eta Zubiete deituriko lantxak, 46.000 ps.
- Ondasun higiezinak: Antigua Calle Real-eko, goiko eta beheko solairuko 3.451 m<sup>2</sup>-ko etxea, eta kale bereko 3.461 m<sup>2</sup>-ko lur saila, 30.000 ps.; Antigua Calle Realeko, 6.902 m<sup>2</sup>-ko orubea, 10.000 ps.; Antigua Calle Realean, 3.451 m<sup>2</sup>-ko lur saila, 10.000 ps.; Kardenas udalerriko Varadero lekuan, oholezko eta teilazko 863 m<sup>2</sup>-ko etxea, 3.500 ps.; Séptima Avenida-n, 4.315 m<sup>2</sup>-ko orubea, 4.000 ps.; Gordexolako Molinar auzuneko Villa Carmen etxea, 35.000 ps.; Once eta Trece zeharbidetako, 6.904 m<sup>2</sup>-ko bi biltegi, 150.000 ps.; Dos kaleko 6.903 m<sup>2</sup>-ko, biltegi destilategidun eta birfindegiduna, 972.920 ps.; Trece zeharbidearen aurreko 6.904 m<sup>2</sup>-ko lur saila, zeinetan indar planta eta eztiak zein petrolioa gordetzeko tankeak baitzeuden, 185.000 ps.; Seis kalearekin mugakideko, 6.903 m<sup>2</sup>-ko lur saila, 15.000 ps.; Veintuno-rekin mugatzen, 1.726 m<sup>2</sup>-ko orubea, 25.820 ps.; Cinco eta Siete zeharbideak eta Ocho eta Nueve kaleen arteko, 2.505 m<sup>2</sup>-ko Teatro Arechabala deituriko antzokia, 195.385 ps.; Uno kalearekin aurrez, azukreak gordetzeko burdinazko biltegia, 50.000 ps.

Total nagusiari 778.022 pesotako baja kendu zitzaionez, oinordekotza gordina, 3.434.379 pesotara jaitsi zen. Beraz, Jose Aretxabala Aldama ezkontidearen ogasuna 1.824.690 pesotara iritsiko da. Juana Mercedes, Karmen Agustina,

Mercedes Nikolasa, Jose Nikolas eta Jose Antonio Bizente oinordekoek, 343.438 peso jasoko zituzten bakoitzeko.

Oinordekoek, 3.430.000 pesotako kapitalaz, La Vizcaya enpresaren ondasunak ustiatzeko eta bere garapenari eusteko, Jose Arechabala, S.A. sozietatea konstituitu zuten 1921eko urtarrilaren 18an. 3.400 akzio emititu zuten, 1.000 pesotako balio izendatuaz, hauetarik 1.315 Jose Aretxe balak eskuratu zituela. Berau izendatu zuten lehendakari. Ordekotza, Jose Nikolasek hartu zuen; zuzendaritza, Jose Simonek; zuzendariordekotza eta idazkaritza, Jose Antoniok; eta, Gabriel Malet Rodriguez Juana Mercedesen senarra zein Tomas Pita Alvarez, Mercedes Nikolasarenak, kontseilariak hautatu zituzten. Sasoi horretan, bere lehen alaba Gordexolan, eta bigarrena Ortigueira-n (Galizia) bizi ziren. Horrela, oinordekotza tinkotzea lortuko du, hil ondoko urteetan bere enpresa eraginak iraun zezan ere.

Garai partean, destilagailu plantak egunero 125.000 litro alkohol, pattarra eta ron ekoizteko edukiera zeukan. Altzairuzko 9 hartzigailuek, 4.000.000 litro mosto gordetzen zuten. Gozokietarako ezien 5.000.000 galoiko edukierako planta. Produktzioa garraiatzeko trenbide eta zeharbideko sare osoa. Ron Havana Club, Ron Añejo 75 Arechabala eta Coñac Tres Arbolitos pattarrak. Baita Alko-Elite etxe-erregaia ere.

Azukre birfindegiko ekoizpena, egunero 1.000.000 libratara eta urtero 325 libratara 2.000.000 saku esportatzera iritsiko da. Ronen urtetsuketarako, haritzeko upelak gordetzeko orubeak, eta upelgintza. Edari errefresagarriak gozotzeko jaraberen planta eta baita petrolioarena ere.

Jose Arechabala, S.A.-ko zuzendaritza, ontzigintzara ere saiatu zen. Hermosa Trasmiera II, lehen motor ontzia, 1943ko uztailaren 6an botako zuten estraineko aldia itsasora. Hurrengo urteko urtarrilaren 29an, Zubiete izeneko bigarren ontzia botako zuten, Gordexolako bere auzuneko izen beraz bataiatuz. Baita kabotajeko zein zeharkaldiko ontzitegiak eta lerroa, eta inportazio-esportazioko itsas terminala ere bazeuzkan enpresak.

Jose Aretxabala Aldama oso loturaturik zegoen Kardenaseko hiriarekin. Horren adierazgarriak garrantzitsuena, udalak 1919ko apirilko batzarrean semeorde izentatzea bilakatu zen, eta, beranduago, Jose Arechabala, S.A. enpresari, ongile gorena titulua eskaintzearena.

### **Iturriak eta bibliografia**

B.E.H.A. Bataioak: 12. lib. 205. or. Erreferentzi-Kodea: ES/AHEB-BEHA/F006.204 (2240/003-00)

K.A.N. Rafael J. Reynaldos-en Notarioritza: 1 zka.-ko Protokoloa, 1921 urtea, 31-160 orr.

*Jose Arechabala, S.A. en su 75º aniversario 1878-1953.*- La Habana: Departamento de Publicidad de Jose Arechabala, S.A., 1954.



#### 4.7. ARMONA MURGA, Jose Antonio

Aiara haraneko Arespalditzan (Araba) jaio zen 1726ko apirilaren 9an.

Aitaren aldeko aitona, Jose Antonio Armona Rivas Urduñakoa zen. Udaleko gordailuzaina, prokuradore orokorra eta alkate arrunta izanik. Arespalditzara pasatuko zen bizitzera.

Maria Gomez de Gorbea Orueta, arespalditzarrarekin ezkonduko da. Emaztea, Juan Gomez de Gorbea eta Maria Orueta anderearen alaba zen. Emaztearekin batera testamentu egin zuen, eta maiorazkoa fundatuko du Arespalditzan.

Aita, Matias Armona Gomez de Gorbea zuen. Arespalditzarra hau ere, Aiara-ko prokuradore orokorra izango zena 1722an, baita alkatea ere 1725ean. Ama, Maria Bernardina Murga Urkixo, Juan Batista Murga Amirola, Arespalditzako alkatearen eta Maria Antonia Urkixo Usategi anderearen alaba. Lau seme-alaba edukiko zituzten: Maria Antonia, Pedro, Frantzisko, Matias eta Jose Antonio Armona Murga. Andra Mari Jasokundeko elizan bataiatu zuten, aitabitxiak, osaba Juan Bautista Armona eta Frantziska Artza izan zituela.

Jose Antonio, Urduñako alkatea izan zen, 1753 eta 1759 urteetan Matias anaiarekin batera. Frantziskok urte batzuetan hartuko du beregain ardura berbera. Anaia hau, Martin Santos Armonak, Zuhatzan fundatu zuen maiorazkoaren jabegaia izan zen. Baita Murtziako gobernaria ere.

1764. urtean, metropoliak intendentzi baten instituzioa dekretatu zuen Kubarako, etorkizunean estatuko garrantzizkoena izatera iritsi zena. Era berean, uharteko errenta guztien administrazio orokor baten sorkuntza dekretatuko da La Habanarako; itsas eta lehor posten administraritza, kargu horri atxikituko zitzaio-la. Ingurumari horretan ailegatuko da Kubara Jose Antonio Armona, sail guzti horietako administratzaile, depedentzi horiek fundatzera eta uharte barruko hilean behingo posta zerbitzua antolatuz, Migel Altarriba-rekin batera. Azken hau, komisario eratzaile izatera gailendu zen Portugaleko armadan.

Santiago de Kuban lehorreratu zen lehendabizi 1765eko urtarrilaren 20ko goizeko seiak aldera, Fernando Cagigal, Cagigal Etxeko markesa, plaza hartako gobernaria zela. Ekialdeko hiri honetatik, otsailaren 14an iritsiko da La Habana-ko portura, arratsaldeko bostetan.

Hurrengo egunean bertan, goizean-goiz aita Villa Urrutia misiolari jesuitarren bisita hartu zuen, honek bere anaia Frantziskoren heriotzaren berri jakin araziko ziola. Hau, Nueva Españako bisitatzaila zela, eta aurreko urteko irailean Cádizeko portuan enbarkatu zelarik, itsasoan hilko da hamabost egun beranduago. Jose Antoniok, beste anaia Matiasi idatzi zion aita jesuitarraren eskutik, Vera-kruz-en (Mexiko) zegoelako, defuntuaren Antonio eta Dionisio semeekin eta gainerako etxeko ugariekin. Gainera, gastuei aurre egiteko, ordu erdi beranduago Domingo Lizundia elgoibartar eta Real Agrado-ko markesak aurreraturiko 6.000 pesotako kreditua bidali zion.

Baita Jose Beitia Renteria bakiarraren, gerora aitaginarreba izango zenaren laguntza eta estimu berezia ere jaso zituen. Beitia honen eta Rita Castro emaztearen alaba zen Maria Doloresekin ezkonduko da, La Habanako Izpiritu Santuko parrokiari 1791ko martxoaren 25ean. Aitabitxiak, Luis Urbina brigadierra eta Frantziska de Abarka, Silbestre de Abarka, Injinerotako Erret Gorpuzteko komandante nagusiaren alarguntsa izan ziren. Maria Josefa, Enkarnazio, Jose Maria eta Frantzisko Paula seme-alabak edukiko zituzten.

Jose Antonio Armonarentzat baina, Espainiako eta Amerikako portuen arteko itsas-postak antolatzea izango zen bere enpresarik zailena. Errentak biltzetik bertatik letorkiokenaz gain, ez zeukan hasteko erreal bat bera ere. Erregek agindurikoa egitera saiatu zen, eta Kubako uharteko errenta berriak ezartzetik hasiko da. Nahiz hasieratik oztopo handiak izan zituen, ongi aterako zitzaion, metropolia eta kontinente honetako herrialdeen arteko nabigazioan, batez ere posta-ontziek ez zutelako ohizko hondamendirik izaten.

1764. urtean La Habanako gerrako portuburua izaniko Jose de Sapiain, Rikla-ko kondearekin ezarriko zen harremanetan, dirua bilatzen hasteko. Grimaldiko markesa, Estatuko ministroari, eta Squilace markesa, Hazienda ministroari, bere asmoak jakinaraziko dizkie. Azken honek, La Habanan berreskuratzeko onura atzeratu batzuren mandatua jarri zion bere izenean. Gainera, aurreko urteko gerran, Portugaleko armadari laguntzeko, Cádizera ekarri zituen irin frantseseko 5 edo 6.000 upel ziren. Beraz, agindu horiek eroango zituen hiri horretara, eta, irinak begiztatu ondoren, euron ontziraketa erabaki zuen kontratazio lehendakariarekin.

Armona itsasoratu zen San Karlos fragata berean sartuko zuten leheneko 3.500 irin upel, eta gainerakoak berariaz pleitatuko zituen bi ontzitan bidaliko zizkion lehendakariak. Irinak oso onak ziren, baina galdurik zeuden berria zabaldu zen, La Habanara ailegatu zenerako. Kontutan eduki behar da, hiri honetan bazirela lehendik, bai Verakruzetik, bai kolonia frantses eta ingelesetatik hornituriko irintegiak. Faktura originalak erakutsi zizkion gobernari, irinen freskotasuna probatzeko, eta bahitura honen gainean berehala lortu zuen dirua.

Hau da, okindegi batzurekin kreditu goreneko negozioak egingo ditu, eta urte bete eskasean kapital osoa jasoko du, 14.000 pesotako irabaziaz erregerentzat. Postako Errentaren onuran erabiliko du diru guztia. Honi esker sortu zuen zerbitzua. Erosiriko itsasontziak, lorturiko tresneriak eta marineleriari eginiko ordainak, kareak eta bulegoak, postako plantan ipini zituen.

Modu honetara, intendentiako gorputza ere ondoko osokideekin eratuko zuen. Intendente bat, urteko 8.000 pesoz. Justitzeko markesa kontulari orokor, hamabi ofizial, hiru idazlari, hiru meritagarri eta atezainarekin. Diego Peñalver altorzain orokor, hiru ofizial, idazlari eta atezainarekin. Jose Antonio Armona, administratzaile orokor, zeini kargu hau, zortzi ofizial eta atezainarekin, postaren ardurarena gehituko baitzitzaion.

Postetxea eraikitzeko erabakia koroatik sortu zitzaion. Horrela, 1770eko abenduaren 20ko udalbatzarrari zera jakin araziko dio Antonio Maria Bucarely

governariak, “*aurreko abuztuaren 8az, erregek Postetako administrazio etxea eraikitzea erabaki zuela, Jose Antonio Armona jaunak aurkeztuko duen planoaren arabera*”. Gaur egun, eraikin honi Kabo Bigarrenaren jauregia deritze.

Gainera, Kubako jesuiten kanporaketaren lekuko aparta dugu Armona, Espainiatik Amerikara bidaliriko aginduak jaso eta ondoko miaketan ere parte hartu zuelako. Posta 1767ko maiatzaren 14an ailegatu zen La Habanara. Ontzi-ko kapitainak pleguez egin zuen salto lehorrera, eta arreta handiz zetorrela azaldu zion berari. Estatuko ministro, Grimaldi markesaren eskuizkribua entregatu zion, kapitainak zekarren posta zaintzeko aginduaz. Antonio Maria Bucarely uharteko gobernariari bereak emango zizkion, eta hurrengo bi egunetan, itsasoz zein lehorrez gainerako hamazazpi postak despatxatu zituen, jesuitarrak zeuden kolonia amerikarretara.

Kanporaketa eguna iritsi zenean, Bucarely gobernariak Morro gazteluko artilleria guztia San Inazio kolegioko harresiaren kontra zuzentzea eta gau bereko hamarretatik aurrera kaleak partidekin errondatzea agindu zuen; eta hura buru zeneko talde miaztailea, Armonarekin batera iritsi zen kolegioko atarira. Puebla de los Angeleseko (Mexiko) aita Andres de la Fuente erretorarekin hitz egin ostean, jesuitarren logelak oro miatu zituzten, eta zenbat eskuizkribu zein eskutitz zeukan bakoitzak, pakete lakretu bana atondu zitzaion. Zaldi-kotxetan atera zituzten kolegiotik at, enbarkazio eroso bat eta janari ugaria prestatu zitelarik. Goizaldean itsasoan barrena abiatu ziren, Cádizera norabidean.

1776. urtean Espainiara enbarkatuko da, Galiziako armadako intendentzia enplegua betetzera, bere emazte eta bizirik geratu zitzaizkion hiru semeekin. Erregeren graziaz eta Grimaldi markesaren bitartekotzaz hartu zuen destino berri hau. Lau urte lehenago, Karlos III.a ordena sorturiko urte berean, eta proposaturiko berrehunetik hirurogeigarren graduaz, zaldun pentsioduna jaso antzean.

### **Iturriak eta obra**

G.E. H.A. Bataioak: 3. lib. 42a-43 orr. Erreferentzi-Kodea: ES/AHDVGEHA/F006.382-02267/003-01).

*Noticias privadas de casa, útiles para mis hijos.* Anales y Memorias de la Real Junta de Fomento y de la Real Sociedad Económica. Habana: Imprenta del Tiempo, 1859, 92-131 orr. 4. bol.

### **4.8. AROSTEGI LARREA, Martin**

Arantzan (Nafarroa) jaio zen 1790eko abuztuaren 16an. La Habanan hilko da 1764ko maiatzaren 14an.

Gipuzkoa eta Nafarroara hedaturiko, Bizkaiko antzinako leinua dugu arostegitarrena. XVI. mendean, Arantzako herrian agertzen da kokaturik familia hau, lehenagoko Nafarroa erresumako mendi aldean.

Martin eta Martin Esteban Arostegi Larrea anaiak, hortixerik pasatuko dira Kubako uhartera XVIII. mendeko hastapenetan. Lehena, La Habanako hirian ezarriko da, eta bigarrena Puerto Principe-n, gaurko Camaguey-en.

Baztan udalerriko Lekarozeko, Arostegia Armategiko Kabo jauregikoa da jatorriz lehen abizena. Gipuzkoa probintziako orduko Amasa-Billabona hiribilduko Larrea leinu-etxekoa bigarrena. Aiton-amonetatik, aitaren aldetikoak, Arantzako Gabriel Arostegi Iriarte, Juantonea leinu-etxeko ugazaba, eta Maria Mikeo Beriau anderea, Jakobo eta Mariaren alaba ziren.

Amarenetikoak berriz, Antonio Larrea eta Ana lantzisu, Arantza udalerrikoak ziren, Dindurrena leinu-etxeko ugazabak. Aita, Arantzan jaioriko Esteban Arostegi Mikeo zen, Juantonea leinu-etxeko premua. Ama, Maria Josefa Larrea Txopere-na, Antonio Larrea Igereta, Dindurrena leinu-etxeko ugazabaren eta Ana Txopere-na Arrupea anderearen alaba.

La Habanako katedralean ezkondu zen 1726ko maiatzaren 17an, Tomasa Basabe Espellosa anderearekin. Emaztea, Frantzisko Antonio Basabe Urbietta kapitaina, udaleko prokuradore orokorra, alkate arrunta eta Inkisizioaren ofizio santuko auzitegiko aguzil nagusiaren eta Feliziana Espellosa Bucarely anderearen alaba zen. Euren seme-alabak, Maria Eulalia, Maria Angeles, Maria Ana, Maria Jesus, Maria Felizia, Maria Luisa, Maria Kontzezio eta Martin Arostegi Basabe izango ziren.

1749tik harrezkero, gaur egun O'Reilly eta Empedrado kale artean dagoen, Tacon kaleko, 4. zenbakian bizi ziren senar-emazteak. Casa de los Pimienta izeneko etxe hau, Jose Diez Pimienta abadeak oinordekotu zion arreba Rosari. Honek, Martin Arostegi eta bere emazteari saldu zion, 10.742 peso eta 4 errealetan.

Bere alaba Maria Luisa Arostegi Basabe, La Habanako katedralean ezkondu zen ere 1747ko abuztuaren 6an, Agustin Jauregi Aldekoarekin. Senarra, Baztan udalerrikoa zen, Erret Armadako jeneralordea, Almansa-ko Errejimentuko Dragoi-tako kapitaina, Saguntoko Errejimentuko koronela, errege Felipe V.aren zelai zalduna, Txile-ko gobernaria, Peru-ko erretordea, Santiago ordenako zalduna eta Lekarozko Jauregi jauregiko jauna; Matias Jauregi Apeztegia, jauregi bereko jaunaren, eta Juana Maria Aldekoa Borda, Elizondo jauregiko jaunaren semea.

1730. urte aldean, Martin Arostegik azaltzen zuen jadanik ardura itsasoaz haraindiko negozioez. Gipuzkoako Caracaseko Erret Konpainiako partaidea egingo zen, 20 akzio erosiz. Antza, bazeuzkan Donostian merkataritza mota honi buruzko ezagutzak eta adiskideak, batez ere bere senitarteko Maria Manuela, Jose Iturrigarai arlo horretako jakitunarekin ezkondurik zegoelako.

Urte honetan, Kubako diputatu gisa, eta udalaren izenean lurrak mesedetzeko ahalmenaren alde azaldu zitzaion erregeri, ohitura hau uhartearen aurkikundetik harrezkerokoa izaki. Ahalmen honen onurak zehaztu zizkion, ondorengo lurren biztanletzeak, bertako gizateriaren, erret armaden, ontzidiaren eta auzoko

espetxearen abastu eta horniketa zekartzalako. 1640ko erret zedulaz onartu zion eskaturikoa Arostegi diputatuari.

Ildo horri jarraituz, tabako adarrari oratuko zion La Habanara iritsi bezain arin, beranduago fundatuko zuen merkataritza konpainia, arlo horretan oinarritu zuelarik. Baita Caracas eta Verakruzen arteko kakao tratuan ere ihardungo zuen, Aranzazu itsas ontziaz. 1731rako, harresiz landako legoa erdira, 40,49 ha.-ko landetxe baten ugazaba izan zen, Nikolas Borges-enarekin muga egiten zuena. Urteko, urriaren 12ko batzarrean, hiriko ubidetik iturria hartzeko baimena eman zion udalak.

1734ko abuztuaren 17an, Antonio Tallapiedra Cádizeko merkataria, La Habanatik Sevillako fabrikara 3 milioi libra tabako bidaltzeko kontratua sinatu zuen. Aldi horretan hasi zen Martin Arostegi, tabako saila La Habanako auzokoen eskuetara ekartzeko ahalegin bereziak egiten, Tallapiedraren kontra gogor kontrajarriz.

Hiriko eta berrehun bizilagun uztale handiren diputatua izanik, zera jakinarazi zion koroari *“Tallapiedrak, iritsi bezain laster bere tirania ezarri zuela uztale eta baserriarren artean. Euron tabakoak hitzarturiko salneurrien arabera, La Habanara eroatera derrigortuz; estimua eta salneurria urritzeko, pareko kalitaterik ez dutela”*. Hari leporatu zion tabakotik eratorritako sarreren jaistea, Tallapiedraren monopolioaren eragin ezezkorrak ekoizpena %34an gutxitu zuela azalduz. Lau urtera, Frantzisko Sanchez Casa Madrileko markesak lortuko du kontratua berriztatzea, tabako sail ezberdinetako salneurrietan, Tallapiedrak baino %25 merkeago eskainiz.

Era berean, Martin Arostegi Larreak, Inkisizioko aguazil nagusia zela, La Habana hiriko ahalmena eskuratu zuen, honen eskubideak eta akzioak ordezkatuz, merkataritzako konpainia sortzeko, Haren Maiestateren eta auzitegien aurrean gestioak egiteko. La Habanaz gain, San Felipe eta Santiago Bejupal, Santa Maria Rosario, Matanzas eta Guanabakoa-ko ordezkaritzak ere lortuko ditu, 1738ko uztailaren 8 eta 19, abuztuaren 29, eta irailaren 1eko eta 20ko dataz.

Nikolas Flores Rubio eskribauak luzaturiko azken ordezkaritza izan ezik, besteak Bartolome Nuñez lankideak egingo dizkio. Juan Frantzisko Guemes de Horcasitas zelai mariskala Kubako gobernaria zela, Madrileko gortera bidaliko du Arostegi, La Habanako udaleko ahalmendun orokor legez, uharteko jatorrizkoen proposamenak Casa Madrilekoen aurrean lehentzeko eskatzera. Ez dago dudarik negozio honen sustatzaile nagusia Martin Arostegi zela, bere sorterriko Caracaseko Gipuzkoar Konpainiak, Venezuelako esportazio gai batzuren monopolioaz, sortzen zuen irabazi handien jakinaren gainean zegoelako.

Lehenbizi, akordio bat gestionatu zuen Casa Madrilekin, baina honek atzera egingo zuen tratua betetzera ukatuz. Arazo hau bideratzeko, monarkak 1739ko otsailaren 25eko dataz erret agindua promulgatu zuen, zeinaren bitartez kontratugile berri orori, aurreko gozamenariak eginiko desenboltsu eta gehigarriak, aldiz aurretik ordaintzera derrigortzen zion. Arostegik, egun batzutura memorial luze bat aurkeztuko dio erregeri.

Tabako Errentako zuzendarien ikuskaritzara bidaliko da memoria, baita erantsiriko baldintza-plegua ere. Gutxira, aipatu funtzionario hauen aurrera deituko diote. Ondorioz, Arostegik bigarren memoria prestatuko du, Juan Frantzisko Goienetxe, Ugena-ko markes eta Tabako Erret Juntako ministroaren eskuetan jarzeko, honek erregeri gora ziezaion. Gerora, Casa Madril Arostegik lehiatu zitzaion tanteo eskubidea onartzen zuen ebazpena, urteko maiatzaren 5ean sinatuko zuen monarkak; zortzi egun beranduago erret aginduz Juan Batista Iturralleri jakinarazi ziolarik.

Arestian, La Habanako udalak Martin Arostegiri emaniko ahalmenak berro-netsi egin behar zituelako, Jose Miranda Dominguez hiriko prokuradore orokor berriak, otsailaren 5ean ospaturiko batzarrari aurkeztu zion memoria. Arostegiren alde eskaturiko berronespena baieztatu egingo zuten errejidoreek. Orain, La Habanan osaturiko konpainiaz erabakitze eta merkataritza ihardueren garapenerako erret baimena lortzeko ahalmen guzti-guztiak zituen Arostegik.

Martinek, errege Felipe V.ari akziodun eta bazkide taldean sartzeko gonbidapena egin zion, gizon ahalguztidun eta eragin erabakikor honen mesedea lortzeko hain zuzen. Horrela, 1739ko abenduaren 18ko zedularen arabera sortuko zen La Habanako Merkataritzako Erret Konpainia. Hau fundatzeko asmoaz Madrilera joan zenetik lau urte bitartean, izugarriko ekimena bideratu zuen helburu hori lortzeko, eta eginiko gastuak 50.710 pesotara iritsi ziren.

Merkataritza Konpainia sortzean, Espainia eta bere hedaduretara tabakoa, azukrea, larruak eta fruituak bakarrik garraiatzeko eskubidea hartzen zuen beregain konpainiak. Alderantziz, Gaztelako erresumak adarreko eta hautsezko tabakoz hornitu beharko zuen, aurreko kontratugileak eginiko sail eta kalitate antzerakoak. Gainera, konpainiako trafiko ontzietan, iskiluak eta munizioak beharko zituzten garraiatu. Bibere horniketa eta Florida-ko (Estatu Batuak) presondegira-ko Kanariar Uhartetako familiak zuzendu ere bai. Baita haizaldeko armadaren ontzien mantenua eta prestaketa ere. Arostegi ahaldunduaren eskariei eta komenentziei amore emanik, frankizia batzuk onartu zituen erregek. Kubatik Espainiara bidaltzen ziren azukre eta larrutan, zein alderantzizko irin, tresneria eta iskiluetan, hain zuzen.

Martin Arostegi izendatu zuten lehendakari. Villalta-ko markesa, Anbrosio Menendez, Jose Arango, Bartolome Anbulodi eta Antonio Parladorio, zuzendari. Diruzain, kontulari eta ikustatzaile, Felix Frantzisko Ruiz, Manuel Aranburu eta Alonso Valdespino. Konpainiaren kapital soziala, 500 pesotako 2.000 akzio izango zen, Kuban ordu arte sekula ezagutu gabeko kapital pribatua izaki. Erregeek, 50.000 pesotako 100 akzio erosi zuten; Arostegik 40.000ko 80 akzio; eta emazte Tomasa Basabek, 8.000ko 16 akzio. Lehendakariak, berehala ezarri zituen abian konpainiako eragiketak. Hasteko, Rikardo Hore-ri 146 tona ingeleseko Maria Katalina ontzia, 3.100 pesotan erosi zion, hurrengo urteko otsailaren 24an.

Erregek Merkataritza Konpainia onartu aurreko azaroaren 19an, Martin Arostegik La Habanako ontzitegian enbarkazioak eraikitze eta erret armada biberez hornitzeko ardurak beregain hartzen zituela jakinarazi zion hari. Proposamen

horren ondorioz, 1741eko maiatzaren 4ko erret zedulaz baieztatu zion erregek ontzitegi hartan fabrika lanetan hasteko kontratak; konpainiak, hamar urteko epean, urtero hiru edo lau barku eraikitzeko eta botatzeko konpromisoa hartu beharko zuela. Guztiarekin ere, lehen botadura, urte bi beranduagoko ekainaren 26rako egin zen; Nuestra Señora del Rosario izeneko 70 kanoiko barkua izaki.

Guemes Horcasitas gobernariaren eta Arostegiren bazkideen poztasuna itzelezkoa izan zen. La Habanako errejidoreak, 1741eko apirilaren 14an bildu ziren, Manuel Molina Machado eta Jose Martin Felix Arrate urteko komisarioek, aurreko urtarilaren 31ko dataz, Cádizetik Martin Arostegik, konpainiaren sorkuntzaz igorri izaniko kartaren berri jakinarazteko. Hile bi beranduago berriz, uztailaren 21eko bileran, erret zedularen testu osoa ezagutzeko aukera izan zuten errejidoreek.

Urte horretan, Martin Ulibarri Ganboari 200 peso bakoitzeko 1.100 esklabo Kubara eramateko eman zitzaion baimena, konpainiari transferitzea lortuko du Arostegi lehendakariak. Horretarako, Ulibarrik erregeri aurreratu zion 50.000 peso, ordaindu beharko zuen. Beltz sarreraren onurak beranduago igarriko ziren. Honek, 1747ko urtarilaren 3ko dataz, esklaboak azukre-oletarako premiazkoak zirela azaldu zuen Madrileko gortean.

Horren eraginez, uztalei konpainiak arroako 12tik 16 erreale bitartera ordaintzen zien, eta ez lehenagoko 7tik 8rako salneurrian. Bost urte beranduago, errege Fernando VI.aren ekainaren 28ko aginduaz, esklaboak inportatzeko pribilegioa eskuratuko du beretzat. 1753-59 urteetan, konpainiaren izenean lehenengo, Karlos Basabe bere koinatuarenean hurrengo, eta emazte Tomasarenean gero, 734 eta 367 gizaburuko partidak ekarriko zituen, 23.510 errealetan.

Arostegiren lehendakaritzapean, 1741eko abuztuaren 8an ospatu zen junta nagusiko partehartzaileek konpainiak dendak edukitzeko baimena eskatu zuten. Indietako Kontseiluko fiskalak ostera, ukatu egingo zuen, merkatariek generoak saldu ezinean edota irabazirik ez zaienean geratzen dendak abandonatu egiten zituztelako. Horrela erabaki zuen uharteko gobernariak ere, auzoaren estutasunak arindu orde, honen kalterako izan zitekeelako baimena. Hala eta guztiz ere, konpainiari auzotar izaera atxikitu nahi zitzaionez, bere biltegietan zuzenean saltzeko baimena eskaini zitzaion, eta Arostegik auzotarren kalterako aldaketak sartuko zituen.

Konpainiaren etekinak laster hasiko dira ugaltzen. 1742eko otsailaren 20an, Martin Arostegik Fernando Trimiño-ri idatzi zion kartaren arabera, bederatzien barkaziotan igortzeko, tabakoaren aparteko nolakotasunaz aritu zitzaion, zeinaren balioa 500.000 pesotara iristen baitzen. Batuketa honek, ondoko arloak beteko zituela azaldu ziola: 4.000.000 belloiko erreale, koroari atxikitu zitzaion fidantza gisa; 200.000 peso, La Habanako erret haziendan gelditu zen kontsignaturik, konpainiaren mesedetan; eta, 150.000 peso, erret kutxak, zorrean orduantxe harturik.

Irabaziak hain egin ziren handiak, non ezen akzio bakoitzaren balioa bi bider-tuko egin baitzen, 1.000 peso baino gutxiagoko akziorik ezin zitekeela erosi.

1746an eginiko bilera nagusian, kapital soziala bi biderrera igotzea erabaki zuen konpainiak, erregek urte bereko abuztuaren 8ko zedulaz onartu zuena. Gainera, %100eko dibidendua akziodunen artean partitzea erabaki zen ere, zeinetarik %30 diruz ordaindu zitzairen, eta gainerakoa akzioetan. Era honetara, konpainiaren fondo erabilgarria 1.800.000 pesotara goratu zen. Hamar urte beranduago, egoera oparo honetan, konpainiako funtzionario eta enplegatuek, urtero, soldata gisa 46.000 peso jasotzen zuten orok.

Hargatik, Merkataritza Konpainiak bere larrialdiak ere izaten zituen. 1750ean jasandakoan, Madriletik Martin Arostegi lehendakariari leporatzen zitzaizkion erantzukizunak. Honek, urteko martxoaren 3an La Habanan eginiko bilera nagusira eskuizkribu justifikagarri bat aurkeztu zuen, konpainiaren konstituzioan eta hurrengo hamarkadako ihardueretan izaniko partehartze erabakigarria goraipatuz, eta bere errenuntzia aurkeztuz. Presente zeuden bokalak, ukatu egin ziren hura onartzera.

Arostegiren kontrako joera handituz zihoan baina Espainian. Horren agerpen nabaria, hurrengo urtean eginiko juntan sorturiko eztabaidak dira. Funtzionario eta enplegatuen zerrenda zehaztua eskatu zuen bilerak, baita soldaten zenbatekoa ere, zeintzuk 44.066 peso urteko gehi galeoi kostagoardakoen mantenuko 12.468 pesotara iritsi baitziren.

Larrialdi honen erdian, konpainiaren iharduerak erret ogasunari zetxekion onurei buruzko txostena prestatu zuen bere buruaren defentsan. Koroak jasotzen zituen sarrerak aipatu zituen izkribuan, hamarkada oso batean, urtero 8.700.000 erreale beiloiko bildu zuela azpimarratuz. Urte horretan, Martin Arostegik bilerako 143 boto zeukan, eta Villaltako markesak, arropa saileko zuzendaria, 30 ostera.

Halatan, Merkataritza Erret Konpainiako Espainiako akziodunek, pertsona egoki batzuk izendatu zituzten, hango informeak lantzeko. Hauek, laster konturatu dira Martin Arostegi eta bere hurbilekoak, balantzeak aldatuz eta penintsulatik ekartzen ziren generoak euren kasara salduz, aberasten ari zirela. Salaketa honen ondorioz, eta erregek ikerketa agindua eman aurretik, Frantzisko Cagigal de la Vega gobernari eta kapitain nagusiak ere agudo bidaliko zuen konpainiari buruzko txosten zehaztua.

Gerora, 1752eko ekainaren 5eko zedulaz, Martin Arostegi lehendakaria, Villaltako markesa eta Sebastian Peñalver zuzendari biak, erregek kendu egin zituen bakoitza bere kargutik. Cagigal gobernariak ez zuen agindua betearaziko, harik eta zedula azaroaren 1ean iritsi zen arte uhartera. Baina, aurretik, uztailearen 17rako, Arostegik Espainiarako bidea hartu zuen jadanik, errekurtsioak egiteko konpainiaren ahalmen guztiak zeroazala, baina lehendakarizatik kendu zutela ordurako ez zekienik.

Nahiz erregek kargutik bota izan, oraindik akziodun nagusia da alde handiaz. 1755eko urtean, memorial luze baten bitartez kexak goratu zizkion erregeri, konpainiaren 1.800.000 pesotako kapital bikoitza justifikatuz, zeinek 77.991 pesotako soberakinaren erraztena ematen baitzuen. Konpainiaren onga-



rritasuna ere azaldu zion izkribuan, uhartea kontrabandotik apartatzeko biderik egokiarena zela aitortuz.

Horraz gainera, Madrileko gortean entzunarazi egingo da La Habanako akzio-dunen ahaldun gisa, eginkizun honetan sei urte zeroalarik. Baina metropoliko akziodunek, Kuban gertatutakoaz jakin nahi zutelako, batzar nagusia eskatu zuten 1757ko urtean. Era horretara, maiatzaren 31an Madrilen egin zuten konpainiako batzar nagusia. Martin Arostegi han izan zen, 34 boto ordezkatuz. Bide-nabar, bere aldeko hainbat iharduera burutu zuen; hauetarik bat, etxaldeetarako Indietako 200 gizaburu ekartzeko baimena lortzea izanik.

Bien bitartean, Madrilen batzar bereziak egin zituzten erantzukizunak zehazteko. 1758eko martxoaren 30eko bileran, Migel Ric Ejea lehendakariak ardua nagusia Martin Arostegiri leporatu zion, nahiz Jose Iturrigarai Cádizeko faktoreari eta gainerako senitartekoei luzatu zien ere. Arostegik, konpainiako lehendaritzara itzultzea aldarrikatzen zuenez, batzar nagusietako 100 bototik 92 bereak izatea aurpegiatzen zion batzar bereziak; botoak, erren, koinatu, lankide, zuzendari eta bere menpekoen ordezkaritzatik jasotzen zituelako. Berdin, koinatu faktorearekin, beren semeekin, senitartekoekin eta gainerakoekin, konpainiako bajeletan eroan izaniko merkataritza leporatzen zitzaion. Baita 29.000 peso baino gehiagoko kontua ere eskatu zion junta bereziko lehendakariak, zein La Habanako eta Cádizeko faktoriako kutxetatik hartu baitzuen, konpainiako defentsa gastuetarako.

Bere emazte Tomasa Basaberen lekukotasunak zioenez, Kubara abaildurik eta sena galdurik itzuli zen; gutxira, La Habanan hil egingo zelarik. Merkataritzako Konpainiari buruzko kontuak hogeitamar urte beranduago kitatuko zituzten Arostegiren oinordekoek, 80 akzioen 40.000 pesotako balioa entregatuz.

Azukre-olen ugazaba ere bazen Martin Arostegi. El Platano izenekoaren lurrak, nahiz Tomasa Basabe bere emazte eta ahaldundun orokorrak 1760an Jose Verisuerca-ri salduko zion, Martin izan zen beti ugazaba. 1879an, Jose Rafael eta Isabel Ugarte, anai-arreben izenean agertu zen, honen ilobak edota Domingo Ugarte eta Maria Jesus Arostegiren seme-alabak zirelarik. Guanabako-ako hiribilduan zegoen kokaturik, La Habanatik 33 kilometrora. 30 kaballeriatik (402,9 ha.) 26ko baso, eta 4ko lur ereingarria ziren.

Nuestra Señora del Rosario edo Jikiabo deituriko azukre-ola ere bazeukan Arostegik. 1765ean Tomasa Basabe bere alarguntsaren izenean agertuko da ondasun hau. 1777an honen jabegoan dago oraindik, baina Tomas Jauregi, Tomasa eta Martin defuntuaren suhiak administratu eta esplotatzen du fabrika.

Baina, lau urte geroago, Martin eta Tomasaren seme Martin Antonio Arostegi koronelaren izenean agertuko da jadanik. La Habanako portutik 44 kilometro ekialderantz zegoen kokaturik, eta 45 kaballeriako (605,25 ha.) lurrak zeuzkan. 1760an, 2.469 arroa azukre ekoiztu zituen guztira, eta hurrengo urtean berriz, 4.760.

Santiago ordenako zalduna izan zen, 1750eko ekainaren 10ean sartu zelarik. San Frantzisko komentuko sindikoa ere izan zen. Madrilen egin zuen testa-

mentua, 1756ko otsailaren 23an. Bere heriotzako izena La Habanako katedralean dago emanik.

### Iturriak

I. G. A. Bataioak: 2. lib. 62a or. R. 761-10.

K.A.N. Bahitura Ohartzak: 11 lib. 5a, 311a orr.; 12 lib. 176a or.; 13 lib. 130a or.; 19 lib. 239a or.; 21 lib. 387a or.; 22 lib. 269 or.

## 4.9. AROSTEGI LARREA, Martin Esteban

Arantzan (Nafarroa) jaio zen 1721eko urtarrilaren 26an. La Habanan hilko da, 1798ko irailaren 12an.

Aurreko Martin Arostegiren anaia gaztea zen Martin Esteban. Arantzatik, Kubako uharteko Puerto Príncipe bizilekuz aldatuko zena, XVIII. mendeko has-tapenetan.

1748ko uztailearen 21ean, Amerikako Dragoietako koronel gradura igo zuen. La Habanako plazako Miliziako Zalduneriako koronela izan zen gero, harik eta 1756an Puerto Príncipe hiribilduko gobernari eta gerrako kapitaina izan zen arte. Erret Armadako brigadierra ere 1763ko apirilaren 3ko izendapenez. Halaber, Santiagoko ordenako zalduna, 1750eko ekainaren 10ean sartu zelarik.

Bere aita Esteban Arostegiren bitartez, nobleziako informazioa egin zuen Arantzako hiribilduan 1723ko ekainaren 10ean, Fermin de Bikuña alkate eta epaile arruntaren aurrean, baita Matias Zabaleta eskribauarenean ere. Bost urte beranduagotik harrezkero, Kubako Trinidad hiribilduko tokiko magistratua izan zen. 1762ko apirilaren 21etik ekainaren 2ra arteko aldiari gobernarioordea ere izendatu zuten.

Martin Esteban Arostegi, La Habanako katedralean ezkondu zen, 1761eko otsailaren 12an, Anjela Agüero Betancourt anderearekin. Emaztea, Kristobal Agüero Lagos eta Isabel Antonia Betancourt Hídalgoen alaba zen. Zazpi seme-alaba hauek edukiko zituzten: Maria Luisa, Maria Manuela, Maria Isabel, Maria Josefa, Anjela Maria, Martin eta Migel Jose Arostegi Agüero.

Merkataritzako Konpainiako bazkidea izan zen. 1742ko abuztuaren 2rako 16 akzioko 8.000 pesoren ugazaba izango da. Baita sei urte beranduagoko azaroaren 19ko junta nagusiko bileran ere parte hartu zuen. 1780ko urtean zabalduriko akzionisten zerrendan agertu zen 32 akzioko partaidetzaz.

Frantzisko Cagigal de la Vega kapitain nagusiak 1754ko azaroaren 14an La Habanako Errejimenduko laugarren batailoiko Luis Untzaga Ametzaga koronela gaixorik zegoelako, Puerto Príncipe hiribilduko gerrako kapitanian eta gobernari ordekotzan jarri zuen haren ordeaz. Azaroaren 12rako, La Habanaz bidean zen jadanik, destino berriaren jabetza hartzeko.

1756an, gaur San Lorentzo izeneko Tinima ibaiaren gaineko zubi berria egi-tea agindu zuen. Eraikuntzak 2.740 peso kostatu zitzaion Puerto Principeko udalari, eta bizilagunen artean hainbanatu zituzten gastuak. Martin Esteban Arostegi gobernariordeak inauguratu zituen obrak abuztuaren 24an, San Bartolome hiribilduko patroï santuaren egunean.

Udalbatzar osoa, parrokiako abadetza eta herri ugaria, hantxe aurkeztu ziren era berean. Tinimako zubi hau, udalak 1735ean eraikitzeke agindutakoaren ondokoa zen. Auzotarren ustez, egundo eraiki eginiko obra hoberena eta erabilgarriena izan zen. Hiru urte geroago, hiritarrek euren atetetan argia ipin zezaten bandoa argitaratu zuen gobernariordeak, argiezak sortzen zituen ezbeharrak ezabatzeke.

Puerto Principeko hiribilduan, San Juan egun zoragarria ospatu zen 1760ko ekainaren 24tik 30era bitartean, luxua eta gustu ona soberan izan zela, kabalgata eta konpartsa ugarirekin. Ibilbidea eliza nagusitik San Juan de Diosera egin zen lehenago. Hemetik San Frantziskora, honetatik Soledadera gero, Mesedekorearen aurrera jarraituz eta Armetako plazan amaitzeke.

Palkuko drosel azpian zegoen Martin Esteban Arostegi gobernariordea, erregeren ordezkariari zegokion leku duinenean, ibilbide-buru izaten arratsaldero. Hiribilduko zaldi-karro guztiek hartzen zuten parte luxu handiz apaindurik; gainera, makina bat zaldizko ere zen bertan. Bere lekutik gobernariak herria zoriondu egin zuen, hain portaera ona eta zuzena erakusteagatik.

Eskuadra ingeles batek 1762an La Habana hartu zuenean, Puerto Principeko hiribilduak berehala bidali zituen 300 miliziar, baliabideak eta dirua hiriburua- ren laguntzan. Bi egun beranduago, ingelesen buru zenaren Albermale kondearen, abuztuaren 14ko idatzia aztertzeke bildu zen udala. Kondeak Martin Arostegi gobernariari errenditzera egiten zion gonbita, kapitulazioari atxikitzeke aginduz.

La Habanako probintziako Loma de San Juanen egin zuen testamentua, 1798ko irailaren 12an, Francisco Ramirez eskribauaren aurrean. Maiorazko bat fundatu zuen. Bere heriotza La Habanako katedralean dago izena emanik.

## Iturriak

I.G.A. Bataioak: 2. lib. 113. or.

### **4.10. AZKARATE LASKURAIN, Gabriel Raimundo**

Antzuolan (Gipuzkoa) jaio zen 1741eko urriaren 1ean. La Habanan hilko da 1819ko abenduaren 13an.

Aitaren aldetiko aitona Juan Batista Azkarate Joanitz de Olalkiaga, Antzuola-ko parrokiari bataiatu zuten 1662ko urriaren 9an. Gerora, hiribilduko errejidore nagusia izan zen. Amona, Maria Madariaga Perez Aranguren izan zuen. Amare-

netik, ostera, Juan Batista Laskurain Zumaeta eta Maria Angeles Jauregi de Ira-eta Aranguren izan zituen.

Aita Frantzisko Antonio Azkarate Madariaga, Antzuolako parrokian bataiatu zuten, 1707ko urriaren 17an. Sindiko prokuradorea aukeratu zuten, 1737ko irailaren 29an. Seme Gabriel Raimundo jaioriko urtean herriko errejidorea zen. Ama, Ana Maria Laskurain Jauregi anderea izan zuen. Gurasoak 1733ko uztailaren 24an ezkondu ziren.

Azkarate Laskurain, Pietateko parrokian bataiatu zuten, Gabriel Raimundo Aumategi Gorriz eta Inazia Arreluz Aranburu aitabitxiak zituela. Bere anaia bakar Frantzisko Inazio, Antzuolako sindiko prokuradore orokorra eta epaile arrunta izan zen.

Gabriel Azkarate Laskurain, Rosalia Maria Rivas Lopez Barroso-rekin ezkondu zen. Emaztea, Juan Rivas Duran eta Maria Katalina Lopez Barroso senar-emazte-  
ren alaba zen. Mariana, Jose Agustin, Maria Josefa, Maria Dolores eta Gabriel Maria Azkarate Rivas izan zituzten euron seme-alabak.

Alaba Mariana, Urduñako (Bizkaia) Matias de la Cantera Badillorekin, La Habanako katedralean ezkondu zen, 1797ko otsailaren 3an. Senarra, Julian de la Cantera San Martin, udalerrri hartako Rosarioko santutegiko maiordomo, diputatu, sindiko eta udaleko errejidorearen eta Maria Kruz Badillo anderearen semea zen.

Bigarren alaba Maria Josefa, Aingeru Santuko parrokian ezkondu zen bigar-  
rrengoz, 1823ko apirilaren 1ean, Zumarragako (Gipuzkoa) Juan Frantzisko Lasa Iralarekin. Senarra, Pedro Tomas Lasa Iturbe, hiribilduko prokuradore, epaile arrunta eta alkatearen, eta Manuela Antonia Irala Oxirondo anderearen semea zen.

1762-65 aldiko ezohizko garapenak, merkataritzako klase berri bat sortu zuen, aristokraziaz at. Hauetariko merkataria asko etorkin berriak ziren, eta gutxi batzuk krioiloak. Armadako kuxak finantzatzeko dituzte aristokraziarekin batera 1781-82 urteetan. Ondorioz, garai parteko zerrenda batean, Gabriel Raimundo Azkarateri armadak zor zizkion 42.000 pesoren oharpena agertuko da, baita Bonifazio Gonzalez Larrinaga bilbotarrari zorturiko 30.000 pesorena ere.

La Habanako udalak, 1791eko urtarrilaren 1ean ospaturiko hauteskunde batzarrean, hiriko sindiko prokuradore orokorra aukeratu zuen. Apirilaren 7ko udalbatzarrean, erret eskribauen kopurua mugatzeko txostena aurkeztu zuen, abokatuenak arautzeko ebazpenek egiten dituzten antzera. Soberakinei bere iharduera balio gabetu gabe, baina eskribautza eskari berririk ezonartuz. Azkarate sindiko prokuradoreak aurkezturiko txostena onartu egin zuen udalbatzarrak.

Urte bereko uztailaren 15ean, beste txosten bat aurkeztu zion udabaltzarrari, Komediak izeneko koliseoko eraikinaren berreraikuntza larria eskatuz bere egoera aurrizkoagatik. Baita artzapezpikuak aurkeztu zituen klausulak berriztatzea

eskatu zuen ere. Hura zeharo oker zegoela "etxea ez dagoela hiriko sindiko prokuradoreak uste duen hain egoera aurrian" irizten zuelako. Hurrengo txostena, hilaren 29an aurkeztu zuen, azukre kutxak egiteko, New Orleans-etik (Estatu Batuak) oholen sarrera klandestinoak ekiditeko, gai hauek dakartzaten ontziek kontularitza berriaren moilan atraka eta deskarga zezaten.

1793ko abuztuaren 29ko Herrialdearen Lagunen La Habanako Elkarte Abertzaleak erakunde honetan sartzeko eskariak aztertu ostean, Gabriel Raimundo Azkaraterena boto bidez onartzea erabakiko zuen. 1817ko katalogo orokor alfabetodunean, 117. bazkide zenbakiduna izango da. Juntak onartu zuenetik harrezkeroko 15 urtetan, 208 pesoko kuotak ordaindu zituen, hari eta hil zen arte.

Azken urte honetan, esklaboak portuan sartzan dituzten ugazaba eta kontsignatzaileek eskainiriko erresuminaren ekoizpena biltzen, egiten zuen ahalegina goraiatu zion juntak, urteko lehen sei hilabetekoa 1.940 peso eta 7 errealekoa izanik. 1803-06 aldian elkarteko diruzaina izango da; bazkide bakoitza sailen batean sartu behar izan zuenean, merkataritzakoa aukeratuko du beretzako.

La Habanako Merkataritzako Erret Kontsulatuak 1797ko ekainaren 7an egin zuen gobernu juntako bileran hartu zuen parte lehendabizi, kontsulordeko kargua zin egitera lehendakariaren aurrean. Urte bereko irailaren 20ko bileran, boto aniztasunez kontsul hautatu zuten, Jose Antonio Arregi eta Pedro Juan Eritzerekin batera. Urte bi beranduagoko ekainaren 7ko bileran, kontsulorde hautatu zuen juntak, Felipe Fernandez Silva kontsul berriaren ordeko. 1802ko urriaren 27ko bileran, juntaren aginduko Guatemalako arroa bi añil hazi aurkeztuko du. Kontsulatuak, hazi hau landu eta zainduko luketenei emateko zen, uharteko hazi arruntarekin alderatuz askoz hobea zelako.

Esklavo kontrataren zazpi baldintzei buruz, Liverpool-eko Backer and Dawson etxeak proposaturikoari, Merkataritzako Kontsulatuko ahaldundu orokorren gomutatzeak sinatu zituen 1788ko abuztuaren 12an, Andres Loitzaga eta Jose Antonio Arregirekin batera. Hiriburuko kontsulatuak Haziendako ministroari, 1799ko ekainaren 10ean, esklabotzaz zuzendu zion txostena ere sinatu zuen, O'Farrill eta J.J. Patron-ekin.

Frantzia eta Ingalaterraren arteko bake aurrekariak sinatu ondoan, Argonauta deituriko itsasontziak ekarri zituen azken berriak penintsulatik. Bando bidez egin ziren hauen iragarpenak La Habanan, 1801eko abenduaren 24an. Gerra bukaeraren ondorioz bandera neutralen menpeko merkataritza atzerritarraz harturiko neurriez izugarritzko iskanbila sortuko zen, non Gabriel Raimundok protagonismo handia izango zuen.

Honek, Cádizeko Merkataritzako Erret Kontsulatuko ahaldundu legez, La Habanakoak hurrengo urtarilaren 13an eginiko bilerara data bereko agiri gogorra aurkeztu zuen, uharteko merkataritza atzerritarren eta hauen erresidentziaren kontra. Gerra bukatuak, penintsulako ontziak laster iristear zirelako, badian eta uhartean zehar zeuden ontzi neutralak eta atzerritarrak kanporatzea eskatu zuen.

Portuan ontzi atzerritarrik ez sartzeko eta bertan zeudenei deskargarik egitea ukatzeko, ahalegin bereziak aldarrikatuko ditu. Hauen presentziak penintsulako espedizioak urritu, atzerritarren kontrako Indietako legeak hautsi eta uharteko azukrearen zein kafearen prezioak behera zitezkeen arrazoietan oinarrituko zuen bere eskaria.

Aldi berean, plazako hogeita hamabi merkatariren txostena ere irakurri zen, ontzi neutralen desgarka eta beste sei hilabeteetan euren kontuak likidatu eta fondoak batzera zetozten gainerakoen sarrera baimentzeko eskatuz. Kotsulatu-ko lehendakariak, aurrerantzean ez zuela ontzi atzerritarrik onartuko, baina portuan zeudenen deskarga bai, baina fruitu eta gaiak jaso ditzaketen baldintzen truke.

La Habanako Itsas Aseguruen Konpaniako harpideduna izan zen, Bonifazio Gonzalez Larrinagarekin batera sorkuntzako bileran parte hartuz, 1794ko abenduaren 30ean. Konpainiako fondoa 800.000 pesotan ezarri zuten, 500 peso bakoitzeko 600 akziotan banandurik. Bonifaziok eta berak, lau akzio erosi zuten bakoitzak.

Nuestra Señora de la Asunción lekua, Jose Rafael Ugartek erosi zuen lehen-dabizi 1790ean, azukrea fabrikatzeko ola baten eraikuntza lanak berehala hasi zituela. Gerora, Gabriel Raimundo Azkarateri saldu zion 1793ko irailean. Hurrengo urterako amaitu zuen Azkaratek eraikuntza, eta esplotakuntzan jarriko du gutxira. Azukre-olaren kokalekua, La Habanaz 11 legoa hegoaldera zegoen, El Sacramento de Guara zerritoki suntsituaren lurretan, Pedro Aljovin-en lurren eta tabako ibarretako mugetan. 43 kaballeriako (578,35 ha.) luze-zabala zeukan ondasunak.

Leku hau, 1793an saldu zenean, kaballeria bakoitza 10.750 pesotan izan zen tasatua, oraindik errota eraiki gabe zeukala. Jose Leandro Pedroso-ri 591 peso eta 4 erreal eta erdi, gehi honen urteko %5 ordaintzera derrigortu zitzaionez, segurtasunerako azukre-ola honen bahitura egingo zuen. Aita Pedro de San Antonio belemitarren bizitzarako, 5.000 peso aseguratuz zuen ondasun horren ondare bidez, 1798. urtean.

Hargatik, bere suhi Jose del Castillo, alaba Maria Doloresen senarrak, eta seme Gabriel Mariak sustaturiko diligentzien ondorioz, asegurantza hau kantzela-tu egin zen, 1847.enean. San Francisco de Asis azukre-olaren ugazaba ere bazen, zein Perú izeneko zerritoki errautsiaren lurretan baitzegoen, La Habanaz 8 legoa haizaldera. Bere balioa 182.642 pesotara iristen zen.

Mallaguano deituriko moxaltokia bere ondasunen artean zerrendatu zen. Izen bereko zerritoki errautsiaren lurretan zegoen kokaturik, La Habanaz 12 legoa hegoaldera. Lurrak, hesiak, urlekuak, fabrikak, abereak, lanabesak eta beltzen balioa guztira 29.929 pesotara iritsi zen. Berdin, Tapaste zerritoki errautsiaren lurretan zegoen Aljibe moxaltokiaren ugazaba, zein La Habanaz 8 legoa haizaldera baitzegoen, 24.217 pesotako balioa izanik.

Mercaderes kaleko 18. zenbakian bizi zen. Bizilekuaren, gehi altzariak eta esklaboen balioa, 32.443 pesotara iritsi zen guztira. Luis Gonzaga galtzadako orube erdi bat, eta Guadalupeko erret galtzadako orube osoa eta atal baten uga-zaba izan zen, hiruron balioa 3.155 pesotara iritsiz.

Cádizeko Gabriel Benitez Iriarteren alarguntsarekin merkataritzako negozioak egiteko zeukaten enpresako kontu batzuk eduki zituela aitortu zuen. Enpresa hau, 1818. urtean likidatu zuen, alarguntsaren seme Frantzisko Benitez Iriarte eta ahaldunaren onespenez. San Frantzisko komentuko sindiko gisa interesak sartuko zitzaizkion, eta hiltzean, Domingo Gorostitza bere dependienteari 2.000 peso ordaintzea erabaki zuen.

Valladolideko Erret Kantzelaritzako Zaldunsemeko Aretoko Zaldunsemegoko erret horniketa jaso zuen 1786ko urriaren 11an. Julian Jose Brochero, Haren Maiestateren kronikagile eta armatako erregek luzatu zion hura.

La Habanan testamentu egin zuen, Ramon Alvarez eskribauaren aurrean, 1819ko abenduaren 13an.

#### **Iturriak**

D.G. H.A. Bataioak: 8. lib. 116a or.

K.A.N. Hipotekakato Ohartza: 23 lib. 214a or.; 24 lib. 242 or.; 27 lib. 158a or. Gerrako Eskribautza: 759/11775 leg. zka. Sustapen Junta. 72/2790, 73/2795 leg. zka.; 162 lib. 137a or.; 165 lib. 238a or.

L.H.A.H. Udaleko Agiriak: 50 lib. 3, 64-64a, 200a-201, 206-208 orr.

#### **4.11. BASABE URBIETA, Frantzisko Antonio**

Oiartzunen (Gipuzkoa) jaio zen 1672ko urriaren 9an. La Habanan hilko da 1738ko martxoaren 1ean.

Aitaren aldetiko aitona, Gabriel Basabe Eraso, Oiartzunen bataiatu zuten 1622ko otsailaren 27an. Amona, Maria Iñiguez anderea izan zuen. Aita, Luis Basabe Iñiguez, 1646ko irailaren 11an parrokia berean bataiatu. Ama, Maria Mikaela Urbietta Arangibel, Migel eta Mariaren alaba izan zuen. Frantzisko Antonio, San Estebaneko parrokian bataiatu zuten.

Frantzisko Antonio Zabala, Zestoako hiribilduko eskribauak, 1713ko uztailearen 16an emaniko testigutza baten arabera, Basabe hauek leinu-etxe honetatik etorri datozela baieztatu zuen. Frantzisko Basabe Urbietak, Oiartzualdeko Errenteriako (Gipuzkoa) hiribilduko sindiko prokuradore orokorraren aurrean, zaldunsemea zela probatu zuen, Gipuzkoa probintziako aldundiak onartu egin ziona. Felipe Agirre, maiestateren eta probintziako juntetako eta aldundietako idazkariaren 1711ko abenduaren 24ko despatxuan, horrela dago baieztatuturik.

La Habanako katedralean ezkondu zen 1698ko abenduaren 20an, Feliziana Espellosa Bucarely, Jeronimo Espellosa Tamayo lotinantordearen eta Justa Bucarely Padilla anderearen alabarekin. Euren seme-alabak, Maria Josefa, Tomasa, Karlos Frantzisko, Frantzisko Antonio eta Luis Frantzisko Basabe Espellosa izan zituzten.

Amargura kaleaz kantaleko den Mercaderes-eko 213 zenbakiko etxea, 1728ko ekainaren 26an Maria de Gion ugazabari erosi zion Basabe Urbietta kapitainak. Baina, 1730eko uztailaren 5eko eskritura batean, zentsu bateko erosketan egin zen 1.300 pesotan. Eskriturak, aipatu orubea 1.000 pesotako beste zentsu batean baino ez zela geratzen grabaturik argi gera zedila azpimarratzen zuen. Basabe kapitainak, etxeak erosi ostean, *"las fabricó y reedificó de nuevo y sus acesorias, las que al presente son de un valor de treinta mil pesos, antes más que menos"* baieztatzen zuela zentsu erosketak.

La Habanako udalak, 1729ko urtarrilaren 1ean eginiko batzarrean, guztion aho batezko, Frantzisko Antonio Basabe prokuradore orokor aukeratzea erabaki zuen. Urtarrilaren 10erako azaldu zaio Basabe prokuradoreari gainditu beharreko lehen oztopoa, Honduras-eko probintziarekin uharteak zituen merkatal harremanak zirela medio.

Urte batzuk lehenago, erret agindu batez, La Habanako portuari eta gainerakoei ere, Amerika Erdialdeko herrialde harekin zeuzkaten lizentziak debekatu zituzten euron kaltetan. Ondorioz, bere enpleguaren betebeharrari eta indarrari eutsiz, Honduraseko probintziak hiriarekin eta uhartearekin lehenago zeukan tratua eta merkataritza zabaltzeko mesedea eskatu zion udalbatzarrari.

Urte bereko martxoaren 10eko udalbatzarrerara, beste honako mozioa aurkeztu zuen. Gurdi ugazabek fabriketara harriak erodateko trafikoko baimena zutela, baita artean, kaleak konpontzeko harri-koskorra, lurra eta harriarrabota garraiatzeko derrigorra ere. Beraz, Santa Teresa monasterioko eta Amargurako kale bion egoera baldarraz oharturik, gobernari eta kapitain nagusiak gurdizainei astean behin gurdietan aipatu harrigai nahikoa ekartzeko agintzea proposatu zion batzarrari. Harresiko ateta bietako oinezkotzako ofizialei aginduak helaraziz.

Era berean, hiri barruko zein landako ubideak, garbiketa eta hobekuntza faltagatik oso egoera txarrean zeudela, zeinaren eraginez urak inoiz gelditu ere egiten zirela. Hargatik, bizilagun gehienak, eta bereziki pobreak hornitzen ziren uraskak hutsik egoten zirela. Gainera, erregeren ontziek eta partikularrek ur horniketarako hortxe ere egiten zituztela azaldu zuen Antonio Basabe kapitain eta prokuradoreak, egun bereko batzarrean.

Horreterako, ubide garbiketa horien alokatzaileak bere betebeharra egin dezala eskatu zion udalbatzarrari. Azkenik, bizilagun batzuek abeletxeetan erosten zituzten ganaduak askoren kaltetan, gero hirian bersaltzen zituztela argitu zuen. Lehengoaz gain, beste pregoi bat berraldarrikatzea eskatu zuen Basabe kapitainak, zigor larriak iragarritz.



Gari eta irin faltaz, ogi eskasia nabari zelako, urriaren 7ko udalbatzarrera ondoko azalpenak aurkeztuko ditu, *"egun gutxi barrura ogi gabezia totala izango da, honek hainbat kalte ekarriko digularik. Horren artean, ogiaren ordezkotik erabiltzen ditugun kasabea, bananoak, boniatoak eta gainerako barazkien garestitzea ageriena dela"*. Eta bien bitarteko proposamena ere bazekarren Basabek, *"Mexikotik, hiru ontzitan irin kargak ekar daitezela Erret Haziendaren kontura, eta gainerako irin onbarkeak itxaron ditzagula, hurrengo etsaien okasiorako leku hau hornitua egon dadin"*.

1730eko urtarilaren 1eko udalbatzarrean, alkate arruntek eta errejidoreek guztien aho batezko, urte berriko prokuradore orokorra hautatzean, Frantzisko Antonio Basabe kapitaina aukeratu zuten berriro. Dionisio Martinez de la Vega gobernari eta kapitain nagusiak, bere oniritzia eskaini zion aukeraketari.

Urtarilaren 16ko bilerara beste arazo larri bat aurkeztu zuen Basabe prokuradoreak.

San Felipe eta Santiagoko markesari, hiri honetako ur hornidurako ubidera sartzeko zuzen ibaiak presako bere lurretan, errota bat ezartzeko lizentzia eman ziola udalak. Hark aho bat zabaltu diola ubideari, eta bertatik bideratzen dituela harrezkero zerratokiko oholak. Hainbeste darabiltzalako ur isuri ikaragarria zabaltu zaiola ubideari. Gainera, ubidean kokaturiko errota-ugazabek gain, hiriko ur hornidurari, gotorlekuak eta itsas ur horniketari kalte handia egiten zaiela, begibistakoa denez [...],

mozioa zuzendu zion udalbatzarrari behar bezalako neurriak hartzeko.

Basabe beldur zen benetan, arazoa berehalakoa konpondu ezik, hiria urrik gabe gera zitekeelako. Ubidea eraikitzea hainbat lan kostatu izanik, eta bere fundazioetik harrezkero lorturiko emaria hain ona izaki, ondoko hau proposatu zuela,

[...] erret fabriketako oholak beste zerratoki batean izan daitezela zerratuak, ez daitezkeen horretara presako atetik pasa. Erregek ubidetik pasatzeko oholik ez daukan bitartean, aipatu markesak ez ditzala bereak presatik ezta ubidetik ere pasa, gainerako errotaiek egin atzean.

Dionisio Martinez de la Vega, gobernari eta kapitain nagusia parrokiako eliza eraikitzeke ahaleginetan zebilela oharturik, udalak otsailaren 16an ospaturiko ezohizko batzarrean, hamar kaperak fabrikatzeko kontribuzioa agindu zuen. Era berean, *"Yo el dicho Capitán D. Francisco Antonio Bassave contribuiré con un mil quinientos pesos para que se fabrique otra capilla a Jesús Nazareno, que así mismo está en dicha Parroquial Mayor en la misma forma"* azaldu zuen batzarrean bere aldetik, Basabe prokuradoreak.

La Habako hiriak kakao hornidura apurra zuela, Antonio de la Luz izeneko jaun batek, gertatu zen gainerako guztia erosi zuen. Bersaltzeko edo bestela Mexikoko erresumara ontziratzeke zen. Kakaoa, kanpotik ekartzen zen lehengaia zen; beharrezkoa eta era berean populazioak asko kontsumitzen zuena. Basabek urteko maiatzaren 5eko udalbatzarrera, eduki honetako mozioa aurkeztu zuen, *"ontzidi honetan inork ez dezala kakaorik ontziratatu, eta Antonio de la Luz jaunak ez dezala bere kakao osoa ezta zatirik barruratu ere edo lehorrez kanpo jaurti"*.

Azaroaren 24ko udaleko bilerara, ondoko proposamena aurkeztu zuen Basabe kapitainak:

Iraileko eta urriko hileetan, kontrako haizeko aldizkako bi ekaitz jasan zituen uharteak. Bata hegoaldean, eta bestea iparraldean. Zelaietan kalteak hain izan ziren handiak, ez abeletxerik ez fruitutzarik geratu baitzen behera bota gabe. Zutik ziren arbolak lorerik eta hazirik gabe zeuden. Garauei begira, artoak eta yukak guztiak galdu ziren, baita platanoak ere. Hogeita hamahiru egun jarraian ari zuen euria. Errekak gainezka ziren, elkarren urak bilduz. Ito eginiko abeletxedunen zerri eta behi, zaldi eta asto ganadua kontaezin bilakatzen zen. Bideak itxi eta sartzin gelditu zirenez, laguntzarik urriena ere ezin zitekeen eskaini.

Beraz, Cartagenatik (Kolonbia) itxaroten ziren Manuel Lopez Pintado-ren galeoiak, espetxeko batailoia eta gotorlekuetan zein portuko eremuetan lanpeturik zeuden 200 esklabo, bere kargu uztea eskatu zion gobernari eta kapitain nagusiari. La Habanako udalak 1731ko urtarrilaren 1ean ospatu zuen batzarrean, Frantzisko Basabe, negoziotako gizona eta merkataria aukeratuko zuen hiriko eta eremuko alkate arrunta izateko.

Merkataritzako Erret Konpainiako akzioduna ere izan zen. Zeukan hiru akziotik konpainiari bi saldu zizkion garaian. Basabe ez zen konforme egon, egin zioten ordainketaz. Ondorioz, jaso zituen 400 peso eta 5 erreal baino gehiago eskatu zuen, akzioek aipatu zenbatekoa baino kotizazio hobea zutelako.

Diego Peñalver Angulori erosi zion Barakoa zerritokiaren ugazaba ere izan zen. Hau, La Habanaz 6 legoa haizabera zegoen kokaturik. Belemitar komentuko fraideei saldu zien, 1729ko azaroaren 20an.

### **Iturriak**

D.G.H.A. Bataioak: 4. lib. 4a or.

L.H.A.H. Udak Agiriak: 24. lib. 2- 4, 10a-11, 65-66, 70a, 87a, 94-94a, 101, 109-109a, 133-134, 223a- 224, 240a, 241 orr.

### **4.12. BEITIA RENTERIA, Jose**

Bakion (Bizkaia) jaio zen 1715eko martxoaren 22an. La Habanan hilko da 1770eko ekainaren 24an.

XVI. mendearen azkenetan Bakio hiribilduko Basigo eta San Pelayo elizatean egon zen kokaturik familia hau. Hemendik La Habanara aldatuko da XVIII. erdialdean.

Aitaren aldetiko aitonak, Domingo Beitia Ibañez eta Ursula Olongo Ugalde izan zituen; Juan Renteria Ametzaga eta Maria Batista Balanda Lejarreta, amarenekoak. Aita, Jose Beitia Olongo izan zuen. 1684ko apirilaren 23an, bataiatu zuten Bakioko parrokian. Ama, Maria Magdalena Renteria Balanda oster. Jose Beitia, Andra Mari Asuntziko elizan bataiatu zuten.

Basigoko elizatean, nobleziako informazioa egin zuen bere ahaldunduaren bitartez. Aldeko ebazpena lortuko zuen, 1755eko abenduaren 22an. Baita armatako ziurtapena ere 1757ko urtarrilaren 22an, Sebastian Castillo Ruiz, Haren Maiestateren armatako erregek emanik. La Habanako udalak 1757ko irailaren 9an buruturiko bilerara nobleziako informazioa aurkeztu zuen.

Jose Beitia Renteria bi alditan ezkondu zen La Habanako Izpiritu Santuko parrokiari. Lehendabizi, 1747ko urtarrilaren 6an, Rita Luziana Castro Espinosa, Frantzisko Castro Bravoren eta Ana Espinosa Monteser-en alabarekin. Maria Josefa eta Antonio Jose Beitia Castro izan ziren euren seme-alaba biak. Bigarrenez, 1757ko martxoaren 3an, Manuela Castro Espinosa, lehen emaztearen ahizparekin.

Alaba Maria Josefa ere, La Habanako Izpiritu Santuko parrokiari ezkondu zen 1770eko martxoaren 5ean, arespalditar Jose Antonio Armona Murga, Kubako Errenta Errealeko eta Postetako administratzaile orokorra zenarekin. Seme Antonio Jose brigadierra izan zen, Santiago ordenako zalduna, Real Socorro-ko bigarren markesa, miliziatako koronela, eta La Habanako udaleko gordailuzain orokorra 1777ko urtean.

1762. urtean ingelesek La Habana hartu zutenean, goarnizioak behar zituen zapata guztiak berak ordaindu zituen; baita landalur eremuko troparena ere. Bere kargu hartu zuen hauen fabrika guztia eta beti ordezkioak edukitzen zituen biltegietan. 300.000 peso sendo inbertitu zuen, itsas eta lehorreko nagusiei, hauen menpekoei, ospitaleak zaintzen zituzten komisarioei, zirujauiei, botikariei eta praktikanteei, merkatariari, eta bereziki ospitaletako lander eta zaurituei laguntza eskaintzeko, goarnizioak eta ospitaleak iraun zuten bitartean.

Riklako konde eta kapitain nagusiak eskerrak eman zizkion erregeren partez, eta memorial bat idaztea eskatu zion Haren Maiestateri igortzeko. Gainera, ingelesestatik askatzeko 165.000 peso ordaindu zuen erreskate gisa. Aparte, erreskatearen parte ordain ahal zezaten, 36.000 pesotako mailegua egin zion Arosategi familiari, 7.000 pesotako erreditan.

Manuela Castro Espinosa bigarren emaztearekin amankomunean, Kristobal Vianes Salas eskribauaren aurrean testamentua egin zuen 1758ko maiatzaren 17an. Horren arabera, bigarren ezkontzako bere kapitala 63.180 peso eta erreale 2 izan zen. Emazte Manuelarena osterara, 12.000 pesotakoa izan zen, Antonia Josefa Caravali beltza, bahiak, jantziak eta errealeen balioa hain zuten.

Hileta, mezak eta legatuak ordaindu ondoko, bere ondasunen bostena Manuela Castro emazteari oinordetu zion. Nikolas Fernandez Landa eta Julian Parreño jaunak izendatu zituen ondasunen albazea. Antonio Jose eta Maria Josefa Beitia seme-alabak, ondasun guztien gerakinaren, zorren, eskubideen eta akzioen oinordeko bakarrak aitortu zituen.

Jose Beitiak, kodizilo bat ere eroan zuen Inazio Rodriguez eskribauaren aurrera, 1770ko maiatzaren 8an. Testamentuko klausula batean, emaztea alba-

zea eta ondasunen edukitzailea izendatu zuen. Hau hil zenean, suhi Jose Antonio Armona Murga, errentetako administratzaile orokorra, eta seme Antonio Jose Beitia izendatu zituen albazeak eta ondasunen edukitzaileak. Haren Maiestatek, bere izeneko erregentziak ordaintzeagatik 110.000 pesotako zenbatekoa zor zio-la aitortu zuen.

Hidropesia gogor batek jota hil zen 54 urte zituela. San Frantzisko komentuko sindikoa zenez, hantxe hilobiratu zuten bataiarriaren azpian, harlauza eta hiloharrak bertan ezarri zizkiotelarik. Hil aurretiko egun batzuk lehenago iritsi zitzaion Indietako ministroaren plegu bat, Gaztelako tituluaren graziaz eta Real Socorroko markesaren izenburuaz, La Habanako setioan eta plaza galdu ostean eskaini zuen zerbitzuei esker.

Hau, errege Karlos III.ren 1770eko martxoaren 18ko despatxuaren arabera. Aurretik, Beitiako bizkondetza hartu zuen. La Habanako Oficios kaleko 19 zenbakiko etxea, markesautzako egoitzarako lokarritu zuen.

Santiago ordenako zalduna izan zen. Baita La Habana udaleko errejidorea 1757. urtean, dirugordailu orokorra eta Oinezkotchako Boluntarioren Errejimentuko koronela ere.

#### **Iturriak**

B.E.H.A. Bataioak: ES/AHEB-BEHA/F006.035 (0253/003-01)

K.A.N. Bernardo del Junco Bermudez-en Eskribautzak: 1757 urte, 1 tomo, 632a, 656 orr.; 1770 urte, 506 , 512a orr.

#### **4.13. BERROA URTARTE, Esteban**

Irunen (Gipuzkoa) jaio zen 1647ko maiatzaren 12an. La Habanan hilko da, 1728ko martxoaren 21ean.

Gurasoak, Juan Berroa Urdanibia eta Magdalena Urtarte Aldatxe izan zituen. Aitabitxiak, ostera, Jenaro Urtarte eta Josefa Berroa. Andra Mari Junkaleko parrokian bataiatu zuten.

La Habanako katedralean ezkondu zen 1672ko irailaren 19an Maria Garro Bolibar Gonzalez de la Torre-rekin. Emaztea, Karlos Frantzisko Garro Bolibar, maiorazko, prokuradore orokor eta alkate arruntaren eta Andrea Gonzalez de la Torre de las Casas anderearen alaba zen. Seme-alabak, Manuela, Maria Blasa, Bernabe Frantzisko eta Esteban Seberino Berroa Garro izan zituen. Azken hau, kapitaina eta La Habanako alkate arrunta izan zen.

1702. urtean, indar ingeles batzuk Floridako presondegia blokeatu zuten itsas aldetik. Diego de Cordoba gobernariak, La Habanako portutik bost ontzi bidali zuen, oinezkotchako ordaindua eta miliziekin tripulaturik. Espedizioan Esteban Berroa kapitainak agintzen zuen. Etsaia atzeraraztea eta aipaturiko preson-

degjari laguntzea lortu zituen. 1703. urtean errege Karlos II.ak La Habanako gobernari zedulaz jakinarazi ziona.

Pedro Alvarez Villarin kapitain nagusiak zuzentzen zuen espedizioak, portuaz haizaldera hartu zuen Charleston-erako (Estatu Batuak) itsasoan barrena, 1706ko abuztuaren 16an. Lefèvre ontzi kapitainaren menpeko bost ontzi frantses, 300 granadarirekin gehi marineleriarekin zegoen osoturik ontzidia; artean, Esteban Berroaren agindupeko La Habanako 200 boluntario ere.

Ontzidiak baina, Charlestoneko San Jorge-ko gotorlekutik hurbil zegoela, mugimenduak arindu ordea, beharrea denbora larregi galdu zuen badia zeharkatzen, eta hurrengo egunera arte atzeratu beharko zuen desenbarkua. Gobernari ingelesak, aprobetxatu egin zuen atzerapena, gau hartan bertan miliziekin eta defentsez berrindatu zuelarik lekua. Modu horretara, sorpresa neutraldu egingo zuen. Erasotzaileek, orduan leku batzuk sakeatu eta hondartzan borrokaldi arinak egitera mugatu ziren, harik eta arerioaren itsas indar nagusiagoak hurbildu zitzaizkien arte. Itsasoratu egunetik hirugarren astera itzuli zen ontzidia La Habanara.

Urte batzuk geroago, Gregorio Guazo Calderon brigadier eta gobernariak, erasogarritasun gutxiagoko espedizio berria egitea erabaki zuen, Louissiana (Estatu Batuak) ertzeko kolonia frantsesetara eta Carolina-ko (Estatu Batuak) leku ingeles batzuetara. Egunetara, hamalau ontzi arinak prestatu zituen 900 boluntarioekin; hirurenak grina handiko beltzak zirela. Goarnizioko beste konpainia bi ere abiatu ziren, Esteban Berroaren agindupean.

Espedizio honek, 1719ko uztailaren 14an egin zuen itsasoan barrena, Alfonso Carrascosa de la Torre koronelordearen gidaritzapean. Arratsalde berean, bandera parlamentarioaz La Habanara zuzentzen ziren bi fragata frantses aurkitu zituen kostaldean, Pensacola-n (Estatu Batuak) kapitulaturiko goarnizioarekin zetozela. Atzeman egin zituen, fragatetako komandanteen protestei jaramonik egin gabe, eta La Habanara itzuli zen fragatekin.

Lehen prestaturiko armadari, goarnizio kapitulatua eta fragata biak gehitu zitzaizkion. Ontzidia uztailaren 29an itsasoratu zen ostera, La Habanatik. Abuztuaren 24an, erresistentziapurra izanik, Pensacola berreskuratu zuten. M. de Cateaugné-rekin lekua gordetzen gelditu ziren 400 frantses, ontzi bi eta iskiluak harrapatu zituelarik.

Gerora, Mendieta eta Berroa kapitainak, Mississippi ibaiaren ahoko kolonia frantsesak atzematera abiatu ziren. Baina hantxe zegoen Bienville beste 300 kolono, soldaduak, eta indigena aliatu ugarirekin erasotzaileen zain. Berroa eta Mendieta, baserri batzuk hondatu ondoren, eta jende banaka galdu zutela, Pensacolara itzuli ziren berriro.

Frantziako Antilletako itsas indarrak agintzen zituen Desnots de Champmeslin markesaren aginduz, 600 boluntario espainiar eta beltzekin berrituli zen Mendieta portu horretara. Florida erasotzeko oso ahul zegoenez, Pensacola suntsitu ondoren, Frantziara zuzendu zen Champmeslin. Matamoros, Carrascosa,

Berroa eta La Habanako goarnizioko beteranoren konpainia bi, gatibu eramango zituela berarekin.

1699. urtean, Esteban Berroak, 20.000 mila libra tabako txorta saldu zion Erret Haziendari, 10.000 errealetan. Seme Esteban Berroa Garro eta Diego Molinarekin batera, Nuestra Señora del Rosario eta San Juan de los Remedios edo Cojimar izeneko azukre-olaren herenaren jabea izan zen.

Diego Molinak gainerako bi herenak erosi zizkien Esteban eta Mariari 1713an, jabego osoa eskuratuz. Urte bi beranduago, Molina honek, Juan Tomas Sayas Bazan, Esteban Berroaren suhiari saldu zion azukre-ola, 1740ko hamar-kadan lurrera jaurti zuen arte. Urte bi beranduagotik 1760ra bitartean, alaba Maria Blasa Berroa, Sayas Bazanen alarguntsa eta oinordeak, suntsituriko azukre-olaren lur eremu handienak saldu egin zituen.

La Habanako portuko badiaz haraindiko ertzetik 11 bat kilometrotara zegoen kokaturik, Cojimar ibaiaren ondoan. 16 kaballeriako (215 ha.) luze-zabala zeukan. 7 ereintzako lur ereinak eta 9 basorako zerabilela. Eraikina suntsitu ondorengo lurrak, tabako haranak eta ereintza lekuak sustatzeko saldu ziren. Maria Blasak esaterako, 1759ko martxoaren 24an, lur ereineko 1,5 kaballeria (20 ha.) saldu zion Manuel Etxenikeri.

### **Iturriak**

D.G.H. A. Bataioak: 1. lib. 26. or.

K.A.N. Bahituratako Ohartza: 2 lib. 319a-320 orr.; 4 lib. 204 or.; 5 lib. 36 or.; 7 lib. 98a or.

L.H.A.H. Udal Agiriak: 16. lib. 409a or.; 18. lib. 5, 50 orr.

## **4.14. BILDASOLA GARDOKI, Jose Mateo**

Bilboko Alde Zaharrean jaio zen, 1764ko irailaren 21ean. La Habanan hilko da, 1821eko urtarrilaren 3an.

Aitaren aldetiko aitonak, Agustin Frantzisko Bildasola eta Maria Josefa Izartza bilbotarrak zituen. Amarenekoak ostera, (Gernika) Lumoko Jose Gardoki eta Bilboko Maria Simona Arrikibar.

Aita Jose Fausto Bildasola Izartza, Bilboko errejidorea eta alkate arrunta izandakoa zuen, eta ama Maria Frantziska Gardoki Arrikibar. Jose Mateo, Santiagoko eliza nagusian bataiatu zuten, aiton-amona Agustin Frantzisko eta Maria Simona aitabitxiak zituela.

Nobleziako informazioa (1792.10.25) sustatu zuen Bilbon. Ahalordea, Domingo Aresti prokuradorea izan zen, eta Frantzisko Xabier Pujana eskribauaren aurrean egin zuen aitorpena.

Jose Mateo Bildasola, Maria Josefa Jauregi Arostegirekin ezkondu zen (1799). Emaztea, Juan Tomas Jauregi Maiora baztandarraren eta Maria Ana Arostegi Basaberen alaba izan zen. Zortzi seme-alaba eduki zituzten: Juan Tomas, Jose, Frantzisko Paula, Fernando, Mariana, Maria Angeles, Maria Manue-la eta Maria Angustias. Juan Tomas, Alcala de Henares-eko Zapadore Meatzaile Errejimentuko lotinantordea izan zen. Alaba Mariana, Agustin Gomez de Otsaga-bia, barrutiko entzutegiko entzulearekin ezkondu zen.

Bildasola Gardoki, Armadako Ohore intendentea eta Puerto Principeko karguko lehen jabea izan zen gorteek uhartea bi intendentzian zatitzea erabaki zutenean, 1813ko urtarrilaren 1ean. Azukrea fabrikatzeko El Rosario olaren uga-zaba legez agertuko da emazte Maria Josefarekin batera; nahiz gerora, koinata Maria Felizianak ahizpari erosi zion erdia.

Mexikoko Armadako Kutxatako diruzaina izan zenean, 14.000 peso eta akats lapurtzea akusatu zuten. Erdizana aurreratu behar izan zuten, Jose Mateok eta Jose Maria Lazo kutxatako kontulari eta lankideak. Baina diruzainaren eta kontulariaren errugabetasuna ondo oinarrituko zen antza, Erret Haziendako fiskal-lak ere, prozesuan horrela aitortu zuelako.

La Habanako Mercaderes kaleko, 26. zenbakiko etxeko goi-beheak bereak zituen; baita San Inazio kaleko, 50. zenbakiko behekoarena ere. Amargura kaleko, 44. zenbakiko goi-beheak; Obra Pia kaleko, lau beheak; eta Oficios kaleko goi-beheak. Etxe guztion balioa 93.575 pesotara iristen zen. Esklabotan, bederatzi gizonezko eta sei emakumezko zeuzkan, 6.300 pesotako balioko guztira. Azkenik, zilar laboratua ere bazeukan, 4.360 pesotan.

Jose Salinasen aurrean egin zuen testamentua La Habanan, bere heriotza egunean. Ondasunen lehen albazea edukitzaile, emazte Maria Josefa Jauregi izendatu zuen; bigarrena, suhi Agustin Gomez de Otsagabia; eta hirugarrena, koi-natu Juan Batista Jauregi. Heriotza, La Habanako Santo Kristo parrokiari dago izena emanik.

Puerto Principeko lehen intendentea izateaz gain, La Habanako Beltzen Tra-tuko komisarioa eta Santiago ordenako zalduna ere izan zen.

## Iturriak

B.E.H.A. Bataioak. Erreferentzi-Kodea: ES/AHEB-BEHA/F006.080(0683/001-00).

K.A.N. Gabriel Salinas-en Eskribautza: 1. tomo, 819. zka., 798a-801. orr. Gerrako Eskri-bautza: 654/10433 leg. zka.

## 4.15. BILLATE DE LA HERA, Blas

Sestao, Bizkaian jaio zen 1824ko otsailaren 4an. 1882ko urtarrilaren 8an hilko da.

Aitaren aldetiko aitonak Bernardo Billate eta Felona Balparda izan zituen, eta amarenekoak Ramon de la Hera eta Frantziska de la Punta. Aita Jose Billate Balparda eta ama Zezilia de la Hera Puentes zituen; aitabitxiak berriz, Jose Arana eta Gabriela Arrarte. Andra Mari Anuntxiko parrokian bataiatu zuten.

Espainiako lehenbiziko karlistadan hartu zuen parte, estreinako aldiz. Maroko-koan gero, eta Santo Domingo-koan hurrengo. Azken honetan, Laguna Verdeko bidean izaniko ekintza onak medio eta aurretiko meritu nahikoak izanik, zelai mariskaleko gradua jaso zuen, armadako agindu orokor baten arabera 1866an.

Urte honetako apirilaren 26ko aginduz, Kubako Kapitania Nagusiko kabo bigarrena izendatu zuen erregek, La Habana lekuko gobernari militarra zela. Hurrengo urteko abenduaren 24ko armadako agindu orokorraren bitartez, Frantzisko Lertsundi jeneralorde eta kapitain nagusi berriaren iritsiera iragarri zen. Blas Billate zelai mariskala kargutik kendu egingo da, eta gradu bereko Antonio Veneno lekuko gobernari militarren orde zarriko dute berriro.

Aurretiago, Blas Billate brigadierra zela, Trinidadeko tokiko magistratua izan zen 1860an. Gero, Camaguey-ko komandante politiko eta militarra izanik; 1864. urterako, uharterako ekialde departamentuko komandante nagusi izendatu zuten.

1868ko urriaren 8an, Karlos Manuel de Cespedes-en agintepean, Hamar Urtetako Gerra hasiko zen. Frantzisko Lertsundi kapitain nagusia egoeraren larritasunaz karguturik, Blas Billate gobernari militarra, gerra operaziotako buru nagusia izendatu zuen. Hau,aldi batean ekialdeko komandantea izan zenez, ondo ezagutzen zuen departamentu hartako topografia eta harreman onak zituen eremuko espainiarrekin. Berehala atera beharko zen, matxinatuek arriskuan jartzen zuten Bayamo-ko lekua berreskuratuz. Hiribildu horretara hartu zuen lehendabizi, baina matxinatuz inguraturik aurkituko zuen Manzanillo, Bayamorako bidea itxiaz zutabeari.

Handik, Camagueyko bidea hartu zuen gero, Napoleon Arango matxinatu buruarekin bandera espainiarraren menpeko bake hitzarmena eztabaidatzera. Matxinatu honen eraginez, Billate zelai mariskalaren tropak ezelako eragozpenik gabe iritsi ziren aipatu hirira, azaroaren 19rako. Hargatik, gainerako matxinatu buruek Kubako askatasunaren aldeko erabakia hartu zuten, pizturiko borrokaz aurrera eginez. Orduan, bando oldarkor bat aginduz, erabat aldatu zuen bere jarrera Billatek; gutxira, lehen matxinatua afusilatzea agindu zuelarik.

Bayamoraino iristeko tropa nahikorik ez zuenez, Nuevitas-eko porturako bidea hartu zuen, handik La Habanara itsasoz abiatzeko, Frantzisko Lertsundi kapitain nagusiarekin hitz egin eta laguntza bila. Bidean, suntsitzeko sute sistema jarri zuen abian, La Fé, El Destino, La Unión eta Santa Isabel azukre-olak errautsiz. Baina, Bonilla izeneko tokian, Napoleonen anaia Augustoren agintepeko matxinatu talde batek eraso egin zien Blas Billateren tropei azaroaren 28ko dataz. Hainbat hiliko eta zaurituriko bajak sortu zizkioten zutabeari. Hargatik, Nuevitasera ailegatu bestean, La Habanaz barrena hartu zuen tropak.



Frantzisko Lertsundirekin hitz egin zuenean, Bayamoko hiria kosta ahala kosta berreskuratzeko agindua jaso zuen. Hiri hau hartzeko martxa, Nuevitasen hasi zuen abenduaren 22rako, hiru armetako 3.000 soldaduko troparekin, Las Tunas-eko bidatzatik ekialdera sartzeko. Bitartean, uharteko kapitain nagusi berria Domingo Dulce generalordea izendatu zuten

Nuevitas-Camaguey trenbideko Bonillako lekuan berriro, borrokaldi gogor bat izan zuten bideko esperoan zegoen talde urriko matxinatuekin. Nuevitasera atzerantz egin behar izan zuen Billate mariskalak, 700 soldaduko laguntzaren zain. Ekialdeko Salado eta Cauto ibaien bidegurutzean, Donato Marmol jeneral matxinatuak fronte egin zion, 500 iskiluduneko aralde ikaragarri baten laguntzarekin. Izugarrizko sarraskiak aginduko ditu, talde matxinatu hauen kontra, erresistentzi luze eta kostagarria azkenean ere errendiaraziz. 1869ko urtarrilaren 16an sartu zen bere zutabearekin Bayamon. Hiribildua defendatzen zutenek su eman ziotenez, errausturik geratu zen hura; Zarragoitiako dorrea eta kuartel zaharra izan ezik.

Garaipen honetaz baliaturik, matxinatu ekialdearren kontrako eraso sarraskitzailea bultzatu zuen Blas Billatek. Tropak ostatu hartzeko eta munizioak gordezko biltegiatako obrak amaitu ondoren, apirilaren 4ko proklama ospetsuaren irizpena eman zuen. Bere lurretik landa egon daitekeen hamabost urtetik gorako ezain gizonezko berehala armaz hilik izango zen. Bizitzerik gabeko basetxeei, tropek su emango zieten. Oihal zuri bat bistatzen ez zuten etxe edo tokiak errautsi egingo ziren. Euren lurrez landako emakumeak, Jiguani eta Bayamon berbilduko zituen azkenean bandoak, agindua betetzen ez zutenek derrigorrez eroango zituztelarik.

Valeriano Weyler brigadier eta Billateren tropen estatu nagusiko buruak, bere agintepeko Balmasedaren Ehiztariak izeneko txokeko indarrak antolatu zituen. Honek ezarri zuen praktikan bandoa, bortxaketak eta torturak egin zein famili osoak erailik. Tomas Estrada Palmak, apirilaren 19ko karta baten bitartez, bando honen eraginak salatu zituen. Emakumezkoak, haurrak eta zaharrak erailtzen zirela, etxeei su eman, gizonaren presentzian andrazkoak bortxatu eta semeei lepoa moztzen zitzairela amaren aurrean, azalduz. Bitartean, Domingo Dulce kapitain nagusiari, Antonio Caballero Rodas jeneralordeak ondozkatu zion.

Gutxira, Caballero Rodas kapitain nagusiak, uko egin zion karguari, Madrileko gobernuak 1870ko azarorako onartuko ziola. Honen ordeztan, Blas Billate zelai mariskala izendatu zuen errege Amadeo I.ak, eta La Habanako udalak abenduaren 13an burutu zuen ezohizko batzarrean, egin zen karguaren jabe. Aurreko kapitain nagusiei, gerra garaiko kanpaina plan ondo koordinatu baten gabezia beti leporatu zenez, konfiantzako buruak leku konprometituenetan kokatu zituen, eraso gogor bat aurrera eroteko.

Juan Klemente Zenea poeta eta Ana Quesada, Karlos Manuel Cespedesen emaztea, atzerrira ihesi zihozela, Camagueyko kostetan atzeman egingo zituzten, gainerako lagun batzuekin batera. Zeneak, Mauricio Lopez Roberts, Washington-eko ministro espainiarraren eskuzko agiria zeraman ez aldean, ez zuten

hantxe bertan fusilatu, baina La Cabaña gotorlekuko espetxean giltzaperatuko. Ana anderea ostera, onegintzako etxean sartuko dute lehendabizi, harik eta Billate kapitain nagusiak, New York-era alde egiteko baimena eskaini zion arte, hurrengo urteko urtarrilaren 12an.

Hiru egun beranduago, diskurtso labur bat luzatu zien matxinatuei, hogeitamar eguneko epean armak entregatzen ez zituztenei sarraskiaz mehatxatuz. Aldi berean, koipekeria handiak eskaini zizkien buruzagi nagusienei; Maximo Gomez-i esaterako 17.000 peso agindu zion, tropa entregatu eta atzerrira ihes egitearen truke. Otsailaren 18an, kanpainako martxa burutu zuen Las Villas-era bideratuz, baina maiatzaren 15ean berriro itzuli zen La Habanara.

Hemen, boluntarioak eta egunkari estremuzaleak suturik aurkituko ditu, Zenea poetaren heriotza zigorra eskatuz. Giro kaskar hau baretzeko, jate eta ospakizun handietara gonbidatu zituen, boluntario buruak, hiriko gizon ospetsuak zein egunkarietako zuzendariak eta kontsul atzerritarrak. Ekainaren 15ean, kamagueyarrei armak lagatzeko diskurtso labur bat zuzendu die, eta hirugarrenez abiatuko da ekialdeko probintziara.

Seigarren astera, La Habanara berrituli da, baina gerraren abiada okerraz eta hiriburuan bizi zen egoera egonezinaz sekulako arduraz zekarrelarik oraingotan. Hemen, Zenearen exekuzio epaia atzeratzen zelako, orri solte bat kale nagusietako etxe guztietan zabalduko da, armadari, administrazio militarri eta Billate kapitain nagusiarri eraso gogorrek zertuz. Giro honetatik apartatzeko, Camagueyrako bidea hartuko du, eta gobernu metropolitarraren baimena lortuz gero, Juan Klemente Zenea poetaren afusilaketa aginduko du, abuztuaren 25ean.

Las Tunas-en zegoela, La Habana unibertsitateko medikuntzako berrogeita bi ikasleren atxilotetaren berri iritsi zitzaion, Romualdo Crespo jeneralak, azaroaren 26ko dataz igorri zion telegramaren bidez. Gonzalo Castañon *La Voz de Cuba* agerkeriko zuzendari hil berriaren hilobia profanatzearen akusazioa egiten zitzaion ikasleoi. Boluntarioek ez zezaten haien kontrako neurririk har, telegrama bat bidali zien, hilaren 28an bertan eurekin batuko zela iragarritz.

Erantzun honek, epaiketa eta exekuzioa arintzeko premia areagotu egingo du boluntario artean, hamar mila gizonezko bederatzi batailoiren geraldia egingo zutelarik. Fiskalak, heriotza zigorrera kondenaturiko zortzi ikasleak bere aurrera deitu ditu, eta eguerdiko ordu baterako sententzia emango du, epaiketa amaituz.

Hilaren 27ko, arratsaldeko bostetan fusilatu zituzten, Punta-ko gazteluko hormandian. Gainerako hogeita hamalau ikasleek preso atzemango dituzte. Billate kapitain nagusia, gaueko orduetan iritsi zen La Habanara, eta jazotakoaz nolabait etsiturik, matxinadaz amaitzeko epea ezarriko dio bere buruari edo bestela uko egingo ziola karguari adieraziz.

Hurrengo urteko 1872ko maiatzaren 30ean, kapitain nagusiko karguari uko egin zion Blas Billate zelai mariskalak. Gobernu metropolitarrak onartu egin zion

errenuntzia, eta Frantzisko Ceballos jeneral eta kabo bigarrena ezarriko du haren orde, uztailearen 11ko dataz.

La Habanako udalak, 1875eko martxoaren 8ko ezohizko batzarrean, uharterko gobernuko eta kapitania nagusiko karguaren edukitza eman zion Blas Billate jeneralordeari. Baina, jarraiko urtarrilaren 7an, berriro lagako zuen kargua, Buenaventura Carbo jeneral eta kabo bigarrenari entregatuz.

Balmasedako konde titulua jaso zuen. Gaztela Berriko kapitain nagusia izendatu zuten 1881ean, harik eta hurrengo urtean hil egin zen arte.

### **Iturriak**

B.E.H.A. Bataioak: 3. lib. 192. orr. Erreferentzi-Kodea: ES/AHEBBEHA/F006.295-(3123/001-00).

L.H.A.H. Udal Agiriak: 159. lib. 200-201 orr.; 164 lib. 99a-104 orr.

## **4.16. BITRIAN BEAUMONT NAVARRA, Juan**

Nafarroako herrialdean jaio bide zen.

Iruñeako Maria Beaumont Navarra izan zuen ama. Morata de Jiloca-ko (Zaragoza) Martin Bitrianekin ezkondu zen Calatayud-en bizi zelarik, 1591. urtean.

Amaren aldetiko aitonak, Felipe Beaumont y Navarra kapitaina eta Maria Espartza Artieda izan zituen. Aitona Felipe, 1582ko urriaren 24an Asiainen bizi zen, Brianda Beaumont Lerineko kondesaren zerbitzupean. Amona Maria, Juan Pasquier Agorreta, Barillas-eko IV. jaunaren alarguntsa izan zen; Espartzako jauregian jaioa, eta Iruñean Pasquier lizentziadunaren aurrean testamentu egin zuena, 1576ko apirilaren 8an. San Frantziskoko komentuan hilobiratzea eskatu zuen.

Osaba aitona Juan Beaumont Navarra Artiedako jauregiko jauna izan zen. Amaren aldetiko izeko amona Leonor Espartza Artieda ostera, Espartza eta Artiedako jauregiakoa anderea.

Lorenzo Cabrera Corvera Kubako uharterko gobernari eta kapitain nagusia ondozkatzeko, 1630eko apirilaren 24an aukeratu zuen errege Felipe III.ak. Indietako Kontseiluan beste hautagai batzuek, Juan Bitrian almiranteak baino boto gehiago jasoagatik. Apirilaren 30eko dataz luzatu zitzaion karguari zegokion titulua, baina 27rako itsasoan barrena egina zen bost ontziren aginduan. La Habanan zeuden baldintza bereziak zirela medio, Bitrianen atzetik kargua zenbait arinen hartzeko abisua bidaltzea beharrezkoa ikusi zuen kontseiluak.

Bitrian Beaumont y Navarra La Habanara ailegatu zenerako, urteko urriaren 7an bildu zen udalbatza honen kargua onartzera. Erregeren titulu eta zedulaz aur-

keztu zen udalkideen aurrera. Karguaren zinegitea egin ondoren, udalbatzak, justiziak eta errejimentuak, gobernari eta kapitain jeneralaren makila entregatzea agindu zuten. Lorentzo Cabrera Corverak eskaini zion eskuetara, eta Pedro de la Puente jeneralordearekin batera aldendu zen aretotik. Juan Bitrian gobernari berria gelditu zen aretoan, batzarraz aurrera egiteko.

Frantzisko Prada, Santo Domingoko Erret Entzutegiko fiskala, urteko uztailaren 3ko erret hornidura eta zedula zekartzala aurkeztu zen. Lorentzo Cabrera gobernari ohiari eta bere ministro zein ofizialei auzia hartzeko mandatua zekarren. Errudunen kontrako bigarren mandatu bat aurkeztu zuen ere, Kanariar Uhartetatik bidali zuten ontziaz argitasunak eskatzeko. Matanzaseko hiritik atera zen zilarrari buruzko, hirugarren bat ere aurkeztu zuen. Fiskal jaunak beste lau mandatu aurkeztu zituen.

Erregek, udalbatzarrari mandatuak aditzen emateko agindua luzatu zionez, Lorentzo Cabrera gorteko erret kartzelara preso bidaltzeko eskatu zion fiskalari, hari kenduriko ondasunez batera. Bitartean, Bitrian Beaumont y Navarrak, Real Fuerza-ko gazteluan berehala sartu zuen preso.

Abenduaren 9an, erregeri idatzi zion lehen despatxuan, eduki zeukan 450 gizoneko goarnizioa ez zela La Habana defendatzeko nahikoa jakinaraziko dio. Nahiz, 700etik 800erako konpainia miliziarrek izan, bai kapitainek eta bai tropak soldatarik gabe zerbitzatzen zutenez, ezin zitekeela eurekin segurtasunik izan. Milizia hauek berrantolatu egin zituen, hiriko sei konpainiaren -hauetarik bi base-ritarrena-, agintea Meltxor Perez de Borrotori eman ziolarik. Santiago de Kuban beste bi; Bayamon ere bi; eta hiriburuko ofizial bik agintzen zuten hiribilduetan, bakoitzak bana.

La Habanak zeukan kanoien kopurua gehituz joan zen, Floridako baizadietan Oteitzari galduriko galeoietatik salbatu zuen lau dozena pieza erabilgarriez. Ostera, gotorlekuetan aurkituriko dozena erdi pieza zaharrak, erabilezinak zirelako saldu egin zituen. Ordurako, leku honek bazeuzkan artilleriazko 70 pieza.

1631ko martxoaren 10ean, Corrientes-eko muturrean, 30tik 40rako piezez eta 800 borrokalarirekin hornituriko zortzi ontzi holandar behatu zirela, jakinarazi zioten Bitrian gobernariari. Apirilaren 17an agertu ziren La Habanaz bistara ontziok, hile bat inguru hantxe zeudela. Berehala, despatxatu zituen abisuak inguruko lekuetara, eta Mexikori 600 kintaleko bizkotxo bidalketa arintzea eskatu zion bereziki.

Hurrengo, 1.000 kintal gehiagora igoko zuen eskaria. Gainera, presondegia berrindartzeko 250 gizon gehiago eta 50 artilarri eskatuko ditu; azkenengo Pazko Gabonetan eginiko errebistan 550 baino ez zirelako hara azaldu, eurretatik 150 kanpotarrak izanik. Guzti hau, urtarilaren 30eko bigarren despatxuan jakinarazi zion erregeri.

Maiatzaren 20an, berragertu egingo dira 8 ontziok, eta ekainaren 4ra arte ez dira bertatik aldenduko. Hargatik, ezelako eragozpenik gabe porturatu ziren 6

ontzi, baita Mexikotik 1.600 kintaleko bizkotxo karga zekartenak ere. Etsai holandarrak, Europarako bidea ezin harturik zebiltzan, baina ezein armadaren erasoaren beldurrez, Herribehere holandar barrena joko zuen ontzidiak. Kaiman uhartetako baizadietan ontzi bat galdu zuten holandarrek, eta hondotik 30 kanoi gehiago berreskuratuko zuen Juan Bitrianek gerora.

Bitrian gobernaria oso ardurati agertuko da, La Habanaz legoa bateko Guanabakoa hiribilduko tokiko indioen egoera larriaz. 1631eko urtarrilaren 18ko kartaz erregeri zuzendu zaio, hauen pobrezia eta kalegorriaren errua hiriko auzokoei leporatuz. Hiritar agintetsuok, udaleko kabildoan burua euron erara sartzea salatu du, indioen lurak azukre-olak eta etxaldeak sortzeko eskuratzen zituztela.

Hiribildutik at irteteko biderik gabe gelditu direla, egurra egiteko mendirik ere ez daukatela, are gutxiago lapikoak eta txongilak egiteko buztinik. Gehiegikeriok burutzen zituztenek, kabildoko errejidoreak eta hauen senitartekoak zirela azalduko du, lurrin ugazabak indioak eurak izanik hain zuzen. Ondorioz, indioek pobrezia handia pairatzen dutela, ezein auzitan aritzeko dirurik gabe daudelako. Bitriaren eskuartzea guanabakoatarren alde, oso erabakikorra bilakatu zen, zeren erret zedulaz Bayamo ibaiaren euron aldeko uzketak erabaki zelako. Horren arabera, ibaiak 6 legoa diametral bilduko zuen bere baitan, 1632an mugak ezartzean horixe erabaki zuelako koroak.

Gobernuko agintea hartu bezain laster, La Habanako udaleko nepotismoa salatuko du Juan Bitrianek. 1631ko urtarrilaren 18ko izkribuaz zera salatu zuen erregeren aurrean: errejidoreak udalbatzarrera azaldu aurretik, euren batzar propioak egiten zituztela, hurrengo alkatea zein izan litekeen erabakitzeko, kargutarako aitek semeak hautatzen zituztela, eta alderantziz. Hiriko udaleko alkateak lau eta errejidoreak zortzi izanik, urtero, seme, lehengusu, loba eta suhiren artean aldizka banantzen zituztela, pobreek pairatzen dituzten justizia eta gobernu onaren kaltetan.

Berdin salatu zituen urte bi beranduago, errejidoreek hiriko landu gabeko lurrez egiten zituzten gehiegikeriak, ordenantzek lurrok debalde emateko aukera zilegitzen zutelako. Guzti hau arautzeko erret zedula bat eskatu zuen Bitrianek, zeinaren bitartez legoa bat lur zeukanak 12 peso ordainduko zuen, eta bi zeukanak 24 ostera. Diru sarrera hau, hiriko zorrak ordaintzeko eta ubidea konpontzeko erabiliko zela.

Garai horretakoa dugu, Real Fuerza gazteluko dorrearen eraikuntza. Hau, brontzezko emakumezko estatua bateaz gailurtzen da. Giraldako haizorrazt honek, eskumako besoan palmar bat daroa, eta ezkerrekoan Calatrava ordenako gurutzea. Beheko aldean, haizearen eragineko norabidea zertzeko, banderolari eusten zioten grapek begizta daitezkeela. Geronimo Martin Pinzon urtzaille eta eskulturgileak egingo zuen haizorratza. Gaur egun, La Habanako hiriaren ikurra dugu.

1631ko urtekoa dugu ere, ekitaldi publikoetan eta udalbatzako etiketan erabiltzeko, Bitrianek egitea agindu zituen zilar lege askoko, erliebe oneko eta

tamaina ederreko gabiak. Chorrera-ko eta Cojimar-eko dorreoien eraikuntza proiektatu zituen, eta biztanle batzuen ekimenaz egin ziren gero 1646. urtean.

Udaleko etxeak, ez ziren 1633ko urte arte fabrikatu. Obren luzapenez ezer ez jakinagatik ere; bai alderantziz, Juan Redondo zurginari 1.732 erreale zor zitzaiola. Baita Bartolome Soria errementariari ere, esklaboen jornalak eta konponketa materialak ordaintzeko 8.860 erreale. Pertsona partikularrei, "*hiriko udaleko etxe-etan eginiko obra eta konponketak ordaintzeko 11.365 erreale*". Guztira, 21.777 erreale gastatu zuen.

Aurreko urte bietan, Herribeheretako eta Zelandia-ko matxinatuak hasi zitzaizkion erasoka, Mauricio kondeak sustaturiko gerra ontzi batzuek armatu zituztela. Morroko gaztelua nahi zuten hartu edo edozein ekintza militar burutu La Habanako portuaren kontra. Halarik ere, asmo hauen berria isilpeko iritsi zitzaion gortetik Bitriani, jende laguntzako, artilleriako eta iskulutako prestakuntzak egiteko. Antza, Beaumont y Navarra gobernariaren erantzuna ez zenez jazoerak eskatzen zuen adinako erasogarria izan, bere osasunari eta sendotasunari buruzko zurrumurru txarrak zabaldu zituzten.

Madrileko 1634ko maiatzaren 24ko dataz, erregek ondoko despatxua igorri zion Juan Bitrian Kubako bere gobernariari, "*Indietako ene Kontseilu eta Gerrako Juntan osasun gabeziak zagozela aditu izan dugu. Beraz, leku hori Indietako giltza izanik, areriaz inguraturik eta askonahiaz betea era berean, zuzenean gobernatzeko gaitasun nahikoa ez duzula erabaki dugu...*".

Hurrengoko irailaren 22ko La Habanako udaleko batzarrean, Bitrianez hiriarri idatziriko agiri bat zabaldu eta irakurri zen. Bost urteak bete orduko, erregek eta kontseiluko jaunek ordekoa izenda ziezaiotela eskatuz. Udalbatzak, Sebastian Calvo de la Puerta kapitaina, Pedro Pedrosa eta Alvaro Luces errejidoreak izendatu zituen, Juan Bitrian Beaumont y Navarra gobernariaren gobernu onaz erregeri jakinarazteko.

Urriaren 7ko batzarrean, Gaztelako erresumetan itsasoraturiko Frantzisko Riaño Ganboa, uharteko gobernari eta kapitain nagusi berriaren ontzia galdu egin zela azaldu zen. Hark, Juan Bitriani jakinarazi zion antzera, Mariel portuko inguruan izan zen galera, La Habanatik 16 legoa haizabera. Urriaren 23ko batzarrean ostera, Bitrian gobernariak zera jakinarazio zion udalari, "*Maiestatek Frantzisko Riaño Ganboa, Santiago ordenako zalduna bidali dit kargua ondozkatzera. Berau onartzeko bildu naiz hiri honetan, eta aginduaren arabera horrela komeni dela ulertzen dut*".

Halarik ere, Juan Bitrian Beaumont y Navarra almirante eta Calatrava ordenako zalduna, Santo Domingo uharteko entzutegiko lehendaritza hartzeko izendatu zuten, berehala. 1637-1640ko aldian iraun zuen kargu honetan.

Berau, Kubako gobernutik ondozkatzera iritsi zen Riaño Ganboa gobernariak, ebazpen absolbigarria erabaki zuen, hartu izan zitzaion auziaren ondorioz. Beranduago Bitrianez idatzi zuen arabera, bere agintaldian 73.500 dukat inbertitu

zuen gaztelutako fabrikak egiteko, eta hain suerte onaz kortsarioekin, non ezen La Habana gobernatu zuen bitartean ez zioten ontzi bat bera ere sekula lapurtu egin.

## Iturriak

L.H.A.H. Udal Agiriak: 9. lib. 11a, 14, 16-16a, 65-67, 288a-289, 290 orr.

### 4.17. CASAS ARAGORRI, Luis

Donostian jaio zen 1745eko abuztuaren 25ean. Puerto de Santa Marian (Cádiz) hilko da, 1800eko uztailaren 19an.

Aitaren aldetiko aitonak, Sopuertako (Bizkaia) Juan Antonio de las Casas, eta Somorrostroko (Bizkaia) Maria de la Cuadra izan zituen. Aitonaren herriko Manuel Antonio de las Casas de la Cuadra izango zuen aita, Gipuzkoa probintziako itsas intendentea, Caracaseko Erret Konpainia Gipuzkoarreko gainintendentea, Indietako Porturaketen eta Itsas eta Lehor Kontrabandoko epailea, Santiago ordenako zalduna, eta Maria Aragorri Olabide, Simon Aragorri Irlandako markesaren odoleko loba, ama.

Euren seme-alabak, Engrazia, Maria Rosa, Isabel, Simon Joakin eta Luis Casas Aragorri izan zituzten. Maria Rosa, Irlandako lehen O'Reilly kondearekin ezkondu zen, zein Espainiako Erret Armadako jeneralorde, Kuba eta Puerto Rico uhartetako Tropa Arautu eta Miliziatako inspektore orokorra izan baitzen.

Luis Casas erret ezkutaria izan zen 13 urte zituela, Aranda kondearen babespean. Gaztetan, koinatu O'Reilly jeneralaren banderapean borrokatu zuen Portugaleko gerran, oinezkutzako kapitain graduaz. Vellaflor, Almeida eta Cohimbrako lekuetan oldartu zuen, 1763ko bakera arte. Bost urte beranduago, 1768an Louissianara pasatu zen, jeneral beraren agindupean. La Habanan eskala egingo zuen. Han, sei urtez iraun zuen, Nueva Orleanseko sarjento nagusi gisa.

Penintsulara itzultzean 1774an, bere anaia Simon Joakin, Errusiako enbaxadore izendatu zuten. Hara pasatzeko baimena eskatu zuen, Romanoff jeneralaren armadako boluntario moduan. O'Reilly koinatuaren bitartez lortu egin zuen. Kiab-eko gudaldi gogoangarrietan hartu zuen parte, Danubio-n, Silistria-n eta Bulgaria-n ere .

Luis Casasek, Frantzia, Alemania, Herribehereak eta Ingalaterrako herrietan ibiliko zen ikasteko helburuaz. Parisetik Perpiñanera ailegatuko zen, Saboyako errejimentuburu. Handik Cartagenara, eta hurrengo O'Reilly kondeari lagundu zion Aljeriako kanpaina suntsigarriara. Brigadierreko gradua jaso zuen Casasek, 1779ko Gibraltarreko lekuan, eta 1781eko Menorcako konkistak ospe handia eskaini zion. A Coruña-ko behin-behineko gobernua hartu zuen ostean, eta zelai mariskalaren enplegua.

Hurrengo, dibisioko jenerala izendatu zuten, itsasoaz haraindiko lurretarako, baina Pariseko bakeaz bertan behera gelditu zen asmoa. Oran, Ceuta, Algeciras, Malaga, Cartagena, Alicante, Valentzia, Bartzelona eta Menorcako uharterko tropa kuarteleratuen inspekzioa egitea agindu zitzaion. Ondorioz, prestatu zuen memoriari esker, Oraneko komandante orokor izendatu zuten. Hortik, Santiago de Kuban lehorreratu zen 1790eko ekainaren 23an, eta La Habanan, uztailearen 8an.

Kubako gobernari eta kapitain nagusiaren kargua hartu zuen uztailearen 9an. Nafarroako Jose Ezpeleta Galdeano, Beire jauregiko XV. jauna, ondozkatu zuen hain zuzen uharterko gobernaritzan, Domingo Calbeto brigadier eta bien bitarteko gobernariaren eskutik. Erregek luzaturiko gobernari titulua, data horretan aurkeztu zuen La Habana hiriko udalbatzak eginiko ezohizko batzarrera.

Kubako kolonia historiako oso une kritikoan iritsi zen. Alderantzizkoa izan zen ostera bere erantzuna, bere jakituriari eta borondate onari esker, ongitasuna eta aurrerapen material eta moralak jakin izan zituelako ekartzen uhartera. Bere aurretik, kubatar kulturadun, jakintsu eta abertzaleek burutu zituzten asmoak eta indarrak erabili eta bideratu zituen, batez ere De la Torre markes eta gobernariarenak.

Bere gobernariorde eta ofizialik argienak, uharterko estatistikako zentsua eta populazio orokorraren erroldatze berria egiten jarri zituen. "*Ez dago Luis de las Casasen administraritzan baino, 1791an eginiko errolda hoberik, nahiz data horretatik harrezkero zatikako batzuk egin diren, han edo hemengo barruti populatueta*", gogoratzen du Alexander Humboldt baroiak, bere *Ensayo político sobre la Isla de Cuba* liburuan.

Erroldak, biztanleriaren kopurua 272.301 lagunetara goratu zuen. 133.559 zuriak ziren eta 54.152 beltz libreak. Guztietarik, 84.590 esklaboak. Edo zuriak: %49,1. Mulato libreak: %12,4. Beltz libreak: %7,4. Mulato esklaboak: %4,4. Beltz esklaboak: %26,6. Zuriarekiko koloreko populazioaren nagusitasuna (%50,9) orduantxe nabarmendu zen lehendabizi.

Kulturako eta hezkuntzako meritu garrantzitsuenak hauek lirateke. *Papel periódico de la Havana*, lehen literatur agerkaria fundatzea, bera iritsi eta 107 egunetara, 1790eko azaroaren 24ko igandez. *Guía de forasteros* izeneko urtekarria eraberritzea ere. Dohaineko eskolak biderkatu zituen. Lehen biblioteka publikoa zabaldu zuen, Herraldearen Lagunen La Habanako Elkarte Abertzalearen egoitzan. Ikasketa planak berriztatu zituen, eta matematika katedra sortu zuen era berean. Obra publikoen alorrean, haizalde eta haizabeko bideak konpondu zituen. Guines-eko bideak, Guadalupe eta Puerta de Tierra-ko galtzadak zabaldu ditu ere. Matanzaseko Yumuri eta San Juan ibaietako zubiak eraiki eta Las Puentes Grandes-eko behin-behinekoa berreraiki zuen.

1792ko martxoaren 12an, San Juan de Jaruco-ko kondesa, eta Cardenas de Monte Hermosoko eta Casa Peñalverreko markesak, Luis Casas gobernariagana zuzendu ziren. La Habanako hiriak, ezgaituak, bereziki haurzurtzak, eta eskekoak



batzeko zeukan, Onegintzako Etxearen beharra azalduko diote. Etxea, elkarte abertzalearen ardurapean egon behar zela proposatu zioten, gobernariaren lehendakaritzako aldundi berezi baten menpeko. Eraikina Luis Peñalver Cardenas artzapezpikuak erosi zuen lurretan altxatuko zen, Sorkundeko amabirginaren adbokazioan.

Era berean, neskatala hezigarriak biltzen saiatuko ziren. 1794ko abenduaren 8an, hauek zaintzeko prest zegoen Casa de Educandas eraikinera aldatu zituzten hiritik. Urte bi beranduago, abenduaren 9ko elkarte abertzaleko junta nagusiak, Onegintzako Etxean mutikoak hezteko ikasgela fabrikatzea erabaki zuen, Casas Aragorriren oroimenez eraiki zenaren izena grabatuz honen erdian.

Pertsona ospetsu hauek, 36.000 pesotako laguntza eskaintzen zuten Onegintza Etxearen eraikuntzaz hasteko. Gobernariak, gogo handiaz hartu zuen asmoa. Ondasundun Junta eta merkataritzako diputatuak bildu zituen. Bere hitzek dudarik gabeko aho batezkoa jaso zuten, baita 91.223 pesotako eskaintza ere. Kontribuzio bi hauen gehitzea, Onegintza Etxeko proiektuaren hastapeneko fondoa bilakatu zen.

Casa Montalvoko kondeak, Juan Manuel O'Farrill-ek, Frantzisko Basabek eta Luis Peñalver apezpikuaren hornitzaileak, erabateko laguntza eskaini zioten Casas Aragorri gobernariari, La Habanako Elkarte Abertzalea sortzeko aurkeztu zien eskabideari. Errege Karlos III.ak, 1792ko apirilaren 25eko zedulaz dekretatu zuen erakundearen sorrera eta ezarrera.

Lehen bazkide ohorezko eta babesle gisa agertuko da, hurrengo urteko urtarilaren 9ko elkarte abertzalearen sorkuntza batzarrean. Lehendakari moduan ostera, junta arruntak buruturiko hurrengo 17ko batzarrean 32 peso ordaindu zuen bazkide kuotako orotara, 4 urte jarraitutan. Uztailaren 25eko junta arruntak, elkarteko lagun guztiek batzorderen baten parte hartzea agindu zuen. Luis Casasek, Industria Popular y Hermosura del Pueblo batzordea aukeratu zuen beretzako.

Urte bi geroagoko, abuztuaren 13ko junta arruntean, kimikako maisu baten garrantzia azpimarratu zuen; juntak, lehendakariaren ardura beretzat hartu zuelarik. Ondorioz, honen anaia Simon Joakin Casas, Londreseko gortean enbaxadorea zenaren laguntza eskatu zion juntak, bere autoritateaz maisu on bat, lanabesak, ontziak, azidoak eta laborategi batek behar zuen gainerakoak berarekin ekar zitzan.

1793ko martxoaren 25ean, Espainiak gerra deklaratu zion Frantzia iraultzaileari. Kuban maiatzak 20 arte, ez zen apurketaren berri ofizialik jakin. Hargatik, Luis Casasek aurretiaz hartu zituen gerrarekiko neurriak, kortsario frantses batzuek presa espainiarrak La Habanaz hurbil atzeman zituztenean. Martxoaren 30etik harrezkero, Verakruzetik iritsiriko Santa Paula eta Minerva fragatak portuan geldiarazteko arreta izan zuen; Cádizera bidean, 40.000.000 peso baino gehiago zeramatelako.

Gerra deklarazioaz, maiatzaren 31ko erret zedula ailegatu ondoko egunetan, frantsesen kontrako lehen bandoa zabaldu zuen. Bertan, Luis Casas gobernariak, *"gerraren eragin zehatz eta premiakoa, herrialde etsaiarekiko posta guztia eta harremana etetea da. Baita hauetan bizitzeko aitzakiarik ez duten frantsesek kanporatzea ere"* agindu zuen. Hirian, hiribilduetan eta herrietan bizi ziren frantsesei, hamar egunetako epea eskaini zien Kubatik alde egiteko. Jatorritasuneko mesedea eta grazia zituztenei, baldintza hori gabe lurralde hauetan hamar urtetan bizi zirenei, ofizio edo okupazio ezagun bateren baten sei urtetan arituak zirenei eta espainiarrekin ezkonduiei, izan ezik.

1794ko azaroaren 13an, atzerritarrekiko eta bereziki frantsesekiko harremanei buruzko bigarren bandoa zabaldu zuen.

Edozein pertsonak, klase edo baldintza batekoa zein bestekoa izan, ezin izango du, errebolta hauei buruzko, nazioko ezta ezekin atzerritarrekin ere, eta bereziki frantsesekin posta harremanik izan. Ezta, aipatu helburuei buruzko liburu edo paperik inorenngatik hartu, irakurri edo komunikatu ere. Paperetako eta berri publikoetako edukiei buruz hitz egitea debekatzen ez dudan arren, arazoak eskatzen duen apaltasunaz egitea agintzen dut. Bateren batek, hitzez edo idatziz, sistema frantsesaren aldeko aldarrikapenak egingo balitu, berehala hartuko dut preso, paperak eta ondasunak enbargatuko zaizkiolarik.

Hargatik, 1796ko uztailaren 12an, Luis Casas gobernariak, Espainia eta Frantziaren arteko bakearen osteko indultu orokorraren berri eman zuen. Autoak, errege Karlos III.aren 1795eko abenduaren 22ko bi zedulen kopien edukia argitaratzen zuen. Baina, kontraesanguratsua dirudienagatik, bakearen sinadurak kalte ekonomiko izugarria ekarriko zuen uhartera.

Frantziaren kontrako gerran zegoela, Espainiak atzerri merkataritza baimentzen zion Kubari, Estatu Batuetako merkatuetara bereziki. Baina hura bukatzean, baimena ere balio gabe gelditu zen. Esaterako, ia azukre esportazioa oro galdu egin zen, eta garai horretako fruitu honen prezio beherakada gehitzen badiogu kalteari, Luis Casasen azken urteko gobernu aldiak, gainbehera ekonomiko penagarria pairatu zuen.

Alderantzizkoa gertatu zitzaion Casasi, sei urte lehenago gobernuaren kargua hartzea ailegatu zenean. Batetik, iraultza frantsesak, bere eraginaz eta gerraz, erabat mehatxatzen zuen itsasoaz haraindiko merkataritza guztia. Bestetik, ingeles-industria iraultzak, aldaketa sakonak zekartzan produkzio prozesuetara. Tesuinguru horretan, gobernari berriak garapen ekonomikoa ere bultzatu zuen, elkarte abertzalearen sorkuntzaz eta azukre-ola propioa sustatuz.

Entzute handia izan zuen gainera, 1790ean Haiti-tik iritsi zen Esteban La Fayé injinero frantsesak. Idi, ur edo haizerik gabe kanabera txikitzeke proposatu zion asmakizunari, Luis Casasek arreta aproposa jarri zion. Makina eraikitzeke harpidetza zabaldu zuen. Ondasundunei aurkeztuko zaie plana, baina 17 akzio baino besterik ez zuten lortu. Lehen akziodunak, Casas bera, Nikolas Calvo, Frantzisko Arango eta haren loba O'Reilly izan ziren. Berak, akzio bi harpidetu zituen, eta elkarte abertzaleak 3.600 peso, 1975eko irailaren 29an.

"Bere obra handia ezerk ilundu bazuen, landalur aberastasuna sustatzeko afrikar esklaboen sarketa erraztea izango zen dudarik gabe", baieztatu zuen Frantzisko Gonzalez del Valle historialariak. 1789ko otsailan, bi urterako baimendu zen afrikarren merkataritza librea edozein banderatan. Aldi horretan 20.000 beltz baino gehiago inportatu ziren. Beraz, Luis Casasek Kubako gobernua hartu zuean, ondasundun eta kafetzarien eskakizunik behiena, baimen hura luzatzea bilakatu zen.

1791ko azaroaren 19ko Haitiko kolonia frantseseko beltz esklaboen matxinadak, munduko lehengai tropikalen gune ekoizle eta hornitzaile nagusia zelako, Kubari egundoko aukera aurkeztu zion esportazio alor hura ordeztzeko. Casas gobernariaren neurririk garrantzitsuena, urte eta hileko 24ko dataz, esklabo afrikarren merkataritza librea egiteko aurreko baimena, beste sei urtera luzatzea izan zen. Sarrera eskubideen gutxitzea eta, lehen salmentako alkabala edo zerga eskubideen exentzioak ere lortu zituen.

Atzerritarrei esklaboen salmenta eragiketak errazteko, eskaintzen zitzaien epe laburra zela-eta, Frantzisko Arangoren aholkuz, Luis Casasek 'Compañía para consignaciones pasivas de negros bozales' sortu zuen, hurrengo urteko martxoaren 31an. Era honetara, esklaboen premiari erantzuna eman zitzaion, arinkeriatan ibili gabe. Azkenean, berrogei egun La Habanan egon ahal izateko baimena eskaintzen zitzaion tratulari atzerritarrei, euren kargak saldu bitartean. Gobernariaren helburua, beltz bozalen -hasi berriak- sarrera ugaritzea zen, Otahitiko kanabera, kanela eta beste landare exotikoen nekazaritza sustatuz.

1796ko otsailaren 25ean beltz sarrerari buruzko merkataritza bandoa zabaldu zuen, Afrikako kostetatik esklabo hasi berriak -bozalak- bakarrik sartzea zilegituz. Atzerriko beste ezein herrialdetan, aldi luze zein laburrean bizi izanikorik ezin zitekeela Kuban sartu, agintzen zuen bandoak. La Habanako portura lehorratzen ziren beltzen ardura zuen pertsonak, ontziko kapitainari edo bere ordezkori bati, aipatu klase debekatukorik ez zekarrenaren aitortpen sinatua eskatzera derrigortzen zuen. Gainera, mota honetako esklaboak zeuzkaten hiriko bizilagunek, hamabost eguneko epea zuten berari jakinarazteko. Bandoa publikatu aurretik sartu izaniko beltzek ez zuten bertan gelditzeko eragozpenik. Baina bai, 1790eko abuztua ostean kolonia frantsesetatik edota 1794tik harrezkero kolonia ingelesetatik ekarritakoek. Azken hauek hiru hilabeteko epea zuten uhartetik alde egiteko.

Bilakaera hau ulertzea oso inportantea da, Casasen gobernu aldiaren opor-tasunean eta hazkuntza ekonomikoan kokatzeko. Aurreko gobernariak proiektatu zein berak asmatu zituen obra publikoak burutzea zilegitu zizkiolako, adibidez. Edota, esklabotzaren hazkuntza arinak, Kubako osaketa etnikora ekarriko zuen aldaketa ere bai. Gehi Haitiko matxinada uhartean errepikatuzeko beldurraz, kolonizazio zuriaren abiadan sartzearena ere. Garai horietakoak ditugu, Casasek erregerean aurrean egin zituen ahaleginak, Kanariar Uhartetatik populazio oldea ekarriaz, Guines, Manzanillo, Guantanamo, Mariel, eta beste herriak fundatzeko.

Gerra honetan, Espainia Ingalaterrarekin aliatu zenean Frantziaren kontra, bazirudien azukre ekoizpenaren gaingorak lurra joko zuela, baina ondasundun

habanarren eskakizun ausartari esker, ez zuen aukera horrek aurrera egingo. Hauek, Casas gobernaria eta Jose Pablo Valiente intendentearengandik, aliatu britainiar eta iparramerikar neutralen ontzietan La Habanako portua zabaltzea lortu zuten. Metropoliak, ekainaren 25ean berronetsi egin zuen erabaki hura. Uharteko agintari bi hauen ekimen autonomo honen eraginkortasuna, begibistako bilakatu zen handik gutxira. Hurrengo urtera, aurreko uztaldietako azukre sobragarri guztia esportatzea lortu zen, aurrekoaren bolumena %82-tan gaindituz.

Oso arduraturik zegoen Guinesen bultza zitekeen azukre ekoizpenaz. Horretara, 1791. urtean hiribildu berriaren proiektua gaurkotzea eskatu zion Nikolas Calvori. Inazio Herrera Arriaga eta hango gainerako hiru diputatuak euron laguntza eskaini zioten, Calvok zekarren proposamenari. Baina, bost urte beranduagoko martxoaren 12an, oraindik lurren desmendentzea baino besterik ez zela egin jakinarazi zion Casasek Madrili. Hargatik, La Amistad bere azukre-ola eremu horretan sustatu zuen gobernariak.

Azukre fabrika hau, ondasundun talde habanar batek oparitu zion, eratorrigarri honen ekoizpena sustatzeko hartu zituen neurri askatzaileak eskertzeko. Aitortu zuenez, Kubako uharteko La Habanako eremuan zeukan ondasun bakarra izan zen; zein Joakin Aiestaran hernaniarraren kargupean baitzegoen orduan. 1810eko abuztuaren 8ko autoen eta eskari betearazlearen ondorioz, Frantzisko Sanchez Guineseko kapitainari auzietako zor zion 3.361 peso kobratzeko, kapitaina La Amistad azukre-olatik pasatuko zen 3.000 arroa azukreren enbargoa egiteko.

Urte batzuk lehenago, ingelesak Manzanilloko senadara iritsi zirenean, egurra egin eta ganadua ateratzeko lehor-lekuak eraikiko zituzten. Hurrengo, Magdalena goleta armatuko komandanteak instalazio guztiak suntsitu egin zitkien. 1792ko abuztuaren 18ko erret agindu baten bitartez, Luis Casasi leku hori biztanletzea agindu zitzaion, britainiarrek ez zezaten berriro senadarik har.

Indietako Kontseiluak, Santiago del Cobreko hiribilduan sustraituriko komunitate kobretzari baten jabegoa, Mancebo familiaren oinordekoei esleitu zion. Erabaki horrek, ia hamarkada bitan iraun zuten matxinadek, erreklamuek, erresistentziek eta oinordeko baten heriotza ere ekarri zuen. Casasek, ugazaben eta kobretzarien auziari irtenbide egoki bat bilatzeko, Jose Ilintxeta gobernariorde eta aholkularia mandatu zuen; alde bietako lehen bilera 1795eko uztailaren 9an burutu zelarik. Oraindik luzaro iraun beharko zuen auziak, erabateko konponbidea bilatzeko. Azkenean, hiribilduko ehunka iheslariei eta mendietan galdurik bizi zirenei, ardurarik gabe itzultzeko bandoa zabaltzea erabaki zuten.

Luis Casas gobernariak, onartu egin zuen erabakia, eta bandoaren argitarapena aginduko du. Aginduei jarraituz, Juan Nepomuzeno Quintana, Santiago de Kubako gobernariordeak, hurrengo urteko uztailaren 14ko mezu erresebatu baten bitartez, zera jakinarazi zion Casasi, Jose Egmidio Maldonado bidali zuela El Cobrera iheslarien egoera ikertzeko. Hargatik, koroak ezeztatu egin zuen hitzarturikoa, eta ahalegina ustel bilakatu zen.

La Habana inguruko moxaltokiak bultzatu zituen Casasek. 1792. urtera, hainbat ganadu gizentzen zen 699 moxaltokitan, hauetarik 564k hiriko 51.307

bizilagunen elikadura bermatzen zutelarik. Baita Galiziako txerri berriaren sarrera ere sustatu zuen, garaiko arraza krioihoaren gainbehera geldiarazteko. Elikagaiak kanpotik ekartzea gomendatzen zuen, eta La Habanako harakindegietan uharterko arto horixkaz gizenduriko mota honetako txerriak aurkezten zituzten txerriidunek, basurderen edo txerriokitan hazitakoren aurrean lehentasuna izan, eta 14 ontzako libratan saltzeko hobaria jasoko zutela jakinarazi zuen. Ebazpen hauetaz, Galiziako txerria bultzatuaz batera, uharterko hazi indigenen ereikuntza goratzea lortu zuen.

La Habanako udaleko bi mandatariek euren aldetik, eta Frantzisko Arango Parreño, ekonomilari ospetsua beretik, Merkataritzako Errege Kontsulatua sortzeko eskabideak aurkeztu zituzten. Casas gobernariak, itzelezko ahaleginak egin zituen erregeren aurrean. 1794ko apirilaren 4ko zedulaz sortu zuen erakunde hau Karlos III.ak.

Ugazabek, ondasundunek eta merkatariek, erret kontsulatuko bilera zabal batean beltz-tratu libreari buruzko eztabaidara jo zuten. Casa Peñalverreko markesa tratu afrikarraren bukaera proposatu zuen, kontinente amerikarreko indioekin ordezkatzuz. Luis Casas, proposamenaren kontra azaldu zen, eta kolonizazio zuriaren premia aldarrikatu zuen hautabideko. Kanariar Uhartetatik ezkontzak ekartzeko baimena, 1792tik harrezkero Madrili eskatu ziola argitu zuen orduan, baina ezetza jaso zuela.

Kontsulatuko gobernu juntak, 1796ko abenduaren 21ean erakunde horretako lehen lehendakariaren aldeko eskerrona agertu nahi izan zuen. Beraz, Casas gobernariaren bultzadaz, elkarte abertzalearekin batera sustatzen ari zen institutuaren proiektuak aurrera egingo balu, erregeri Instituto de Casas iriztea eskatuko liokeela.

Sei urte eta bost hilabeteko agintaldian, orain arte aipatutakoez gain, hainbat bando eta antzerako agindu publikatu zituen. 1792ko ekainaren 30eko, gobernu onekoa zeharo ospetsu bilakatu zen bere luzera, zehaztasuna eta gogortasuna zirela medio. 42 orrialdez osatzen zen, eta ordenu publikoari buruzko gai guztiak lotu zituen. Gainera, arlo hau 1793ko abenduaren 12ko zirkularraz eta 1794ko ekainaren 23ko instrukzioaz osatu zuen.

1793ko martxoaren 6ko autoa, kausa eskandalugarri batena eta foroko gehiegikeriak zuzentzeko izan zen. Abenduaren 12an publikatu zuen Luis Casarena deituriko zirkularra. Errepresioari eta gaizkileak gordetzekoari buruzkoa zen. Hiriko eta uharterko justizia arruntentzat, gizon alfer edo gaizki enplegatuak batzeko, publikatu zuen hurrengo urteko ekainaren 24ko 13 orrialdeko instrukzioa. Baita Britainia Handiko menpeko nazioekin merkataritza, tratua eta harremana debekatzuz, 1796ko azaroaren 25eko bandoa ere.

Gainera, kausa zibilak, eta bereziki kriminalak arintzeko ahalegin aproposak egin zituen, eskribau eta bahiturako ohargile ofizioak, gobernuko eta udaleko etheen azpitan ezarriz. Eskaleen laguntzarako zozketa sortu zuen, bere karguko irabazien zati eder bat ere eskaini, eta ariel berriak asmatuko ditu, Casa de Recogidas, Emakumezkoen Ospitaleak eta Onegintzako Etxeari laguntzeko.

1794ko urriaren 1ean, erregeri enplegutik ordeztuko errekurtsioa bidali zion. Espainiara nahi zuen itzuli, Kubako kliman oso arriskugarria zen operazio kirurgikoa pairatzeko. Gainera, monarkia mundu osoarekin baketan egonik, agintaldiko epea sei hilabete baino gehiago zeroalako beterik. Azken urte honetako abenduaren 6an, ordeztu zuten Luis Casas Aragorri gobernari eta kapitain nagusia. Santa Clarako konde, Santiago ordenako zaldun eta jeneralordeak ondozkatu zuten uharteko gobernuak karguan.

Testamentua 1800eko uztailaren 11an egin zuen Puerto de Santa Marian, Cádizeko gobernari politiko-militarra eta jeneralordea zela. Andaluziako kapitania nagusiko, ohoreko kapitain orokor eta hiriko bigarren nagusia zen ere. Hiri horretako eliza nagusian lurperatzea eskatu zuen, Saboyako Errejimentuko koronel uniformeaz. Zor bat aitortu zion bere osaba Irlandako markesari. 40.000 beiloiko erreale, Cumbre Hermosa-ko konde, aurreko gobernariari. 20.000 erreale eta akats, Migel Iribarren, Cádizeko biztanleari, eskaturiko diruagatik.

Ezkongabe bizi izan zela aitortu zuen. Baina, Fernando Etxekoarena izeneko 12 urteko mutikoaren aita zela. Madrileko hiribilduko eta gortekoa zena. Hura, gaurkoan kolegio baten zegoela, osaba Irlandako markesaren jakinaren gainean. Kubako uharteko azukre-olaz gain, etxeko altzariak eta tresneria baino ez zeuzkala.

Aipaturiko Iribarren eta Juan B. Cuñat, Cádizeko gerra aholkularia izan ziren albazeak. Uztailaren 19ko, arratsaldeko ordu bi eta erdietan hil zen "*arima nekatuaz eta gaiztakeriaren indarrei amore emanik*". Puerto de Santa Marian hilobiratzea eskatu zuen, azken gogo legez. Eliza nagusiko parrokoak ukatu egin zuela eta, uztailaren 20ko goizaldean, albazeek hilotza Cádizera eramane zuten.

### Iturriak eta bibliografia

K.A.N. Arazo Politikoak: 99 leg. 82 zka.; 255 leg. 20, 23, 27 zka. Sustapen Junta: 161 lib. 168-168a orr.; 162 lib. 49a-50a. orr. Gerrako Eskribautza: 965/14407 leg. zka.

ROMAY, Tomás. "Elogio de Casas, de 23 de Febrero de 1797". En: *Memorias de la Sociedad Patriótica de la Habana*. - Habana: Oficina del Gobierno y Capitanía General por S.M., 1838, IV, 9-21 orr.

CABALLERO, Jose Agustín. "Elogio a la inmortal memoria del Excmo. Sr. D. Luis de las Casas y Aragorri". En: *Memorias de la Sociedad Patriótica de la Habana*. - Habana: Imprenta del Gobierno y Capitanía General por S.M., 1839, VIII, 344-357 orr.

### 4.18. CHAO OLAORTUA, Frantzisko Alberto

Gasteizen jaio zen 1839ko abuztuaren 6an. Hiri berean hilko da, 1901eko azaroaren 12an.

Aitaren aldetiko aitona, Pedro Inazio Chao eta Maria Rosa Ferreire Piñon, Galiziako Santiago de Sere de los Somozas-ekoak, eta El Ferroleko biztanleak

zituen. Amaren aldetikoak berriz, Gasteizeko Frantzisko Olaortua eta Antezanako (Araba) Bitoria Diaz de Gobeo; Gasteizko biztanleak biak.

Aita, Urbano Chao Ferreire, gurasoen herri berekoa, eta Gasteizeko Paula Olaortua Diaz de Gobeo ama. Amaren abizena, Elorrioko San Agustin Etxebarriko Olaortua oinetxeari zegoen atxikiturik. Aita Urbano, Probintziako Guardiako Granaderutako Errejimentuko musikaria izan zen. Gasteizera destinatu zuten.

Hantxe ezkondu zen emazte Paularekin, 1834ko abuztuaren 20an. Sei seme-alaba edukiko zituzten: Frantziska Feliziana (1835), Frantzisko Alberto (1839), Adelaida Frantziska (1841), Ernesto (1844), Osmundo (1847) eta Maria del Karmen (1850). Alberto, gurasoen etxean jaio zen, Tintoreria kaleko, 19. zenbakiko 2. solairuan. San Migeleko parrokian bataiatu zuten.

Mutikotatik izango zuen abadetzarako joera, eta hamabi urtetatik harrezkero latina ikasten aritu zen, Agustin Izagirre maisu zuela. Honekin ikasi izaniko hiru urtetan, latina eta gramatika gaztelarra nahiko ondo menperatzen zituen. Gasteizko Bigarren Irakaskuntzako Institutuan egin zituen maila honetako ikasketak. 1856-58 ikasturtetan, filosofia elementaleko hiru urteetatik, lehena eta hirugarrena kalifikazio onez aterako ditu, eta erdikoz bigarrena.

Gero, abadeki sartu zen Agirreko apaizgaitegian. 1858-59 ikasturtean, teologia sakratuko lehen urtea, merituko notez gairatuko du. Hemendik, Calahorrakora pasatu zen, bigarren, hirugarren eta laugarren mailako ikasketa berberak egitera (1859-62), eta hiru urteok merituko notez atera zituen ere.

Hogeita hiru urte zuela, azpidiakono eta, urteko abenduaren 20an, diakono inbestitu zuten. Azken hau, Gasteizko apezpikuaren eskutik jasoko du, mezak esaten zituen Santa Klarako komentuan; urte betera, hortxe bertan presbitero ordena hartu zuela. Aurretiago, bizitzako ondarea konstituitu behar izan zuen, abade karreraz aurrera egiteko ezinbestekoa zitzaiolako.

Eskritura, 1862ko martxoaren 11an egin zuen, 1.600 beilo errealeko errenta agindu zitzaiola. Horren segurtasunerako, aitaren Antezanako lurak gozamezko laga zituen; izeko Barbara Diazenak, gainerako gehiengoak izan zituen. Hurrengo urteko irailaren 29an, Beotegiko parrokiako abade ekonomoa izatera iritsi zen, maiatzera arte iraun zuelarik; urriaren 12an Puebla de la Barcakora destinatu zutelako. Hemen, 1865eko irailera bitartean egonik, La Habanako eliza barrutira pasatuko den arte.

1866ko abuztuaren 8an disenbarkatu zen aita Alberto Chao, fraide Jazinto Maria Martinez apezpiku zela. Honek, San Felipe Neriko komentuko kongregatu izendatu zuen irailaren 13rako, karguan hurrengo ekainaren 25a arte egonik. Gero, Kardenaseko hiriko Napoles Oinezkotzako Errejimentuko lehen batailoiko kaperau interino zerbitzuak bete zituen. 1868ko urtarrilaren 20tik, 1871eko maiatzaren 25a bitartean, Matanzaseko Alakranes herriko San Frantzisko Paulako parrokian aritu zen. Gaixoak jo zuelako, Gasteizera itzuliko da. La Habanara berriro hurrengo abenduaren hasierarako berrituz.

Hiriburu honetako Santo Kristo Bidai Oneko parrokiako abadeorde izendatu zuten, bi urte beranduagoko abuztuaren 7ra arte. Gero, Ingreso de Mordazo-ko parrokiako plazaren jabe egin zen, kargua urte eta hileko 4an hartu zuela. Ceja de Pablo-ko, San Pedro eta San Pabloko elizako parrokoa izango da, 1874ko martxoaren 5etik aurrera. Bederatzi urtez iraun zuen hemen, azken otsailaren 10ean Guineseko Quemado-ko abade ekonomoa izateko.

La Habanako eliza barrutiko oposaketak egjatzatu zireneko, San Agustin de Alkizarreko jabegoa jaso zuen 1889.eko irailaren 27an. Laugarren urtera, Santa Klara hiriko Termino parrokiara destinatu zuten, urriaren 20an bikario izendatuz. Klero eta kultuko habilitatua aitortu zuten, hilero probintziako gainerako elizek estatutik jasotzen zituzten kontsignazioak berak administratzeko eskubidea zuela, zeintzuk urtero 40.000 pesotara iristen baitziren.

Santa Klarako eliza nagusiko zerbitzuan bi urte baino gehiago iraun ondoren, 1895eko azken aldiaren bigarren itzuli zen bere jaioterrira, sei hilabeteko lizentziaz. Bidaia hau aprobetxatuz, hurrengo martxoaren 7an ondare askapenaren eskritura egingo du, berari zegozkion parrokia eskubideak eta estatutik jasotzen zituen kontsignazioak eskaintzen zioten errentetan oinarriturik.

Urteko erdi aldean itzuliko da berriro Kubara. Baina, iaz leheneko otsailaren 24an, kubatar independentistek gerra deklaratu ziotenez Espainiari, liskarraren zurrunbiloan burua murgiltzea tokatu zitzaion. Valeriano Weyler jeneral eta kapitain nagusiak, 1896ko urriaren 21eko rekonzentrazioko bandoa publikatu zuenean, zortzi eguneko epea eskaintzen zien baserritarrei, euren familiekin populazio-etara hurbiltzeko.

Santa Klarak hamahiru mila biztanle bazeukan orduan, erabatera biderkatuko zitzaion kopurua. Goseak izugarriko kalteak ekarri zituen gutxira, hidroemia, paludismoa eta disenteria gaixoak sortuz. Bi urte hauetako udetan bereziki, egunero hirurogeiren bat pertsona lurperatzen ziren, gehienak hamabi urtetik behe-rakoak gainera.

Emakume, haur eta zahar gaixoentzat ez zegoenez lekuri inon, eliza nagusiko zati bat asilo, eta sakristia zein abadetxea ospitale bihurtuko ditu aita Chaok; guztion elikaduraz eta zaintzaz arduratzen zelarik. Rekonzentratuak ez hor bakarrik, kaleetan, etxeetako portaletan, plazetan eta zelaietan bizi ziren, ahal zen erara. Egunero partitzen zituen erresuminak, botikak eta arropak euren artean.

Enterruetara gorpuari laguntzeko betebeharrak hartu zuen bere gain, eta sarri, bera izaten zen laguntzaille bakarra. Bi urtetan, kanposantu nagusia bete egingo da, baita mende erdi lehenago itxi eginiko zaharra ere. Hauek, aita Chaoren ardurapean zeudenez, lehenago aldamen batetik zabalduko du, 10.000 m<sup>2</sup>-ko taketzeko zein alambre-hari ezipiduneko hesiaz inguratuz. Orotara, 4.886 hilotz lurperatu zituen.

Haietariko egun batean, Weyler jeneralak Santa Klara bisitatu zuen. Hiriko agintariek harrera ofiziala eskaini zioten hari, eta bertan presente zeuden guztiak



aita Chao abade parrokoaren jarreraren zain zeuden. Orduan honek, hiriko komunaletako uztako sailak zabaltzea eta baseritarrei fruituak zein abereak batzeko libertatea uztea eskatu zizkion jeneralari. Hark oso zakar, arraza madarikatu hartaz amaitzeko, kanposantuak handitu behar zirela erantzun zion. Orduan, aita Chaok aretotik alde egiteko baimena eskatu zuen.

Aldi horretan ere, Canovas del Castillo Espainiako gobernuburua erahil zuten, Arrasateko Santa Agedako bainuetxean, 1897ko abuztuaren 8an. Santa Klarako Onegintzako Junta bildu egingo da, aita Chao batzarkide zela, Canovasen arimaren alde hiletak ospatzeko. Honi, heriotza-errezoak egiteko eskatu zizkion juntak. Baina, izpiritu santuaren katedran egia baino besterik ezin zitekeelako esan, eta Canovas del Castillo hain politiko handia eta ospetsua izanik, ez zekiela haren eginez zer azaldu erantzun zuen.

Urte bereko uztailaren 22an, tokiko Osasun Juntak burutu zuen bileran, aita Chaok rekonzentratuei eskaini zizkien zerbitzuak eskertzeko, onegintzako gurtzea eskatu zuen harentzat. Udal gorporazioa ekimen horretaz oharturik, batzar osora deitu zuen abuztuaren 17rako. Bertan, aho batez probintziako gobernariari eskaria zuzentzea erabaki zuen, honek onegintzako ordena aita Chaori eskaintzeko, erregeren gobernuaren aurrean gestioak egin zitzaizkion. Udalaren ekimenaz kargutu zenean, erabat ukatu zuen. Gainera, hainbat gestio egin zuen dokumentazioa ez zedin Madrilera iritsi.

Gerra, 1898ko hasieran bukatu zenean, Armada Askatzaileak desfilea burutu zuen Santa Klarako kaleetan barrena. Abadetxe aurretik pasatzen ari zela, aita Chao balkoian zegoenez, armada guztiak goraipatu egin zuen abade zaharra. Gutxira, buruzagi nagusienak, Jose Jesus Monteagudo aurreren zela, euren errespetuak eta onespenak eskaintzera hurbildu zitzaizkion.

Urteko martxoaren 23ko dataz, erretiro eskaria zuzendu zion La Habanako apezpikuari, eta bederatzi hile beranduago, Santa Klarako abade parroko gisa errenuntzia aurkeztu zuen. Baina, hurrengo urteko urtarrilaren 4an lagako zuen behinbetirako kargua. Ordez, Klemente Pereira presbiteroa jarri zuten.

Gasteizera itzultzean, Enrike Eguren doktorearen gurasoen etxera joan zen bizitzera. Parrokia arrunt batetako abadetza ez lortzean, Antezanako herrira erretiratuko da. Baina pulmonia batek joko zuenez, lehenago Egurentarreneira bertuliko da. Ospitale zibileko kapilau oposaketetara aurkeztu ondoren, 1900. urteko apirilaren 9an jarri zen kapilautzaren ardurapean. Hurrengo urteko azaroaren 11an hilko da bihotzeko batek jota. Hiletak, San Bizente Martiriko eliza nagusian egingo dira biharamunean. Santa Isabeleko kanposantuan hilobiratuko dute, familiariko panteoian.

Erretiroa eskuratu ostean, Santa Klarako udal gorporazioak 1899ko irailaren 2an egin zuen bileran, eliza nagusiaren aurrean eraiki berriko parke txikiari Chao plaza izena jartzea erabaki zuen. Hainbat urte beranduago, 1923ko apirilaren 4ko batzarrak, Vidal parkea zabaltzean eliza nagusia eta Chao plaza errautsi zirelako, Las Flores izeneko kaleari Padre Chao izena jartzea erabaki zuen.

Marta Abreu-ren monumentuaren batzorde gestioegileak, 1925eko urriaren 12an bere disoluzio batzarra burutu zuenean, diru soberakinak aita Chaoren bustoa egiteko erabiltzea erabaki zuen. Hirugarren urtera, Vidal parkean inauguratu zen bustoa, ondoko inskripzio honetaz: *Dió todo por los pobres*.

1956ko abenduaren 21eko dataz, Santa Klarako gobernari probintzialak, herrialdeko hamaika alkateren eskariz, hurrengo urte fiskalerako 200 pesoko kreditua onartzea erabaki zuen, Florentino Martinez idazleak aita Alberto Chaoren biografia idazteko.

### Iturriak eta bibliografia

G.E.H.A. Bataioak. Erreferentzi-Kodea: ES/AHDV-GEHA/F006.524(03161/001-00).

GARCÍA GAROFALO, M. *El Padre Alberto Chao. El Apostol de los Pobres*.- México: Antigua Librería Robredo, 1937.

MARTÍNEZ RODRÍGUEZ, Florentino. *Apuntes Biográficos del Presbítero Alberto Chao y Olortua*.- Santa Clara: Imprenta La Nueva, 1957.

## 4.19. DELGADO AMESTOI, Ramon Klaudio

Donostian jaio zen 1843ko azaroan 8an. La Habanan hilko da 1917. urtean.

Aita Manuel Delgado Tolosakoa eta organujolea zen, eta ama Katalina Amestoi Zarautzekoa. Aitaren aldetiko aitona, Jaeneko Antonio Delgado eta Donostiako Anakleta Ubillos izan zituen; amarenekoak, ostera, Zarautzeko Juan Batista eta Maria Antonia Amestoi. Ramon Klaudio, Andre Mariko parrokiari bataiatu zuten, Pedro Zabaleta, biolineko maisua, eta Klaudia Etxegarai donostiarrek aita-bitxiak zirela.

Medikuntzako doktorea izaki, Kubako Zientziatako Akademiak 1885eko ekainaren 28an egin zuen bileran, bere sarrera onartu zuen. Klaudio Delgadok, *Investigaciones del Dr. Ferrán sobre el cólera* tesia aurkeztu zuen, horretarako eginiko diskurtsoan.

Sarrerako lanari erantzuteko, Karlos J. Finlay doktorea izan zen mandatu, eta akademiko berriaren mediku nortasun sendoaren gorespena egin zuen. Haren lanaren aparteko meritua aipatu zuen, baita bere kritikaren zuzentasuna ere.

Karlos J. Finlayren laguntzaile zuzena izan zen. Honek, eltxoaren bidezko sukarraren transmisioaren aurkikuntza, ikerketa eta baieztapena burutu zuen. Urteetako zientziabide horretan, Delgado doktorea izan zuen sinesgarritasuna eta laguntza osoa eskaini zion zientzialari bakarra. Argi azalduko du Finlayk, haren laguntzari zor ziola teoria horren defentsako enpresa zail honen gailurra lortzea.

Aipaturiko kidesunaren erakusgarri argi bilakatu zen, Finlay eta Delgadoren artean prestatu izaniko *Estadística de las inoculaciones con mosquitos contaminados en enfermos de fiebre amarilla*. Eredugarri bihurtu zen, aita Urra jesuitarekin egin zituzten esperimenduak, zeini garaiko medikuek sukarrak horiko gaixoen sintomak aitortu baitzizkioten. Aita Urra agureturik hil zen Kuban, nahiz orduan kolera gaixo endemikoa izan uhartean. Elkarrekin sinatu zuten laborategi bakteriologikoa ezartzeko Zientziatako Akademiari zuzenduriko txostena ere.

Akademiaren lehen urteko (1877) memorian, Klaudio Delgado eta Jose Angel Arregi medikuntzako eta kirurgiako lizentziatuei aipamen berezia egiten zaie, mugagabeko eskuzabaltasunez instituzioari eskaini izaniko euren zientziaren baliabideak, gainera mina eta zoritxarra arintzen sobera ahaleginduz. Are gehiago, hurrengo urteko uztailaren 7ko junta orokorreko batzarrak bokal natorak izendatu zituen lizentziatu biok. Urte bereko hile batzuetan, akademiako behin-behineko idazkari izan zen, idatzi zituen junta zuzendariko zazpi batzarretako agiriak, euren idazkeragatik eta beraietan ezartzen zuen oharrengandik ospe handikoak bilakatu ziren.

1881eko otsailaren 18an, Itsas Potentzien Osasuneko nazioarteko konferentzia bildu zen Washington-en. Klaudio Delgadok, jakin zekien Estatu Batuek deitu zuten bilera hau, sukarrak horiak zekartzan arazoak eztabaidatzeko zela. Beraz, Diego Gonzalez tabako ondasundunarekin zeukan adiskidetasuna bitartez, Peña Plata-ko markes eta kapitain nagusiarengana hurbildu zen. Kuba eta Puerto Ricoko uhartean izenean konferentziara Karlos J. Finlay joatea lortu zuen. Hargatik, honen tesiei ez zieten ezelako jaramonik egin.

Akademiak, 1903ko ekainaren 14an egin zuen bileran, Juan Santos Fernandez eta Gustavo Lopez doktoreen eta instituzioko lehendakari zein idazkariaren txostenaren berri eman zuen. Hauek, Madrilan eginiko Medikuntzako Nazioarteko XIV. kongresuaren aurrean ordezkariak izanik, Karlos J. Finlayk eltxoari buruzko ikerketetan oinarrituriko *Profilaxis de la fiebre amarilla* gaiaren eztabaidaz jakinarazi zuten. Zera azpimarratu zuten gainera, Klaudio Delgado hasiera-hasieratik egonenez Finlayrekin bat eginik, hark irakurri zuela aipaturiko lana ordezkariatza kubatarraren izenean.

Urteetara, Finlayri omenaldia egiteko sasoia iritsi zela, akademiak bere urtebetze eguna aukeratu zuen horretarako; orduan, 1908ko abenduaren 3rako gelditu zen seinalaturik. Honek, hunkiturik igoko zuen tribunara, bileraren aurrean lagun eta lankide Klaudio Delgadoren izugarriko gorespina egin zuela. Bere teoriaren baliagarritasuna ezagutzera eman zuen egunean, haren laguntza izan ez balu, garaiko giro gabeziagatik antzua eta itoa gera zintekteela aditzera emanik.

Zientziatako Akademiako ohoreko akademikoa izendatu zuten 1894an eta merituduna 1908an. 1885-87ko urteetan akademiako bibliotekaria izan zen, eta hurrengoko biurtean *Anales* aldizkariako zuzendaria. Hiriburuko Prado kaleko, 63. zenbakian bizi izan zen.

Oktavio Rivero Partagas, Osasun eta Laguntza Sozialeko ministroa zela, Gilma Madera eskulturgileak eginiko Klaudio Delgadoren erliebea ezarri zen, La

Habanako Instituto Finlayren ekitaldietako aretoan. Donostiako Gros auzoko kale batek bere izena du.

### **Iturriak eta bibliografia**

D.G.H.A. Bataioak: 2. lib. 243. Or.

*Acerca de los trabajos científicos del Dr. Carlos J. Finlay.*/ J. Le-Roy.- En: Revista Bimestre Cubana. Habana, 1924, XI, martx.-apir., 2 zka., 134-156 orr.

### **4.20. DIAZ DE ESPADA LANDA, Juan Jose**

Arratzu-Ubarrundia-Arroiaben (Araba) jaio zen 1756ko apirilaren 21ean. La Habanan hilko da 1832ko abuztuaren 13an.

Aitaren aldetiko aitonak, Armentia (Araba) Eugenio Diaz de Espada eta Betoñoko Maria Lopez de Ondategi izan zituen. Amarenekoak, Uribarri Ganboako Inazio Fernandez de Landa, eta Arroiabeko Maria Inazia Ruiz de Azua.

Aita, aitonaren herri bereko Andres Diaz de Espada, eta ama amonareneko Maria Fernandez de Landa. Juan Jose, Andre Mariko parrokian bataiatu zuten, aitabitxi aitona Eugenio zuela.

Diaz de Espada Landak, Salamancako unibertsitatean egin zituen ikasketa nagusiak. Hogeita sei urtez ordenatu zuen abade, Segoviako apezpikuak. Hamairka urtetan, Salamanca, Calatrava eta Plasenciako aitortzailea eta predikaria izan zen. Erret Kontseiluuetako abokatu hiru urtetan, eta azken hiriko apezpikutegiko fiskal orokorra.

1792ko urtarrilean, Villafranca del Bierzo-ko abadetzako hornitzaile eta bikario orokor izendatu zuten, destino honetan zazpi urte iraun zuela. Leheneko urteik aurrera, filosofia ikasketak eman zituen, Andre Mariko kolejiatan. 1799ko ekainean, Mallorcako ofizio santuko fiskal sustatzailea izan zen, La Habanako apezpiku izendatu zuteneko.

1800.eko maiatzaren 3an aurkeztu zuen errege Karlos V.ak izendapeneko zedula, Felipe Jose Tres Palacios hilberriaren lekua betetzeko. Diaz de Espada apezpikuak, abenduaren 15ko dataz jakinarazi zion katedralako kabiloari Madriletik, eta gorpORIZIO honek, hurrengo urteko uztailearen 7ko batzarrean hartu zuen hura kontutan. 1802ko otsailaren 25ean iritsi zen apezpiku berria La Habanako portura. Horrela, eliza kabiloak bihamunean egin zuen bileran, 27rako ezarri zuen kotsagrazio eguna. Mitraren jabetza martxoaren 4an hartu zuen.

La Habanako Elkarte Abertzaleak, ohoreko bazkide eta zuzendari gisa onartuko du, urteko abenduaren 10eko juntako batzarrean. 1804-06 biurteko zuzendaritzarako berrautatu zuten. Baita hezkuntza batzordeko lehendakaria ere izan zen. Kargu horietan zegoela, San Karlos eta San Anbrosioko apaizgaitegian teologiako hiru katedretatik bat kendu egin zuen, ordez matematika eta aberri

zuzenbidekoak sortu zituela. Kimika, fisika esperimental eta ekonomia politikoa ikasgaiak suspertu eta testu ugari berriztatuko ditu. Gainera, nekazaritzako gaiak ugaritzeko asmoaz, kimikari garrantzi berezia eskaini zion.

Elkarteko lehen batzarretan, Espada apezpikuak eliza barruko hilobiratzeak gaitzetsi egiten zituela aitortu zien juntako lagunei. Harresiz landako kanposantutak ezin herrialdetan premiazkoak izanik, areago iruditzen zitzaion hain bero handia egiten zuen hiri honetan. Laster egin zuen gainera, 300 pesoko ekarpena, eraikinaren planoak enkargatzeko. San Lazaroko ospitaleak bere gibeletara zeukan soroko zati bateko lurrak aukeratu zituen, kanposantua eraikitzeko.

Material ugari eta presondegiko eskulan erabilgarria jarri zituen obra-maisua-ren agindupean. Harlanduzko hornez hesituriko 12.525 metro karratuko laukia itxuratu zen azkenean, kanposantuan 4.600 gorpu baino gehiago lurpera zitekeela. Ederzaletasuna hortixerik nabaritu zaio jadanik apezpikuari, eraikinaren aurreari eta kaperari txertatu zizkion forma klasikoaren xumetasuna eta lerro erregularrak lekuko. Obra guztiko presupostua 39.000 pesotara iritsi zen, haue-tarik katedraleko fabrikak 29.000 peso eskas ordainduko du, eta 10.000 apez-pikuak.

Honek, gainera, kanposantuko mantenuak urtero behar zuen 3.000 peso bere errentetatik kitatuko du, eta aurrerantzean ordainketa hura mitrari leporatu zion. Obrak egiten ari ziren bitartean, 1804ko maiatzaren 15eko erret zedula jaso zuen Juan Jose Diaz de Espadak, zenbait arinen kanposantu bat eraiki zezan harresiz landa, elizetako hilobiratzeak debekatzeko aginduz. Espada deitu zen kanposantu hau, 1878ko urtean itxiko zuen gobernu orokorrak.

1799ko maiatzaren 5eko erret zedulan oinarriturik, berrogeitamar parrokia, baserri inguruetako eskolak eta landalur eliztargo berriak eraiki eta askoren mugak aldatu zituen. Eliztar ugari elizkizunak eta dotrina hartu gabe gelditzen zen, parrokia etxetik lur kaballeria batera hurbil egonik ere, bere eremukora iris-teko 3 edo 4 legoa ibili behar zuelako. "*Eliztar bakoitzak aukera dezala hurbile-neko edo bere komenentzia iraunkorreko parrokia, aurreratzean baina hari atxiki beharko zaion baldintza bakarraz*", agindu zuen Espada apezpikuak, eliztarren kontra abade askok buruturiko gehiegikeriak zuzentzeko.

Fanatismoaren etsaia izanik, hori baztertzeko hainbat ediktu publikatu zuen Espada apezpikuak. 1804. urtean, La Habanako etxeetako portaletan ezartzen ziren gurutzeak debekatu zituen; baita elizbiren ibilbidea mugatuko eta haue-tariko batzuen irteera moztu ere. Idolatriaren kontra aurrez aurre borrokatu zuen, eli-zetako santuen egurrezko irudiak kendu, horren ordeztu muralak margotzea agindu zuela. Hori egiteko, Frantzizko Goya margolariak gomendaturiko Vermay jauna erabili zuen.

Eraberriketa handiak egin zituen elizen ornamentuan. Garrantzizkoena 1820an, La Habanako katedraleko Ama Birginari sagaratu zion aldarearena izan zen. XVIII. mendeko harlauzazko zoladura bereizgarria zeukana, Erromako mar-moleztu ordeztu zuen. Espada apezpikuak itxuratu zuen proiektuak hiri horretako

San Lukaseko akademiako laudorio hoberenak jaso zituen. Katedraleko aldare barrokoak, garai horretako neoklasikoez ordeztu zituen ere, estilo horren mireslea zelako. Lehioen erlaitzak eta moldurak arkitektura berri batera aldatzea erabaki zuen, baina asmo hori ez zuen beteko.

La Habanako Sancti Spirituseko parrokiako eliza nagusia kupula garai batez gailurtu zuten, Espada apezpikuaren bisita zela medio. Baina hainbeste ekaitzen erasoaz hondaturik, behera bota behar izan zuten kupula hura, mendearen erdialdean txikiagoa eraikiz. Trinidadeko San Frantzisko de Paula eliza, 1823an izan zen laguntzailera goratua. Matanzas hiriko Pueblo Nuevo auzuneko San Juan Bataiatzaile eliza, apezpikuaren garaiko 1828an hasi zen eraikitzen. Katedralean, Santo Kristo eta Nuestra Señora de Guadalupe-ko elizetan, mihise ederrak jarriko zituen.

Espada apezpikuak Santa Klara bisitatu zuen 1804. urteko aldi berean, elgoriaren txertoa zekarren erret espedizioa La Habanara orduan iritsi zen. Irakasle bat eskatu zuen haur batzuei inokulatzeko hura. Operazio hau egitea gomendatu zuen aurrerantzean ere bisitatu zuen herri guztietan zehar. Itzultzean, elkarte abertzaleak txertoaren junta nagusiko osakide izendatu zuen uztailaren 13an, Tomas Romay doktoarekin batera. Txertoaren erabilerari buruzko 1806ko eshortazioak entzute handia izan zuen, zeinaren bitartez bataio unean parrokoei gurasoek haurrak txerta zitzaten gomendatu baitzien. Honetarako, sakristiak herriaren eta medikuen zerbitzuan jarri zituen.

Aldi hartan, lehen mailako irakaskuntzako Pestalozzi-ren metodoak eskaintzen zituen onurak medio, zeharo gomendatzen zen Europa osoan. Beraz, hurrengo urteko otsailaren 13an aita O'Gavan Madrilera bidaltzea proposatu zion elkarte abertzaleari, sistema berri hau Institutu Militar Pestalozzian ikasteko. Elkartea baietza eman zion, eta bidaiako gastuak apezpikuak komisionatu zituen. Urte askotan, urrezko eta zilarrezko sariak eskaini zituen maila goreneko azterketa publikoak saritzeko. Gainera, 1809tik aurrera Onegintzako Etxeari hileko 30 peso lagundu zion; baita zenbateko berberaz, lehen mailako dekaldeko eskolei ere.

Goi mailako irakaskuntza arloan, hainbat aldaketa bultzatu zuen. Justo Velez de Elorriaga elkarte lagunak, erakunde horretan sartzeko(1817), zientzi naturalei buruzko diskurtsoa eliza barrutiko elizgizonen artean zabaltzeko proposamena oniritzi handiaz jaso zuen Diez de Espadasek. Berdin, San Agustineko komentua laga zion elkarteari, bertan pinturako akademia (1818) ezartzeko; kimikako (1820) klaseak emateko San Anbrosioko ospitaleko gela; santu honen kapera eskola lankasteriarerako (1823); eta emaginen eskola (1830) abian ezartzeko San Frantzisko Paulako ospitaleko areto bat.

San Karlos eta San Anbrosio apaizgaitegian filosofiako katedra fundatu zuen 1811. urtean, bakantea betetzeko oposizioa atera zuela. Hamar urte berandua-go, konstituzioko katedra sortu zuen, Felix Varela abadearekin batera, Jose Antonio Saco eta Nikolas Escobedo garaiko intelektualik gorenak aurkeztuz. Ondorioz, 1821eko urtarrilaren 18tik aurrera, Espainiako 1812ko konstituzioa erakutsiko

da apaizgaitegian, kostuak elkarte abertzaleak asumitu zituela. Ekonomia politikako lehen katedra fundatzeko bere laguntza oso garrantzitsua izan zen; 1818-24 bitarteko urteetan funtzionatu zuela.

Tabako Faktoria izugarriko krisian zegoen murgildurik 1805. urtean. Beraz, Rafael Gomez intendenteak laguntza berrien bila hasi zen La Habanako biztanleen artean. Gerora, laguntzaileen ezagutza publikoa egin zuen, tabako erosketak ez zitezen gelditu. Diez de Espada apezpikuak, 6.000 pesotako mailegua eskaini zuela egiaztatuko du intendenteak. Baita Jose Anselmo de la Luz apaizgaiteko zuzendariak ere, zentroko fondoetatik eta apezpikuaren oniritziak, Erret Hazien-dari eginiko 20.000 pesotako interesik gabeko mailegua. Gainera, Frantzisko Castañeda presbiteroak, Espada apezpikuaren izenean armadako diruzaintzari, depositu antzean entregaturiko 4.300 pesotako ondasuntza.

Espainiako erresuman gobernu erreakzionarioek agintzen zuten aldietan, Diaz de Espada laster izaten zituen hara itzultzeko erret aginduak. Lehenak, 1824ko otsailaren 21ean eta abenduaren 7an izan zituen. Baina, elkarte abertzaleak ekainaren 10ean egin izaniko bileran, apezpikuaren iraunkortasuneko mozioa onartu zuen, erregeri zuzentzeko. Idatzian prelatuaren gorapenak azaldu zituen elkarteak, ez bakarrik hiru biurtetan zuzendari kargurako hautaketan lortzen zuen aho batezkoagatik, baizik eta kargua laga ostean, eta gaixoei permititu zioten arte, ondo betetzen zekielako hainbat enkargurengandik. Hargatik, bi urte beranduagoko urtarrilaren 29an, gainerako hirugarren agindua jaso zuen. Inkisizioarekin arazoak izaten zituen.

Habana Zaharreko Armetako plazan dagoen tenpletea, 1828ko martxoaren 19an inaugurato zen, Fernando VII.a errege zela, eta Frantzisko Dionisio Vives jeneralordea uharteko gobernari. 1519. urtean leku horretan ospaturiko lehen meza eta udaleko lehen batzarraren oroigarri eraiki zen monumentu hau. Inaugurazioko meza, Juan Jose Diaz de Espada Landa apezpikuak esan zuen.

Oso gogor borrokatu zuen garaiko azukretzarien kontra, bere apezpikualdiko lehen 10 urtetan. Espada ailegatu aurretik, bazen apezpikutegia eta La Habanako Merkataritzako Erret Kontsulatuaren arteko kontrakar isila. 1804ko apirilaren 4ko erret zedula eskupeko bidez lortzean, azukre-ekoizle hauek irabazi egin zuten. Zedularen arabera azukre-ola berriek ez zioten elizari hamarrenik ordaindu behar. Aurretiaz eraiki izandakoek urte bereko produkzioaren oinarriko hamarren finko bat baino ez zuketan aurrerantzean ordaindu behar.

Azukretzariak, garaipenaren berotasunean, Hamarreneko Juntako batzarretara joaten hasi ziren. Apezpikuak kalera bota zituen, baina 1805eko urtarrilaren 24ko erret baimena lortu zuten, berriro juntakide izateko. Gerora, Diaz de Espadak, koroari igorri zion txosten baten arabera, baimenak atzera egin zuen, 1807ko abuztuan. Gatazkaren ondorioz, koroari bidali zizkion gainerako txostenak kontutan harturik, azukretzariak, askonahiak, lukro gogoaz, bizioz beterik, erlijio-gabedunak eta beltz esplotatzaile modura salatu zituen.

Oso ospetsuak egin ziren halaber, bere agintaldiko zirkular, pastoral eta gainerako eliza agiriak. Espainiak, 1804ko abenduaren 12an Ingalaterrari gerra

deklaratu ziola, ingelesek Vertientes, Guanaja, Santa Kruz, Batabano, Nuevitas, Barakoa, Kanasi eta Bahia Honda-ko portuei eraso egiten zieten, 1805etik 1808ra bitarteko urteetan. Gero, Frantziak Espainia menperatu nahi izan zuene-ko, Junta Gorenaren ezarketaz, nazioak irabazteko apaizei zuzendu zien 1810eko abenduaren 24ko zirkularra.

Baita erlijioa eta aberria maitatzeko ere, apaizei, sakristau nagusiei, elizeta-ko agintari gorenei, irakasleei eta bereziki jurisprudentziako katedradunei, konstitu- zio politikoaren azalpena eginaz, arabera ondoko 1811ko karta pastorala zuzendu zien.

Hautzaroan, argizari leunean antzera, bihotzean eta ariman grabatzen diren lehen hunkipenak jasotzen dira. Gizonari hilobira arte lagunduko diote, eta eragin izu- garria izango dute gainera, honen bizitzako ekintza guztietan. Gaur nabarmentzen den gazteria, aberriaren laguntza eta itxaropena da [...].

Udal ohoragarri eta eliza barrutiko apezteriar, kontinente amerikarreko pro- bintzia batzuetako oldartzeari buruzko puntu garrantzizkoak argituz, zuzendu zien 1816ko agiri pastorala. Azkenik, 1826. urteko karta pastoral biak. Lehena, dean ohoragarriari eta udalari zuzendurik, uharte hartan beltz-tratua debekatzeko. Bigarrena, apaiz parrokoiei elkarte sekretu frankmasoiak, komuneroak eta antze- rakoak suntsitzeko jakinaraziz.

1830eko martxoaren 24an, zorabio arin batzuk hartu zituen, mihian astun- tasuna, eldarnioa, loguragalea eta konorte galera ohartu zitzaizkiola. Hiruzpalau egun iraun zuen krisi horretan, baina sakontasun handiagoko bigarrenak hartu zion, lau hilabete beranduago; guztira, hamaikara iritsi zirelarik. Hirugarreneko aldian gainera, aurpegiko ezkeraldea geldiarazi zitzaion, baita eskutako ukimena galdu zuen ere. Hitza eta arrazoa berreskuratzen zuenean, buruko eskuin aldean sentitzen zuen minaz eta astuntasunaz kexu izaten zen.

Azken hilabeteetan, ia egun oro eldarnioek jotzen zuten. Aurreko urtean zehar, pulmoniak hartu zuenez, krisi hauetan ere gaixo honen eragina sentitzen zuen. Bere hiltzori azken hiru egunetan, eztulaz, arnasa hartzeko trabaz eta dardarati agertzen zen, ondoko aplopegiak bitzta moztu ziolarik.

Abuztuaren 17ko egunean lurperatu zuten, La Habanako kanposantu oroko- rrean. Hargatik, egin zitzaion autopsiaren ondorioz, birrikak oso egoera onean zituenez, eta perikardioa hautsi handiez, Nikolas Jose Gutierrez doktoreak peri- karditis diagnostikatuko zion (1832.08.18).

Hilaren 22ko dataz, Jose de la Luz Caballero, Jose Antonio Saco eta gaine- rako lau doktorek, Espada apezpikuaren oroitzapen beneragarria betikotzeko, Juan Bernardo O'Gavan dean eta apezpikutegiko gobernariari txosten bat aurkez- tu zioten, apaizgaitegiko patio nagusian edo zentroko beste ezein lekuren batean marmolezko edo brontzeko estatua altxatzeko baimena eskatuz. Apaizgaitegian ikasi zuten eta oraindik ikasten zeudenen artean, dirua biltzeko harpidetza bolun- tariora zabaltzeko konpromisoa agertu zioten O'Gavan prelatuari.



Hurrengo eguneko dataz, elkarre abertzaleko literaturako batzorde iraunkor-  
rrak, Juan Jose Diaz de Espada apezpiku defuntuaren testigantza publikoa eskai-  
ni nahirik, poesia lehiaketa zabaltzea erabaki zuen, aurkezten zen lanik hoberena  
saritzeko. Gobernari eta kapitain nagusiak ere, hurrengo 31n ekimen horri lagun-  
tza eskaintzea onartu zuen. Pedro M. Picard grabatzaile ospetsua, 1827tik  
harrezkero La Habanan zegoenez, Espada apezpikuaren hilotza ezarriko zen kata-  
falkoan, fraide Remigio Cernada-k eginiko heriotza errezoa, altzairuz grabatu  
zuen.

Isabel Katolika erret ordena amerikarra ezarri zion errege Fernando VII.ak,  
1815eko martxoaren 24an. Ordenako, batzarre probintzialeko gurutze handiko  
saileko bokala izan zen. Harresiz landako Marte-ko plazan bizi izan zen.

Pedro Valera Jimenez, Santo Domingoko artzapezpiku jaun agurgarriak,  
ondoztatuko zuen La Habanako apezpikutegian.

### Iturriak eta bibliografia

G.E.A.H. Bataioak: 2. lib. 34. or. Erreferentzi-Kodea: ES/AHDV-GEHA/F006.072(00511/  
002-02).

GONZÁLEZ DEL VALLE, Francisco. "El Obispo Espada".- En: *Recapitulación para la Histo-  
ria de la Sociedad Económica Habanera*.- Habana: Impr. y Lib. El Universo, S.A.,  
1930, 161-169 orr. I. bol.

GUTIERREZ, Nicolas José. "Observaciones necroscópicas y patológicas hechas con oca-  
sion de habérsele comisionado para embalsamar el cadáver del Excmo. e Ilmo. Sr. D.  
Juan José Díaz de Espada Landa".- En: *Revista Bimestre Cubana*.- Habana, 1832, 3  
tomo, 7 zka., 267-270 orr.

ROMAY, Tomás. "Descripción del Cementerio General de la Habana".- En: *Memorias de la  
Sociedad Económica de la Habana*.- Habana: Imprenta del Gobierno y Capitanía  
General, 1845, XX, 307-314 orr.

VALVERDE, Antonio L. "Documentos relativos al Obispo Espada".- En: *Revista Bimestre  
Cubana*.- Habana, 1926, XXI, maia.-ekai., 3 zka., 321-345 orr.

### 4.21. ETXEBERRIA LOINATZ, Martin Xabier

Ordizian (Gipuzkoa) jaio zen 1726ko abuztuaren 18an.

Aitaren aldetiko aitonak, Domingo Etxeberria, Oriako parrokian 1661eko  
urriaren 1ean bataiatu zutena, eta Ana Maria Ertzilla Artza izango zituen. Parrokia  
horretan ezkondu ziren, 1682ko urtarrilaren 12an. Domingo, Orian hil zen  
1741eko ekainaren 8an.

Amarenekoak, Beasaingo Martin Loinatz eta Katalina Oñatibia izan zituen.  
Seguran (Gipuzkoa) ezkondu ziren, 1688ko ekainaren 29an. Aitona Martin,

Orian hil zen 1747ko urtarrilaren 18an. Aita, Iñigo Rafael Etxeberria Ertzilla, Orian bataiatu zuten, 1687ko urriaren 24an. Horko, alkate arrunta izan zen, eta Manuel Aranbururen aurrean egin zuen testamentua, 1762ko apirilaren 13an. Ama, Teresa Batista Loinatz Oñatibia izan zuen; Seguran bataiatu zuten, 1700eko ekainaren 30ean. Senar Iñigorekin, Oriako parrokiaren ezkondu zen, 1723ko azaroaren 1ean.

Aitabitxiak Nikolas Bikuña eta Katalina Oñatibia izan ziren. Eginkizun hura, Martin Loinatz zalduneriako kapitain eta La Habanako tabako faktore eta zuzendari orokorraren eta honen emazte Maria Bustamante Gebararen izen eta ordezkartzan egiten zutela aitortu zuten.

Martin Xabier Etxeberria, La Habanako katedralean ezkondu zen 1766ko abenduaren 25ean, Maria Loreto Peñalver Cardenas anderearekin. Emaztea, Diego Peñalver Angulo, hiriburuko Erret Kutxetako diruzain ofiziala eta kontularitza nagusiko ohoreko ministroaren eta Maria Luisa Cardenas Sotolongo-ren alaba izan zen. Maria Frantziska, Maria Montserrat, Maria Luisa, Martin eta Manuel Etxeberria Peñalver seme-alabak eduki zituzten.

Martin Xabier, Purísima Concepción irizten zitzaion azukrea fabrikatzeko olaren ugazaba izan zen. Santa Kruz zerritokiaren lurretan zegoen kokaturik, La Habanaz 12 legoa haizaldera. 1783ko abuztuaren 21ean honek prestatu zuen idatzian, bere azukre-olaren mugako 12 kaballeriatan (161,40 ha.) ebaketa trafikoko enbarkazioek oholak edo egur kargak prestatzean, mendi eta kanaberdietan izugarritzko kalteak egiten zizkiotela salatu zuen. Baita dotazioko idiak, behiak eta gainerako animaliak gordetzen zituen moxaltokietan ere.

Salaketan, Bartolome Alonso del Castillo maioralak hilaren 16an eginiko txostenean, aipatu mugako kaballerietan, biztanle berriak bizitzen aitzeko seinagarriko gurutzak ezartzera bultzatu zituela aitortu zuen. Beraz, Santa Kruz portuko hondartzan, titulurik gabeko gizabanakoek eraiki zituzten txabolak eta etxeak behera botatzea eta azukre-ola ondoko lurretan finkatzeko seinale guztiak kentzea eskatu zuen Martin Xabier Etxeberriak. Familia osoak, eta batez ere andrazko eta haur txikiak han bizitzeak, eragozpen larriak ekar zitzaizkela.

Tabako Faktoriako administratzailea ere izan zen. Frantzisko Xabier Rodriguezen aurrean egin zuen testamentua, 1787ko azaroaren 7an. Seme Manuel, abadea eta filologo jakintsua izan zen. Kanon sakratuetako eta teologiko doktorea. Kubako eliza barrutiko aztertzaile sinodala; La Habanako San Jeronimoko unibertsitateko errektoreordea; Gregorio XVI.a aita santuaren etxeko prelatua; Herrialdearen Lagunen Elkarte Ekonomikoko bazkide merituduna; eta Onegintza Etxeko eta Amatasuneko ongile handia.

Laurehun kaballeriako (5.500 ha.) Laguna Grande bere etxaldea dohaindu zion, Celestina eta Lucida martirien gorpuak ekarri zituen Santa Katalinako komentuari. *Noches de Santa María Magdalena* obra itzuli zuen italiaritik, mediatzio gisa. Karlos III.a ordenan sartu zen, 1831ko azaroaren 28an.

## Iturriak

G.E.A.H. Bataioak: 6. lib. 15. orr.

K.A.N. Gobernuko Eskribautza: 618/28 leg. zka.

### 4.22. EZPELETA GALDEANO, Jose

Bartzelonan jaio zen 1742ko urtarrilaren 24an. Iruñean hil zen, 1823ko azaroaren 23an.

Aita Joakin Ezpeleta Dicastillo, Gaztelako errejimentuko oinezko kapitaina izan zen. Ama Maria Inazia Galdeano Prado, Oliten (Nafarroa) jaio izana.

Jose Ezpeleta Galdeano, Beireko jauregiko XV. jauna. San Martin Unxeko, Arradako eta Taxoare jauregiko jauna zen, halaber. Undioko eta Cintruénigoko gaztelu eta dorreko jaurgoen zein oinordekotzen jabea. Karrerako militar ospetsua izanik.

Jose Ezpeleta koronela, 1779ko otsailean ailegatu zen lehendabizikoz La Habanara, Navarra errejimentuko 1.363 gizonen ardurapean. Ia guztiak eskorbutoz kutsaturik, Guanabakoako portuan gelditu ziren, zerbitzurako osatu bitartean. Bernardo Galvez kondeak, Victorio Navia La Habanako armadako buruzagitzatik ondozkatu zuen, eta Ezpeleta aukeratuko du nagusi orokor kargurako.

Galvez kondea, Pensacola erasotzeko asmoaz zebilela, Mississippi ibaitik irtengo zen, Mobile-rako (Estatu Batuak) bidean 1780ko otsailaren 6an. 1.071 tropako gizon eroango zuen berarekin. Baina, ibaiaren arroan ekaitz ikaragarri batek harrapatu zituen egun bereko arratsaldean. Hilaren 20rako, eguraldi txarra baretuz zihoala, Migel Goikoetxea aurkeztu zitzaien laguntza eskaintzera. Goikoetxea, Navarra errejimentuko gerrako lau ontziez eta 204 gizonekin zetorren, hamar egun lehenago La Habanan itsasoratu zelarik.

Armada biok, otsailaren 26rako lehorreratu ziren inolako erresistentziarik gabe, Mobiletik hiru legoa hegoaldera, Los Perros deituriko ibaiaren ondoan. Goarnizioa hartu ondoren, 307 gizon La Habanara atzeman zuten. Aurrerantzean, 56 kanoiko leku garrantzitsua, Navarra errejimentuko Jose Ezpeleta koronelaren agindupean gelditu zen.

Harrezkero, Mobile bilakatu zitzaien Pensacola eta Floridako ingelesak erasotzeko gotorleku. Hurrengo urteko otsailaren hasieran, Jose Ezpeletak talde ingeles bat errefusatu zuen, baina galera handiak eginik bere errejimentuari. Waldeck koronelburua bertan akaba zen.

Bernardo Galvez kondeak, La Habanako España errejimentuko Migel Herrera lotinanta mandatu zuen martxoaren 1ean, Mobilera goleta batez lehorrera zedin, Jose Ezpeleta koronelari karta batzuk entregatzeko. Galvezen asmoa Pensacola-ko portuaren aurrean dagoen Santa Rosa uhartearen ekialdean bistaratzea zen;

Ezpeletari, bere manduko troparekin lehorrez abiatzea agindu ziolarik. Hilaren 13an, Esteban Miro zelai laguntzailea Mobilera bidali zuen, ahozko instrukzio berriak koronelari pasatzera. Etsaiari bentaja ateratzeko, tropen biltzeaz aurrera jarraitzeko esan ziola ostera.

Martxoaren 16an, Juan Riaño fragatako lotinantaren agindupeko balandra iritsi zen Mobiletik, Jose Ezpeletaren karta batzuk zekartzala. Zera oharrazten zion Galvez kondeari, 900 gizoneko troparekin abiatzen zela Pensacolatik 5 legoara zegoen Los Perdidos ibaiaren ertzerara, eta bestaldera pasatzeko enbarkazio batzuk behar zituela. Hurrengo egunean bertan, Migel Herrera lotinanta iritsi zen bigarren aldiz Mobilera, Bernardo Galvezen beste karta batzukaz, zeinek berarekin biltzeko tropekin bidean zela oharrazi baitzion Ezpeletari

Hilaren 23ko dataz, La Boquilla-ko arroa arakatu zuen Jose Ezpeletak, kanpamentua Pensacolako lekutik ahalik hurbilen kokatzeko. San Jorge gotorlekua erasotzeko erabili zuen mendiburua arakatuko du, eta zelaiaren ingurua desmendentzeko behargin batzuk bidali zituen. Horretara, euroi enbarazu egiteko indigenek ezin zutela enboskatu. Egun berean bildu zen Galvez kondearen indar erasotzaileekin. Guztiok, eskuadrako ontzi kanoidunen babesean iritsi ziren Pensacolako inguruetara, apirilaren 24an. Kanpamentua gau berean ezarri zutela, gotorlekutik kilometro bitara.

Apirilaren 27an inguratu zuten gotorlekua. Kanoi danbada izugarriak eraso zituen San Jorgeko gotorlekua. Bitartean ontzidiko beste fragatek, hurbiletik ekiten zioten. Maiatzaren 8an, ordu biko kanoialdiaren ostean, erasotzaileen grana da bat bolborategi printzipalean sartuko da. Leherketa ikaragarri batek 150 ingeles hil, eta iparraldeko defentsa suntsitu egin zuen. Berehala, Galvez kondea, ezkerreko besoan zauriturik baina, eta Juan Manuel Cagigal, Navarra eta Flandes errejimentuetako zutabearen laguntzarekin, Pensacola hartzera abiatu ziren.

Garaipenaren berria Espainiara iritsi zenean, Jose Galvez Sonora-ko markes eta Indietako ministroak, loba Galvez kondea, Juan Manuel Cagigal eta Jose Solano jeneralordeko gradura igoko zituen. Jose Ezpeleta, Navarra errejimentuko koronela, eta Kessel baroia Flandesekoarena, brigadierrekora ostera. Ondoren, Mexikoko tropen azpiinspektore izendatu zuten Jose Ezpeleta brigadierra, baita Pensacolako gobernaria ere, 1781ean. Aldi horretan, Floridako ekialdetik ingelesak kanporatzea lortu zuen.

Jose Ezpeleta, La Habanan ezkondu zen, 1783ko urtarrilaren 23an, Maria Paz Enrile Alcedo, Cádizeko Casa Enrileko I. markesaren alabarekin. Jose Maria eta Joakin Ezpeleta Enrile, semeak eduki zituzten. Joakin, La Habanako Real Fuerzako gazteluan jaio zen 1788ko irailaren 19an. 1838tik 1840ra bitartean, Kubako gobernari eta kapitain nagusia izan zen. Jose Maria, La Habanako katedralean bataiatu zuten, 1787ko martxoaren 16an. Ezpeleta Beireko Ezpeletako II. kondea izan zen.

1785eko abenduaren erdialdean, Maria Paz Enrile emaztearekin, Verakruzen zegoela, erretoreordearen plegu bat eta erret agindua jaso zituen Jose Ezpeleta

brigadierrak. Agirion bitartez, Kuba uharteko gobernari eta kapitain nagusiaren izendapena iragartzen zitzaion. Berehala ontziratu zen, eta hile bereko 28an hartu zuen La Habanan karguaren ardura. Aurreko, Bernardo Troncoso zelai mariskala ondozkatu zuen, Verakruzeko gobernari izendatu zutelarik.

Ezpeletaren izendapena bere izaeraren zuzentasunean oinarrituko da. Juan Manuel Cagigal jeneralordearen kontra, Espainian jarraitzen zitzaion kausa luzearen konponketa ezpartziala bilatzeko asmoan, hain zuzen. Indietako ministeritzari, 1786ko urtarrilaren hasieran uharteko gobernariak igorri zizkion berriak, ordu arte izaniko zalantzak argitzea lortu zuten. Otsailaren 20ko erret aginduz, ardura-dunen kontra kausa zabaltzea eskatu zitzaion Ezpeletari. Intendentziako aholkularia, obra publikotako interbentorea eta hauen menpeko enplegatu andana, San Juan Ulua-ko (Honduras) presondegian atzeman zituen martxoaren azkeneko.

Hiriko argitasuna eta garbitasuna zaintzeko ahalegin bereziak egin zituen Ezpeleta gobernariak. Lehen neurri antzera, urriaren 20ko datako bandoa publikatu zuen, "*iluntasunak sortzen zituen ezerosotasunaz eta desordenaz, baita etxe zein kaleen garbitasun gabeziak ere hiriak pairatzen zutenaz arduraturik*". Poliziako Junta kontsultatu ondoren, argiteria orokorra ezartzea erabaki zuen, baina auzotarren kontura. Bakoitzak etxea eta kalea bere kasa argitu edota garbitu baino merkeago eta iraunkorrago zelako. Ate nagusiko 3 erreal eta erdi kobratuko du, eta 2 osagarriko. Argiontzi, argimutil eta eskaileren kostua ordaindu gabe, ez zitzaion inori zerbitzurik eskainiko.

Hiriko garbitasunari begira, auzotar bakoitzari leporatu zion ardura. Etxeko zaborreria guztia eta kale aurrean zegoena ere, goizaldean edo zalgurdiaren txilina entzun ondoren, ate kanpoan lagatzea derrigortu zuen. Lur erabilgarria, harriak, harri-arrabotak, zikinkeriak, ulohiak, ezta geletako haltzari zaharrak ere, ezin zintezkeen zaborren arloan sartu. Etxeetan egunero sortzen zen hondakin arrunta, eta zaldi edo mandoen azpigarria ez besterik. Aparteko zaborreria, auzotarrak eroan beharko zuen, harresiz landako leku aproposetara.

Jose Ezpeletak, De la Torreko markesak aurreko urteetan hausnarturiko, erreforma batzuk ere sustatu zituen hirian. Argiteria publikoa eta zabor bilketaz gain, zerbitzu gehiagoz hornitu gura zuen hiria. Iturriak ugaritu. Almendares ibaitik ura zekarren ubidea garbitu eta lauzatu. Populazioaren araberako harategia eta arrandegia ezarri. Kaleetako harriztatzeaz eta moilaren eraikuntzaz jarraitu. Gobernuko eta intendentziako etxearen eraikinen amaiera bultzatu, eta kanposantua eraiki.

Inazio Urrutia Montoya historialariak, bere *Historia de la Isla de Cuba* idazlana inprimatzeko baimena eskatu zion Ezpeleta gobernariari, 1787ko maiatzaren 18an. Garai hartan, Indietako gaiak aztertzen zituen liburuak inprimatzea debekaturik zeuden Felipe II.ren aginduz; derrigorrez Kontseilu Gorenaren onarpena behar zutelako. Hargatik, ekainaren 4ko dataz, Ezpeletak idazlana Santiago Godoy doktorearen onepenera aurkeztea agindu zuen. Godoyren ebazpena baiezkoa izanik, liburua inprimatzea baimendu zuen gobernariak.

1780ko hamarkadan, beltz-ontziak lehorreratzean, ondasundunek eta espekulatazailak ikuskizun lotsagarriak antolatzen zituzten. Hain zen eskandalugarria, gobernariarekin akordu batera iristera behartu zirela. 1786ko azaroaren 10ean, Jose Ezpeleta kapitain nagusiaren etxeetan bildurik, beltz lehorreratzea patxadaz egiteko bandoaren akorduak erabaki zituzten.

Asmoa, Liverpool-eko Backer and Dawson etxeak, beltz-ontzien azoka zuzentzen zuen bakoitzean, bertan sortzen ziren nahaste eta desordenak alboratzea zen. Bileran, ondoko arauak onartu ziren. Lehena, beltz-ontzi bat portura iristen zen aldia, ezin zuen inork, ezain aitzakiaz barrura igo. Bigarrena, ontzi ingelesetako kapitain bakoitzak, lehorreratzea orduko, badian hiliko beltzen zerrenda aurkeztu beharko zion intendente jaunari. Hirugarrena, beltzak hartzeko separazioa eta berrezagutzea, pribatuan egingo zen, zeregin honetako ministro eta pertsonen aurrean bakarrik. Laugarrena, azoka zozketaz bideratuko zen, zoriondun guztiak ados egon beharko zirela. Bosgarrena, beltzak nahi zituen oro komisarioarengana zuzenduko zen, gura zuen beltzen zenbakia eta klaseak zehazteko. Horretarako, beltz guztiak klasetan antolaturik eta zenbakiturik egon beharko ziren.

Beltz-tratuko etxe ingeles honek, 1786-89 aldia 8.318 esklabo sartu zituen uhartean. 1788. urtean, kontratu berri bat gestionatuko zuen Madrilen aurrean, Felipe Alwood ahalordearen bitartez; seitik zortzi urtera bitartean, urtero 180 peso bakoitzeko 3.000 esklabo La Habanan eta Caracasen sartuko zuela konprometituz.

1787ko otsailerako iritsi zitzaion Ezpeletari, obra publikotan inbertitzeko, aurreko urteko abenduaren 21eko erret agindua. Kaleen harritatzeak eta moillaren eraikuntzak bakarrik jango diote diru sarrera guztia. Gobernuko etxeetako obrak aurreratzeke apartatu zituen osagarriak salbu. Gorteak kanposantua eraikitzeke proposamena onartu zion arren, parrokiako kleroak, isilpean eta azpizokoen bitartez oztopatu egin zion asmoa.

Errege eta Hiberniako batailoiak, 1783ko urtetik zeuden La Habanan. Baina. 5 urte beranduago Espainiara itzularazi zituztelako, hango indar militar guztia berrantolatu behar izan zuen. Gelditu ziren talde haietako pikete batzuekin, Espainiatik eta Kanariar Uhartetatik bidali zizkieten erreklutekin, Kuba deituriko bigarren errejimentu tinkoa sortu zuen. Bere indarra, 900 buruko batailoi bira iritsi zen. Gorputz berri hau, Domingo Cabello koronelak antolatu zuen, urte betean.

1789ko otsailaren azkenerantz, Cádizetik iritsi zen postak, berri txar bat zekarren La Habanara. Madrilen abenduaren 28an, jazotako errege Karlos III.aren heriotzarena. Jose Ezpeleta gobernaria, Karlos IV.aren proklamazioa ospatzera presatuko da. Bat-batean, zelai mariskaleko gradura igonik eta Santa Fe Bogotako erretorde izendaturik begiratu zuen bere burua. Agindua, gainera, kargu berrira berehala aldatzekoa zen. Apirilaren 18an, Domingo Cabello brigadierrari entregatu zion uharteko gobernu.

Aurrerantzean, Kolonbiako erretordetzako tropa guztietako inspektore orokorra, bertako kapitain nagusia eta Santa Fe Bogotako Erret Entzutegiko lehenda-

karia izan zen. 1796ko azkenerantz, agintaldia agortu zitzaioa, La Habanara berritzuli zen Cádizera itsasoratzeko.

1797ko abuztuaren 13ko errege Karlos IV.aren dekretuz, Taxoareko jauregi-ko bizkondetzarekin, Beireko Ezpeleta kondearen duintasuna eskainiko zaio. Testamentua, Simon Garde erret eskribauaren aurrean egin zuen. Bere heriotza Iruñeko San Lorentzo parrokian dago izena emanik. Biharamunean, hilotza Beireko hiribildukora eraman zuten.

Karlos III.aren ordenako zaldun pentsioduna, eta 1781etik harrezkero San Juan ordenakoa izan zen.

## Iturriak

K.A.N. Arazo Politikoak: 255 leg. 16, 17 zkak.

### 4.23. FORCADE ARISBURU, Pedro

Donibane Garazin (Behe-Nafarroa) jaio zen. La Habanan hilko da 1868ko urtarilaren 3an. Jean Batista Forcade eta Graziana Arisburu izango zituen gurasoak.

La Habanan ezkondu zen 1834ko urriaren 15ean, Maria Manuela Lafuente Lopez anderearekin, Izpiritu Santuko parrokian. Ezkontzara emazteak 7.000 peso edo 14.000 ezkutu ekarri zuen, eta Pedrok 180.000 peso edo 360.000 ezkutu. Emelina, Pedro Eustakio, Manuel Lorentzo eta Gabriel Forcade Lafuente, seme-alabak eduki zituzten. Ezkongabe zegoela, Juan Batista izeneko semea eduki zuen Antonia Bolet anderearekin. Seme honi hezkuntza berezia eman zion, merkataritza karrera ere ordaindu ziola.

1833ko uztailearen 5ean Sustapen Juntak prestatu zuen merkatarien zerrendan, Pedro Forcade merkataria atzerritar handi legez agertu zen sailkatutik. Horrela, hiru urte beranduagoko irailean, Forcade y Cia. etxe frantziarrak, Estatu Batuetako Baltimore ontzitegietan eraikiriko Anaconda eta Viper bela-ontzi beltz-dunak hartuko zituen La Habanako portuan. Forcade Arisburuk, Pedro Sarril-ekin zeukan sozietate hau Manuelita kafediaren ugazaba ere bazen; urte gutxira Forcade berak konpainia desegin egin zuen arte.

Banco Español de la Habana sortu zen aldian, zuzendari kontseiluko hiru kide aukeratu behar zirelako, gobernuko agerkariak bost akziotik gora zeukaten akzionisten zerrenda argitaratu zuen 1855eko maiatzaren 18an. Pedro Forcade eta gainerako akzionistak, gobernuko jauregian batzartu ziren, aipaturiko kideak hautatzeko.

Porvenir deituriko 122 kaballeriako (1.641 ha.) azukre-olaren ugazaba zen, Matanzas probintziako Kolon eremuko Palmillas alderdian. Barnean, 300 esklabo zeukan, asiarrak eta libreak aparte. 1859-60 aldian, lurrun-indarrak eta Denos makinaz, 11.661 kutxa eta 475 upel azukre ekoiztu zituen; Agila-ko tren geltokitik Kardenaseko portura, merkantzia 2 miliatan garraiatuz.

Kolonen bi orube zeukan. La Isabelan, Los Quemados eta Marianao bitartean, beste bi. Santiago de Kuban etxe bat. Puentes Grandesen lau. Gainera, La Habana kaleko 155. zka., Neptunoko 8. zka., Consuladoko 105. zka. eta Cerro galtzadako, 817, 819, 821, 831. zenbakiak. Harlanduzkoak eta azoteadunak ziren guztiak. Baita zerbitzuko esklaboak eta altzariak ere bazeuzkan. 9.000 peso eta akats kreditu pasiboak aitortu zituen Cabrada del Cerroko etxe batean aseguratutik. Haren kapitala eta gozamenak 18.000 pesotara iristen ziren.

Jatorrizko lau seme-alaba izendatu zituen, oinordeko bakar eta unibertsalak. Juan Batista Forcade sasikoari, 15.000 peso lagako zion elikagai gisa; baina urtero 5.000, ondoko 3 urtetan ordaintzeko.

Azken hau Parisen bizi izan zen, merkataritza ihardueran. Molokot egin zuenean, zorrak ordaintzeari lagako zion. Pariseko Sena departamentuko Merkataritzako Epaitegiak, 1866ko urriaren 20ko ebazpenaz, Juan Batista Forcaderi, merkantzien komisiogiletzako molokot egoera agerikoa aitortu zion. Epaitegiak, Pedro Forcadek seme honi laga zion 15.000 pesoko oinordekotza erreklamatzeari baimendu zuen.

Testamentua Agustin Valerioen aurrean egin zuen, hil zen egunean.

## Iturriak

K.A.N. Valerioen Eskribautza: 1868, 1. tomo, 543-549 orr. Vergel-en Eskribautza: 265/19 leg. zka.

## 4.24. GALARTZA ZULOAGA, Bizente

Orozkon (Bizkaia) jaio zen 1837ko maiatzaren 22an. La Habanan hilko da, 1908an.

Aita, Bizente Galartza eta ama, Zeanuriko Barbara Zuloaga izan zituen, biak ezkongabeak zirela. Amaren aldetiko aitona, Juan Antonio Zuloaga eta Maria Josefa Ureta ostera. Muruetako San Pedroko parrokiaren bataiatu zuten, aitabixiak Bizente Zuloaga eta Maria Rosa Olivares zirela.

La Habanan ezkondu zen, Guadalupeko parrokiaren, 1870eko abenduaren 29an, Pinar del Rio-ko Teresa Perez de Castañeda Triana anderearekin. Emaztea, Palma de Gran Kanaria-ko Jose Perez de Castañeda Garciaren eta, Guira de Melena-ko Paula Triana Mederos anderearen alaba zen. Julio, Bizente eta Maria Consuelo Galartza Perez de Castañeda seme-alabak eduki zituzten.

Seme Julio, 1871eko azaroaren 30ean jaio zen. Galartzako II. kondea eta Santa Klarako II. bizkondea izan zen, 1909ko oinordetzako erret karten aginduz. Bigarren seme Bizente, Espainiako ministroa izango da Perun. Santa Klarako bizkonde titulua ere jaso zuen, 1891ko uztailaren 22ko erret despatxuz.



La Habanako udala biurterako berriztatzeko, 1871ko azaroaren 5ean batzartu zen. Bizente Galartzak zergadun nagusi modura hartu zuen parte; baina zortzi boto baino ez zuen jaso. Urte honetan, merkatarien gremioko erroldetan agertu zen, tabako adar saileko biltegilari gisa 250 peso ordainduz; baina, merkatarigremiokoa izanik, 500 ordaintzen zuen.

Hiru urte beranduagoko urtarrilaren 1eko ezohizko batzarrean, 1874-77 laurteko zinegotzi izateko aukeratu zuen udalak, Julian Zulueta Amondo alkateorde lehena zela. Ordurako, Bizente Galartza Zuloaga, udaleko nekazaritza, industria eta merkataritzako juntakidea zen. Baita inmigrazioko junta babesleko lehendakariordea ere, 1883ko urtean.

Uztailaren 30eko batzarrean, udalak Banco Españolari zor ziona kitatzeko, kontratu berri baten proiektuaz eztabaidatu zen. Zorra denboraz kitatzeko bankuari proposamen zehatza aurkezteko, Galartza jauna izan zen mandatuia. Ondorioz, bankuko zuzendariak hilaren 22ko dataz, udalari bidali zion ofizioaren edukia aztertu zen. Batzorde administratzaileak lehenengo, eta junta arruntak 20ko batzarrean gero, bankuaren egoera eta zorra berreskuratzeko behar den denbora luzea kontutan harturik, bankuak Galartza zinegotziaren proiektua ez onartzea erabaki zuela, jakinarazi zion udalari.

Abuztuaren 4ko ezohizko hurrengo batzarrean, berriro Banco Españolarekin sinaturiko hiru jesapenetako 2.341.666 pesotako zorra aztertu zen. Hazienda publikotik 732.663 peso biltzea itxaroten zuen udalak, aldeko saldoko kitapenaren ondorioz. Gainera, udaleko aurrekontutako batzordearen mandatuari jarraituz, Galartza zinegotziak zorra kitatzeko urteko zenbateko tinkoaz gestio hutsak egin zituela. Beraz, batzorde bat zuzendaritzara hurbiltzea erabaki zuen, kuota tinkotzat bankuari proposatu zitzaion 200.000 pesoz edo zeozer gehiagoz, ahal bezain arinen erabakitzeko.

Vento-ko ubidearen inguruan ere eztabaida luzeak piztu ziren La Habanako udalean. 1875eko otsailaren 16ko ezohizko batzarrean, ubidearen obretarako behar ziren 5.000.000 pesotako jesapena kontratatzeko, gobernu orokorraren azken urtarileko 18ko ebazpena irakurri zuen idazkariak. Gerora, uren sailerako osaturiko araudia onartu zuen udalbatzak, zein jesapena egiteko oinarria izango baitzen.

Jarraian, Londresen jesapena lortzeko mandatari egokienari buruz azaldu zen batzarra, batzordeak Jose Antonio Fesser proposatzen zuela. Galartza zinegotziak hitza eskatu zuen zera esanez,

Badira jesapena Londresen kontratatzeko erabil daitezkeen gizabanako proposak, han harreman etengabeak dituztenak hain zuzen. Gaur egun, Jose Bidaguren jaunak mota horretako zerbitzua egiteko aukera izan du jadanik, jesapenerako bidea erraztu zaiola dagoeneko. Beraz, bere izena proposatzen dut.

Galartza jaunak proposaturikoaren arabera, Julian Zulueta alkateorde lehena, "*Jose Bidagurenek Londreseko etxe batzuekin merkataritzako harreman*

*etengabeak dituen arren, Fesser jauna ere oso baldintza onetan ikusten dut, negozio mota honetara asko saiatzen den etxe bateko partaidea delako hau*" azaldu zuen. Lehendakaritzak, bototara bideratu zuen eztabaida, jesapena egiteko Fesser edo Bidaguren, Londreseko agente hautatzeko. Mandatua betetzeko Bidaguren jauna izendatu zuten, zortzi boto bosten aurrean.

Urte bereko irailaren 10eko batzar arruntean, kontularitzaren txostena irakurri zen, eskolei materialak ordaintzeko. 1873ko uztailetik harrezkero, plaza harturiko maisu bakoitzari zor zaionaren zerrenda prestatzea proposatu zuen kontularitzak, materialen zorra bertatik kitatzeko. Udalak adostasun osoa eskainiko zion proposamenari. Jarraian, Galartza jaunak, gainerako udalkideen laguntzaz, neurri ekonomiko gisa eta komenientzia orokorrekoa zelako, udal eskolak kentzea eskatu zuen. Haur pobreak kolegio partikularretan pentsionatuz horren orde. Udalak, zinegotziaren proposamena kontutan harturik, zegokion espedientea betearaztea erabakiko zuen.

1879ko abuztuan, bigarren mugimendu iraultzailea sortu zen Kuban, gerora Gerra Txiki az argiago ezagutu zena. Ordurako, Bizente Galartza La Habanako lehen aldundi probintzialeko lehendakari izendatu zuten, instituzio hau sortzeko ahalegin bereziak egin zituelako.

Garai honetan, Unión Constitucional alderdiko lehendakariordea ere bazen, Ramon Blanco jeneralordearen gobernuari egundoko sostenguak eskaini zizkiola aipatu gerran. Alderantziz, kapitain nagusiak lurjabe eta klase ertaineko kubatar batzuei, erreztasunak eskainiko zizkien Alderdi Autonomista antolatzen. Alderdi biok, hauteskunde aldietan izugarriko liskarrak izaten zituzten.

Unión Constitucionaleko, Casa More-ko konde lehendakariak, Las Villaseko bere etxaldeetara egiten zituen ikustaldi ugariak medio, haren orde ezarri behar izaten zuen alderdiburu. 1886.urtean, Vergez, Kalbeton, Apeztegia, Pertierra eta gainerako alderdikide talde batek, Cienfuegoseko hirian erabakirik erreformak aurkeztu zituzten zuzendaritzara. Bizente Galartza *Diario de la Marina* agerkariko, lehendakaria eta akzioduna zenez, bere aldeko zerbitzurako erabili zuen egunkaria. Gainera, *Unidad Constitucional* izeneko prentsa organo berria sortu zuten.

Santa Klarako probintziatik, Unión Constitucional alderdiko taldearen botoak jaso zituen Bizente Galartzak, Madrileko senatura aurkezteko. 1888ko urtarrilaren 18ko biltzarrean, arabera honetako aitopenen egiten zituen.

Nire alderdikideak duitasun osoz ordezkatzeko, ezin naiteke penintsulako ezin alderdikoa izan, eta Kubako uhartean alderdi handi horrek altxatu duen ibilaldi aberzalea, nere ereduaz bultzatuko dut.

Gobernuari, administrazioa herrialde horretatik deszentratzeko eskatzen diot, batez ere obra publikoei dagozkien arloetan, uharteko gobernu orokorrari behar bezalako ahalmenak eskainiz. Aginte gorenak ondo jantziak izatea komeni da. Ilustrazio eta kultura handi baten jabeak izatea [...],

hitz egin zuen Galartzak, otsailaren 18ko senatuko biltzarrean.

Uharte barneko alderdi nagusi bien kontraesanak azaleratu zituen, urteko ekainaren 12ko kamara goreneko bileran:

Gerra amaitzeko Zanjon-eko bakearen ostean, bi alderdi sortu zirela dio senatore autonomista batek, eta euron arteko programa ezberditasunik ez dagoela. Nik, autonomia indar guztiez borrokatu izan dut beti, lehen eta orain. Asimilazioaren programaren barnean, Kubarako askatasun eta aurrerapen guztiak kabi daitezke. Frantziak ere, bere kolonia batzuei eskaini dioen deszentralizazio asimilatzailearen antzera.

Bizente Galartza Parisen zegoela, Casa More-ko kondea hilko zen 1890eko urrian. Orduan, Unión Constitucional alderdia bildu egin zen abenduaren 17an, lehendakari defuntuak utziriko bakantea berari eskaini ziotela. Hilaren 20ko dataz, zirkulare bat bidali zuen Kubara, bere iritzi politikoa azalduz.

Nazio sentimentua piztu zigun asmoa abertzalea da. Baina nekazaritza, merkataritza eta industri beharrianak, ez dira neurtzen ezta konpontzen ere, hain hunkimen sagaratuaz. Nazio merkatuari eskaini behar zaion lehentasuna kontutan harturik, gure industria eta landalurgintzaren salbamena bilatu behar dugu. Zenbait merkataritza harreman gehiago izan behar dugu, gure fruitu pribilegiatuen merkatu naturalekin.

Polavieja-ko markes jeneralordeak, bere eginak goraipatuz 1898ko urtean *Mi política en Cuba* argitaratu zuenean, oso gogor kritikatu zituen haren asmoak. Horri erantzuteko, Bizente Galartzak *En propia defensa* izeneko liburua argitaratu zuen, urte berean.

Errege Alfonso XII.ak, Galartzako konde titulua eskaini zion, aurreko Santa Klarako bizkondetzaz. Meritu militarreko ordenako gurutze handia eduki zuen eta San Juan Jerusalemeko ordenako ohore eta debozio zalduna izan zen. Uharteko administrazio kontseilari izendatu zuten, 1885eko otsailaren 10eko erret aginduz.

### Iturriak eta obra

B.E.H.A. Bataioak: 5. lib. 43. or. Erreferentzi-Kodea: (ES/AHEBBEHA/F006.274(29994/001-00)).

L.H.A.H. Udal Agiriak: 159 lib. 418a-419a orr.; 162 lib. 1a-2, 416a-417, 436a-437 orr.; 163 lib. 74 orr.; 164 lib. 3-3a orr.

K.A.N. Espedientetako Mizelanea: 2297/Ag. Leg. zka.

*En propia defensa, en contestación al general Polavieja.*- Barcelona: Imp. De Henrich y Cia., 1898.

## 4.25. GARTZIA BARRERAS, Manuel

Karrantzan (Bizkaia) jaio zen 1700eko irailaren 9an. La Habanan hilko da 1770eko abuztuaren 10ean.

Aita Karrantzako Frantzisko Gartzia de la Cuadra, eta ama Antonia de Barreras, izan zituen gurasoak. Soscañoko Andra Mariko elizan bataiatu zuten.

La Habanako katedralean ezkondu zen, 1737ko martxoaren 23an, Tomasa Maria Florencia Sotolongo-rekin. Emaztea, Juan Florencia Gonzalez de Alfonseca, oinezkutzako kapitaina, San Salvador Punta-ko gotorlekuko komandantearen eta Josefa Maria Sotolongo Maldonado anderearen alaba zen. Maria Dolores, Maria Pilar, Meltxora, Juana, Josefa Maria, Juan, Tomas, Antonio, Jose, Karlos, Migel eta Manuel Gartzia Florencia seme-alabak eduki zituzten.

Uharteko gobernuaren bitartez, Jagua-ko portuaren aurrean gotorleku bat eraiki eta Kanariar Uhartetatik ekarririko ehun familiekin, inguru hura biztanletzea proposatu zuen Gartzia Barrerasesk. Proiektu honek erregeren berrespena jaso zuen. 1727ko apirilaren 4ko aginduz, familia batzuek euren jaioterria abandonatzeko baimena lortu zuten. Baina, denborale gogor batek bidean harrapatu, espedizio hau desagerrarazi egin zuen itsasoak. Hauxe dugu, gaur egungo Cienfuegos hiriaren sorkuntzako lehen aztarna.

1740ko apirilaren 26ko erret hornidura lortu zuen. Gizonezko lerro zuzenaren bidetik, jatorrizko bizkaitarra, aita, aitona eta gainerako arbasoen zaldunsema zela aitortuz. Karrantza haraneko Gartzia de Barreras jaurgoko eta leinu-etxeetako oinordekoa. Urteko ekainaren 23an, zaldunsemegoko erret despatxu lagungarria lortu zuen. Nobleziako informazio hau, La Habanako udalak hurrengo urteko apirilaren 14an jaso zuen, eta horren lekukotza entregatu zion Manuel Gartzinari.

Gartzia Barreras, La Habanako Tabako Intendentziako ofizial nagusia izan zen tabako-belar hornitzaileen aurrean, eta Martin Loinatzen agindupean; hiri bereko merkataritzako konpainiak hurrengo, estankoa ordeztu zuen arte. Tabako hornidura oztopatu ziolako, 1749. urtetik harrezkero beti izan zituen arazoak konpainiarekin.

Antonio Baiona data horretan hiltzean, tabako interbentore ministro kargua hartu zuen haren ordeztu, baina berehala kendu zuten arduratik, konpainiak etsaitzat hartu zuelako. Baina, sei urte beranduago, Valparaiso-ko kondeak osterarri jarri zuen karguan. Hortaz baliaturik, uzta-biltzaileei tabako kantitate handiak atzera botako zizkien, konpainiaren sail horretako porrota behartuz. Tabako faktoria berrezartzeko helburua halaxe lortu zuen.

1753ko abenduaren 8ko salaketa izenbakoaren arabera, Verakruz, Portobello (Panama) eta Kanariar Uhartetatik itzultzen ziren enbarkazioek, kontrabandoan sartzeko arropa eta gainerako genero asko ekartzen zuten. Koloniako funtzionario ugari zegoen tratu horietan nahasturik. Baina gai horien biltegiak euren etxetan eta konfiantzazkoenetan zeuzkatenak bakarrik aipatzen ziren salaketan. Jose Cipriano de la Luz, Manuel Gartzia Barreras, Juan Jose Justitz -konpainiako arropetako behein-behineko administratzailea-, Jose de la Guardia eta Domingo Lizundia -Diego Marrero, konpainiako eta Tabako Faktoriako behein-behineko administratzailearen konfiantzazkoak azken bi hauek-.

Kontutako Epaitegi Goreneko ohore ministroa izanik, La Habanako Merkataritzako Konpainiako kontulari gisa aritu zen tabakoaren alorrean. Juan Prado Portocarrero zelai mariskal eta gobernariak, Matanzaseko ibar-baserritarren batzarra deitu zuen. 1761eko otsailaren 28an bildu ziren Prado gobernaria, Manuel Gartzia, Mekolaeta eta Loinatz, ibarrarien ordezkariekin, faktoriak hartu eta ordaindu behar zituen tabako zenbatekoak, motak eta prezioak zehazteko.

Aurrerantzean, fiskora bideratzen ez zen tabakorik, ezin zuen inork bere kasa erein. Agindua erabat betetzeko, Gartzia Barreras kontularia jarri zuten, uharteko lurralde guztirako xehetasunak osatzen. Erabakiaren lekukotza Squilace markes eta Haziendako ministroari bidali zion, baina honek ez zion onartuko.

Trinidad, Sancti-Spiritus, Puerto Principe eta San Juan de los Remedios-eko ibarretan zeuden oin erdi gorako uzta guztiak kontratatu eta ziurtatu zituzten. Hurrengo urtetik harrezkero, ekoizpen aberats hori, faktoretan bildu, eta merkatu partikularretik baztertu egin zen. Faktoria bere ardurapean gelditu zen, harik eta Nikolas Jose Rapun ordezko ezarri zuten arte.

San Antonio de los Arroyos azukrea fabrikatzeko olaren ugazaba zen. 1759-60 biurteko aldian, azukre zuriko eta urratuko 3.861 arroatako ekoizpena lortu zuen.

Ingelesak La Habana 1762an hartu zutenean, Pedro Alonso brigadierrarekin, Manuel Gartzia, Agustin Cardenas, Juan Tomas Jauregi, Domingo Beitia, Jose Bertizberrea, Laureano Chacon eta beste biztanle leial batzuekin, gau hautatu batean goardiei eta euren logeletan zeuden tropa ingelesei lepoa moztea hitzartu zuten. Aurrerago baina, 24.000 peso ordaindu zuen ingelesetatik askatzeko.

Manajai bere aziendan hiri bat fundatzeko eskabidea aurkeztu zuen, La Habanako udalak 1768ko urtarilaren 22an eginiko bilerara. Aho batez, eta berariaz izendaturiko Jose Cipriano de la Luz eta Domingo Barrera komisarioek, behar bezalako instrukzioak egin zitatzela erabaki zuen gorporarioak. Ondorioz, uztailaren 15eko batzarrean, aipatu komisarioek euren txostena azaldu zuten, baina hiru egun beranduagorako ezohizko bilera eskatuz; San Luis gerra-ontzia, laster penintsulara bidean itsasoratzeke zelako.

Etzidamu udalak buruturiko ezohizko bileran, Manuel Gartzia Barrerasesk Manajaiko azienda bere emazte Tomasa Maria Florenciaren oinordekotzatik jaso zuela aitortuko du, baita hamaika seme-alabei berrizultzeko ardura ere. Txosten-gileek, lurrak mendi zarratua zirelako eta inguruan zerritoki bat baino ez zegoelako, populaketa egoki bat egin zitekeen ala ez, ezin zela ziurtatu adierazi zuten. Urak ez zirela ibai edota ezain iturriri zerienak, aintzirei baizik; beraz, lurrok eman-korak ezeze, urtsuak izaki.

Hargatik, Jose Cipriano de la Luz komisarioak, azienda honetan 600 beltz sartzea ongarria litzatekeela uhartearen sustapenerako azaldu zuen; Gartzia populatzaileak proiektuan aurkezten zituen asmoak betetzekotan, meritu horren hartzekodun bilakatzen zelarik. Udalak, aurreko ebazpenak kontutan harturik, komisarioek Haren Maiestateri jakinaraz ziezaioleta erabaki zuen.

Bere heriotzako izena, La Habanako Izpiritu Santo parrokian dago emanik.

Seme Manuel Gartzia Barreras, Tabako Faktoriako administratzailea izan zen 1783ko urtean. Orduan ere, Luis Untzaga gobernari eta kapitain nagusiak, oraindik errenta horretako babeslea izanik, funtzionario askoren gehiegikerien kontrako salaketa jaso zuen. Ondorioz, Gartzia Barreras administratzailea eta bere agindupeko errudunak preso hartu zituen. Urte bereko urriaren 9an, Haziendako ministroari hain balio handiko tabako adarraren gainbehera iragarri zion gobernariak, funtzionario haien lorrinkeria eta baldarkeria zela medio.

Bere iloba Frantzisko Gartzia Barreras habanarrari, Bainoako konde titulua eskaini zitzaion 1820an. Gainera, erresumako senadorea, Haren Maiestateren ganbarako gizonjentila, Isabel Katolika ordenako gurutze handia eta Karlos III.eko zalduna. Tituluaren izeneko herriaren fundatzailea izan zen.

### Iturriak

B.E.H.A. Bataioak: Erreferentzi-Kodea (ES/AHEB-BEHA/F006.143(1732/002-01).

K.A.N. Liburutako Mizelanea: 2646 zka.

L.H.A.H. Udal Agiriak: 26 lib. 278-281 orr.; 36 lib. 197, 246-248a orr.

## 4.26. GOIKOETXEA BALERDI, Jose Paskoal

Azkaraten (Nafarroa) jaio zen, 1815eko urriaren 23an.

XVIII. mendearen erdian, Araitz udalerriko Arribe udaleko, Azkarate herrian zegoen kokaturik familia hau, Iruñeko barrutian. La Habanara XIX. erdialdean pasatu zen. Ziordiako Armategi Kaboko leinu-etxekoa zen. Lizarrako epaile barrutiko Uitz, Larraun, eta Deierri udaleko Ugarren ere, etxe bana zeukan.

Aitaren aldetiko aitona, Juan Jose Goikoetxea Goikoetxea izan zuen, Azkarateko San Esteban parrokiaren bataiatu zutena, 1759ko martxoaren 14an. Muñotxo izeneko leinu-etxeko ugazaba zen. Amona berriz, Maria Katalina Goikoetxea Otermin zuen. Amarenekoak, Manuel Balerdi Irurtzun eta Maria Goikoetxea Uztegi Betelu. Gurasoak, Azkarateko Juan Goikoetxea Goikoetxea, eta Maria Ana Balerdi Goikoetxea izan zituen.

La Habanako katedralean ezkondu zen, 1856ko otsailaren 4an, Paula Peiret Rodriguez anderearekin. Emaztea, Hernaniko Jose Agustin Peiret Arrospideren eta Frantziska Clemencia Rodriguez Oñaderriren alaba zen. Leopoldo, Juan, Agustin, Paskoal eta Fermin Goikoetxea Peiret semeak eduki zituzten.

Azukrea fabrikatzeko Providencia olaren ugazaba izan zen. La Habana probintziako Guineseko barrutian zegoen kokaturik. 94 kaballeria (1.264 ha.) lur zeukan eta 262 beltz esklabo; dotazioa, fabrikak, makindegia, hesiak eta gainerrako tresneriaren balioa 485.986 pesotara iristen zitzaionalarik. 1879ko urtera, 2

miliako trenbide tinko, 2 eramangarriko eta 80 bagoi erosi zituen azukre-olarako. Aurreko biurteko ekoizkin gordina 128.012 pesotakoa izan zuen; baina, mailegu gastuak kitatu ondoren erdira jaitsi zitzaion hura.

Urrezko 80.000 pesotako kapitala zeukan, Kaibarrien-eko Zozaya, Otermin y Cia. komanditan inbertiturik, eta 29 beltz alogeran utzirik konpainiako San Jose azukre-olari. Baita Sociedad de Fomento del Puente de Parages-en ere urrezko gainerako 20.000 peso sarturik. Santa Ritaazienda eta 142 kaballeriako (1.910 ha.) moxaltokiaren ugazaba zen. Azken honetan, 1.240 abelburu, 50 ahari eta 500 zerri zeuzkala.

Oinibarretan, Oficios kaleko, 112 eta 114, Merced kaleko 1 eta 3 etxeak zeuzkan, guztien balioa 9.500 pesotara iristen zela. Dirutan, 36.140,25 peso eta 114.096 akzio zein kreditutan.

Prado kaleko, 84. zenbakiko bere etxean gaixorik zegoela, Manuel Otermin, lehena, eta Martin Zozaya bigarrena, ondasunen albazea izendatu zituen, Migel Muñoz eskribauaren aurrean, 1878ko otsailaren 19an.

## **Iturriak**

I.G.A. Bataioak: 2. lib. 81a or.

K.A. N. Jose Agustin Rodriguezen Eskribautza: 160/2 leg. zka.

## **4.27. GOIKOURIA CASAL, Balentin**

Abandoko Albian (Bilbo) jaio zen 1779ko otsailaren 13an.

San Bizente Martiri parrokian bataiatuko zuten, aitabitxiak Frantzisko Eskauritza eta Jazinta Casal zirela.

Aitonak, Juan Goikouria Ugalde eta Josefa Basañez Gorostiaga eduki zituen, aitaren aldetik. Pedro Casal Aldekoa eta Antonia Landa Larrabide, amarenetik.

Aita Jose Goikouria Basañez, Deustuko eta Abandoko udaletara sarri aurkeztu zen bokal gisa, eta 1773an Zorrotzako auzuneko ohoreko kabo kargua hartu zuen. Deustuko Santiago Apostoluaren parrokian ezkondu zen, 1757ko abuztuaren 29an, Maria Casal Landa andereakin. Emaztea, Pedro Casal Aldekoa, aipatu elizateko Rosarioko Gure Anderea eta San Nikolaseko fabriketako maiordomoaren eta, Zeberio (Bizkaia) Olabarrieta elizateko Antonia Landa Larrabide anderearen alaba zen.

Balentin Goikouriak, 1830eko uztailaren 5ean, Valladoliden emaniko nobleziako eta bizkaitartasuneko erret karta betearazlea lortu zuen. Andres Gartzia Ureña Bizkaiko epaile nagusiak eta erret kantzileria hartako saldusemeren areto-koak sinatu zion karta. Zaldunsemegoko armatako ziurtagiria ere eskuratu zuen,

urteko abenduaren 6an, Antonio Rujula Busel Haren Maiestateren armatako errege eta kronikagileak despatxatuz.

La Habanako Santo Kristo elizan ezkondu zen, Maria del Transito Cabrera Martinez andereakin, 1808. urteko uztailaren 27an. Emaztea, Arucas-eko (Kanaria Handia) Domingo Cabreraren eta Kubako San Felipe y Santiago del Bejucal-eko Maria del Carmen Martinezen alaba zen. Domingo, Maria Josefa, Maria Karmen, Modesta, Leon, Loreto, Gonzalo eta Felipe Goikouria Cabrera seme-alabak eduki zituzten.

Balentin Goikouriak, larrudendaren eta diruaren balioko 15.000 peso ekarri zuen ezkontzara. Nahiz emazte Maria del Transitok ezkontsaririk ez ekarri orduan, aita Domingo Cabrera 1816. urtean hil zitzaioneko, 11.974 peso eta ama Maria del Karmen Martinez 1843.enean hil orduko, 22.286 peso ekarri zituen.

Berrogeita bost urte jarraituetan ihardungo zuen Goikouriak merkataritza alo-rraan, La Habanako hirian. Batzutan, merkataria handi legez agertuko da 1833ko erroldetan zerrendaturik, Frantzisko Goiri, Pedro Forcade, Lorentzo Larrazabal zein Tiburtzio Zulueta eta honen loba Julian Zuluetaekin batera. Beste askotan, seme Domingorekin burdindegí sailean Valentin de Goicuria e hijo izenburupean. Merkataritza lerroko negoziaketa andana zela medio, hainbat hartzekodun laga zuen beraz Balentinek, penintsulan hil zen garaian.

Horkon barrutiko Buenos Aires kaleko, 3. zenbakian, etxe bat; Maria del Transitok amarengandik oinordekoturiko Muralla-ko, 49.enean, bestea; eta Ville-gas-eko, 55.enean hirugarren etxearen ugazabak izan ziren. Baita Guira de Melena herriko beste laugarren etxe baten erdiarena ere. Erret Haziendara, urte-ro 35 peso ordaintzen zuen, Fernando VII.a ubidetik harturiko hiru iturriren zen-tsoaren ordainketa egiteko.

Seme Domingo Goikouria, jenerala izan zen. Armadako eta Erret Haziendako intendente ohoreak eskainiko zitzaizkion. Nartziso Lopez jeneral ohiaren espedi-zio-anexiogilearen bultzatzaileetarikoa izan zen. 1870eko otsailaren 10ean, Eloi Camacho eta 36 lagun gehiagorekin uhartean lehorreratu zen. Preso hartu ondo-ren, Principe-ko gazteluaren oinean fusilatu zuten, urte horretako maiatzaren 7an.

## Iturriak

B.E.H.A.. Bataioak: 9. lib. 192a or. Erreferentzi-Kodea: ES/AHEB-BEHA/F006.067-(0997/001-00).

K.A.N. Barreto-ren Eskribautza: 233/14 leg. zka.



#### 4.28. GOIRI BEASKOETXEA, Frantzisko

Igorren (Bizkaia) jaiotzen zen 1791eko urriaren 5ean.

Aita, Zamudioko (Bizkaia) Juan Goiri izan zuen, eta Igorreko Teresa Beaskoetxea ama. Orduan, Pancorvoko (Burgos) herrian bizi ziren senar-emazteok, adunako bidesariko kobratzaile gisa.

Aitaren aldetiko aitonak, Juan Goiri eta Antonia Urrejola zamudiotarrak izan zituen. Amarenekoak, ostera, Domingo Beaskoetxea eta Manuela Itza Jauregibarría igorretarrak. Andre Mari Jasokundeko parrokiaren bataiatu zuten, aitona Domingo eta Maria Itzaetxebarria aitabitxiak zirela.

La Habanako Santo Kristo parrokiaren ezkonduko da, 1837ko urtarrilaren 7an, Ines Maria Dolores Adot Biedma anderearekin. Emaztea La Habanako zen, Otsagabiako (Nafarroa) Juan Bizente Adot Martinen, eta Baeza-ko (Andaluzia) Ines Maria Biedma Mendez anderearen alaba. Ines eta Frantzisko Goiri Adot seme-alaba bi eduki zituzten.

Sustapen Juntak, 1833ko maiatzaren 31an argitaratu zuen, La Habana probintziako merkatari handien zerrendan agertuko da sarturik Frantzisko Goiri. Bere iharduera nagusia mailegu-emailetza arloa saiatu zuen, gehien bat. Adibidez, Barretoko kondeari eta honen bazkide Fernando Cardenasi, Luisa azukre-olaren uzta-bilketa egiteko, 1840ko urriaren 20ko mailegua dago lekuko.

Goiri mailegaria hamabi hileroko 36 urrezko ontza bakoitzari ordaintzea konprometitu zen, azukre-olako elikadura eta gainerako premietarako. Alderantziz, hurrengo uzta-denborako azukre guztiak kontsignatu zituen Goirik bere biltegian; salmentako %5eko komisioa eta 47.472 pesotako maileguaren %6ko interesa jaso zituela. Abelburuak hazteko Boquerones azidaren ugazaba izan zen. La Habanaz 50tik 60 legoa haizaldera zegoen kokaturik, San Pedro de Mayabo deituriko lekuan.

1839. urtean baina saldu egin zuen hura, guztia kobratzeko 21.273 pesotako zenbatekoa faltatzen zitzaioela oraindik. Ingenito izeneko zerritokia ere bazekukan, harresiz landako Luyano auzoan, zeini 1859ko urriaren 7an dotazioko sukaldea erreko baitzitzaion ustekabearen, Jose Maria Garcia maiordomoak aitortu zuenez

1853ko urtarrilaren 1ean La Habanako udalak egin zuen batzarrean, sindiko bigarrena aukeratu zuten, aldeko zazpi botoz. Martxoaren 4ko batzarrean, Larrinaga jaunaren mozioa irakurri zen, zaldun sindiko prokuradoreek, merkatari berriek aurkezturiko memorialeki oniritzia emategatik kobratzen zuten ohituraren kontra azalduz.

Udalak atzera botako zuen Larrinagaren mozioa, eskubide hauek kobratzeko prokuradoreek zuten ohituraren alde agertuz. Hargatik, martxoaren 11ko batzarrean, Frantzisko Goiri sindiko bigarrenak, udalak euron alde erabaki izanagatik

ere, bere sindikaturari zegozkion matrikula eskubideak kobratzeko zuen ahalmenari uko egin zion.

1859ko uztailaren 27ko erret dekretuaren arabera seigarren titulua arautzen zuen zinegotzi-hauteskundeetan hartuko zuen parte. Kontribuziodun hautesle nagusien taldekide bildu zen, La Habanako udaletxean hurrengo urteko urtarriaren 1ean. Ez zuen botorik jaso.

Banco Español de La Habanako fundatzailea, lehen zuzendaria eta presidentea izan zen Goiri Beaskoetxea. Lehenengoz, Deskontutako Erret Kutxa sortu zuen 1854ko maiatzaren 15ean, baina urte bi beranduagoko urtarriaren 7an beste denominazio hura hartu zuen kutzak, Banco Español de la Isla de Cubaz itxuraldatuko zen arte. Baita Banco de San Fernandok La Habanan zeukan komisiadun nagusienetakoa ere izan zen.

*Gaceta de La Habana* gobernuko agerkariak, Banco Españoleko bost akzio baino gehiagoko akziodun guztien nomina argitaratu zuen 1855eko maiatzaren 8an, bankuaren konstituzio batzarrera dei egiteko. Administrazio kontseiluko hiru kide hautatzeko bilera, gobernuko jauregian egin zuten. Hantxe zegoen Frantzisko Goiri Beaskoetxea. 6.000 akzioak saldu ziren azaroaren 5erako, eta Concha gobernariak harpidetza epea ixtea erabaki zuen. Bankuko lehen aldiko presidentea izan zen Goiri, bere politika kontserbatzaileaz instituzioa sendotzea lortu zuen larrik.

1856ko uztailaren 6ko erret aginduak, kapital soziala hirutik seirako hilabeteetako operazioetan erabiltzeko baimena eman zion bankuari. Erretserba metalikoa mugatzeaz batera, 90 eguneko efeko edo baloreak, biletetz, kontu arruntez eta deposituez bermaturik geratzea zehaztuko zuen aginduak. Bankuaren kreditu politika kontserbatzailea izan arren, erretserba arloan oso zeregin garrantzitsua jokatu zuen, batez ere hurrengo urteko krisia emango zenean.

Krisia Estatu Batuetan sortuko zen lehenengo urte horretan, baina Kuban ere laster izango zuen eragina. Bankuak, kreditua zabalitzean, gainerako bankuen baldintzetan ezartzeko okerra egingo zuen, baita deskontua jaistean ere. Honek, erretserben gutxitze arriskugarria behartuko zuelako.

Abuztuaren 4an, ugazaba eta merkatarien junta deitu zituen, krisi arazoaren irtenbidea aztertzeko. Juntakideek euren ondasunen hipoteken bidez erantzun zuten, bankuaren konpromezuei aurre egiteko. Bankuak, 6.000.000 peso jarriko zuen bonutan, La Habanako hiriarri laguntzeko eta ordainketa-esekipena itzultzeko. Bere sorkuntza aldian, kapitala 3.000.000 peso goratzea lortu zuen.

Frantzisko Goiri zuzendariak, 1859an idatzi zuen memorian, bankuak kontabilitatean 1.069.802.177 pesoko mugimendu orokorra izan zuela azalduko du. Kutzak 164.260.480 peso ordaindu zuela, eta beste harenbeste kobratuko. Lehen seihilabetean, kapital efektiboari buruzko %8 banandu zuen akziodunen artean, eta %15 bigarreanean.

1862ko martxoaren 21eko bankuko junta orokorreko nominan, Frantzisko Goiri Beaskoetxea, 130 akzioko akziodunik nagusia zen. Zuzendaritza kontseiluko zuzendaria eta presidentea aldi berean. Banco Español de La Habana bulegoak eta dependenziak, Agjar kaleko, 41. eraikinean zeuden.

1852ko uztailaren 28rako, Karlos III.a ordenako erret enkomendatzailea, eta Isabel Katolika ordena amerikarreko gurutze handia izan zen.

### **Iturriak eta obra**

B.E.H.A. Bataioak: 6. lib. 22a or. Erreferentzi-Kodea: ES/AHEB-BEHA/F006.216-(3365/001-01).

K.A.N. Espedientetako Mizelanea: 2388/Aw leg. zka. Gubernuko Eskribautza: 236/5 leg. zka. Ponton-en Eskribautza: 336/11 leg. zka.

L.H.A.H. Udal Agiriak: 140 lib.4, 657-67a,72 orr.

*Memoria del Banco Español de la Habana el día 17 de Febrero de 1860.*- Habana: Imp. y Lib. de B.May y C., 1860.

## **4.29. GOITISOLO LEZARTZABURU, Agustin**

Lekeitio (Bizkaia) 1811ko uztailaren 17an jaio zen. Bartzelonan hilko da.

Familiako leinu-etxea Arteagan (Bizkaia) dago kokaturik. Abizenak Bilbon probatu zuen noblezia 1794an. Juan Goitisoletan izan zen Lekeitiora aldatu zena, XVIII. mendeko azken aldera. Hiribilduko Arranegi auzuneko Zaldundegi etxean bizi zen, Katalina Iturraspe emaztearekin.

Amaren aldetiko aitonak Sebastian Lezartzaburu eta Maria Batista Garamendi izan zituen. Aitaren aldetikoak, ostera, Ibarrangeluko (Bizkaia) Martin Goitisoletan eta Maria San Juan Rementerian; 1782ko azaroaren 25ean ezkondu ziren. Aita Agustin Goitisoletan, Eako (Bizkaia) semea zen eta ama Magdalena Lezartzaburu lekeitiarra.

XIX. mendearen hasieran pasatu zen Cienfuegosera. Hemen, Estalisna Digat Irramendi anderearekin ezkondu zen. Emaztea, Trinidadeko hirian jaio zen 1822ko urtean, zein Antonio eta Paula bizkaitarren alaba baitzen. Agustin Fabian, Antonio, Fermina eta Maria Goitisoletan Digat seme-alabak eduki zituzten.

Cienfuegos eremuan, Lekeitio azukre-ola fundatu zuen, usurbildar eta koinatu Anton Artzerekin sozietatean, 1846-55 aldian. Azukre-ola hau, San Buenaventura eta San Amador erret-lurra eta Turkino zein Kartagena zerritokietako, San Felipe aziandan zegoen kokaturik. 130 kaballeriako (1.748,5 ha.) luze-zabalera zeukan. Lurrunezko indar motriz eta tren jamaikarra erabiltzen zituen fabrikak. Ekoizpena garraiatzeko atrakalekua Damuji ibaian zeukan, Cienfuegoseko portutik 9 milara. 1859-60 biurtean, 1.700 upel azukre enbarkatu zuen. Azken garai honetatik aurrera, Agustinen izenean agertuko da fabrika.

Artzerekin erdizana ere, La Simpatía deituriko azukre-olaren jabea izango da, eremu bereko Santa Isabel de las Lajas-eko aldean. Damuji ibaiaren ertzeko Santa Luzia aziendako lur muinotsuan zegoen kokaturik. 40 kaballeriako (528 ha.) luze-zabala zeukan. Anastasio Kruz Gallardo koronelordea eta Karlos Tolva bigradierra izan ziren euron aurreko azken ugazabak. Koinatu Artze Lekeitiora joango da bizitzera, eta Kanpillo izeneko jauregia eraikiko du, Uriarte jauregiko aldamenean.

Azukre-olaren lehen uztaketa 1802ko dataz zeukanez, arrazoi horretan oinarrituko da Goitisoloko elizak kobratzen zion hamarreneko kontribuzioa, hamabost urtez exentu egotea eskatzeko. 1859-60ko biurtean, 1.400 upel azukre enbarkatu zuen, portutik mila batera zegoen ibaiako atrakalekuan. Apezteguia, Arrechea y C<sup>a</sup>., enpresaren Constancia azukre-olaren mugakideko izan zen.

Eremu bereko, Cruces eta Ciego Montero aziendetan, San Agustin azukre-olaren ugazaba ere bazen. Guztira, 120 kaballeriako (161,4 ha.) luze-zabala zeukan. Ekoizpena arintzeko, barneko tren sistemaz baliatzen zen; 2 miliako trenbide tinko, 1 ½ erabilgarri eta 84 bagoi erabiliz. 1877-78 biurteko presu-postutako azukre-lur errolden arabera, 20 kaballeriako (27 ha.) landaketan, 45.000 pesoko bosturteko ekoizpen gordina izan zuen; baina maileguak ordaindu ostean, 15.750eko soberakina geratu zitzaion. 113 esklaboko dotazioa esplotatu zuen.

Nartziso Lopez jeneral ohi anexiogilea, Kardenaseko eremuan bere gizonekin desenbarkatu zenean 1850. urtean, Federiko Roncali garaiko kapitain nagusiak gerrako estatua aitortu zuen. Horregatik, Cienfuegosen Hiriko Boluntarioak deituriko batailoia antolatu zen. Komandantea Lino Montalvo izango zen, eta Agustin Goitisoloko zein Frantzisko Sola arrasatearra, kapitainak. Desenbarkuak frakasatu egin zuen, baina hurrengo urteko abuztuan, Lopez jeneral ohiak bigarren ahalegina egitera saiatu zen.

Orduan, Jose Gutierrez de la Concha kapitain nagusi berriak, berdin gerrako estatua aitortu zuen. Oraingotan, Cienfugoseko Biztanle Ohoregarriak batailoia sortu zuen, aurreko mandu berberen agindupean. 1855. urtean ere, Frantzisko Cevallos gobernariak boluntarioen batailoia berri bat sortzeko batzordea izendatu zuen. Lehen konpainiako kapitaina Agustin Goitisoloko izan zen.

1853ko urtarrilaren 1ean, udaleko zinegotzi karguen jabetza hartu zuten. Alkate lehena Domingo Sarria, eta bigarrena Agustin Goitisoloko izan ziren. Jose de la Pezuela gobernariordearen agindupean udal gorporazioa bildu zen (1860.10.20). Beste gai batzuen artean, Espetxeko Junta Inspektoreko bokal izendatu zuten, Tomas Terry ondasundunarekin batera.

Hiru urte beranduagoko abuztuan, arestiko zinegotzien zerrenda bikoitza bidali zitzaion Frantzisko Lertsundi kapitain nagusiari, egokienak irizten zitzaizkionak izendatzeko; hamabiren artean, Agustin Goitisoloko hor zegoea. Hurrengo urtean ere, Frantzisko Sola alkatea zela, berriro izendatu zuten zinegotzi urtarrilaren 1eko batzarrean, Sotero Eskartza portugaletearrarekin.

Nekazaritza, Industria eta Merkataritzako barrutiko juntak sortu behar zirelako, urteko martxoaren 11ko udal batzarrean gobernu nagusi zibilaren ofizioa irakurri zen. Agustin Goitisolok hiribilduko bokal izendatu zuten, Tomas Terryekin batera. Bi urte geroagoko urtarilaren lehenean, udal gorporeko berria aukeratu behar zenez, berak jaso zuen berriro zinegotzi kargua, Solak eta Eskartzak laga egin zutenean. Hilaren 5ean, Portuko Sanitateko bigarren batzordeburu izendatu zuten. Azkenik, 1870-71 biurteko alkatetzako kargu bakantea bete zuten.

1865eko irailaren 20an, hiribilduko musika elkarteko areto nagusian, trenbide berriaren proiektua aurrera eramateko, soziedade izengabeko lehen junta batzartu zen. Palmira-ko bidegurutzean Cienfuegosetik Villa Klarara daroan trenbidearekin elkartzea, gero Ciego Montero-z gaindik Kartagenako eremura iristeko linea eraikitzea proposatu zuten Agustin Goitisolok, Tomas Terry eta Julio Le Blanc ondasundunek. Domingo de Leon gobernariordea batzarburu zela, Terry soziedadeko zuzendari izendatu zuten; Goitisolok eta Le Blancek bokal ardura bereganatu zuten.

Gainera, Goitisolok Rodas-Turkino trenbideko, Montalvo y Cia. enpresako 12.000 pesoren jabea zen. Gero, Kartagenara iristen zen 7.525 oin ingeleseko trenbidearena; Kantarrana-rako 16 librarako 3.500 oinekoarena; Kantiles-erako 16 librarako 1.000 oinekoarena; eta, Turkintotik Lekeitio azukre-olara bideko, 30 librarako 12.672 oineko trenbide guzti hauen ugazaba izan zen ere.

Frantzisko Lertsundi kapitain nagusia, 1863. urtean Cienfuegoseko hiria bisitatzeraz zetozen, udal batzarra martxoaren 16an bildu zen. Agustin Goitisorik eta Frantzisko Solari laguntza eskatzea erabaki zuten, gobernariarekin batera zetozen funtzionarioei euren etxetan ostatu emateko.

Jose de la Concha jeneralak, uharteko gobernu kargua hartu zuenean 1874an, Manuel Portillo, Las Villas-eko komandante orokorraren kritikak jaso zituen. Gobernariak oso gogor erantzun zionez, azken honek karguko dimisioa eskatu zuen. Eremu horretako boluntarioek, eta bereziki kasino sozialek protesta handiak egin zituzten kaleetan zehar. Concha jeneralak, urriko hilean hainbat bisita burutu zuen protestagileen lekuetara. Guías del Gran Capitán konpainiarekin Cienfuegosera iritsi zenean, Goitisoloren etxean hartu zuen ostatu agintari honek ere.

1868ko urriaren 10ean, Hamar Urteko Gerra deklaratu zen. Hurrengo urteko otsailaren 16ko, Domingo Dulce jeneralaren dekretuak argitaratu ziren hiribilduan. Inprenta askatasuna eta aurre zentsura ezarri zituen agintari militarrek, baita ezkonfiantza delituak epaitzeko gerra kontseiluak ere. Egun berean, Kandelaria azukre-olaren ondoko Santa Kruz zubia erre zuten matxinatuek. Hilaren 19rako, Ezequiel Salinas gobernariordeak bilera bat deitu zuen, hiritar, merkatarik eta ugazabekin. Arazo politikoez erabakitzeko Junta Aholkularia hautatu zuten. Agustin Goitisolok, Julio Le Blanc eta 4 biztanlek jaso zituzten botorik gehienak.

Goitisolok Lezartaburuk, hego kostako baporen soziedadeko akzioak saldu zituzten, hiribilduko Sociedad de Campos y Cia. enpresari, 1883ko urtean. Kon-

tratu pribatuaren arabera, Cienfuegos (%26), Manzanillo (%28) eta San Kintin (28%) enbarkaziotako akzio horiek, 3.000 pesotan erosten zizkion Campos y Cia.-k. Lehen enbarkazioa erabilgai zegoen ordurako; bigarrena, hiribilduko badian hondoraturik eta hirugarrena, La Habanako portuan aspaldi suntsiturik.

Bartzelonako Jose Maria Vives Mendoza notarioaren aurrean, lehendabizi, seme Agustin Fabiani ondasunen ahalordetza orokorra eskaini zion, 1881eko azaroaren 4an. Bigarrenagoz, hiru urte beranduagoko uztailaren 11n, testamentu itxia egin zuen, hiri bereko notario beraren aurrean. Juan eta Jose Agustin Goytisoloko anai-idazleak bere ondokoak dira.

## Iturriak

B.E.A.H. Bataioak. Erreferentzi-Kodea: ES/AHEB-BEHA/F006.228(2510/002-00).

C.A.H.P. Udaleko Agiriak: 6. tomo, 99a or.; 7. tomo, 54-54a orr. Rafael Villafuerte Protokoloa: 1883, 12. tomo, 148-151a orr. Verdaguer Protokoloa: 1887, 152. tomo, 860-878a orr.

### 4.30. GOMEZ MARAÑON GONZALEZ, Manuel

Karrantza Haraneko (Bizkaia) Ahedon jaio zen zehaztu gabeko egun batez.

Bere arreba Manuela Petronilaren (1806-05-31), bataio agiriaren (ES/AHEB-BEHA/F006.142(1727/002-01) bitartez dakigu, aita Antonio Gomez Marañon Bringas izan zuela, eta ama Maria Gonzalez Portillo. Madrilen hil zen, 1864ko urtarrilaren 6an.

Kordobako apaizgaitegi kontziliarrean sartu zen 1818an. Zortzi urte beranduago apaiz egin zen. Filosofia eta teologiako maila akademikoak lortu ondoren, zientzia horretako katedra lehenengo, eta matematiketako izan zituen hurrengo. 1831an Kordobako ataleko kanonigo egin zen.

Aita Gomez Marañon, 1846ko maiatzaren 25ean iritsi zen Kubara, katedral santuko artzediano gisa. Bederatzi urtera, deaneko ohorera goratu zuten.

Bere ospe gorena La Habanako unibertsitateko errektore karguan irabazi zuen. 1848ko otsailean izendatu zuten. Klaustroetako zoladuren, aula nagusiko sabaiaren, katedretako altzaritzaren, lorategiaren eta bulegoen hobekuntza sustatu zituen. Bibliotekako fondoa erabat ugaldtu; fisika eta kimikako gabinetek tokiz aldatu, euron prespostuak sendotzeko.

Historia Naturaleko museoa bultzatu zuen. Matematiketako bildumak prestatu eta medikuntzako zientziak erakusteko gabinetek sortuko ditu. Apezpikutegiko sinodo aztertzailea urte luzeetan; baita San Karlos eta San Ambrosioko apaizgaitegiko teologiako katedraduna ere izan zen. Filosofiako, letretako eta zientziatiko katedra bakanteak betetzeko deitzen ziren oposizioetara aurkezteko,

fakultate bakoitzeko lizentziaduna izateko baldintza bakarra ezarri zuen, gazteria jakintza arloetan bultzatzeko.

San Lazaro eta San Juan de Dios ospitaleak zuzendu zituen 1854tik harrezkero. Bi urte beranduago, San Felipe eta Santiago ospitaleko sindiko izendatu zuten, soldata hantxe lagatzen zuela. Guztiotako araudia berriztatu zein osasuna eta garbitasuna hobetu zituen.

Bere zuzendaritzapean eraiki zen San Lazaroko ospitale berria. Jose Gutierrez de la Concha kapitain nagusiarengana aurkeztu zen, erret obretako maisu nagusiak ospitale zahar, baldar eta higuingarriaren ordezkotako, eraikin berriaren plana egiteko. Eskariak bere eragina izan zuen. Maisu nagusiak laster burutu zuen, Gomez Marañon apezpikuak agindu ziona. Obra handi hau, ospitaleko ekonomiatik, zortzi urteko bere soldatetatik eta uharteko bizilagun eskuzabalek laga zuten donatibo eta erresuminez eraikitzea lortu zen, 1861eko urtean.

1855. urtetik aurrera Puerto Ricoko apezpikutzarako izendatu zuen Elizak hiru alditan. Baina ez zuen sekula kargu berri hori hartu nahi izan. Gaitz handi batek jota hil zen Madrilen, hantxe erretiraturik zegoela.

### **Bibliografia**

RODRÍGUEZ, José Ignacio. *Elogio del Excmo. Sr. D. Manuel Gómez Marañón, Rector que fue de la Real Universidad.*- Habana: Impr. "La Antilla", 1864.

### **4.31. GONZALEZ DE HEREDIA LARRINAGA, Bonifazio**

Bilboko Alde Zaharrea jaiotzen 1755eko ekainaren 4an. La Habanan hilko da, 1828ko martxoaren 12an.

Aitaren aldetiko aitona, Zerioko (Araba) Antonio Gonzalez de Heredia eta Haroko (Logroño) Josefa Ampuero zituen. Amarenekoak berriz, Bilboko Juan Inazio Larrinaga Larragosti eta Berriatuako (Bizkaia) Katalina Azkarai. Aitona Juan Inaziok, Juan de la Carreraren aurrean testamentua (1756.03.22) egin zuen.

Haroko aita Klemente Gonzalez de Herediak, testamentua (1798.03.25) Bilbon egin zuen, Migel Etxebarriaren aurrean. Berriatuako Mariana Larrinaga Azkarai izan zuen ama. Bonifazio, San Antonio Abad parrokian bataiatu zuten, aitabixiak Karlos Martinez de Agirre Zaldueño eta Maria Manuela Larrinaga zirela.

Bonifazio Gonzalez (de Heredia) Larrigana, Gertrudis Benitez Valiente habanarrarekin ezkondu zen, 1778. urtean. Emaztea, Kanariar Uhartetako Kristobal Benitez Fuentes-en eta Viktoria Valiente Diazen alaba zen. Maria Kontzezio, Jose de la Paz, Jazinto, Inazio, Antonio eta Juan de Dios seme-alabak eduki zituzten.

Seme Jazinto Gonzalez Larrinaga, Kubako Miliziatako koronel lehen buruzagia izan zen. Administrazioako kontseilaria eta udal sindikoa. La Habana-Matanzas

seko Treneko junta zuzendariko presidentea. Karlos III.a ordenako gurutze handia eta Herrialdearen Lagunen Elkarte Ekonomikoko bazkidea. Seme Antonio, La Habanako Zalduneriako Miliziatako koronel graduatua izan zen.

La Habanako Elkarte Abertzaleko junta arruntak (1793.09.5), erakundean sartzeko Bonifazio Gonzalezen eskabidea irakurri zuen. Nahiz bazkide berriak onartzeko epea beterik egon, juntak onartu egin zuen haren eskaria. Hurrengo urtean, La Habanako bazkide zenbakidun agertu zen elkarteko memorian. 1817koan. 119 zenbakia izan zuen.

Merkataritzako Errege Kontsulatuko gobernu juntak (1799.06.7) adiskidetzailerorde onartu zuen, junta nagusiak aurreko egunean hautatu, eta zin egitea hartu ondoren. Someruelos-eko markes, uharteko kapitain nagusi eta kontsulatuko presidentea bileraburu zela, 1802ko martxoaren 10ko juntak, adiskidetzailer izendatu zuen.

La Habanako portuak hain itsas trafiko ugaria izanik, enbarkazioak aseguratzeo hiriko ondasundun eta merkatariren bilera (1794.12. 30) egin zen. Compañía de Seguros Marítimos de La Habana sozietatea fundatzea erabaki zuten, 800.000 pesoko fondo horniketa eginik; bakoitzeko 500 peso balioko 160 akzioren harpidetza zabalduz. Gonzalez Larrinagak, 4 akzio erosi zituen, Gabriel Raimundo Azkaraterekin batera. Gainera biok adiskidetzailer lehenak izendatu zituzten, akziodun batzuekin batera.

1804ko ekainetik, hurrengo urteko maiatzaren 12ra arteko aldiari, lehendabizi 5.000 pesotako interesik gabeko mailegua egin zion Erret Haziendari; bigarreneko 4.000koa egin ziola. Maileguok, Tabako Errentak jasaten zuen krisia arintzeko ziren. Mende hasierako mailegu-emailerik handienetakoa bilakatu zen Bonifazio Gonzalez, azukre-olen mailegutza eta sustapena bultzatzeko arloan batez ere. 15.000.000 pesotako ondasuntza masa mugitzen zen aldietan, 1798tik harrezkeroko lau urtetan, 1.780.000 enplegatu zuen azukre negozioazietan; nahiz, Pedro Juan Eritzek 2.432.000 mailegatu antzerako epean.

Lau azukre-olen ugazaba izan zen. Nuestra Señora de Begoña lehena, 40 kaballeriako (538 ha.) luze-zabaleraz; bigarrena, San Felipe Nery, 37 kaballeriaz (498 ha.); eta hirugarrena, San Jose, 102koaz (1.371,9 ha.). Rio Hondo zerritoki errautsiaren lurretan kokatzen ziren hirurok; gainera, Playa Angosta-ko lekuan, moila eta biltegi amankomuna zuten. Laugarrena, Guanajai eremuko 28 kaballeriako (377 ha.) San Dimas izan zen. Azukre-ola guztion balioa, 1.311.202 pesotara iristen zen.

Berrogeitamabi ondasun higiezinaren etxejabea izan zen Bonifazio Gonzalez. La Habana hiriko, San Inazio, O'Reylli, Agiar, Compostela, Amargura, Teniente Rey, Obras Pias, Guadalupe eta hainbat kale gehiagotan zeuzkan etxeak. Sei lotetan sailkatutako, 531.044 pesotako balioa ezarri zion higiezin multzoari.

Gainerako ondasun hauek ere bazeuzkan. Fernando VII.a plazaren aurreko aurreko, Teniente Rey kaleko, 91. zenbakiko bere heriotzako etxea; Guira de



Melena eremuko Nueva Empresa eta Asunción kafediak. Wajai eta Guanajai eremuetako, Nuestra Señora del Carmen, Santa Ana, Gertrudis eta San Pedro moxaltokiak. Guztiek, 651.156 peso balio zuten.

La Habanako Plaza Zaharrean, Gonzalez Larrinaga Etxea deituriko eraikinean bizi izan zen. Emazte Gertrudis, 1824ko apirilaren 20an hil zitzaion. Etxea oraindik familiarena zela, seme Antonio koronelaren emazte Susana Benitezek El Salvador izeneko kolegioa ezarri zuen haur pobreentzat.

Bonifazio Gonzalez Larrinagak, Cayetano Ponton-en aurrean testamentua (1823.04.1) egin zuen. Heriotza katedralean dago izena emanik.

### **Iturriak**

B.E.H.A. Bataioak: Erreferentzi-Kodea: ES/AHEB-BEHA/F006.078(0604/001-00)

K.A.N. Cayetano Pontonen Eskribautza: 249/1 leg. zka. Sustapen Junta: 72/2790, 73/2795, 93/3953 leg. zkak.

### **4.32. IBARGUEN ESKARTZA, Ramon Fausto**

Portugaleten (Bizkaia) jaio zen, 1824ko abuztuaren 31n. La Habanan hilko da 1879ko abenduaren 17an.

Aitaren aldetiko aitona, Manuel Ibarguen Castaños, Gueñeseko Andre Mari-ko parrokiari bataiatu zuten, 1753ko abenduaren 23an. Galdameseko (Bizkaia) San Pedro parrokiari ezkondu zen, 1779ko azaroaren 28an, amona Maria Andresa Galindez del Casalekin. Amaren aldetikoak, Juan Batista Eskartza eta Ana Juana Arauko izan zituen.

Aita, Juan Manuel Ibarguen Galindez, aitonaren parrokiari berberean bataiatu zuten 1780ko irailaren 12an. Organujolea izan zen, eta Balmasedako (Bizkaia) hiribildura aldatuko da senideekin bizitzera. Portugaleteko Andre Mari parrokiari ezkondu zen, 1807ko urtarrilaren 1ean, Zirila Eskartza Arauko anderearekin. Dominga, Jose Benito eta Ramon Fausto Ibarguen Eskartza seme-alabak eduki zituzten. Ramon Fausto, Andre Mariko parrokiari bataiatu zuten ere, aitabitxiak Felix Eskartza eta Fausta Cabieces izango zirela.

Santanderren ontziratu zen, 1841eko urtarrilaren 13an Joven Felicia bergantinaren barruan, bere senitarteko Modesto del Vallerekin batera. Frantzisko Gokourriak itxaron zituen desenbarkuko fidatzaile gisa, eta laster enplegatu zuen Ramon Fausto, Habana Zaharreko Mercaderesen kantaleko Obispo kaleko burdinategian.

La Habanako Montserrate parrokiari ezkondu zen, 1851ko irailaren 16an, Antonia Manuela Mazon Rivero anderearekin. Emaztea, Santo Kristoko parrokiari bataiatu zuten, Antonio Fernandez aitabitxi zuela. Honen aita, Portugaleteko Andres Mazon Causo, San Juan Jerusalemeko ordenako zalduna zen. Ramon

Modesto, Agustin Mercedes, Maria Mercedes, Modesta, Maria Karmen Marina, Zirila Homobona, Eduardo Sotero, Leandro Polikarpo, Andres Anastasio, Maria Antonia Basilia, Jose Agapito eta Meltxor Rafael Iburguen Mazon seme-alabak eduki zituzten.

Neba-arreba Dominga eta Jose Benitok, 1861eko maiatzaren 27an lehenak, eta 31an bigarrenak, lekukoren informatzaile bat sustatu zuten, Juan Braulio Butron erret eskribauaren aurrean, gurasoen eta arbasoen noblezia frogatzeko. Neba-arrebek Portugaleten sustatu zuten ekimena erakutsiz, Ramon Faustok La Habanako Luis de Ayala eskribauaren aurrean, nortasuneko informagarria aurkeztu zuen, 1863ko urtarrilaren 5ean. Belen barrutiko alkate nagusiak onartu egin zion eskabidea, urteko martxoaren 2ko auto batez.

Meltxor Morenoren ondasunen eta hiri kotxeen enpresako administratzailea izan zen. Elikagaien biltegidun handia eta, alogereko tranbia baten ugazaba Karlos III.a galtzadako zeharbidean.

1874ko urtarrilaren 9ko La Habanako udalbatzak, gobernari politikoak igorri zion ofizioa irakurri zuen. Idazkian, Ramon Iburguen eta bestek alogereko kotxeren tarifaren erreforma eskatzen zutela adierazten zuen gobernariak; hiriko trenbideko eta omnibusen enpresek, %50eko igoera lortu zutelako.

Udalbatzak arazoa batzordera pasatzea erabaki zuen. Baina, otsailaren 6ko batzarrak ez zuen eskabiderik onartu, alogereko kotxeren industria libre izan zedila proposatuz. Azken tarifa ez zegoela ezertan erreformaturik, gaueko 11etatik goizaldeko 6ak bitarteko ordutegikoa izan ezik.

La Habanako Errejimenduko Oinezkotzako Milizia Disziplinaturiko eta Boluntariotako 6. batailoiko 5. konpainiako kapitaina izan zen. Baita Merkataritzako Suhiltzaileen Gorputzeko brigada fundatzailea ere.

Bere anaia Jose Benitoren loba Dario Iburguen, La Habanara pasatu zen armada espainiarrean sartzeko. Hamar Urtetako Gerrako kanpainan hil zen.

Ramon Iburguen, Kolon kanposantuko hirugarren tramuan datza lurperaturik. Emazte Antonia Manuela, 1873ko urriaren 18an hil zen. Ez batak zein besteak, ez zuen testamenturik egin. Euren heriotzako izenak, Guadalupe eta Montserrateko parroketan daude emanik.

## **Iturriak**

B.E.H.A. Bataioak: Erreferentzi-Kodea (ES/AHEB-BEHA/F006.283 (3047/001-00).

L.H.A.H. Udaleko Agiriak: 162 lib. 22a-23, 85 orr.

#### 4.33. ILINTXETA JAURI, Jose

Aezkoan (Nafarroa) jaio zen, 1754ko abenduaren 26an. La Habanan hilko da 1829ko abenduaren 7an.

Aitaren aldetiko aitonak, Juan Ilintxeta eta Maria Iribarren, eta amarenetikoa, Juan Jauri eta Ana Engrazi Arrese izan zituen. Aita Juan Ilintxeta eta ama Ana Maria Jauri aezkotarrak zituen. Juan Frantzisko (1750.08.30) oinordea, Martin Xabier (1757.03.14), Ana Engrazi (1764.05.12) eta Jose seme-alabak eduki zituzten.

Jose Ilintxeta, Aezkoako San Salvador de Villanuevako parrokian bataiatu zuten. Arrese etxeko Pedro Jose Elizalde eta Graziusa Jauri izan zituen aitabitxiak. Valladolideko Santa Kruz kolegio nagusiko ikaskide izan zen. Anaia Juan Frantzisko, Otsagabiko (Nafarroa) Maria Josefa Otsoarekin ezkondu zen; Jose Fernando, Xalbador eta Tomas semeak izanik.

Ilintxeta Jauri, Gabriela O'Farrill Arredondo anderearekin ezkondu zen La Habanan, 1808ko irailaren 14an. Joserren ekarpena ezkontzara, zeuzkan kafe-diak, esklaboak, fruitu eta kredituen balioko 244.260 peso izan zen; emazte Gabrielaren ezkontsaria, 8.850 pesotakoa zelarik. Ez zuten seme-alabarik.

Errege Karlos III.ak La Habanako gobernari eta hiriko eremuko aholkulari orokor izendatu zuen, 1791ko martxoaren 11an despatxatu izaniko erret titularen arabera. Erret kontzejuetako abokatua izanik, gutxigorabehera bost bat urtetara jaso zuen titulua, urtero 1.000 pesoko soldata irabazteko.

Maiatzaren 6an, plegu itxi eta errotulatu bat aurkeztu zuen Ilintxetak udal batzarerra, hiriko gobernariorde enplegura igo dutela jakinaraziz. Luis Casas Argorri kapitain nagusiak deitu izaniko udaleko ekainaren 27ko ezohizko batzarrean, irakurri zen erret titularen edukia. Orduan, udal gorpuzioak onartu egin zuen izendapena eta karguaren edukitza eman zion, Jose Ilintxeta gobernariorde eta aholkulari orokorri.

La Habanako Elkarte Abertzaleak bazkide zenbakiduna onartu zuen ere, 1793ko urtarrilaren 13an eginiko junta arrunteko bileran. Urtarrilaren 31an, Jose Ilintxeta, zuzendariorde (1793-94) hautatu zuen elkarteak biurterako; uztailaren 25eko batzarrean, zientzia eta artetako sailkide eta lehendakariaren ordezkoteko izendatuz. Hurrengo urteko uztailaren 17ko junta arruntean, estatuak zutitzeako diskurtsoak aztertzeako enkargua aginduko zitzaion; biharamunerako, bibliotekako aretoan ministroen batzarra deitu zelarik.

Eskola publikoak eraikitzeako errege Fernando VI.ren asmoak kontutan izanik, urriaren 9ko juntak, elkartearen izen eta ordezkariartean, Ilintxeta izendatuko zuen hari txostena zuzentzeko; obra horiek aurrera eramateko, ariel sendo eta iraunkorrrak sortu behar zirela azpimarratuz. Gero, abenduaren 9ko junta nagusian, zentsoreorde (1795-96) izendatuko zuten hurrengo biurterako; 1797-98 urtetan zentsorea izango zelarik. Gainera, zuzendariorde izan zen ere, (1803-04) eta

(1807-08) biurtetan. 1795eko irailaren 24ko junta arruntean bera izango zen lehendakaria. Bazkide izan zeneko 33 urte jarraitutan, 264 pesoko kuota ordainduko zuen guztira.

Alkizar eremuko Economia landarediaren ugazaba izan zen. 23 kaballeriako (296 ha.) luze-zabala zeukan. 313 beltz esklabo, 299.318 kafe arbola, hazitegi bi, eta mota ezberdinetako gainerako arboladiak, hesiak, gurdiak, abereak, erramintak eta makindegia ugaria zituela. Biltegiko, etxeko, zortzi barrakoitako eta sukaldetako eraikinak ere bazeuzkan. Guztiaren balioa 272.452 pesotara iristen zen.

Bere lehengusu Juan Gabriel Sabatekin erdizana, eremu hartako lurretan Buen Consejo deituriko beste landaredi bat ere bazeukan, 1800. urtetik harrezkero. 8 kaballeriako (107,60 ha.) luze-zabalaz; 328 beltz esklaboko dotazioa, 307.952 kafe arbola, hazitegi bi, arboladiak eta kanaberadiak zeuzkala. Baita biltegiko, etxeko, sei barrakoitako eta sukaldeko eraikinak ere. Guztiaren balioa 297.735 pesotakoa zen.

Juan Gabriel, 1821ko otsailaren 21ean iritsi zen Madriletik La Habanara, landarediaren salerosketa egitera llintxeta gobernariordeari. Ondorioz, urteko udazkeneko kafe uztaren ekoizpena ordaindu zion Sabati, bertan inbertitu eginiko gastuak kendurik, zein 15.272 pesotakoa baitzen.

Frantziari deklaratu izaniko gerra-egoeraren arduragatik, eta gobernu metropolitarraren gabeziagatik, Somerueloseko markes kapitain nagusia, Jose llintxeta gobernariorde eta aholkulariarekin batzartu zen, 1808ko abuztuaren 23an. Modu honetara, uharteko gobernu zentru bat antolatzea erabaki zuten, lehenaren gabezia bete eta sortu berriarena sendotzeko helburu bikoitzaz.

Erregek, Guadalajarako (Mexiko) Entzutegiko entzule plaza esleitu zion Jose llintxetari. Hortaz, La Habanako udal gorporazioak, 1810eko urtarrilaren 10eko dataz, horren merezimenduaz luzatu zen. Zein Santo Domingoko uhartera iraultza frantsesak eroan izaniko izuak eta horren ondorioez; zein Napoleon enperatoreak, Espainiari gerra deklaratu zionekoaz. Guztietan, llintxetaren aholku zuzen, ezpartzial eta tinkoek, uharteko gobernariei asko lagundu zieten. Udalak, entzuleko enplegu berria betetzea erabaki zuen.

Baina, lehenagotik zeukan gaitzaren eraginez, urte betera itxi egin behar izan zuen entzule kargua. 1807ko urtean, kirio krisi izugarriak jo zuen, eta harrezkero ez zen sekula osatu, harik eta hil zen arte.

Anaia Juan Frantzisko defuntuaren seme Tomasek, 1823ko abendutik 1829kora zeroan ordurako osaba Jose llintxetaren ondoan. Hura, landarediak eta gainerako ondasunak zaintzen eta ekoizten arduratu zen, zeregin honetan izugarrizko trebetasuna hartu zuelarik. Horren ondorioz, loba Tomas llintxeta izan zen oinordeko zuzena. Nahiz, Aezkoako eta Otxobiko (Nafarroa) gainerako anaiak eta lehengusuak euren partea izan oinordetzan.

## Iturriak

K. A.N. Gobernuko Eskribautza: 377/12 leg. zka.

L. H. A. H. Udaleko Agiriak: 50 lib. 69-69a, 185-185a, 189-190 orr.; 78 lib. 19-21a orr.

### 4.34. JAUREGI MAIORA, Juan Tomas

Baztaneko Anizen (Nafarroa) jaio zen, 1723ko maiatzaren 3an. La Habanan hil zen, 1809ko otsailaren 19an.

Aitaren aldetiko aitonak Juan Jauregi eta Katalina Elosamendi izan zituen, eta amaren aldetikoak Juan Maiora eta Juana Zarratea. Gurasoak, Anizeko Pedro Jauregi Elosamendi eta Margarita Maiora Zarratea izan zituen.

Juan Tomas Jauregi, bi aldiz ezkondu zen. Lehendabizi, La Habanako katedralean, 1752ko ekainaren 18an, Maria Angeles Arostegi Basabe anderearekin. Bigarren, koinata Maria Anarekin. Emazte biak, Arantzako Martin Arostegi Larrea, La Habanako Merkataritzako Erret Konpainiako presidentearen eta Tomasa Basabe Espellosaren alabak ziren. Bere bigarren ezkontzako seme-alaba hauek izan zituen: Tomasa Teresa, Maria Enkarne, Maria Felizia, Maria Josefa, Juan Tomas, Juan Batista eta Andres Jauregi Arostegi.

Alaba Maria Josefa Jauregi, La Habanako katedralean ezkondu zen 1798ko urtarrilaren 10ean, Jose Bildasola Gardoki bilbotarrarekin. Senarra, Mexikoko Armadako eta Erret Haziendako ohore intendentea eta Kubako Puerto Principe probintziako intendentea izan zuen.

Seme Andres Jauregi, La Habanako katedralean bataiatu zuten 1767ko abenduaren 2an. 1810etik 1814ra bitartean, probintzia honetako gortetako diputatua izan zen Madrilan. 1811n, errege Karlos IV.a tronutik bota eta Brasileko Karlota printzesa Espainiako erregina egiteko plan batean hartu zuen parte. 1818an hiriko Merkataritzako Erret Kontsulatuko priore izendatu zuten. 1820an, gorteetako diputatuak aukeratzeko, juntako hautatu zuten. Beste seme Juan Batista La Habanan jaio zen ere, 1766ko azaroaren 11an. Hiriko alkate arrunta izendatu zuten 1816ko urtarrilaren 1ean.

Ingelesek La Habana 1762an inguratu zutenean, Juan Inazio Madariaga komandante orokor berriak, armak hartzera deitu zuen. Gainera, eguneko peso bana eskaini zien boluntarioei, tropako desertorei, baita kartzeletako iheslariei ere. Baliabide premiarik egon ez zedin, Juan Prado kapitain nagusiak, Juan Tomas Jauregi hartu zuen menpeko. Zelai diruzain titulua eta 98.000 peso agindu zizkion. Gerora, diru-suma handiagoak eskuratu zituen.

La Habana hartu zutenean, Pedro Alonso brigadierrarekin, Agustin Cardenas, Juan Tomas Jauregi, Domingo Beitia, Jose Bertizberrea, Manuel Gartzia Barreras, Leandro Chacon eta beste biztanle leial batzuek gau hautatu batean goardiei eta euren logeletan zeuden tropa ingelesei, lepoa moztea hitzartu zuten. Berandua-

go, Bertizbereari 92.000 peso entregatu zion Managua-n (Kuba), ingelesetik askatzeko erreskate gisa.

Hurrengo urtean, ingelesak hiria entregatu ostean, Manuel Jose Alegria, Madrileko Merkataritza Erret Konpainiako akziodunen ahalorde eta administratzailea La Habanara bidali zuten. Merkantziz beterik porturatu zen San Karlos enbarkazioan. Baina konpainiako etxea okupatzera zihoala, Riklako konde kapitain nagusiak bere etxebizitza legez hartu zuela konturatu zen. Horren aurrean, Jauregik portuko zamaleku ondoko etxe bat laga zion, ekarri zuen zama gordezkeko.

Otahiti izeneko azukre-kanaberaren zaletasuna Kubara iritsi zenean, Juan Tomas Jauregi lehenetarikoa izan zen hura ereiten. 1789an, Nuestra Señora del Rosario bere azukre-olan sartu zuen kanabera mota hau. Nuestra Señora de la Soledad bigarren azukre-ola ere bazeukan. Hau, 1780ko hamarkadan fundatu zuen, Jaruko barrutiko Jikiabo zerritoki errautsiaren 30 kaballeriako (403,50 ha.) lurretan. Fabrika bi hauek, La Habanako gune ekoizle garrantzitsuak izan ziren.

Juan Pedro Eritze merkataria eta adiskidetzaillearekin batera, La Habanako Merkataritzako Kontsulatuako kontsul bigarrena izatera iritsi zen Juan Tomas Jauregi. 1795eko apirilaren 10eko gobernu juntako lehen batzarrean presente egon zen, kontsulatuaren konstituzioari buruzko, aurreko urteko apirilaren 4ko erretzedula irakurri zenean.

Azukre ekoizpenaren une aberats honetan, azukretzari izeneko ugazaben taldeak, bideak zabaltzeko premia larria azaldu zuen. Urte hartan, Nikolas Calvo, Jose Ricardo O'Farrill eta Frantzisko Arangorekin batera, bidegintzako arazoak konpontzeko merkataritzako kontsulatuak aukeratu zuen diputazioan parte hartu zuen. Hauek landu zuten txostena, 400 aleko edizioan argitaratu zuen kontsulatuak, Jauregiren kontrako iritzia ere tartekatuko zuelarik.

Honek, arielak lortzeko gainerako beste memoria ospetsu bat idatzi zuen, zein hamabi orritako liburuxkan argitaratu baitzuen, gobernu juntaren erabakiz. Nahiz arielak kobratzeko bitarteko eraginkorrak proposatzen zituen, lar handitzen zuen horien zenbatekoa. Azkenean, bide konponketaz ondasundunak gehien onuratsen zirelako, lehen kontribuziodunak eurak izatea erabaki zuen kontsulatuak.

1807ko apirilaren 6an testamentua egin zuen. Bere heriotza, La Habanako katedralean dago izena emanik.

## Obra

*Memoria relativa al modo de obtener arbitrios para la composición de caminos en la jurisdicción de la Habana.*- Habana: Impr. de Esteban Boloña, 1795.

#### 4.35. JUSTITZ ETXEBERRIA, Juan

Donostian jaio zen, 1657ko irailaren 21ean. La Habanan hilko da, 1713ko otsailaren 5ean.

Leinu honen etxea, Hondarribiako Jaizkibel mendian dago, baina familia hau XVII. mendean Donostian kokatu zen. Mende horren azken aldean pasatu zen La Habanara.

Aita, Martin Lopez Justitz kapitaina zuen. Donostiako Andre Mariko parrokiaren bataiatu zuten, 1614ko azaroaren 13an. Hondarribiako alkate arrunta izan zen 1637, 1640 eta 1647 urteetan. Bere jaioterrian hil zen, 1658ko uztailaren 11an. Ama, Pedro eta Grazianaren alaba Katalina Etxeberria Arana zuen. Juan, seme bakarra izan zen. Hondarribiako setioan zerbitzatu zuen.

Juan Justitz La Habanako katedralean ezkondu zen, 1686ko uztailaren 10ean, Jeronima Umpierrez Carmona anderearekin. Emaztea, Manuel eta Leonorren alaba zen. Leonor Gertrudis, Juan Jose eta Manuel Jose Justitz Umpierrez seme-alabak eduki zituzten.

Seme Juan Jose, La Habanan jaio zen 1691eko azaroaren 21ean. Hiriko alkate arrunta izan zen, eta Matanzaseko parrokiaren kontura eraiki zuen. Maiorazkoa eta 18.000 pesotako lokarri militarra fundatu zituen, Leonor Gertrudis eta Manuel Jose neba-arreben oinordekoek mantentzeko, koronel gradua eskuratzen zuen arte.

Juan Jose Justitz, La Habanako Merkataritza Erret Kopainiako arropen behin-behineko administratzailea izan zen. 1753ko urtean, Jose Cipriano de la Luz, Manuel Gartzia Barreras, Jose de la Guardia, Domingo Lizundia eta Diego Marrorekin batera, ustelkeriako salaketa izengabedunaren zerrendan agertu zen.

Beste seme Manuel, La Habanan jaio zen ere 1689ko maiatzaren 21ean. Erret Armadetako koronela, Morro gotorlekuko sarjento nagusia eta hiriko alkatea izan zen. Baita Floridako gobernari eta kapitain nagusia ere. 1719an, Berwick-eko dukeak Hondarribia hartu zuenean, setioko kapitaina izan zen.

Ingelesak La Habana hartu zuten aldian (1762), Juan Josek koroari agertu izaniko leialtasuna eta eskainiriko zerbitzuei esker, Casa Justitzeko markes titulua jaso zuen. Baina, Jose Ortiz de Saratxo, Gipuzkoako probintziako ordezkariak, markes titulu horrek Casa Justitzen izenburua hartzea ukatu egin zen. Beraz, Manuel Jose Aparacio del Manzano Justitz, tituluaren oinordeak Justitz de Santa Anakoa ezarri behar izan zion.

Justitzarren Etxea izeneko eraikinaren antzinatasunak, 1680ko urtera garatza. Orduan, Tomas Urubarro kapitainaren etxebizitza zen. 1715ean, honen semeek eta oinordekoek, Jeronima Umpierrez, Juan Justitz Etxeberria kapitainaren alarguntsari saldu zitoten. Habana Zaharreko, Baratillo kaleko Justitz kantalean kokatzen da etxea.

#### 4.36. LANDALUZE URIARTE, Biktor Patrizio

Bilbon jaio zen 1828ko martxoaren 6an. Guanabakoa-n (Kuba) hilko da, 1889ko ekainaren 7an.

Aitaren aldeko aitonak, Patrizio Landaluze eta Josefa Gomez de Palacios bilbotarrak izango zituen; eta amarenak, Jose Manuel Uriarte eta Maria Frantziska Musitu Zalbidegoitia bermeotarrak. Aita, Basilio Landaluze eta Maria Biktoría Uriarte ama. San Nikolaseko eliza nagusian bataiatu zuten. Aitona Patriziok eta amona Bizenta Oleagak hartuko zuten besoetako.

Oso garaiz azalduko zaio izate artistikoa. Biktor Patrizio Landaluzeren maisua eta formazio akademikoaren arduraduna Madrilen, Jose Madrazo izan zen. Gero, Parisen teknika litografikoa ikasi zuen.

Kubako bere iritsieraz nahiko eztabaidatu izan da uhartean. Mario Leskanoren ustez,

XIX. mendearen erdian iritsi zen margolaria Kubara, eta arrazoi politikoak bultzaturik seguruena. Juan Martínez Villergas-ekin adiskidetasun handia egin zuen. Mexikora abiatuko ziren biak 1858an, baina hurrengo urtean La Habanara itzuliko dira.

Jose Antonio Portuondo saioegilearen iritziz,

[...] Landaluze bilbotarraren Kubako iritsieraz arduratzen garenean, honen bizitza ikertu duten pertsonen La Habanara 1861-63 urtetako bitartean iritsi zela diote. Gure arte plastikoen historia landu duten Guy Pérez de Cisneros eta Lolo de la Torrientek, horixe da diotena behintzat.

Gillermo Sanchez Martinezek ostera, La Habanako unibertsitateko aldizkarian 1966an idatzi zuen artikuluan zera dio, "*Landaluze, 1850ean edo zerbait lehenago iritsi zen Kubara. Lehendabizi Kardenaseko hirian lekutuko zen, gainera*". Azken urte honetan, Nartziso Lopez jeneral ohiaren desenbarku anexiogilea jazo zen Kardenaseko portuan. Landaluze hiri honetan bizi zenez, liskarraren lekuko bilakatuko da, Feliziano Carrasco lantzariaren heriotza aurrez aurre ikusi zuelako. Ondorioz, Boluntarioren Gorputzean eta Oinezkotzako Milizietan sartu zen.

Urte bete beranduago, Lopezen bigarren desenbarkua burutu zen uharteko mendebaldean. Preso hartu, eta La Habanako San Salvador Punta-ko gazteluan fusilatu zuten. Jazoera hauen inguruan, Kardenaseko inbasioaz eta jeneral ohiaren heriotzaz, grabatura eroateko dibujo andana egin zuen. Baita Manuel Enna jeneralordearen heriotzaz ere, zein desenbarkuaren kontrako tropa espainiarren frentean baitzegoen.

*Los cubanos pintados por sí mismos. Colección de tipos cubanos (1852)* liburuaren argitalpen datoren arabera ere, bere iritsieraren hurbilketa egin dezakegu. Titulu hau, egile ezberdinen artikuluren bilduma da, Blas San Millan editore espainiarrak bilduz eta sarreratuz. Jose Roblesen grabatuek eta Biktor Patrizio



Landaluzeren dibujok ilustratzen dute liburua. Barcina inprimategiaren zigiluaz kaleratu zen. Landaluze, Frantziako Lertsundi jeneralaren kapitain laguntzaile gisa iritsi zela Kubara ere irakur daiteke.

Urte honetan, Ildefonso Estrada Zenea eta Juan Klemente Zenea poetak fundatu zuten *El Almendares* astekarian kolaboratu zuen. Modako trajeak sustatu zituen bere dibujoez; Eugenia de Montijo enperatrizaren eta Napoleon III.ren arteko ezkontza; orduan, La Habanan abesten zuen Venturina Mur-en erretratua; zartzuelari buruzko hainbat eszena, etabar. Dramaturgile bezala, teatroarako obrak ere idatzi zituen: *Doña Toribia* zartzuela, *La cosa mala de la calle Sol* jugetea eta *El sueño de una actriz o Sueño y realidad* (1858) drama.

Urte bi beranduago, *Fiesta con motivo de la llegada del Excmo. Sr. D. José de la Concha*, liburuxka ilustratu zuen. Egilea, Bartolome Jose Crespo (1811-1871) izan zen, aldi horretan Creto Ganga-ren izengoitia erabiltzen zuena. Gobernari berriaren izendapena ospatzeko argitaratu zen obra.

1857tik harrezkero, ekimen emankorra garatu zuen karikaturagile gisa, hiru hamarkadatan agerkari habanarretan kolaboratuz. Urte honetako urtarilaren 16an, bere lagun Juan Martinez Villergasek zuzenduriko *La Charanga* astekari umore zirikatzailearen lehen zenbakia kaleratuko da. Landaluze, kolaboratzaile taldeko partaidea izan zen. Umoreko gaietan, tokiko eta atzerriko gertaerak aztertu ziren; Tacon antzokiko opera-funtzioak eta bertako abeslarien karikatura ugari, eta beste argitaratu dira.

Hurrengo urtean, Martinez Villergas lagunarekin Mexikora abiatu zen, bere lana garatzeko leku berrien bila. Honek, *Don Junípero* aldizkari zirikatzailea fundatu zuen, baina iraupen laburra izan zuena. Jose M<sup>a</sup> Diez de Sollano, unibertsitate Pontifiziako errektoreak eginiko diskurtso baten kritika zakarra idatzi zuten agerkarian, eta aginte mexikarrek alde egiteko gonbita luzatu zieten. Mexikon zegoela, hainbat leku interesgarri bisitatu zuten, Biktor Patriziok pertsonaien eta eszenen apunteak jasotzen zituela.

Kubara itzultzean, eta oraingotan betirako, *El Moro Muza* Villergasen agerkari berrian kolaboratuko du. 1859ko urrian hasi zuen bere tirada, eta *La Charanga*ren izaera berbera izan zuen. Hiru urte geroago, *Don Junípero* deituriko aldizkari propioa fundatu eta zuzenduko du, 1867ko abenduaren 29ra arte iraun zuena. Beste hainbat aldizkaritan ere kolaboratu zuen, umorea eta zirikazaletasuna adieraziz. *Almanaque de Juan Palomo* (1870-1873) agerkarian, adibidez. *La Sombra* (1873-1878) astekari politiko zirikatzailean eta baita, Villergasek zuzentzen zuen *Don Circunstancias* (1879-1884) astekarian ere.

Karikatura bidez, oso zakar kritikatu zituen garaiko kubatar buruzagi independentistak. Eragin izugarria izan zuten, New Yorken ezarriko Junta Iraultzaileari egin zizkion burlak edota Karlos Manuel Cespedes eta Migel Aldamari, plumaz eginiko erretratu iraingarriak. Era berean, kubatar nortasuna fidelitasunaz ordezkatu zuen ereduaren sortzailea izan zen. Beranduago, Lolo de la Torriente karikaturagileak, berrekoiztu eta Liborio izenaz ezagutarazi zuena.

1866ko udako hileetan, uharteaz landa bidaiatu zuen, eta Estatu Batuak ibili zituen. Hurrengo, Londres, Paris eta Andaluziara zuzendu zen, ibilbidean makina bat apunte jaso zuela. Itzultzean, *Albúm de Viaje* argitaratu zuen, *Don Juníperoren* gehigarri gisa, kanpoan egon zen bitartean eginiko 28 dibujoz.

Landaluzek baina, kazetaritza grafikoa eta literarioa landuaz aparte, prentsa litografikoetara eroateko, zigarro marketako kromolitografiak ere prestatzen zituen. Hots: La Honradez eta Chorritos de Jaruco.

1881ean, hogeita bederatzita urte lehenago egin zuen tematika berbera hartuko du. *Tipos y costumbres de la Isla de Cuba* bere obra berrian, egundo lortu gabeko lanik hoberena burutu zuen. Migel de Villas-ek argitaratuko du, eta Antonio Bachiller y Morales-en aintzin-solasa zeroan. Liburua, garaiko egile kostunbrista ospetsuenek idatzirik artikuluaren konpilazioa izan zen. Oraingotan bai, kubatartasunaren muinean sartzea lortu zuela, aurrekoaren alderantziz.

Nahiz lehenagotik elkarrekin bizi izan, urte horretako azaroaren 5ean, Guanabakoako Nuestra Señora de la Asunción elizan Rita Maria Planas Arredondorekin ezkondu zen. Emaztea, Trinidadekoa zen, Migel eta Maria Altagraciaren alaba, eta Fernando Panfilo Granados-en alarguntsa. San Antonio kaleko, 27. zenbakian bizi ziren.

Ostera, Biktor Patrizio Landaluzeren oleoko eta akuarelako pintura lana, kariaturenaz aparteko itxurakoa zen. Obran, sasoiko ohiturak bildu zituen batik bat. Fundazio laneko estetika aldeak, baldin azken aldikoarekin alderatzen baditugu, gaiak ez hainbeste, baina bai teknika eta sormena ere, erabat aldaturik eta garaturik aurki diezazkiokegu.

Kubako XIX. mendeko ohiturak eta ereduak eroan zituen bere pinturretara. Etxeko esklabo beltz morroia, *El calesero*. Beltz afrikarren, nazio ezberdinetako zeremonia erritualeko jantzi eta apaindurak, *Los Nánigos*. Baserritar oilarborrokazalea, *El gallero*; eta erromeriazaleak, *Los guajiros*. Cerro udaleko famili handikia, errege eguneko esklabo mozorrotuei atetatik behatzen, *Día de Reyes*. Beltz zaldi-gurdiduna mulata lirainari kortesiak egiten, *Haciendo el amor*. Eta beste hainbeste.

Fernando Ortiz etnologo kubatarak, artista plastiko honen ederlana balioztatzean zera aitortu zuen,

*Landaluzeren kuadro eta dibujoak, XIX. mendearen bigarren aldiko bizitza kubatarren agiri zehatzak direla argi gera dadila. Bere erlijio esoteriko eta esotikoak kontutan harturik ere. Lan horren helmuga, Kubako museo historiko edo etnografiko bat izan behar luke.*

Kubako ohitura-plastikaren fundatzailea izan zela ere baieztatu daiteke.

Lehen klaseko meritu militarreko erret gurutzea jaso zuen (1855); eta Sepulkru Santuko zaldunarena ere (1866). Isabel Katolikaren erret ordena amerikarrek komendatzaile zenbakiduna izendatu zuten (1871); baita Boluntarioren Batailoiko koronelburu ere. Guanabakoako errejidorea izatera iritsi zen (1872).

Urteetan jo zuen tuberkulosiak gaixoturik hil zen.

### Iturriak eta bibliografia

B.E.H.A. Bataioak: Erreferentzi-Kodea (ES/AHEB-BEHA/F006.079 (0646/002-00)).

CASTELLANOS, Lázara. *Víctor Patricio Landaluze*.- La Habana: Editorial Letras Cubanas, 1991.

MUSEO DE BELLAS ARTES DE BILBAO. López Núñez, Olga.- *Víctor Patricio Landaluze: sus años en Cuba*.- Bilbao: Museo de Bellas Artes de Bilbao, 1998, 9-29 orr.

PORTUONDO, José Antonio. "Landaluze y el costumbrismo en Cuba".- En: *Separata de la Revista de la Biblioteca Nacional José Martí*.-La Habana (1972); 1 zka.; 51-83 orr.

### 4.37. LANTZ BERTIZ, Juan Batista

Lantzen (Nafarroa) jaio zen. La Habanan hilko da, 1818ko martxoaren 8an. Lantzeko Garaikoetxea eta Oieregiko Matxikotenako leinu-etxekoa zen.

Aitaren aldeko aitonak Juan Lantz Donmartinena eta Katalina Zoziaia izan zituen. Gurasoak ostera, Lantz herriko Matxikotenako Martin Lantz eta Maria Fermiña Bertiz izan zituen. Bernardo eta Juan Batista semeak eduki zituzten.

Anaia Bernardo Lantz Bertizi, zaldunsemegoko karta eman zitzaion 1780ko maiatzaren 22an. Iruñeko gorteko fiskal jaunaren akusazioaren arabera, zaldunseme ospetsu legez exentzio eta hobariak gorde zitzaion.

Juan Batista Lantzek ere, Pradon 1781eko urtarrilaren 29ko dataz emaniko erret zedularen bitartez, zaldunseme ospetsuaren exentzio eta hobariak jaso zituen. Nafarroako erresumako erretordeak eta gorteko alkateek 1780ko maiatzaren 22an, Juan Ramon Espartza erret eskribau zenbakidunaren laguntzaz emaniko hizki testifikalak demostratu beharko zituen. La Habana hiriko udalak, 1784ko abuztuaren 6an egin zuen batzarrera aurkeztu zuen nobleziako informazio hau.

La Habanan ezkondu zen 1772ko urtarrilaren 4an, Izpiritu Santuko parrokiari, Ana Bizenta Norris Bedit-Hourruitiner anderearekin. Maria Leche, Maria Mercedes, Maria Kontzezio, Frantziska, Ana Josefa, Manuel, Jose Felipe eta Juan Batista Lantz Norris seme-alabak edukiko zituzten.

1787ko urtarrilaren 1eko hiriko udalbatzak, Juan Batista Lantz izendatu zuen sindiko prokuradore orokorra izateko. Uztailaren 13ko batzarrean, beltz urritasunari buruzko mozioa aurkeztu zuen. Gabezia honek, nekazaritzaren eta ondasun-dunen hondamendia zein merkataritzaren eta estatuko zergadunen gutxitzea zekarrela aitortu zuen.

Udalak, auzotarren egoera tamalgarria kontutan izanik, beltz sarrera errezteko erregua egin zuen. Zeregin horretarako, Buenavista-ko kondea proposatu

zuen, udaleko aguazil nagusia izan eta Madrileko gortean bizi zelako. Mandatu garrantzitsu hori betetzeko, udalak ahalmen nahikoa emango zien Villa Alta-ko markesei eta Nikolas Calvori, egoki iruditzen zitzaizkien instrukzioak prestatzeko.

Urriaren 5eko batzarrean, Mateo Raygadas-ek eta beste lau lagunek, Santander eta Caracaseko portuetan antzerako kontsulatuko epaitegi bat ezartzeko, aurkeztu zuten eskariari buruzko Lantz prokuradorean irizpena irakurri zen. Ondasundun, merkataria, enplegutzaile eta, merkataritzako gainerako menpekoen ezberdintasunak eta liskarrak amaitzeko sortu nahi zela epaitegia azaldu zuen. Gainera, Haren Maiestateri gorputz berri hau sortzeko arrazoiak aurkeztu behar zaizkiola, eta zeregin horretarako karguren zerrenda prestatu ere.

Batza honetan, Juan Batista Lantzek, Manuel Jose Torrontegi eta Matias Armona Murga koronelaren komisario izendapenak aurkeztu zituen. Udalak onartu egin zuen sindikoaren mozioa. Baliagarritasun publikoaren mesederako, komisarioei egokien iruditzen zitzaien bidea hartzeko aginduz.

1788ko urtarrilaren 1eko udalbatzak, Lantz Bertiz izendatu zuen La Habanako alkate arrunta izateko. Uztailaren 11koan, Juan Batista eta beste batzuen eskaria irakurri zen, beltzen sarrera sustatzeko gobernariak udalari aurkeztu zion komunikazioaren alde.

1795eko urtarrilaren 1ean, alkate arruntak, ermandade santukoak eta gainerako errejidore karguak hautatzeko bildu zen udalbatza, Jose Ilintxeta gobernariorde eta hiriko aholkulariarekin batera. Bileran, Juan Batista Lantz eta Manuel Jose Torrontegi, alkate arruntak izateko hautatu zituzten.

La Habanako Elkarte Abertzaleak, 1793ko urtarrileko 17ko batzarrean, bazkide zenbakiduna izendatu zuen Lantz. Baita Onegintza Juntako behin-behineko presidente ere aukeratu zuen, urteko otsailaren 7ko batzarrean; eta uztailaren 25koan berriz, nekazaritza klaseko batzarkide. 1817 urtean, 34 zenbakiaz agertu zen katalogo orokor alfabetodunean zerrendaturik. Bazkide gisa, 25 urte jarraitutan 208 pesoko kuota ordaindu zuen guztira.

1795eko apirilaren 10eko juntan, Esteban Lafayé, idien laguntzarik gabe kanabera txikitze errotaren asmatzailearen idatzia irakurri zen. Honek, Luis Casas Aragorri kapitain nagusia eta beste jaun batzuen laguntzaz, aipatu makinaren emaitzak probatzeko 1.000 peso lortu zuela jakinaraziko dio juntari. Probak, aurreko martxoaren 30ean, gobernariaren eta Juan Batista Lantz, Pedro Juan Eritze, Jose Ilintxeta eta Cardenaseko markesaren aurrean egin zituela gaineratu zuen. Hargatik, urriaren 8ko junta arruntean, entseiu berri bat burutzeko, errota Marimelena-ko atrakalekura enbarkazioz garraiatzeko ardura elkarteak beregain jaso zuela azaldu zion Lantzek.

Juan Batista Lantz, erregek izendatu zuen Merkataritzako Erret Kontsulatuko lehen adiskidetzaitariakoa izan zen. Gobernu juntak, 1795eko abuztuaren 26an buruturiko batzarrean, Asturiaseko printzerriko bi jatorrizkoen memoriale aztertu zuen, kontsulatuak Covadongako amabirginaren patronatua onartzeko. Bokal

guztiak ados zeuden eginiko proposamenaz; baina Lantzek eta Antonio Arregik ukatu egin zuten, erakunde hura sortzeko gortera zuzenduriko lehen txostenean Arantzazukoa izatea erabaki zelako. Juntak orduan, Sorkundeko amabirgina hautatu zuen kontsulatuko zaindari gisa.

Jose Rikardo O'Farrillekin batera, *Memoria sobre la cria del ganado mular y caballar, y mejora de sus castas* ikerlana aurkeztu zuen kontsulatuko junta ekonomikora, 1797ko abuztuaren 30ean. Ipar Amerikatik zaldi frisoiak sartzeko proposamena egiten zuten. Abeltzantzaz argitaraturiko lehen lana da. Erret kontsulatuak inprimatu zuen. Lantzek, Divina Pastora moxaltokian garaiko zaldi hazkuntzarik hoberena zeukan. Arraza hura Bertiz izenez ezagutu zen.

La Habanako Tabako Erret Faktoriak, 1805. urtean izan zuen krisia, eta fondo urritasun kronikoari eusteko, Rafael Gomez intendentea laguntza finantzario berrien bila saiatu zen. Juan Batista Lantzek, 1.000 pesokoa eskaini zuen.

Emazte Ana Bizenta Norris hiltzean, 54.812 peso geratu zitzaion kreditu aktibotan. 2.700 sei esklaboren balioagatik. Altzari eta bitxiei autoetan eman zitzaienagatik, 2.741. Seme Juan Batista Lantz Norrisi, Santo Kristo azukre-olaren esleipena egiteagatik, 17.222 peso.

Lantz Bertiz hiltzean, La Habana hiriko harresiaz landako Guadalupe auzoan bizi zen. Hiletak, bertako parrokian egin zizkioten, eta kanposantu orokorrean hilobiratu zuten, Asiseko San Frantziskoren habitoaz jantzirik.

#### Iturriak

L.H.A.H. Udaleko Agiriak: 46 lib. 89-100a orr.; 47 lib. 190 or.; 48 lib. 56-56a, 91, 214, 255a orr.; 52 lib. 381-381a orr.; 53 lib. 522 or.; 54 lib. 39 or.

K.A.N. Sustapen Junta: 161 lib. 38a-39 orr. Salinasen Eskribautza: 262/3354 leg. zka.

#### 4.38. LARRAZABAL CALVO, Lorentzo

Maruri-Jataben (Bizkaia) jaio zen, 1806ko maiatzaren 18an. La Habanan hilko da, 1857ko urriaren 25ean.

Aitaren aldetiko aitonak, Maruriko Andres Larrazabal eta Mendatako (Bizkaia) Katalina Goitia izango zituen. Amarenekoak, ostera, Castrillo de Villa Vega-ko (Palentzia) Frantzisko Calvo eta Pasaiako (Gipuzkoa) Feliziana Caraballo.

Aita Lorentzo Larrazabal, eta Mungiako (Bizkaia) Juana Calvo Caraballo ama. Lorentzo Martiriko elizan bataiatu zuten, aitabitxiak Kornelio Iriondo eta Maria Bilbao izan zituela. Arreba Maria Josefa, bera baino bi urte aurreko maiatzaren 2an jaio zen. Haurrak zirela hilko zitzaizen aita. Lorentzok nerabearoan aldeko zuen Kubara, 13 urte baino ez zuela, hain zuzen.

Euskal Herritik zeroan gomendio baten laguntzaz, San Jose de las Lajas-eko denda misto bateko ugazaba maruriarrekin hasiko zen dependiente legez lanean. Hurrengo, Vedado deituriko harrobietan arituko zen adminitratzaile zereginetan, eta eraikinak eraikiko zituen bere kasa; obra-maisu eta arkitektu lanak berak egiten zituela.

1823an, La Habanako 4. batailoiko 5. konpainiako boluntario sartu zen Lorentzo Larrazabal, Frantzisko Eligjo de la Fuente kapitainaren menpean. 1828-29 biurtean, Antonio Armona eta Domingo Barreto udaleko ermandade santuko alkateen aginduz, mota guztietako gaizkileen jazarpena eta atzemateko mandatuak jaso zituen.

Hurrengo urteko uztailaren 9ko, Bizkaiko Jaurreriko diputazioko autoa jaso zuen, bizkaitar nobleziako eta zaldunsemegoko eskubidea aitortuz. Gainera, Antonia Gonzalez anderearekin ezkondu zen urte berean; aurrerantzean, emaztearen dirutza administratuz eta gozatuz. Sustapen Juntak, 1833an argitaraturiko merkataritza handi eta txikien zerrendan agertu zen sarturik, La Habanako probintzian.

Gerra Eskribautzako ofizioa enkante publikora kaleratu zenean, Larrazabal Calvori esleitu zitzaion plaza, eskaini zuen 46.000 pesotako posturagilerik hobereena zela medio. Hasteko, Migel Chacon gobernari eta kapitain nagusiak behin-behineko titulua despatxatu zion, harik eta 1835eko irailaren 19ko dataz, erregek hura baieztatu zion arte. Gainera, urtean bertan, Injinerotako eta Artilleriako Epaitegi Bereziatiko eskribaua izendatu zuten. Urte bi geroago, Eskribauen Kolegiara sartu zen, bertako errektorea izanik, 1837-38ko aldian. Hurrengo urteko maiatzaren 10ean, Eskudantzetako Junta Goreneko eskribaua ere izatera iritsi zen. Azkenik, Erret Etxeko eta Ondareko Epaitegiko behin-behineko eskribautza jaso zuen, 1843ko azaroaren 24an. Bulegoa, Compostela kaleko, 139. zenbakian zeukan.

San Anton de la Anegada aziendako lur muinotsuetako, San Manuel azukre-olaren ugazaba izan zen. Larrazabalek, azukre hamarrenaren kontribuzioa ordaintzeko exentzioa eskatu zuen ere, 1842ko erret dekretuak azaltzen zuen graziaren arabera. Frantzisko Gispert, azienda horretako lur sail batzuren hamarrenaren errentaria izanik, ukatu egin zen hark sustatu zuen autoetan. Baina, azukre-ola Lagunillas-eko eremuko matrikulan 1845eko otsailaren 5etik harrezkero azaltzen zelako, sei urteko exentzioa lortu zuen Guamutas-eko parrokiari azukre hamarrenetik ez ordaintzeko.

La Habanako Elkarte Ekonomikoan sartu zen, 1840ko abenduaren 12an. Nekazaritzako sailkide hautatu zuten hiru urte beranduagotik harrezkero. 1844an, kaobazko siloi bat eta bi aulki besodunak dohaindu zituen; hurrengo, 300 peso aurreratu ditu, elkarteak museorako erosi izaniko oleozko margoei, marko urreztatuak ezartzeko. Urriaren 23an, junta arruntak eginiko bileran, etxe-ko zerbitzu hobe baterako eta atezaintzaren laguntzarako, 17 peso soldatuko atezainaren premia azaldu zuen. Lorentzok, bere burua prestatu zuen lehen bi

hileren ordainketa egiteko. Hurrengo urteko apirilaren 1eko juntan, industriako sailkidea egiteko asmoa zertu zuen.

Derosne y Cali jaunen izenean, Pedro Lefranc-ek azukrea purgatu eta kristaltzeko prozeduraren jabetza aseguratzeko eskabidea aurkeztu zuen. Elkarte ekonomikoak, 1846ko maiatzaren 26an eginiko junta arruntean, Larrazabalen txostena aztertu zuen, hau onartuz. Batzarrean, gormutuen kolegioa eraikitzeko Antonio Hernandez Blancas-en proiektuaz erabaki zen; aipatu Larrazabali, asmoa bideratzeko ahalmen guztiak eman zizkiola juntak. Baita elkarteko zuzendariordea ere izango da, 1855-56 biurterako.

Makineria Eskola sostengatzeko harpideduna izan zen bost urtetan. Jose Gutierrez de la Concha kapitain nagusiak, junta zuzendariko bokal izendatu zuen, 1851eko maiatzean. Eskola, San Isidroko eraikinean ezartzeko hainbat agindu bete zuen, harik eta hiru urte geroagoko otsailaren 1ean, desegin egin zen arte.

La Habanako udaleko, 1853ko urtarrilaren 1eko hauteskunde batzarrean, alkate bigarrena izan zen hautaturik. Baina, data horretan hiriaz landa egon zelako, urtarrilaren 5eko ezohizko batzarrean mozioa aurkeztu zuen zera azalduz, "*aurtengo urterako alkate bigarrena hautatua izateko ohorea izan dudanez, kargua behar bezala onar dezadan, eguna eta ordua ohartaraztea nahi nuke*". Modu horretara, Larrazabal Calvok, erresumako legeak obeditzea zin zegien.

Urtarrilaren 28ko batzarrean, Claudio Martinez Pinillos, Villanueva-ko kondea, Erret Haziendako intendente orokor ordezkaria, eta Zergen Juntako presidentearen heriotza zelako, Larrazabal alkate bigarrenak mozioa aurkeztu zuen. Besteak beste, Fernando VII.a ubidea eta trenaren obra publikoak konde gogortuaren ahaleginak zirelako, bere gorpua hiri honetara ekartea eta haren oroigarriko monumentu bat eraikitzea eskatu zituen.

1844ko urtean, hurakanak hondatu zituen familiei laguntzeko, uharteko kapitania nagusiak sorturiko komisioko partaidea izan zen. 1850.enean, La Habanako ospitale militarrean, kolera asiarraren izurritea deklaratu zenean, San Lazaro galtzadako bere etxe handia hutsitu egin zuen ospitale legez egokitzeko. Urte horretan, Onegintza Etxeko eroen departamentua ere izurriteak jo zuenean, ekimen berbera burutu zuen etxeaz, bizirik geratu ziren ehun eroak bertara erango zituelarik.

Hurrengokoan berdin egin zuen, izurritea neskatiilen departamentura iritsi zenean. Ipar Amerikatik abiatu zen talde anxiogileak uhartea inbaditu zuenean, etxea eskaini zuen ere, behin-behineko ospitale antzean erabil zezaten taldearen kontra. Gerora, Onegintzako Etxeko gobernu juntak, eroren eta neskatiilen departamentuek Lorenzo Larrazabalen izena eroatea erabaki zuen.

1856ko urtean, Europara bidaiatu behar zuelarik, elkarte ekonomikoak, nekazaritza eta industria arloetako ikerketak egiteko eta aurrerapenen berri jakinarazteko mandatu zuen Larrazabal, apirilaren 30eko batzarrean. Bide batez,

erregina Isabel II.ri elkarrearen atxekidura eskaini zion. Gerora, junta nagusiak, abenduaren 15ean egin zuen bileran, honek eskaini zituen zerbitzu onak eskertzeko, bazkide ohoredun izendatu zuen.

Biharamuneko bigarren batzarrean, Larrazabalek elkarrearen mandatuz, erreginari eskaini zion bere atxekiduraren omenaldi eta errespetuaren berri jakinarazi zuen. Juntak, bai honen komunikazioa zein elkarrearen izenean erreginari egin zion azalpena, agirietan argitaratzea erabaki zuen.

Bizkaiko Diputazio Orokorrak eta trenbideko batzorde betearazleak, hurrengo urteko martxoaren 30ean, proiektua aurrera eramateko harpidetza eskatu zion. 50.000 peso entregatu zion batzordeari, eta uhartean zehar 1.081.400 pesotako harpidetza lortu zuen egitea. Horrela, diputazioko esker ona jaso zuen gutxira.

Ondoko meritua lortu zituen: *Don* bereizketaz sinatzeko erreginaren baime-na (1836.11.6). Honen ohorezko idazkaria (1843.11.5) izatea; Karlos III.a orde-nako gurutzea (1847.11.2); eta, Itsasoko Komisario Agintzailearen ohoreak (1855.12.19).

#### **Iturriak eta bibliografia**

B.E.H.A. Bataioak: Erreferentzi-Kodea: ES/AHEB-BEHA/F006.243(2626/001-01).

K.A.N. Cotes-en Eskribautza: 251/2 leg. zka. Sustapen Junta: 179/8233 leg. zka.

L.H.A.H. Udal Agiriak: 140 lib. 4, 5a, 24a, 25 orr.

MUÑOZ, Antonio María. "Elogio del Señor Don Lorenzo de Larrazábal y Calvo".- En: *Acta de las Juntas Generales de la Real Sociedad Económica de Amigos del País de la Habana, que celebró en los días 17, 18 y 19 de Diciembre del año de 1858.*- Habana: Imprenta del Gobierno y Capitanía General y Real Sociedad Económica, 1858, 45-64 orr.

*Comunicación dando cuenta del homenaje que en nombre de la Sociedad rindió a S.M. la Reina.*- En: *Acta de las Juntas Generales que celebró la Real Sociedad Económica de Amigos del País de la Habana, en los días 15, 16 y 17 de diciembre de 1856.*- Habana: Imprenta del Gobierno y Capitanía General, 1857; 71-74 orr.

#### **4.39. LASA IRALA, Sebastian**

Zumarragan (Gipuzkoa) jaio zen 1762ko irailaren 20an. La Habanan hilko da, 1841eko azaroaren 6an.

Lasa familia honetako leinu-etxea Astigarreta, Gipuzkoan dago. Halere, Zumarragako hiribilduan kokatu zen XVII. mendearen erdialdean.

Aitaren aldetiko aitonak, Tomas Lasa Olaso eta Maria Inazia Iturbe Goronae-ta izan zituen. Amarenetik, Manuel Irala Olalkiaga eta Gertrudis Ogilondo Leturia. Aitona Tomas, Ezkioko sindiko, prokuradore orokor eta errejidorea izan zen.



Gurasoak, Pedro Tomas Lasa Iturbe eta Manuela Antonia Irala Ogilondo izan zituen. Seme Sebastian Jasokundeko parrokian bataiatu zuten, Frantzisko Iturbe eta Marta Etxeberria aitabitxiak zirela. Tomas, Jose, Agustín, Juan Frantzisko eta Sebastian Lasa Irala seme-alabak eduki zituzten.

Aita Pedro Tomas, Zumarragako epaile arrunta eta alkatea izan zen. 1790ean Gipuzkoako probintziako junta nagusira, hiribildu hartako zaldun prokuradore gisa aurkeztu zen. Valladolideko Kantzelaritzan, nobleziako betearazletza irabazi zuen epaiketa kontraesankorrean, 1792ko urriaren 3ko epaiaz.

Pedro Perez de Herrera, kamarako eskribauak berronetsi egin zuen epaia. Honen bidez, bai bera eta bere arbasoak ere, Zumarragako zaldunsemeak aitortu zituen. Urte bereko martxoaren 14an, Juan Felix Rujula, erregeren kronikagileak eta armetako erregek emaniko armatako ziurtagiria lortu zuen. Hurrengoko urteko otsailaren 24an, Aranjuezen emaniko erret zedula laguntzaduna, La Habanako udalean aurkeztu zuen Sebastian Lasak, 1830eko martxoaren 27an.

Maria Mercedes Rivas anderearekin ezkondu zen, 1786ko irailaren 25ean. Sebastian Jose, Maria Mercedes, Andrea, Jose Maria, Manuela Antonia eta Ramon Lasa Rivas seme-alabak eduki zituzten.

Sebastian Lasa Iralak Afrikako beltzen tratu zuzenari buruzko memorialela aurkeztu zuen La Habanako Merkataritza Erret Kontsulatura; 1796ko ekainaren 22ko gobernu juntan luze eztabaidatu zena. Luis Casas Aragorri kapitain nagusi eta kontsulatuko presidenteari, Lasa jaunaren tratuaren aldeko iritzia azaldu zituen, honen ustetan Indietako merkataritzaren osteko aberasgarriena zela aitortuz.

Kolonizazio zuriari, 1817ko urriaren 21eko erret dekretuaren arabera hasiera eman zitzaionean, familia hauei bi hilabeteko abegikortasuna eskaintzeko, Jose Cienfuegos kapitain nagusiak ondasundun laguntza eskatuko zuen. Sebastian Lasa, nekazaritza eta artesau saileko lau familia espainiar edo atzeritarrak hartzerantz konprometitu zen.

Marieleko eremuan, 27 kaballeriako (363 ha.) La Santísima Trinidad azukreolaren, eta 57 kaballeriako (766,65 ha.) moxaltokiaren ugazaba izan zen; zeintzuk Riklako kondearen erret-lurrekoak baitziren. Gainera, San Diego de los Arroyos etxaldeko hiru bostena eta Buena Vista etxaldea ere Lasarenak ziren.

Bere emazte Maria Mercedes, 1821eko urriaren 20ean hiltzean, Sebastian Lasak hurrengo urteko otsailearen 13an testamentua egin zuen Jose Salinasen aurrean, ondasunok euron seme-alaben alde partituz. Azalduriko ondasun guztiok esleitzean, 40.000 pesotako balioa ezarri zien Sebastianek, baina gerora 20.000 pesotara jaitsi zuen balio hura. Ondorioz, alaba Manuela Antonia defuntuaren alargun eta suhi Domingo Arozamenak, inbentarioen osaketa eta kontu liburuaren aurkezpena eskatu zuen, beherapena justifika zedin.

Habana Zaharreko Aguakate kaleko, 38. zenbakian bizi izan zen. Bere heriotza, Izpiritu Santuko parrokian dago izena emanik.

## Iturriak

G.E.A.H. Bataioak: 5. lib. 181a or.

K.A.N. Sustapen Junta: 161 lib. 168-168a orr. Salinasen Eskribautza: 177/2456 leg. zka.

### 4.40. LIZUNDIA ODRIA DE ETXEBERRIA, Domingo

Elgoibarren (Gipuzkoa) jaio zen, 1717ko azaroaren 26an. La Habanan hilko da, 1785eko ekainaren 10ean.

Aitaren aldetiko aitona Antonio Lizundia Matxinbarrena, Elgoibarren jaio zen, 1653ko irailaren 9an. Amona Frantziska Antzola Elortza, hiribildu hartan jaio, eta Domingo Antzola Garate eta Maria Elortza Zeziagaren alaba zen.

Aita Domingo Lizundia Antzola, Elgoibarko San Bartolomeko parrokian, 1684ko maiatzaren 5ean bataiatu zuten. Ama, Antonia Odría de Etxeberria Etxeberriagoiena izan zuen. Antonio eta Domingo Lizundia Odría de Etxeberria seme-ak eduki zituzten. Domingo, San Bartolomeko parrokian bataiatu zuten, Domingo Egia eta Maria Muguruza aitabitxiak zirela.

Lau bider ezkondu zen. Lehenbizi, La Habanako Izpiritu Santuko parrokian, 1742ko apirilaren 9an, Josefa Padura Eligio de la Puente, Andres eta Maria Tere-saren alabarekin. Maria Dolores, Antonia, Maria Kontzezio eta Jose Migel Lizundia Padura seme-alabak eduki zituzten.

Bigarren aldiz, La Habanako katedralean, 1756ko urtarrilaren 20an, Luziana Calvo de la Puerta Arangorekin. Emaztea, Sebastian Calvo de la Puerta Gatika, udaleko betiko errejidore eta aguazil nagusiaren eta Maria Ambrosia Arango Loza anderearen alaba zen. Hirugarrenegoz ere katedralean 1762ko ekainaren 6an, Maria Isabel San Martin Arango anderearekin. Jose Tomas eta Dionisiaren alaba zen. Eta laugarrenegoz, katedralean berriro, 1768ko urriaren 24an, hirugarren emaztearen ahizpa Manuelarekin.

Seme Jose Migel Lizundiari, La Habanako udaleko 1795eko urriaren 30eko batzar arruntean, gobernari eta kapitain nagusiak azken irailaren 11 eta 12an hornituriko bi autoren berri jakinaraziko dizkio. Lehenaren arabera, ekainaren 21ean Aranjuezen emaniko erret zedulaz, Gaztelako Real Agradoko II. markesaren titulua eskaintzen zitzaion. Eta bigarrenaz, hiriko betiko errejidorea izendatzen zuen gobernariak.

Alaba Maria Kontzezio Lizundia, La Habanako katedralean ezkondu zen, 1786ko abenduaren 20an, Aiako (Gipuzkoa) Inazio Loinatz Torresekin. Senarra, Kubako uharteko Tabako Erret Faktoriako diruzaina zen. Real Agradoko III. markesaren titulua jaso zuen.

1753ko abenduaren 8ko salaketa izengabekoaren arabera, Verakruz, Portobelo eta Kanariar Uhartetatik itzultzen ziren enbarkazioak, kontrabandoko arropa

eta gainerako generoa sartzan zutela jakin zen. Koloniako funtzionario hauek izendatu zituen batik bat: Jose Cipriano de la Luz, Manuel Gartzia Barreras, Juan Jose Justitz –La Habanako Merkataritza Konpainiako arropetako behin-behineko administratzailea-, Jose de la Guardia eta Domingo Lizundia -bi hauek, Diego Marrero, konpainiako eta tabako faktoriako behin-behineko administratzailearen konfiantzazkoak.

Bost urte geroagoko, urtarrilaren 1eko La Habanako udaleko hauteskunde batzarrean, Domingo Lizundia sindiko prokuradore orokorra hautatu zuten. Apirilaren 28ko udalbatzarrean, Señor de la Salud deituriko auzuneko haragi gabeziaren premia larria azaldu zuen. Aguazil nagusiak, auzune hura hiltegi batez betiko hornitzea eskatu zuen, auzolagunek behar beste haragi edukitzeko. 1764ko urtarrilaren 1ean, alkate arrunta hautatuko zuten hamar botoz.

Mozio bi aurkeztu zituen, La Habanako udaleko 1766ko apirilaren 11ko batzarrera. Bata, aurreko urteko maiatzaren 3an Aranjuezen emaniko erret despatxuz, hiriko betiko errejidore izendatzen. Bestea, San Yldefonso emaniko urte bereko abuztuaren 20koa, Rio Hondo-ko bizkonde eta Real Agradoko markes nomenklaturetako Gaztelako tituluekin lagunduz.

Titulu bi hauek, 1762an ingelesek La Habana hartu zuten sasoiko, Domingo Lizundiaren merituak ziren. Uharteko orduko gobernari eta kapitain nagusi Riklako kondeak, zera azaldu zion erregeri.

Leku hura ingeselei entregatu zitzaizenean, hango tabako guztia ere haien eskutan geratu zen. Errenditu zirenean, Domingo Lizundia Tabako Erret Errentetako diruzainak, bere ondasuntzetatik 121.000 tabako-libra baino gehiago erreskatatu zuen ingeleseen eskuetatik. Gainera Lizundiak, inbasioa eman zen garaian, bere interesak, eta burua ere, arriskuan jarri zituela.

Okupazio urteko ekainaren 6tik abuztuaren 14ra bitarteko aldian, 24.000 pesotako ondasuntza atera zuen hiriaz landa, ingeleseen eskuetatik libratzeko.

Domingo Lizundia Real Agradoko markesak, lur mesedetuak kontrolatzeko proposamena aurkeztu zuen, udaleko 1744ko ekainaren 10eko batzarrera. 1550tik gaurdainoko aldian, hainbat lur mesedetu entregatu zirela, baina hiriko propioak deituriko kontribuzio alorrean pentsio txiki bat ordaintzearen truke. Denboraren poderioz eta horren ardurako maiordomoen itxikeriaz, lurrok ez zirela kargutako liburuetan agertzen, azaldu zuen. Beraz, Ramon Antonio Romo ofizial argia mandatzea proposatu zuen, udaleko protokoloetako antzinako letra irakurri eta ondasundunen zein lur mesedetuen zerrenda egiteko, horretara propioetako diru sarrerak berreskuratzea lortuko zelako.

Rio Blanco eremuko, San Agustin de Campo Santo azukre-olaren ugazaba zen. La Habanako portutik 44 kilometrora zegoen; honek, Tomasa Basabe, Martin Arostegiren alarguntsaren kakaodiarekin egiten zuen muga. Baita Pedro Castilla eta Antonio Sayas Bazan-en azukre-olarekin ere. 1783ko urtera, honen lantalurra 59 kaballeriakoa (793,55 ha.) zen. 49 esklabo, zuri bat eta beste liberto bateko populazioa zeukan azukre-olak.

Azukre-ola hipotekatu egin behar izan zuten, Tabako Erret Faktoriako edukitzailer, suhi Inazio Loinatz defuntuaren administrazio txarrak, haziendari laga zion 108.000 peso baino gehiagoko zorra ordaintzeko. Bakuranao-ko barrutiak ekoizten zuten tabako hautsaz ordaindu zuten Lizundiak zorra. Testamentuan, ardura hau alaba Maria Kontzezioni laga zion, Loinatz defuntuaren alarguntsa izateagatik.

Testamentua, Frantzisko Xabier Rodriguezen aurrean egin zuten, 1785eko apirilaren 6an. Bere ondasuntzen likidazioa egin ostean, eta bi alaba erlijiosek eginiko errenuntziaren arabera, hauen legitimak ateratzea agindu zuten. Bostenaren gerakinaz, 100.000 pesotako fondoa sortzea erabaki zuten.

Kaunabako etxaldearen eta Monier de Oro lekuaren bi herenak alaba Maria Loreto Lizundiari laga zizkion. Emazte Manuela San Martini, 25.000 mila peso eta 500 urteko agindu zizkion. Elgoibarko San Bartolome parrokiako Frantzisko Xabier Baltzola abade jaunari, 4.150 peso sendo edo 83.000 beiloiko erreal. Hau, Maria Jesus Lizundia arreba defuntuaren hiru alaben dotea handitzeko izan zen.

San Frantzisko plazako beheko eta goiko etxeak kontsignatu egin zituen. Baita euren ondokoak eta kartzela zaharreko orubea ere. Hauen alde bateko muga, Marreroren etxearena zen, eta bestekoa, Frantzisko Basaberena. Inoiz, emazte Manuela San Martin hiltzean, etxeak eta orubeak enbor berera itzularaztea agindu zuten.

#### **Iturriak**

D.G.A.H. Bataioak: 6. lib. 147. or.

K.A.N. Ortégaren Eskribautza: 1785. urte, 183-188 orr.

L.H.A.H. Udal Agiriak: 31 lib. 1-3a, 41-41a orr.; 35 lib. 308-319 orr.; 39 lib. 158-158a orr.; 54 lib. 176a-177, 184-187 orr.

#### **4.41. LOINATZ TORRES, Inazio**

Aian (Gipuzkoa) jaio zen 1733ko urriaren 29ean. La Habanan hilko da 1799ko martxoaren 4an.

Aita, Juan Batista Loinatz Gorostarratzu, Tolosako Andre Mariko parrokiaren bataiatu zuten, 1702ko ekainaren 6an. Aian ezkondu zen, 1730eko abuztuaren 20an, Maria Teresa Torres Olazabal anderearekin.

Seme Inazio, Agirreburun jaio zitzairen, eta San Estebaneko parrokiaren bataiatu zuten, Inazio Arrillaga eta Maria Azentzia Etxebeste aitabitxiak zirela. Aita Juan Batista, Aian bertan hil zitzaion, 1785eko martxoaren 23an. Lorentzo, Maria Kruz eta Inazio Loinatz Torres seme-alabak eduki zituzten

Inazio Loinatz, La Habanako katedralean ezkondu zen, 1768ko abenduaren 20an, Maria Kontzezio Lizundia Padura anderearekin. Ezkontzarako, 15.000

pesotako kapitala batu zuen. Emazteak, Real Agradoko III. markesautza eta hiriko udaleko betiko errejidore tituluak jaso zituen. Domingo Lizundia, Real Agradoko I. markesaren eta Josefa Padura Eligio anderearen alaba zen. Josefa, Maria Jesus, Inazio eta Frantzisko Loinatz Lizundia seme-alabak eduki zituzten.

Kubako Tabako Erret Faktoriako diruzaina izan zen. Aitagarreba Domingo Lizundiak testamentuan aitortu zuenez, suhi Inazio Loinatzen administrazio txarren ondorioz ondasunek zorpeko itzala agertu zuten. Rikla eta Kuba kaleetara bazter egiten zuten beheko eta goiko etxeek, ondoko behekoa, kale haien bazterreko beste bat, bere etxebizitzako aurrez aurrekoa eta Rikla kalekoa, huraxenak ziren guztiak.

Moxaltoki baten erdiaren ugazaba zen, eta San Antonio de los Bañosen zegoen palmazko etxe batena ere. San Nikolas Tolentinoko azukre-olako eraikiak honen ondasunen artean zeuden garai batean. Baina gero, Kristobal Perez Bolcan-en jabegora pasatu ziren, Nicolas Gavilan-en oinordetzaz 7.000 peso eta akatsean izan zen tasaturik.

Testamentua, 1779ko otsailaren 12an egin zuen, Frantzisko Xabier Rodriguezen aurrean. Orduan, zor arlo izugarria agertuko zaie Inazio Loinatz Torresen oinordekoei. Domingo Lizundia Real Agradoko markes eta aitagarrebari, zehaztugabeko zorra aitortu zion bi aldiz. Lukas Miñan Carrera-ri 7.000 peso sendo, baina hau Santiago de Kuban hiltzean, ez zion sekula ordaindu. Tabako Erret Faktoriak, 1.761 peso erreklamatzeko zion. Berarekin kontuak zurrizteko zituzten Madril, Cádiz eta Kubako 14 sujeturen zerrenda azaldu zuen.

Albazeak eta ondasun edukitzaileak, emazte Maria Kontzezio, aitagarreba Domingo Lizundia Real Agradoko markesa, koinatu Jose Lizundia eta Martin Xabier Etxeberria, erregeren kontseilukoa eta erret faktoriako administratzaile izendatu zituen. Dulce Maria Loynaz idazle kubatar ospetsua, honen oinetxekoa da.

## Iturriak

D.G.A.H. Bataioak: 4. lib. 291a or.

K.A.N. Ortegaren Eskribautza: 1779 urte, 117 zka. 66-75 orr.

### 4.42. MUNIBE OKINA, Andres

Etxebarrian (Bizkaia) jaio zen, 1627ko azaroko zehaztu gabeko egun batez. San Andres Apostoluaren elizan bataiatu zuten. La Habanan hilko da, 1701eko urtarrilaren 21ean.

Aita, Markinako Pedro Munibe, Gaztelako Erret Kontseilukoa eta Santiago ordenakoa izan zuen. Ama, Maria Ortiz Okina.

Bi aldiz ezkondu zen. Lehendabizi, 1659ko irailaren 10ean, Maria Pedroso Farias anderearekin. Emaztea, Pablo Pedroso Ayllon kapitaina eta La Habanako

Inkisioko Ofizio Santuko aguazil nagusiaren eta Meltxora Fernandez-Farias Lemus anderearen alaba zen. Ezkontza honetan, Juan Munibe Pedroso semea izango zuen.

Bigarrenkoz, 1668ko apirilaren 23an, hiriko katedralean ezkondu zen Jazinta Ruiz-Guillen Loza anderearekin. Jose Ruiz-Guillen Perez, betiko errejidore eta ermandade santuko alkate nagusiaren eta Teodora Loza Romero anderearen alaba zen. Maria, Teresa eta Gregoria Munibe Ruiz-Guillen alabak eduki zituzten.

La Habanako udalbatza, 1685eko uztailaren 3an bildu zen. Manuel Murgia Mena hiriko gobernari eta auditorearen autoa irakurri zuen idazkari jaunak. Urteko urtarrilaren 19ko, erret zedularen arabera, Jose Fernandez de Cordoba, Calatravako ordenako zalduna eta Lombardia-ko (Italia) Erregeren Kontseilu Sekretuko gobernari defuntua, Murgia jeneralordeak berak ondozkatuko zuen gobernu politikoan, eta Andres Munibe zalduneriako kapitain eta Morroko gazteluko gaztelauak militarrean.

Fernandez de Cordobaren hiletetan, Kristobal Rivera eliza barrutiko hornitzaileak, katedraleko presidentziako lekua kenduko zien Manuel Murgia gobernariari eta Andres Munibe gaztelauari.

La Habanak asaltu mehatxuak pairatzen zituelako, gobernari politiko eta militar berriek 200 soldaduko laguntza, munizioak eta baliabideak eskatu zituzten Espainiara. Goarnizioak izaniko bajak ordezea, uharteko jendea armatzea eta beteranoei zor zitzaizkien atzerapen handiak ordaintzea zen helburua.

Lorenzo Graff holandarrak La Habana hartzeko zuen asmoa zabaldu zen. Ubi-de bazterretako behin-behineko itxiak eta luebakiak berrindartu zituen, lanak uztaileko amaituz. 1687ko otsailean, Munibe gaztelauak gerrako piragua berri bat prestatu zuen, uharteko kosten defentsa berrindartzeko. Blas Migel Corso marinoa jarri zuen piraguaren kargu. Baina, Muniberen aginduei jaramonik egin gabe, Dominikana uharteko Petit Goave-ra zuzendu zen, Graff bere gordelekuan harrapatzeko asmoaz.

Baliabide eskasiak derrigortu zuen hurrengo, Andres Munibe diziplina militarri loturiko neurri kaltegarriak hartzera. Esaterako, zerbituz libre zegoen soldadutzari, gauaz gotorlekuetatik kanpo lo egiteko baimena eman zion. Kutxetatik hornitu ezin zitzaiena, kaleko industrian eta obra publikoetan bilatzera bultzatu zuen indar guzti hori.

1686ko otsailaren 4an, La Habanako udalak buruturiko bileran, Frantzisko Guerra de la Vega prokuradoreak aurkeztu zuen eskabidea irakurri zen. Bertan, gerrako piragua mantentzeko biltzen zen ganaduko erret zerga kentzeko eskatzen zuen. Kortsua egiteko arauak ezartzen zituen, 1682ko otsailaren 6ko erret zedula kontutan harturik, erregek berak eskaitzen zituela kortsoko enbarkazioak hornitzeko jendea eta munizioak azalduz.

Gerrako piragua mantentzeko ardura hiriari leporatzen zion zedulak. Baina horretarako sorturiko ganadu-zergaren bilketa txarragatik, honek molokot egin

zuen. Beraz, Andres Munibe gaztelauari aipatu gerrako piragua hornitzeko jendea eta munizioak, eskatzea proposatu zuen. Udalak, Guerra de la Vega prokuradoreari amore ematea erabaki zuen.

La Habanako lekuko oinezkotzako konpainiek izugarritzko ekonomi krisia jasaten zuten aspaldidanik. Horrela, Andres Munibe gaztelauak arazoari irtenbidea eskaintzeko proposamena aurkeztu zuen ekainaren 2ko udalbatzarrera. Aurreko urteko soldatak, bost konpainia zaharrentzat baino ez zirela izan aitortuko du, gainerako bi berriak kobroz kanpo geratu zirelarik. Gainera, zaldizkoen horniketa zein Chorrera eta Cojimar-eko dorreetako maisuen soldatak ez zirela bidali.

Aurreko gobernari Jose Fernandez de Cordobak, zatitu egin zuela delako ordainketa, konpainia berriei ere ordainduz. Baina, bitarteko bi urte horietan, eskaini zitzaizkien laguntzak medio, tropak esku hutsik eta sakabanaturik bizi zirela. Udalak, lehenago ere erret kutxei dirua zorrean laga izaniko, pertsonen eta zenbatekoen zerrenda egitea agindu zuen ogasuntzak batzeko.

Diego Vianak ondozkatuko zion Morroko gaztelau karguan 1687ko urtean. Gaztelau berriak ahalegin handiak egin zituen, Andres Muniberen mandatu ostean itxiriko desordena zuzentzeko.

1698ko irailaren 12an testamentua egin zuen, Juan Oribe Ozetaren aurrean. Bere heriotza La Habanako katedralean dago izena emanik.

#### **Iturriak**

B.E.H.A. Bataioak: Kode-Erreferentzia: ES/AHEB-BEHA/F006.168 (1960/004-01).

L.H.A.H. Udal Agiriak: 16 lib. 59-60, 113-114, 115-116, 125a-127 orr.

#### **4.43. OTXOA DE ORBEA SANZ DE OTAOLA, Pedro**

Eibarren (Gipuzkoa) jaio bide zen. La Habanan hilko da, 1632ko ekainaren 3an.

Aita, Eibarko Domingo Otxoa de Orbea Urkizu, hiribildu horretako alkate arrunta hautatu zuten 1580an, estatu noblearen aldetik. Soraku haraneko Orbea leinu-etxeko ondorengoa zen, eta San Migel Aginagako elizaren aurrean dago etxea.

Eibarren bertan ezkondu zen, Maria Sanz de Otaola Altamira, Andres eta Mariaren alabarekin. Emaztea, Otaolako leinu-etxekoa zen. Juan, Andres eta Pedro Otxoa de Orbea Sanz de Otaola semeak edukiko zituzten.

Pedro Otxoa de Orbea La Habanara pasatu zenean, Erret Haziendako kontularia izan zen, 1596ko urtean. Hiriko katedralean ezkondu zen, 1606ko abuztuaren 21ean Isabel Ramirez andrearekin. Semeak, Meltxor eta Juan Otxoa de Orbea Ramirez eduki zituzten.

Hiriko eskribau Juan Batista Gilizagastiren aurrean, lehengusu Andres Pagoagari, bere izeneko nobleziako informazioa egiteko ahalmena eman zion, 1615eko abuztuaren 7an. Hura, Eibarren burutu zen 1616ko martxoaren 21ean. Horniketa, Azentzio Egiguren kontulari eta alkate arruntak egin zuen.

1620ko irailaren 23an, La Habanako udalbatzak hiriko errentetako maiordomo aukeratu zuen, Tomas Torresen orde. Lehenago ere, hark kontu asko erabali izan zuelako, trebetasuna eta gaitasuna nabari zitzaizkiola, Pedro Otxoaren alde argudiatuz. Hurrengoko bi urtetako urtarrilaren 1eko batzarretan, ostera hautatuko dute maiordomo kargurako, urteko 50 dukateko soldata ordainduz.

Azken abenduaren 30eko udaleko bileran, Otxoa de Orbearen eskabide ezberdinak irakurri ziren. Lehen, udaletxeetako pasabideak konpontzeko obretan 1.864 erreal eta erdi gastatu zuelako, kontuak argitzeko. Bigarrena, urteko Korpus Kristiko jaietan gastatu ziren 2.361 erreal ordaintzeko. Hirugarrena, udaletxeetako hormak jaustean, berriro fabrikatu eta gotortu egin zirela udalaren aginduz, 1.513 erreal gastatuz guztira. Errentetako maiordomo hautatu zuen La Habanako udalbatzak, 1623ko urtarrilaren 1eko bileran. Baita hurrengoko urtarrilaren 1ekoan ere.

1625eko urtarrilaren 17ko udalbatzak, Juan Garcia Gonzalez maiordomo berria hautatzean, Pedro Otxoari kontuak hartzea erabaki zuen. Nikolas Carreño errejidorea izendatu zuen udalak Juan Garcinari laguntzeko. Martxoaren 13ko batzarrean, Pedrok 596 erreal eskatu zuen beretzako, hartu zioten errentetako kontuen ondorena zelako.

Frantzisko Garcinari emango zion testamentua egiteko ahalmena. Bere heriotza La Habanako katedralean dago izena emanik.

Otxoa de Orbea kontulariaren eskariz eginiko ordainketa guztien zerrenda burutu zuen udalak. 1634ko irailaren 9ko batzarrean, Juan Garcia Gonzalezek propietako kontuen lana 100 pesotan tasatu zuen. Orduan, Pedro defuntuaren Isabel Ramirez alarguntsari, aipatu zenbatekoa ordaintzea erabaki zuen udalak.

## Iturriak

L.H.A.H. Udal Agiriak: 7 lib. 176a, 196-197a, 250, 295-295a, 297-297a, 346 orr.; 8 lib. 89a-90, 102 orr.; 9 lib. 278a or.; 48 lib. 407 or.

### 4.44. PORTILLO PORTILLO, Manuel

Karrantza Haraneko (Bizkaia) Soscañoko kontzejuan jaio zen, 1736ko azaroaren 25ean. Matanzasen hilko da 1818ko maiatzaren 16an.

Aitonak, Antonio Portillo eta Teresa Trevilla izan zituen aitaren aldetik; Jose Portillo eta Maria Martinez de Concha, amarenetik. Aita, Antonio Portillo Trevilla izan zuen. Ama, Maria Portillo Martinez de Concha, Karrantzako Jose eta Maria-



ren alaba zena. Manuel, Soscañoko Andre Mariko parrokian bataiatu zuten, Agustin Trevilla eta Manuela Portillo aitabitxiak zituela.

La Habanako Izpiritu Santuko parrokian ezkondu zen, 1764ko apirilaren 18an, Mariana Acosta Serrano anderearekin. Emaztea, Orotava-ko (Tenerife) Erret Armadako ontzi lotinantaren eta Juana Serrano Castillo Garcia anderearen alaba zen. Matanzasen hil zen ere, 1812ko abenduaren 1ean. Rita Josefa, Prota Jazinta, Ana Gregoria, Agustin eta Manuel Kasimiro Portillo Acosta seme-alabak eduki zituzten.

Manuel Portillo, Erret Errenten biltzaile karguaz iritsi zen La Habanara. Ondoren, Matanzaseko tabako faktorea izendatu zuten (1765-1800). Inazio Alvarezek ondozkatuko zuen karguan.

Nueva Factoria estanku estatala 1761ean sortu zenean, tabakolarien egoera larria lehen bezala gelditu zen. Baita lau urte beranduago ere, Manuel Portilloren ardurapean hirian fundatu zuten dependentziaren arauak antzerakoak zirelako.

Faktoria itzalezko zorretan zegoela, 1768ko ekainaren hasieran iritsi ziren zorioneko ondasuntzak, estankuak zor guztiak ordaintzea erabaki zuelarik. Harrezkoden hauen artean, Sancti Spirituseko faktorea ere bazen Portillori 8.577 pesoko zorra kitatuko ziona.

Bere seme Manuel Kasimirok, tabako hauts ospetsua fabrikatzen zuen. Matanzaseko Los Molinos errotaren ugazaba egin zen. Lehenago, Manuel eta Juan Justitz Umpierrezen anaiena izan zena.

## Iturriak

B.E.H.A. Bataioak: ES/AHEB-BEHA/F006.143(1732/003-01).

### **4.45. SAENZ DE LA GUARDIA ESPINOSA, Jose Frantzisko**

Moredan (Araba) jaio zen 1705eko otsailaren 22an.

Aitaren aldetiko aitonak, Moredako Domingo eta Meltxora Saenz de la Guardia izan zituen; eta amarenenak, Logroñoeko Santo Domingo de la Calzadako Andres Espinosa eta Rosales-eko (Sevilla) Maria Kasilda Ordoño Medina.

Aita, Pedro Antonio Saenz de la Guardia izan zuen. Moredako alkate arrunta izan zen 1737-38, 1741-42 urteetan, estatu nobleetik. Santo Domingo de la Calzadan (Logroño) jaioriko Maria Josefa Espinosa Aras anderearekin ezkondu zen. Jose Frantzisko Andre Mariko elizan bataiatu zuten, aitabitxiak Jose Argandoña eta Maria Meltxora Saenz de la Guardia izan zituela. Gainera, Pedro Manuel eta Karlos Jose Saenz de la Guardia semeak eduki zituzten.

Jose Frantzisko Madrileko Inkisizioko Ofizio Santuko aguazil nagusia eta La Habanako Merkataritzako Erret Konpainiako administratzaile orokorra izan zen.

Pedro Manuel, Napoles eta Sizilietako erregeren zerbitzuean, Palermoko errejimentuko konpainia bateko kapitain komandantea eta Mezinako faroko gobernaria izan zen. Karlos Jose, Mexikon zegoen enplegatutik.

Pedro Garaikoetxea kortsarioak, Trial deituriko pakebote iparramerikarra atzeman zuen bere fragata La Galga-z, 1745eko urtarrilaren 2an Matanzas eta La Habana bitartean. Enbarkazioko genero guztiak enkantean saldu zituen, maiatzaren 5eko posturarik hobereanean. Jose de la Guardia merkatariak, 30.230 pesoko tasazioari, %72ren hobekuntza gaineratu zion, 51.996 peso eskainiz.

Frantzisko Cagigal de la Vega uharteko gobernari eta kapitain nagusiak, Martin Arostegi Larrea Merkataritzako Erret Konpainiako lehendakari eta zuzendari kargutik, 1752ean kendu zuenean, Diego Marrero eta Jose de la Guardia jarri zituen, besteak beste konpainiako zuzendaritzan.

1753ko abenduaren 8ko salaketa izengabedunaren arabera, arropa eta gainerako gaien kontrabandoan nahastu zuten Jose de la Guardia. Portobelo, Caracas eta Kanariar Uhartetatik itzultzen ziren ontzietako produktu asko, erreterian aitortu gabe sartzen zutelako La Habanako portuan. Koloniako hainbat funtzionario agertu ziren salaketako zerrandan. Jose Cipriano de la Luz, Manuel Gartzia Barreras, Juan Jose Justitz konpainiako arropetako behin-behineko administratzailea, Jose de la Guardia eta Domingo Lizundia. Azken bi hauek gainera, Diego Marrero konpainiako eta tabako faktoriako behin-behineko administratzailearen konfidenteak omen ziren. De la Guardia, 1759ko azukre ekoizleen eroldan agertzen da azukre-ola batez.

1761. urtean, tabako kontratua amaitze sasoiko erret konpainiako soldatak 36.046 pesotara iristen ziren. Gobernariaren 4.000, Diego Marrero presidentearen 6.000 eta Jose de la Guardia, arropetako adarreko zuzendariaren gainerako 4.000 kontutan harturik. Urte honetan, soldaten berregokitzea planteatu zuen konpainiako Madrileko juntak, gobernariaren soldata kendu, eta Marrero zein De Laguardiarenak 3.000ra jaitsiz.

Zuzendari bi hauek, konpainiako juntako presidenteari eta bokalei kutxako ondasuntzei buruzko urriaren 29ko datako karta zuzendu zieten; La Habanako 2.098.749 pesotako ondorena besterik ezin zutela bidali adieraziz. Bitartean, Juan Prado Portocarrero zelai mariskalak Cagigal de la Vega gobernaria ondozkatu zuen, Diego Marrero eta Jose de la Guardiaren kontra saiatuz. Geroago, gobernari berriaren proposamenez, Madrileko juntak konpainiako zuzendaritza aldatu zuen, Jose Bertizberrea eta Martin Aranburu haien ordez, 1762ko otsailean izendaturik.

Jose de la Guardiak, Jagua badiako ondoan zeukan Ciego de Juragua-ko aziendan hiri berri bat fundatzeko proiektua aurkeztu zuen. Honen asmoa, Floridatik edo beste edozein lekutatik ekarritako hogeita hamar familia hantxe kokatzea zen. Hark, hiria fundatzeko 6 kaballeria (80,7 ha.) lur, egurra eta ohola egiteko oihanak eta ganaduak bazkatzeko landak eskaini zizkion erregeri. Populazio

berriari, San Jose de Jagua deituko zitzaion, eta Jaguako konde titulua jasoko zuen truke.

1765eko urriaren 18ko La Habanako udalbatzak, maiatzaren 13ko erret zedularen azterketa egin zuen. Honen arabera, Juragua deituriko bere azientan, hiri berria fundatzeko Jose de la Guardiaren eskabidea Indietako Kontseiluan aztertu zela, jakinarazten zitzaion udalari. Fiskalak emaniko iritzia kontutan harturik, aipatu De Laguardiak proiektatu zuen hiriaren komenentziaz, txostena ere eskatzen zion zedulak udalari.

Migel Altarriba intendenteak honako jaurerriak baimentzen ziren bakoitzetako gehiegikeriak eta merkataritza ezilegiaren arriskuak oharrazi zituen. Pedro Jose Calvo de la Puerta errejidoreak, bere ezetza azaldu zion proiektuari, honako kasuetan suertatzen ziren aurrerapen gutxiak lekuko.

Proiektua, azaroaren 6an bidali zitzaion erregeri. Indietako Kontseiluak ezeztaren alde joko zuen, Jaguako badiara sartzeko zailtasunez zortzi pilotu espainiarrek 1670eko azaroaren 21eko dataz gaizki informatu zutelako. Jose Anastasio Menocal, Ciego de Juaraguako azientaren ugazaba berriak, Santo Domingoko familia batzuekin hiria fundatzeko antzerako proiektua landu zuen, 1814ko urtean.

Ingelesek 1762. urtean La Habana hartu zutenean, Jose de la Guardiak 150.000 peso entregatu zuen haiengandik askatzeko, baina ondasun guztiak salbatu zituen. Diego Marrerok, oster, 200.000 pesotako erreskatea ordaindu zuen urre eta zilarretan. Gainera, hainbat zilar txanpondu lurperatu zuen etxeko sotoan, hil ostean De Laguardia albazeak administratzeko.

Madrileko Merkataritza Erret Konpainiak, Martin Alegria eta Bernardo Goikoa administratzaile berri biak jarri zituen La Habanako konpainian, 1763ko urtean. Hauen gobernu, gorteko junta partikularren gustukoa izan zen, nahiz Alegriak laster lagako zuen kargua Verakuzera erregeren zerbitzuko aldatu zenean. Honen ordez, Jose de la Guardia konpainiako akzioduna jarri zuten berriro.

1766ko otsailaren 27ko udaleko batzarrean, Jose de la Guardia Inkisizioko Ofizio Santuko aguazil nagusiak, Rikla kaleko orube baten ugazaba izanik, ubidetik iturria hartzeko memoriale aurkeztu zuen. Bere orubeko lurrek ura oso hondotan zeukatelako, putzu bat eraikitzeke eskatzen zuela baimena azalduz. Hiriko errentetako onurarako 652 peso lagako zuela; baina, urte bi lehenago kaleak konpontzeko sindiko prokuradore orokorra izan zenez, udalak zor zion 764 pesotatik kentzekotan.

Batza honetan, Jose de la Guardiak kale konponketen jomal eta gainerako gastuen zerrenda aurkeztu zuen. Harrobietatik harkoskorak atera, orgatila zein gurdietan ekarri, eta kaleetan zabaltzeko ordaindu zituen peoienak hain zuzen. Aldi berean, lurrezko ateaz landa zaborrak erre, belarra ebaki, hormak bota, xoborrak kendu eta harkoskorak zabaldu zelaia leuntzeko. Plazatik Santo Domin-

gorako kalea pikatu eta lurra zabaldu. Galtzadako zuloak, putzuak eta uhaskak estali. Zerrenda irakurri ondoren, udalak eskerrak eman, 652 peso ordaindu, eta ura orubean sartzeko baimena agindu zizkion Jose de la Guardiari.

Konpainiako Madrileko junta partikularrak, 1772ko urtarrilaren 8ko, ekainaren 20ko eta azaroaren 19ko kartetan, uharteko azukre ekoizpenari dagokion, uztei eta kostoari buruzko informazioa eskatu zien Bernardo Goikoa eta Jose de la Guardia administratzailei. Hauek, azukre merkataritzarako iritzi baikorra azaldu zuten, Mekikoko añilak ere gomendatuz.

1774ko azaroaren 25eko eta abenduaren 17ko udaleko batzarretara, Jose Frantzisko Saenz de la Guardiak, Inkisizioko aguazil nagusia eta Merkataritza Erret Konpainiako administratzaile orokorrak, nobleziako eta zaldunsemegoko beterezleak aurkeztu zituen. Hauen bitartez, betidaniko odoleko eta leinu-etxeko jatorria probatu zuen. Beterazleak onartzeko eta zaldunseme izaera haintzat hartzeko eskatu zizkion udalari.

Etxalde batzuk zeuzkan Matanzaseko eremuan, abastuak hornituz hiriko populazioari. Gainera, San Juan ibaiaren gaineko zubia eraikitzeko zatiketetan, 400 pesoz hartu zuen parte, 1796ko uztailaren 11an. Horren truke, udalak kaballeria batzuetako lur harritsua mesedetu zion, hiriaren inguruetan.

## Iturriak

G.E.H.A. Erreferentzi-Kodea: ES/AHDV-GEHA/F006.316 (M00506/002-05).

C.A.H.P. Udal Agiriak: 15 lib. 15-16 orr.

L.H.A.H. Udal Agiriak: 35 lib. 236, 238, 287a-294 orr.; 39 lib. 283a, 291-296 orr.

## 4.46. SOLA NANCLARES, Frantzisko

Arrasaten (Gipuzkoa) jaio zen 1812ko martxoaren 9an.

Abizen kataluniar hau, lehendabizi Aragoira pasatu zen, XVII. mendearen erdialdean. Gero, Nafarroa herrialdeko Olano haranera, eta handik Arrasateko hiribildura. Madalena zubiaren ondoko Sola jauregiko fundatzailea da.

Aitaren aldetiko aitona Kasimiro Sola Arrizabalaga, Arrasaten jaio zen 1752ko urtean. Ramona Loizaga anderearekin ezkondu zen; amarenekoak, Logroño-ko Brioneseko Eusebio Nanclares Boñuelos eta Baños de Rio Tobiako Maria Lopez de Markina Gartzia y Mendoza izan zituen.

Aita Jose Sola Loizaga, Gipuzkoako junta foraletako partaidea eta probintziako diputatu nagusia izan zen. Juntetan hitz egiteko zuen trebetasunagatik Urrezko Moko izenez ere ezagutzen zuten. Josefa Nanclares Markina anderearekin ezkonduko da. Hirugarren seme Frantzisko, San Juan Bataiatzaileko parrokiari bataiatu zuten Joakina Sola amabitxia zela.

Markos eta Jose Maria Sola Nanclares semeak ere eduki zituzten. Anaia Markos, abokatua eta Manilako Erret Entzuteagiko magistratua izan zen. Jose Maria, berriz, Sola jauregiko maiorazkoa.

Frantzisko Sola, Curazao (Venezuela) uharteko Maria Iradi Batable-rekin ezkonduko da. Josefa, Julia, Frantzisko, Fermin eta Leopoldo Sola Iradi seme-alabak eduki zituzten.

Espainia guztian abokaturen kolegioa sortzeko 1838ko maiatzaren 5eko erret ordena promulgatu zen. Hiru urte beranduagoko abuztuaren 26an, Pedro Basadona koronelorde eta gobernariaren lehendaritzapean, sorkuntzako batzarra burutuko da Cienfuegos hiribilduko udal aretoan. Frantzisko Sola lizentziaduna, Mariano Vargas entzuteagiko batzordetua, Manuel Robleda gobernuko aholkularia eta gainerako batzuek, hartuko zuten parte. 1866ko ekainaren 28an, hiriko diputazio abertzalea ezarri zuten, Frantzisko Sola eta 23 bazkide berri gehiagok.

Yaguaramas izeneko eremuan Cieneguita deituriko azukre-ola zeukan, F. Berraiartza bazkidearekin batera, 1846. urterako. 40 kaballeriako (538 ha.) luze-zabaleraz, lurrenezko indarrak eta tren jamaikarraz zerabilen. Azukre ekoizpenari buruzko estatistika batzuetan baina, bera izango zen ugazaba bakarra. Fruituak enbarkatzeko atrakalekua Damuji ibaiaren ertzean zegoen kokaturik, 5 miliako distantzira. 1859-60 biurtean, 2.200 azukre upel ekoiztuko zuen. 1877-78 aldiko presupostua hasteko garaian, 90 kaballeria (1.210 ha.) zeukan, 150 esklaboko dotazioa eta bosturteko 14.000 pesoko mailegu kitapena.

Ramon Labra brigadier eta gobernari ohiaren ontasun seinalagarriak ezagutarazteko, graziako botoa onartzeko mozioa aurkeztu zuen Frantzisko Sola errejidoreak. Horrela onartu zuen udalbatzak, 1848ko azaroaren 4ko batzarrean. Gainera, eskerroneko aproba antzean, udalkide guztiek enbarke tokira lagundu zioten Labra gobernari ohiari.

Nartziso Lopez jeneral ohiak, 600 tropako gizonekin uhartearen anexionatzeko bigarren tentaldia saiatu zuen, 1851eko abuztuaren 11tik 12ra bitartean, Jose de la Concha gobernari eta kapitain nagusia zela. Setio egoera aitortu zuen berehala gobernariak, eta Cienfuegos Hiriko Boluntarioren batailoia sortu zuten. Frantzisko Sola arrasatearra eta Agustin Goitisolo lekeitiarra, kapitain izendatu zituzten.

Urteko abenduaren 20ko udaleko batzarrean, Pantaleon Lopez gobernariordearen agintepean, auzoetako inspektoreak izendatu ziren. Frantzisko Sola, laugarren auzokoa izendatu zuten. 1859ko urtarrilaren 1eko batzarrean, gobernari nagusi zibilaren abenduko 22ko ofizioa irakurri zen, urterako alkateak izendatzeko hauteskundeak onartuz; Sola eta Tomas Terry alkateak hautatu zituztela. Urte bi geroago, udaleko erdiaren berriztapena egiteko, lehenekoa alkate, eta bigarrena lehen alkateorde izendatu zituen udalak. Hurrengokoan ere, errepikatuko egingo zuen alkate kargua.

Gero, batzordeak osatu zituzten. Frantzisko Solak, presupostuak, kontabilitatea eta esleipenak, portuko sanitatea, kartzelak, emanzipatuak eta zimarroak,

lau batzorde jaso zituen. 1864ko urtarrilaren 1eko batzarrean, hau alkate eta Agustin Goitisolo errejidore hautatu zituen udalak. Bi urte beranduagoko, hile eta egun bereko batzarrean, Domingo Leon, behin-behineko gobernariaren ardura-pean, Frantzisko Sola errejidore hautatu zuten oraingoan.

Lagunillas eta Jikotea ibaietatik urak hiribildura zuzentzeko ubidearen proiektua udalak onartu zuenean, gobernari nagusi zibilarri zuzendu zitzaion. Gobernariak, 1860ko abuztuaren 30ean bere onespena eskaini zien proiektuari eta aparteko presupostuari. Frantzisko Sola eta beste batzuk izendatu zituzten obra-batzordeko, uraren karutzea jaisteko iturri publikoak eraikitzeko asmoa orduantxe sortu zelarik.

Sustapeneko juntak deuseztu zirenean, hauek lagatzen zuten hutsunea betetzeko, udalak izendatu zituzten sustapen batzordeak sortu ziren. 1862ko irailaren 5eko ezohizko batzarrean, Frantzisko Sola alkatea, Sotero Eskartza eta Jose Lantz errejidoreak, batzordeko egin zituen udalak.

Jose de la Pezuela koronel gobernariordearen lehendakaritzapean, Cienfuegoseko udalak hurrengo urteko martxoaren 16ko ezohizko batzarra burutu zuen. Domingo Dulce Garai gobernari eta kapitain nagusiari harrera on bat egiteko deitu zuen batzarra gobernariordeak. Sola Nanclares eta Agustin Goitisolo auzotarrei, komitiban zetozen funtzionario batzuei euren etxeetan ostatu ematea eskatu zien udalak.

Ultramar-eko ministro Antonio Canovas del Castillork, Kuba eta Puerto Ricorako lege bereziak prestatzeko, 1865eko abenduaren 22ko erret dekretua promulgatu zuen. Honen arabera, udal bereizi batzuen hogeita bi mandatariko informazio junta bat zabalduko zuten Madrilen, aipatu legeon oinarriak eztaba-datzeko. Cienfuegosi juntakide bat hautatzea tokatu zitzaion.

Lehenbizi, hurrengo urteko otsailaren 5eko dataz, mandataria aukeratzeko kontribuzio-nagusidunen zerrenda argitaratu zuen udalak. Hogeita hamazortzi kontribuziodun eta hamahiru errejidoreko hauteslegoa bildu zen batzar aretoan, maiatzaren 25ean. Tomas Terry, erreformazaleen alde batekoak, 21 boto jaso zuen; Juan Andres Iznaga beste aldekoak, 18; eta Frantzisko Sola, hautagai konterbatzaileak, 10. Beraz, udalak Terry izendatu zuen mandatarari.

Solak, Cieneguita azukre-olaren kanaberako uztaketa burutzeko, Tomas Terry y Compañía sozietateari 16.000 urrezko pesotako mailegua eskatu zion, 1886. urtean. Azukre-ola Abreus izeneko udalerrian zegoen kokaturik, Alcalde Mayor aziendaren 102 kaballeriako (1.372 ha.) lurretan; Emilia Apeztegiaren, Laberinto azukre-olarekin ekialdetik muga eginez.

Mailegua, Cieneguitaren urteko zainketa, ereintza eta ekoizpena sustatzeko behar zuen Solak. Zatika jaso zituen ondasuntzak, eta urteko %12ko interesaz. Truke, 1886-87 uztaldiko azukre mota zakuak, Terryren sozietateari entregatu zizkion hiribilduko bere biltegietan; honek, produktua oro, plazako salneurrietan saltzeko eskubidea zuelarik.

Seme Fermin Sola Iradi, ugazaba eta Estatu Batuetako hiritarrak sinatu zuen mailegua aita Frantzisko eta anaia Leopoldoren ahalordetzaz. Azken hau, eskubide zibil eta kanonikoko lizentziaduna izan zen, bere titulua La Habanako udalak 1876ko martxoaren 10ean onartu ziola. Bartzelonan bizi zen.

## Iturriak

D.G.A.H. Bataioak: 13. lib. 2a or.

C.A.H.P. Udak Agiriak: 3. tomo, 50 or.; 5. tomo, 83 or.; 7. tomo, 1-2, 54-54a orr.; 8. tomo, 1-1a orr.; 9. tomo, 1-1a orr. Verdager-en Protokoloa: 1886 urtea, 1458-1467 orr.

### 4.47. UGARTE ZUBIATE, Domingo

Amurrioko (Araba) Baranbio kontzejuan jaio zen, 1717ko maiatzaren 21ean. La Habanan hilko da 1783ko ekainaren 4an.

Aita Mateo Ugarte Buruaga, eta ama Isabel Zubiate Garai izan zituen. Asuntziko parrokian bataiatu zuten. Seme bakarra izan zen.

Domingo Ugarte, La Habanako Santo Kristo parrokian ezkondu zen, 1753eko urtarrilaren 12an Maria Jesus Arostegi Basabe anderearekin. Emaztea, Martin Arostegi Larrea, La Habanako Merkataritza Erret Konpainiako lehendakariaren eta Tomasa Basabe Espellosaren alaba zen.

Ezkondu zenean, 60.000 peso batu zuen bere aldetik, eta 4.000ko ezkontsaria berriz, emazte Maria Jesusek. Mikaela, Josefa, Tomasa, Isabela, Mariana, Maria Genoveva, Tomas, Martin, Domingo, Jose Rafael, Inazio, Antonio eta Agustín Ugarte Arostegi seme-alabak eduki zituzten.

Ingelesak 1762. urtean La Habana hartu zutenean, Martin Arostegi aitagiarebaren Platano izeneko azukre-olan 16.000 pesotako ondasuntzak gorde zituen; gerora, ingelesengandik askatzeko erreskate gisa erabiliz. Merkataritza konpainiako akzioduna izan zen 13 akzioez.

La Habanako udalak, 1765eko otsailaren 15ean egin zuen batzar arruntera, Kartagena de Indiaseko (Kolonbia) Inkisizioko Epaitegiak bere alde emaniko aguazil nagusiaren titulua aurkeztu zuen Domingo Ugartek. Inkisizio Santuko haintzat hartzea eta aipatu enpleguak eskaintzen zizkion ohoreak gordetzea eskatu zituen. Frantzisko Cardenas koronelordearekin batera, alkate arrunta izateko hautatu zuen udalak, 1774ko urtarrilaren 1eko batzarrean.

Ciego, Centeno eta Guanitos aziendak, Santo Domingo eta San Bartolome zerritokiak eta azukrea fabrikatzeko ola biren ugazaba izan zen Domingo Ugarte aguazil nasugia. Azukre-ola bati, Nuestra Señora de Aranzazu, eta besteari San Migel izena jarriko die. 20 kaballeria (269 ha.) lurreko luze-zabala zeukan kakao

azienda ere berea izan zuen, zeinaren gaineko arboletako fruituak, esklaboak eta abereak, 15.000 pesotan tasatu baitzituen.

Bere emazte Maria Jesus Arostegik, Jose Bertizberea defuntuarekin izan zituen kontu batzuk medio, 17.000 pesotako printzipaleko partida agertu zitzaion ondasunen alde. Nahiz orain, printzipal hura Juan Batista Lantz albazearen eskuetan egon. Kantitate hau, haragiak kontratatzeko inbertitu zuen Lantzek, Domingo Ugarteri gerora 8.588 peso entregatzeko mozkin gisa. Antonio Duartek zeukan Arroyo Arenas izeneko aziendaren gaineko, bere aldeko 1.200 pesoko obligazioa azalduko zaio, urtero bi meza errezatzeko.

Testamentua Frantzisko Xabier Rodriguezen aurrean egin zuen, 1779ko maiatzaren 7an. Heriotzako izena, La Habanako katedralean dago emanik.

Seme Domingo Ugarte, hiriko Oinezkutzako errejimentuko kapitaina eta hiriko elkarte abertzaleko bazkide zenbakiduna izan zen. Seme Martin berriz, koronel graduatua, Kuba errejimentuko sarjento nagusia eta aipatu elkarteko bazkide sakabanatua Madrilan.

## Iturriak

G.E.H.A. Bataioak. Erreferentzi kodea: ES/AHDV/GEHA/F006.094 (00754/004-01).

K.A.N. Ortegaren Eskribautza: 1779 urte, 117 zka. 229-240a orr.

L.H.A.H. Udal Agiriak: 35 lib. 86-87 orr.; 39 lib. 1-2a orr.

## 4.48. URANGA, Fernando

Azpeitian (Gipuzkoa) jaio bide zen. Santiago de Kuban hilko da 1556ko urtean.

Salamancako San Bartolome kolegioan ikasi zuen. Baita bertako teologiako maisua eta katedraduna izan zen ere.

Fraide Diego Sarmiento, Kubako apezpikua 1547ko maiatzaren 30ean hiltzean, lau urte beranduago Fernando Uranga abadeak onartu zuen uharteko apezpikutegia. Garai hartan, Santo Domingoko artzapezpikutegiko menpean zegoen eliza barruti kubatarra.

Uranga doktorea, Kubako apezpikutegira iristean, kategorian bizi ziren milaka lagun batzuk, besterik ez zeukan uharteak. Hasiera-hasieratik, urtean lurrikarra batek suntsitu zuen Bayamoko eliza berreraiki beharko zuen; berdin bi urte beranduago, itsas-lapurrek erraustu zuten Barakoa-koaz ere; eta, Jacques Sores kortsario frantsesak La Habanako parrokia nagusiaren harrapaketaz burutu zueneko egoera konpondu.

Ontzidiko armadek, nazio ezberdinetako aldra izugarriaz hornitzen zuten uhartea. Euretariako asko lasaikeriatan zebilen gainera. Eredu txar horrek, bertako bizi-



lagunen bizitzan eta ohituretan eragin okerra zuen. Egoera hain zen muturrekoa, non ezen Fernando Uranga apezpikuak, 1551eko hastapenetan, katedrala eta bere egoitza Santiago de Kubatik La Habanara pasatzeko asmoa adierazi baitzuen.

1527ko urtean, aita santu Adriano VI.ak katedrala Barakoan gabe Santiago de Kuban eraikitzea agindu zuen. Oraingoan gainera, harrizko eta harlanduzko materialez altxatu zuten. Fernando Uranga Kubako hirugarren apezpikuari tokatuko zitzaion, hura inauguratzeko ohorea 1555ean. Baina, 80.000 pesotako erreskatea batu behar izan zuen, aipatu Sores kortsarioak, aurreko urtean hiriko harrapaketa egin zuen antzera, oraindik fabrikatzeko zegoen katedrala berriro suntsi ez zezan. Hiru nabetakoko katedral honek, XVII. mendeko lehen urteak arte iraun zuen.

Uranga apezpikuaren zelo erlijiosoak eta bere uste okerrekin, erregeri idazki luzeak idaztera bultzatu zuten, Florida konkistatzeko aholkatuz. Herrialde hura bere eliza barrutikoa izanik, Hernando Sotok 1538ko urtean egin zuen espedizioaz geroztik, bertako indioek abandonaturik begiratzen zutela, adierazi zion.

1556ko ekainaren 10ean, La Habanako hiribilduko Antonio beltza pregoilariak, Fernando Uranga apezpikuak Bayamotik aginduriko pregoia joko zuen. La Habanako San Kristobal parrokia, egun asko aurretik hutsik zeukala onura, baina bitartean inork ez zuela horren ardurarik hartzen.

Agustin Perez, Palentziako apaiza, aipatu onuraren arduraduna izateko, kualitate nahikoak zituelako izendatu zuen. Eliza kabildoko jaunei dei egingo zien, apaiz hau elizako onuradun onartzeko. Elizako apaiz eta kapeilauei obediencia agindu zien, eskomunio mehatxuz batera.

Fernando Uranga apezpikua Kuban hiliko lehena izan zen. Hilotza, hark kon-sagratu izaniko Santiago de Kubako katedralean lurperatu zuten. Orduantxe galdu zuen hiriak, uharteko kapitala izateko pribilegioa. Hiru urte geroago, Bernardo Villalpando doktoreak ondozkatu zuen karguan.

## Iturriak

L.H.A.H. Udal Agiriak: 1 lib. 124a-126 orr.

### 4.49. URRITZA OLASO, Juan Inazio

Nafarroan jaio bide zen. Madrilen hilko da 1790. urtean.

Leinu honen jatorrizko oinetxea Iruñeko epai eremuko, Imotz udaleko, Urritza herrian kokatu zen lehenbizi.

Aita Jose Norberto Urritza eta ama Ana Maria Olaso izan zituen. Doneztebe-ko (Nafarroa) biztanleak zirela, Urritzena etxeetako oinordeak eta jatorrizkoak iza-

tea probatu zuten 1775. urtean, Tomas Jose, Florentino eta Juan Inazio semeekin batera. Baita Jose, Juana Maria, Pedro Jose, Juan Kruz, Maria Inazia eta Agustina Olasorekin ere, Muskildiko (Zuberoa) Olaso Etxearena.

Hiru urte lehenago, Karlos III.aren ordenan sartzeko, Juan Inazio Urritzak bere noblezia probatu behar izan zuen. Espainiako kontsula izan zen Bordelen eta, beranduago, fiskoko arduraduna Louissianan.

Nikolas Jose Rampun, Kubako Armadako eta Haziendako intendentea hiltzean, De la Torre markes kapitain nagusiak, hura behin-behineko ondozteko Juan Inazio Urritza errentetako administratzailea izendatu zuen, 1776ko martxoaren 5ean. Gero, urteko maiatzaren 15eko erret despatxuaren arabera, karguaren jabetza baieztatu zitzaiola.

Ondasundunek euren abelburuak aberehiltzera eta harakindegira eroaten zituztela, hainbat kontribuzio ordaindu behar izaten zuten. Bere protesta goratu zion Jose Galvez Indietako ministroari, Urritza intendenteak 1777ko maiatzaren 9an, diputazioak deituriko hiru kontribuzio ordaintzen zutela jakinaraziz. Lehena, gobernariari; bigarrena, errejidore diputatuari; eta hirugarrena, udaleko atezainari. Gainera, haragia txikitzen zuen bakoitzari 'pesada' deituriko kontribuzioa ere.

Errejidore aguazil nagusia salatu zuen bereziki, aberehiltzean hiltzen zen hirurogei abelburu bakoitzeko, puñalkada eskubideagatik zilarrezko 3 erreal kobratzen zuelako. Ondasundunari azkenean, 6 edo 8 erreal baino ez zitzaiola geratzen abelburu bakoitzagatik. Beraz, ukatu egiten ziren eskatzen zitzaizen kontribuzio horiek ordaintzera.

San Gabriel gerra-ontzia La Habanan lehorreratu zen Verakruzetik abiatuak, aspaldidanik uhartean eskatzen zen txanpon trukea egiteko zilar nahikoaz. 1778ko maiatzaren 24an, ontzi honek bere mastadura ortzemugan erakutsi bestean, Diego Navarro orduko kapitain nagusiak, Juan Inazio Urritza intendentearen aholkularitza, txanpon makukinarrak biltzeko lehen probidentziak argitaratu zituen. 1782ra artean, mota honetako 2.000.000 peso bildu zen uhartean zehar; Santiago de Kuban eginikoa sartu gabe, bere balioa 1.092.940 pesotara iritsi zelarik.

Matanzaseko portua defenditzeko, Kanimar ibaiaren ahoko mendebaldean Morrillo deituriko dorrea kokatzen zen. Gotorlekuari, bateria berria eraiki eta atxikitzeko Dionisio Baldenoches, Puerto Principeko oinezkotchako errejimentuko teniente injineroa joan zen hirira; Juan Inazio Urritzak, 1779ko abuztuaren 23ko ofizioaz, Gabriel Prieto azpiordezkariari halaxe jakinarazi ziola. Abenduaren 3ko dataz, berriro idatzi zion aipatu Prietori, Morrilloko bateriako obrak Baldenochesek entregatu zituela jakinaraziz.

Urte berean, Britainia Handiarekin apurketa berria sortu zenean, Louissianaren laguntzako fondoak beti hornitu zituen. Berdin Floridara bidaltzen ziren espedizioak finantzatu zituen. Edota, 1784ko urtean, La Habanan bildu ziren tropa guztiei lagundu zien. Baita hurrengo urtean, Jamaika konkistatzeko Haitin elkarturiko armadako ontzidiari ere.

Mexikoko kutxak hornitu zituen aparteko bidalketak eginez. 1780-84 laurtean, 23.230.265 peso sendo gastatu zuen Urritza intendenteak, Verakruzko ordainketa arruntak eta apartekoak egiteko zein uharteko errenta orokorrak kitzeko. Guzti hau, armada, marina, ospitaleak, biltegiak, itsas-erainkuntzak eta zama arruntak hornitzeko burutu zuen.

Juan Manuel Cagigal jeneralorde eta kapitain nagusiak, 1781.urtean Bahama-ko Uhartetara egin zuen espedizioaren ondoren, Roatan-eko (Honduras) eta Providencia-ko (Kolonia) uharteetako gatibu ingelesak La Habanan bildu zituen. Asmoa, Jamaikako gobernariarekin negoziaketa bat burutzea zen, Kingston-eko gatibu espainiarrak ingelesekin trukatzeko.

Frantzisko Miranda kapitain eta Cagigal jeneralordearen zelai laguntzailea, goleta parlamentario batekin itsasoratu zen Jamaikarantz. Bi edo hiru enbarkazio haragi, bibera, altzari, paper lakratu eta gainerako generoak erosteko manduko misio sekretua berarekin zeroala. Kingstonetik itzultzean, Mirandak Batabano-ko inguruan desenbartzu zituen generoak, errenteriako zergetatik libratzeko.

Baina, Urritza intendentea aurretiaz misioaren jakitun zenez, bere guardiarik leialenak jarriko zituen aipatu lekuko sarbideetan. Miranda kapitaina fardoz zamaturiko hiru gurdiez zetorrela, intendentearen guardiek atzeman egin zuten, kontrabandogari eta guzti. Cagigalek, zamak San Salvador Puntako gaztelura eroatea agindu zuen, eta ez Urritzak eskatzen zuen errenteriako biltegi-tara. Azken honek, partehartzaile, susmagarri eta gainerako funtzionarioen kontrako kausa zabaldu zuen intendentiako epaitegian, eta bere idazkari Jose Patiño Madrilera bidali zuen, jazoeraren lekukotzak eta probak zeroazala.

Gorteak, 1782ko martxoaren 18ko erret zedula idatziko zuen, Juan Antonio Uruñeta Mexikoko entzuleari, kasuko epaile legez La Habanara pasa zedin zertuz. Urteko azaroaren 16ko erret aginduz, Frantzisko Miranda kapitaina bere ondotik apartatzea behartu zitzaion Cagigali; eta abenduaren 11koaz, kapitain nagusi hau La Cabañako gotorlekuan preso sartu zuten. Juan Tomas Jauregik bere aldeko defentsa azkarra egin zuenez, libre lagako zuten hurrengo urteko uztailaren 28an. Hargatik, gerora Juan Inazio Urritzak antzerako ustelkeriak egin zituen.

Madrilera gortera hainbat akusazio iritsi ziren, intendentearen mesedeko funtzionario ugariaren desordenak salatuz. Akusazioei, Bernardo Troncoso brigadier eta La Habanako erretordearen txosten baieztagarriak gaineratu zitzaizkien. Indietako ministroak, Troncoso brigadierrari Verakruzko gobernua agindu zion eta mariskal gradura igo zuen.

Aldi berean, Jose Ezpeleta brigadierra izendatu zuen beraren ordeko, Mexikoko tropen azpiinspektorea zela orduan. Honek, 1786ko urtarrilaren 1eko komunikazioaren bitartez, baldarkeria asko egiten zela jakinarazi zion ministroari. Hurrengo hilaren 20ko erret aginduz, Urritzaren aholkularia eta obra publikoetako eskuhartzailea, Honduraseko San Juan de Uluako gotorlekura atzemateko agindua jaso zuen.

Ondoren, Jose Pablo Valiente Mexikoko entzulea La Habanara iritsi zen, miaketa eta aparteko bisita egitera, 1787ko urtarrilean. Juan Inazio Urritzak, bere destinoaren dimisioa aurkeztu zuen. Hura ordezteko, erregek Valiente entzulea bera izendatu zuen intendente berri maiatzaren 6an.

Urritzak lehenago, ofizio bat aurkeztu zuen La Habanako udaleko urteko apirilaren 27ko batzarrera. Hiritik alde egiten zuela jakinarazten zion udalbatzarrari, bere merituari jarraituz. Espainian Haziendako Kontseiluko plaza bat eskuratu zuen, lanpostu horretan hilko zelarik.

Indietako Kontseilu Goreneko ohoreko ministroa eta Karlos III.a ordenako zaldun pentsioduna izan zen.

#### **4.50. VELEZ DE ELORRIAGA ZARATE, Justo Maria**

Elorriagan (Araba) jaio zen 1786ko abenduaren 8an. La Habanan hilko da 1834ko urriaren 4an.

Aita, Elorriagako Pedro Antonio Velez de Elorriaga eta ama, Ilarrazako (Araba) Antonia Zezilia Zarate izan zituen. Aitaren aldetiko aitona, Azkaiako (Araba) Frantzisko Antonio Velez de Elorriaga eta Villa del Burgoko Maria Kruz Ruiz de Luzuriaga. Amarenekoak, ostera, Ilarrazako Fernando Zarate eta Zurbanoko (Araba) Klara Martinez de Eskerekotxa.

Justo Mariarekin batera, anaia biki Pastor Maria ere jaio zen, bion aitabitxia Eugenio Antonio Velez de Elorriaga apaiza izan zela. San Pedroko elizan bataiatu zituzten.

Justo Velez de Elorriaga, 1803ko urtean ailegatuko da La Habanara, ikaske-  
tez aurrera egitera. La Habanako Elkarte Abertzaleak, Jose Cienfuegos gobernari eta kapitain nagusiaren lehendakaritzapeko 1816ko abuztuaren 16ko junta arruntean, zientziak eta arteak izeneko batzordea hezkuntzako saila izenburuaz aldatu zuen. Sail honek, harresiaz barneko neskaten eskolen egoera aztertzeko, Bizente Maria Rodrigo bazkidea mandatu zuen. Honi laguntzeko Justo Velez apaiza, nahiz oraindik bazkidea ez izan.

Emakumezkoaren irakaskuntza eta hezkuntzako garaiko egoeraz, hurrengo urteko urtarrilaren 24ko dataz sinaturiko, hezkuntza saileko txostena aurkeztu zuten. Ursulinetako mojena eta San Frantzisko Saleseko kolegioarena izan ezik, neskaten irakaskuntza oso atzeraturik zegoela azalduz. Berrogeitamar eskoletatik, hogeitamarretan behintzat, irakurtzen eta errezoak egiten bakarrik horixe erakusten zela; Ursulinetan eta Neskaten kolegioetan salbu, lautan baino ez, idazten erakutsiz. Egun bereko junta arruntean irakurri zen txostena; Rodrigo elkarte lagunak eta Velez apaizak eginiko ahalegin ona, batzarrak eskertu egin zela. Baita bazkide ere onartu zuen juntak, 446 zenbakiaz.

La Habanako San Karlos eta San Ambrosio apaizgaitegiko eskubide zibileko katedraduna zela, ikertu eginiko bataioen, ezkontzen eta hiletan taula alderagarri batzuei hitzurre bat idatzi zien, elkarre abertzalearen memoriaren argitaratzeko. Juan Jose Diaz de Espada apezpikuari hiritik hogeiturogei legoa ekialdera egin zuen azken bisitan laguntzeko ohorea izan zuela, eta parrokiaren liburutetik, 1800etik 1812ra bitarteko berriak laburtu zituela azaldu zuen, taula alderagarriak prestatzeko.

Geroago, 1820ko urtarilaren 23ko dataz, Jose Arazoza elkarre lagunarekin batera, La Habanako apezpikutegiko ekialde alderdiraino dauden hirien antzerako taulak aurkeztu zituen; guztira, 106.768 zuri eta 110.532 beltz bizi zirela egiaztatuz. Herri handienetako taulen arabera, 1804tik harrezkeroko uharterko populazioaren hazkuntza biderkatu egin zela, baina baserri lurretan bereziki, argitu zuen. Nekazaritzara bideraturiko kapitalen gehitzea, eta azkenek botatzearen ondorioz eginiko lur-sailketa berriak, ugazaba askoren artean 150 peso kaballeriako (13,45 ha.) salneurri onean lurrak zatituz.

Apezpikutegiko apaizak zientzia naturalen ikasketetara saiatzearen onurei buruzko sarrera-diskurtsoa azaldu zuen, elkarre abertzaleko 1817ko otsailaren 21eko juntan. Parrokiak etxe medikuntzaz ideia gehiago edukitzea lagungarria gerta zitekeela, botanikaz oso lokarriturik egonik. Landa-lurretan bizi den gizon batek ereiteko tresneriez, lur egokiak aukeratzeko, ongarrizko eta desmendentzeko egiteko hainbat oharpen egin zezakeela. Kimika bitartez berriz, argiaren, beraren, airearen eta lurretako uren eraginak aztertuz. Azken batean, nekazaritza sustatzeko mandatu nagusia burutu. Elkarreak, diskurtsoa inprimatzea erabakiko zuen, baserri eremuetako parrokiaren artean zabaltzeko.

Elkarteko hezkuntza sailak, La Habana hiriko lehen letretako eskoletan Lan-kaster sistema onartzearen komenentziak izendaturiko batzordearen irizpena azaldu zuen Justo Velez apaizak, Bizente Maria Rodrigoren laguntzarekin. Sina-tzaileek aurkezturiko hezkuntza sisteman ikasle bakoitza ondokoaren maisua bilakatzen zen, batez ere maisu gabezia nabariena zen landalur eremuetan. Batzordeak landuriko irakaskuntza plana, klaseen antolaketa, irakurketa, idazketa eta aritmetikako klaseak, alfabetoa erakusteko metodoa, lau arauak erakusteko artea, eskola faltak, sariak eta emulazioak, tresnak eta zigorrak proposatu zituzten. Urteko apirilaren 22ko juntan onartu zen plana.

Hezkuntza sailak, 1816ko abenduaren 12ko junta nagusietan, San Karlos eta San Ambrosio apaizgaitegian ekonomia politikoko katedra fundatzeko txostena irakurri zuen. Garai horretan, Justo Velez apaizak zientzia hau fundatu ezkeroko baliagarritasunaz eta beharrianaz diskurtso labur bat egin zuen bere antolakuntza sustatzeko. Pedro Diago elkarteko lagunari entregatu zion, hiriko dirudunen artean aurrerapen bat lortzeko helburuaz. Ezelako ordainketarik egin aurretik, Juan Jose Diaz de Espada apezpikuarengana jo zuen beraren iritzia entzuteraz; haren aldetik, katedra kolegioan ezartzeko laguntza osoa jaso zuelarik.

Beranduago, La Habanako Merkataritza Erret Kontsulatuko gobernu juntak, 1818ko irailaren 2an egin zuen batzarrean, ekonomia politikako katedra fundatzeko urtero 500 pesoko laguntza agindu zuen. Honela, Pedro Diago adiskide-

tzailleak harpidetza boluntarioz lorturiko beste 500ez, 1.000 pesotako kontsignazioa lortzen zen Justo Velez katedradunari ordaintzeko; hau, astero hiru ikasgai ematera konprometiz. Urriaren 13an, elkarte abertzaleak, biharamuneko goizeko 11etan, katedra ezartzea erabaki zuen.

Justo Velez apaizaren zuzendaritzapean zabaldu zen urriaren 14an, errege Fernando VII.aren urtebetze egunean. Katedra ezartzeko ekonomia politikoari buruzko laburpena eginiko diskurtsoaz mintzatu zitzairen hantxe zeuden hiriko agintariei. Urriaren 15eko, inaugurazioko lehen klasea oster, Adam Smith (1723-1790) ekonomilariaren *La riqueza de las naciones*-i aritu zitzairen ikasleei, herrialde aurreratu batek behar dituen industria adarrak, adar bakoitza sekulareraino zatituz. Adar bakoitzeko lana zatitzearen garrantziaz; saltzailearen eta eroslearen lehiak salneurria erabakitzen zuelarik.

Bere katedran, gainera, Juan Bautista Say (1767-1832) industrialgintzaren defendatzaileak, bere *Tratado de Economía Política*-z egiten zuen Smithen lanaren berrantolaketa eta zabalkundeaz baliatu zen. Bolumen bitan eta Velez katedradunak eginiko ohar argigarriez, argitaratu zuen elkarte abertzaleak, ikasleei zuzenduriko Sayren lana. Baita Kubako arazo ekonomikoez, Gaspar Meltxor de Jovellanosen *Ley Agrariaren* laburpena ere. Ekonomia askatasuna, negoziotako gobernu eskuhartzeari mugak ezartzea, uharteko merkataritzaren eta nekazaritzaren garapena tratatzen zuten zergek eta hesiek deusezte, nekazaritzaren ezberdintasuna eta latifundioaren itzaltzea aldarrikatu zituen bere katedratik.

Elkarte abertzalearen 1822ko ekainaren 7ko junta arruntean, Justo Velez katedradunak aurkezturiko idatzia irakurri zen. Honek, osasun arazoak zirela medio Estatu Batuetara sasoi baterako alde egiteko baimena lortu zuelarik, Jose Agustin Govantes proposatzen zuen bere ordeko, ekonomia politikako katedran.

Hasiera batetik harrezkero, merkataritza kontsulatuak katedra sostengatzeko urtero 500 peso ordaintzen bazuen ere, gerora elkarte abertzaleko fondotik burutzen zen. Baina, azken erakunde honek aurreko urtea ordaintzekorik ez zeukanez, Justo Velezek 1824ko irailaren 24ko karta zuzendu zion kontsulatuari, soldataren ordainketa eskatuz. Urriaren 6ko gobernu juntak, aipatu katedradunak eskatzen zuen urteko zorra kitatzea erabakiko du.

Baina abenduaren 15eko juntan, fondo gabeziagatik hurrengo urtea baino ez sostengatzea erabaki zuen. Ekonomia politikoko kurtsoa amaitzean, 1825eko ekainaren 8ko ofizioaz, azken urteko 500 pesoren ordainketa eskatu zuen Velez katedradunak, eta kontsulatuak berehala ordaintzea erabakiko du.

Testamentua, urteko urriaren 13an egin zuen Jose Salinasen aurrean. Altargracia izeneko kafediaren ugazaba izan zen, zein 3.000 pesotan bahiturik baitzuen. San Karlos eta San Anbrosio apaizgaitegiko zuzendaria ere izan zen.

### **Iturriak eta obra**

G.E.H.A. Bataioak: 2 lib. 18a or. Erreferentzi-Kodea: ES/AHDVGEHA/F006.152-(00987/002-01).

K.A.N. Sustapen Junta: 97/4085 leg. zka. Daumy-ren Eskribautza: 577/4 leg. zka.

*Discurso de ingreso en la Sociedad. Sobre las ventajas que resultarían de que el clero de este Obispado se dedicase al estudio de las ciencias naturales.*- En: Memorias de la Real Sociedad Económica de la Habana.- Habana: Imprenta de la Capitanía General, 1817, 116-120 orr.

*Oficio dirigido por el licenciado D. Justo Vélez, catedrático de derecho civil, al redactor de estas Memorias.*- En: Memorias de la Real Sociedad Económica de la Habana.- Habana: Oficina del Gobierno y de la Real Sociedad Patriótica por S.M., 1818, 233-246 orr.

*Discurso acerca de la Economía Política, leído en la clase del jueves 15 de octubre, por el presbítero Ldo. Justo Vélez, catedrático de esta ciencia.*- En: Memorias de la Real Sociedad Económica de la Habana.- Habana: Oficina del Gobierno y de la Real Sociedad Patriótica por S.M., 1818, 413-441 orr.

#### **4.51. XIMENO USAOLA, Jose Matias**

Bilbon Alde Zaharrea jaio zen 1762ko otsailaren 24an. Matanzasen hilko da, 1839ko urtarrilaren 14an.

Aitaren aldetiko Samano-ko (Santander) aitona Pedro Ximeno Pino, San Nikolas Bariko parrokian bataiatu zuten, 1693ko otsailaren 22an. Bertan ezkondu zen, 1717ko abenduaren 4an, herriko Manuela Otxoa Diez de la Lastrilla, Jose eta Antoniaren alabarekin. Amaren aldetikoak, Aramaionako (Gipuzkoa) biztanleak ziren, Pedro Usaola eta Otxandioko (Bizkaia) Margarita Ugarte zituen.

Aita Manuel Ximeno Otxoa herri eta parrokia berean bataiatu zuten, 1737ko ekainaren 9an. Otxandioko Margarita Usaola Ugarterekin ezkondu zen. Frantzisko eta Jose Matias Ximeno Usaola semeak eduki zituzten. Jose Matias, San Nikolaseko parrokian bataiatu zuten, aitabitxiak Jose Ramon eta Maria Ana Gorordo zirela.

Matanzaseko katedralean ezkondu zen 1788ko azaroaren 4an, Josefa Estevez Lopez Montañez anderearekin. Emaztea, La Laguna-ko (Tenerife) Jeronimo Estevez Armas, hiriko errejidore eta aguazil nagusiaren eta Gabriela Lopez Montañez anderearen alaba zen. Petrona, Maria Josefa, Maria Biktoria, Jose Ramon eta Simon Ximeno Estevez seme-alabak eduki zituzten.

Hiriko sindiko prokuradore baieztatu zuen udalbatzak, 1795eko urtarrilaren 24an. Gutxira, urriaren 9ko dataz, hiriaren merkatarizari eta sustapenari atxikitzen zitzaizkien eskubideak eta lanabesak aldarrikatu zituen. Erregeren aginduz Matanzaseko portuari txiki eta egokiaren grazia eskaintzen zitzaiola azaldu zuen mozioan. Horren arabera, kanpoko herrialdeekin merkataritzaz aritzeko, 1789ko otsailaren 28ko dekretuak arautzen dituen askatasun eta frankiziak zetxezkiola.

Baina, La Habanako Erret Haziendako intendenteak, beltz berrien sarrera eta merkataritzako lanabesak kolonia atzerritarrekin tratutzea debekatzen zuenez,

uharteko gainerako portuen maila eskatu zuen. Gainera, arestian eremuko 29 azukre-ola baino gehiago eraikitzen zirelako, eta lurak tabakoa ereiteko hain onak izanik, beltzen besoak oso premiazko bilakatzen zirela hiriaren sustapenerako.

Hurrengo urteko urtarrilaren 1eko udalbatzarrean, Jose Matias Ximeno sindiku prokuradore hautatu zuten berriro. Ekainaren 8ko udaleko komisarioen kartaz, sindikuaren aurreko mozioaren antzerako testigantza igorri zitzaion Luis Casas Aragorri gobernari eta kapitain nagusiari, beltzen merkataritza librea eskatuz porturako. Honek, uztailaren 11ko dataz oso gogor erantzun zion udalbatzarrari, portuak ustez zeukan erregeren grazia ukatuz.

Urte bereko ekainaren 2an sinaturiko beste mozio bat aurkeztu zuen Ximeno sindikuak, hiriko miliziak jatzeko kobratzen ziren exakzioei, hautabide bideragarriago bat eskainiz. 1787ko abenduaren 12ko, Luis Casas Aragorri kapitain nagusiaren autoak, hirian eta bere eremuan sartzen ziren irin upeleko hiru erreal, gatz anegako bi eta upel bakoitzeko zortziko exakzioak kobratzea eskatzen zuen. Baita azukre-oletan destilatzen zen kanabera pattarrari eta ubideko zergari ere.

Orduan, hiritik ateratzen zen azukre kutxa bakoitzeko erreal bi eta pattar upeleko lau kobratzea proposatu zuen, eskubide bi hauek aski izanik, miliziatako armateri eta jantziteria ordaintzeko. Hiriko eta eremuko, 50 azukre-olen urteko uztaldiko ekoizpenaren kutzako erreal biko kobrantza, 1.763 pesotara iritsi zen.

1797ko urtarrilaren 1eko udalbatzarrak, sindiku prokuradore hautatu zuen Ximeno Usaola, hiru urte jarraitutan. Hiria hiru egunetan ogirik gabe zegoela, mozioa aurkeztu zuen udaleko ekainaren 11ko batzarrerara. Hiria hornitzeko irina, menestrak eta beste biberak zeroazan Boston-eko (Estatu Batuak) bergantina deskargatzeko baimena, Erret Haziendako azpiordezkaritari eskatzea proposatu zuen. Berehala lortu zuen baimena.

Abuztuaren 18ko batzarrean, San Seberino gazteluko Felipe Zayas komandanteak landuriko informazioaren berri jakinaraziz, Santa Klarako konte gobernari eta kapitain nagusiaren ofizioa aztertu zen. Bertan, Vigia gotorlekuko troparekin Manuel Kasimiro Portillo alkate arruntak eta sindiku prokuradoreak, hango bidearen inguruan izaniko kontrakarrak luzatzen zen gobernaria.

Iaz, Jose Matias Ximeno bidearen frankiziaz, hitzez arituko zitzaiola Juan Gomez kapitain eta arestiko alkate arruntari azpimarratu zuen udalbatzarrak. Udalak ontzat hartu zuela sindikuaren ardura, ordura arte oletako azukrea San Juan ibaiko bidetik ateratzen bazen ere, urteetako ekaitzen eraginez hura igaroezin bilakatu zelako. Gainera, iskanbilako bidea beti izan dela hiriko usadiokoa.

Aurretiaz baina, uztailaren 6ko dataz, goardia batek gurdi baten pasagunea debekatzegatik, Ximeno sindikuak gotorlekuko troparekin izaniko portaera iraingarria salatuko zuen gobernariak, hiriko udalaren aurrean. Horrek, nolabaiteko desordena sortu zuela tropa gutxietsiaren banean, eta sindikua gaztelura joan beharrean zegoela, hezkuntza onak eskatzen duen maila politikoan tropa bistan azaltzera. Irailaren 20ko goizean, sindikua San Seberinoko gaztelura aurkeztu



zen eskribau baten laguntzarekin. Tropari bere atsegintasuna eskaini zion, Juan Alejandro Alfonso lotinantordearen eta gazteluko komandantearen aurrean.

Udalak, 1799ko urtarrilaren 1ean eginiko batzarrean, Jose Matias Ximeno alkate arrunt bigarrena izendatu zuen. Hurrengo, 1809. urterako, azken azaroaren 30ean eginiko udalbatzarrean alkate arrunta hautatu zuten. Azkenik, 1818ko urtarrilaren 1ean, alkate arrunt lehena izan zen.

Jose Matias Ximeno, Matanzas hiriko lehen azukre-biltegien ugazaba izan zen 1799an. Gainera, nekazaritzako inportazioko merkataritza etxea zeukan, Ximeno y Madan izenburuaz, 1811. urtean.

Matanzaseko Merkataritzako Kontsulatuko gobernu juntak, 1803ko ekainaren 28ko batzarrean, Manuel Junco diputatuaren ordezkotzat hautatu zuen.

Jose Matias hil zen egunean, badian zeuden enbarkazioak banderak masta erdira jaitsi zituzten.

## Iturriak

B.E.H.A. Bataioak. Erreferentzi-Kodea: ES/AHEB-BEHA/F006.079(0647/002-0)

K.A.N. Sustapen Junta: 165 lib. 410-411 orr.

M.A.H.P. Udal Agiriak: 14 lib. 124, 170-172 orr.; 15 lib. 5-6, 126, 199a-201, 210-211, 248-248a, 436-438 orr.; 16 lib. 88-91a, 188 orr.; 22 lib. 2-3 orr.; 32 lib. 1 or.

## 4.52. ZULUETA AMONDO, Julian

Añana Kuadrillako Erriberagoitiko Anuzitan (Araba) jaio zen, 1814ko urtarrilaren 9an. La Habanan hilko da, 1878ko maiatzaren 6an.

Aitonak, Baranbioko (Araba) Pedro Zulueta eta Josefa Salcedo izan zituen. Aita Domingo Zulueta Salcedo ere Baranbion jaio zen, 1785eko urtarrilaren 24an. Ama Manuela Estefania Amondo Barañano, Anuzitan jaio zen 1779ko abenduaren 25ean.

Julian Zuluetak Gasteizen ikasi zuen. 18 urtez iritsi zen Kubara, eta bere osaba Tiburtzio Zulueta La Habanako Janis kaleko biltegian lan egin zuen, azukre-oletako eta enbarkaziotako lanabesak administratzen. Urtera, Sustapen Juntak 1833ko uztailaren 5ean prestatu zuen, hiriko merkataria handi eta txikien zerrendan agertu zen osabarekin batera.

Osaba Tiburtziok, 1841eko azaroaren 27an testamentua egin zuenean, loba Juliani biltegi irabazien bostena eta ondasunen gerakinarena laga zizkion. Oinordekoen artean, loba Galo Aldama Zulueta, Domingo eta arreba Asuntziren semea, eta arreba bera ere bazeuden. Bibere negoziotan sartu zen ondoren,

beltz merkataritzan aritzeko bere lehengusu Pedro Zuluetak Londresen zeukan Zulueta & Co., merkataritza etxearen bitartez.

Hiru aldiz ezkondu zen. Lehenbizi, La Habanako katedralean, 1842ko urriaren 1ean Josefa Sama Mota anderearekin. Emaztea, Badajozkoa zen; Villanueva-ko (Katalunia) Jaime Sama Martiren eta, Villagarcia-ko (Extremadura) Josefa Motaren alaba. Familia hau, gainera, La Habanako Marianao-ko markesei zetxekien. Josefa, Xalbador, Eduardo eta Ernesto Zulueta Sama seme-alabak eduki zituzten.

Bigarrenkoz, Betoñoko (Araba) loba Juliana Ruiz de Gamiz Zulueta, koinatu Juan Leon eta arreba Florentinaren alabarekin. Emilia eta Julian (1862.04.7) Zulueta Ruiz de Gamiz seme-alabak eduki zituzten. Seme Julian, aitona Juan Leonen etxean bizi zen Gasteizko hirian.

Hirugarrenkoz, La Habanako Izpiritu Santu parrokian, 1864ko urtarrilaren 17an, loba eta koinata Maria Juana Ruiz de Gamiz Zuluetaekin. Hauek, Amalia (1865.07.13), Alfredo (1867.04.29), Adolfo (1869.12.18), Luis (1870.05.24), Enrike (1873.04.18) eta, Gasteizen jaio izaniko Elbira (1871.07.27) seme-alabak eduki zituzten.

1844ko azaroan, Matanzaseko probintziako, Kolon eremuko Makagua alderdian, 153 kaballeriako (2.058 ha.) lur leun sail zabala erosi zuen. Hirugarren urtera, San Frantzisko azukre-ola errautsiaren tokian, Alava izeneko lehena erai-kiko du aipatu lurrotan. Lehen uztaldiko ekoizpena, uhartean egundo atera gabeko 6.000 kutxatakoa izan zen. Hamar urte beranduago, hodi zutikakoez eragin hirukoitzeko Derosne sistema sartu zion azukre-olari, eta urteko ekoizpena 20.400 kutxatara igo zuen.

533 esklabuko dotazioa edukitzera iritsi zen; gehi eraikinak, makindegia, hesiak, abelburuak, urtzak eta lanabesen balioa, 1.540.159 peso errekoa izanik. 1859-60ko uztaldian 21.050 kutxa eta 2.215 upel ekoiztu zituen. 1877-78 aurrekontua hasterakoan, bosturteko produktu gordina 242.857 pesotakoa izan zuen; maileguko 167.857 kenduz, 80.000 pesotako mozkina geratu zitzaion.

Nekazaritza eta Merkataritzako Sustapen Juntari, Amoy-tik (Txina) 600 asiar-kolono La Habanara ekartzeko proposamena egin zion Julian Zuluetak. Londreseko lehengusu Pedro Zulueta agindu zion eragiketaren itxiera egitea, Asiako despatxuaren tramiteak Manilako Matias Mentxakatorre sinadurari enkargatuz. Amoy-ko lehen bi enbarkazioak, 1847ko ekainean lehorreratu ziren, 571 txinatar-kulirekin kargatuz.

Uztailaren 3ko erret ordenaz, Haren Maiestategi txalotu egin zuen Sustapen Juntaren ekimen probetxugarri hura. 1853tik 1874ra bitartean, 124.835 kolono asiarrak iritsi ziren Kubara. 344 espedizio ezberdinetan, Frantzia, Espainia, Britainia Handia, Estatu Batuak, Portugal, Holanda eta Errusiako ontziak lehorreratu.

1847ko urtean ere, Lord Palmerston, Britainia Handiko Kanpo Arazoetako ministroak Julian Zulueta, Pedro Forcade baxenafartarrari eta beste batzuei

zuzenduriko 419 beltzen desenbarkua salatu zien diplomatiko espainiarrei. 1853an, Lady Suffolk izeneko beltz-goleta 1.200 afrikarreko espedizioa antolatu zuen, baina J. T. Crawford Kubako kontsul ingelesak eginiko salaketak medio, Balentin Cañedo kapitain nagusiak atzeman egin zuen. Enbarkazioa Eugenio Viñas beltz tratulari ospetsuaren agindupean zetorren, kontsignazioduna Andres Isasi, Zulueta ren denda-mirabea izanik.

Lehorreraketa, Cienfuegoseko eremuan egin zuten, Mariel eta Bahia Hondako portuen bitarteko Conchinos-eko senadan. Zuluetak, Yaguaramas-eko pedaneoari 100 ontza emango zion gobernuari parterik ez emateko, Hanabana-koaz ere berdin egin zuelarik. Beltz berrien espedizioa Orbea azidara eraman zuten. Zati bat, Villa Klarako eta Palmillaseko ugazaba batzuei saldu zien 24 eta 26 pesotan, eta 200 bere azukre-olarako hartuko zuen. Espetxean hiru hilabete egin ondoren, etxera eroango zuten. Bigarren urtera libre aitortu zen.

1858ko maiatzaren 14an, Iberia izeneko enbarkazio espainiarraz 935 esklaborekin lehorrerakuto da Kardenaseko eremuan. Azaroaren 8an, Haidée barku amerikarraz, Kilongo-tik (Afrika) 1.145 beltz ekarri zuen; 200 gizoneko eskoltza Alavako azukre-olara eramateko, bidean koipekeriatan 200.000 peso ordainduz.

Julian Zuluetak Ciceron deituriko bapora erosi zuen Liverpoolen, Europan inoiz eraiki eginiko beltz tratutarako enbarkaziorik handiena. 1863ko azaroaren 6an, ontzi honek 1.703 beltz berrien espedizioa zuzendu zuen Kubara, 1.000.000 peso balioa zuela. Espedizioburuak atzeman egin zituen Jose A. Arguelles koronel gobernariak, eta beltzak honen babespean gelditu ziren.

Beltz tratu honek izugarritzko adarkatzeak izango zituen penintsulako portuetan ere. XIX. mendetik harrezkero, Santanderretik hainbat barku prestatuko ziren Afrikako kostetan barrena, beltzak Kubara garraiatzeko helburuaz. Hauetariko ontzi askok Bilboko matrikula zeroan, euskal ontzijabeenak zirelako.

*Gaceta de La Habana* gobernuko egunkari ofizialak, 1855eko maiatzaren 18an, Banco Español de la Habanako konstituzio bideko bost akzio baino gehiagoko akziodunen zerrenda argitaratuko zuen. Batzarra, gobernuko jauregian egiteko zen, zuzendaritza kontseiluko hiru kide hautatzeko. Julian Zulueta ere zerrendan agertu zen.

Alava azukre-olan izaniko esperientziaren arabera, Matanzas probintziako Kolon eremuko Makagua alderdian, Vizcaya eta Habana azukre-olak eraiki zituen. San Roke barrutian, España; eta Santa Klarako probintziako Remedios eremuko Guarakabulla-koan Zaza deiturikoa.

Vizcayak, kanaberako eta mendiko 98 kaballeria (1.318 ha.) lur eta 225 esklaboko dotazioa zeuzkan, 767.813 urrezko pesotako balioaz. Derosne sistemako lurrunezko indarraz baliatzen zen, eta Banaguises-eko trenaren geltokitik hiru miliara zegoen kokaturik. 1858-59ko uztaldietan, 7.817 kutxa eta 777 upel azukre ekoiztu zituen. 1877-78ko aurrekontua hasterakoan, bosturteko produktu gordina 142.857 pesotakoa izan zuen, baina maileguko 92.827 kenduz, 50.000 pesoko mozkina geratu zitzaion.

Habana izenekoak, kanaberako eta mendi zarratuko 106 kaballeriako (1.426 ha.) lurak eta 310 esklaboko dotazioa zeuzkan, 901.723 urrezko pesotako balioaz. Azukre-ola hau ere Derosne sistemaz baliatzen zen kanabera txikitzeko, eta trenaren geltokitik milia batera zegoen. 1858-59 uztaldietan, 9.771 kutxa eta 928 upel ekoiztu zituen. 1877-78ko aurrekontua hasterakoan, bosturteko produktu gordina 171.428 pesotakoa izan zuen; maileguko 111.428 kenduz, 60.000 pesotako mozkina geratuz.

Españak, 103 kaballeriako (1.385 ha.) lurak eta 466 esklaboko dotazioa zeuzkan, 1.424.659 urrezko peso eta 3.547 biletezko pesotako balioaz. 500 idi, 30 zaldi eta 14 mandoko abelburuak zeuzkan ere. 1864ko urtean, 3.813 azukre tonako ekoizpena lortu zuen. 1877-78ko aurrekontua hasterakoan, bosturteko produktu gordina 361.190 pesotakoa izan zuen; maileguko 234.780 kenduz, 126.410 pesoko mozkina jaso zuen.

Zaza izeneko azukre-olak, kanaberako eta ortuariko 155 kaballeriako (2.085 ha.) lurak eta 231 esklaboko dotazioa zeuzkan, 1.400.125 biletezko peso eta 53 urrezko pesotako balioaz. 1877-78ko aurrekontua hasterakoan, bosturteko produktu gordina 102.900 izan zuen; maileguko 66.885 kenduz, 36.015 peso mozkina geratuz.

Geroago, tren sarea zabaldu zuen azukre-kanabera erosotasunez ateratzeko. Lehendabizi, Alava azukre-olako 8,7 miliako (14 km.) barne trenbidea eraiki zuen, biltegietatik Markesita-ko kanaberadira iristeko. Ondoren, Jukaro-ko tren geltokira bideratzeko azukreak. Gero, Banaguiseseko geltokira iristeko milia (1,6 km.) bateko luzerakoa ere bazeukan. Aurrerago gainera, azukre-ola hau Vizcaya eta Habana deiturikoekin komunikatu zuen.

1876ko urtean, Kaibarien-etik Placetas-eko hiribildura bitarteko trenbidea eraiki zuen. Trenak, Marina kalea zeharkatzen zuenez, populazioarekin arazoak izan zituen. Geltokiaren inguruan Zulueta deituriko herria sortu zen orduan. Ferrocarril del Oeste-ko trenbideetan 500 peso bakoitzeko 10 akzio izan zuen; Ferrocarril de Mariano enpresan 500 peso bakoitzeko 10 akzio; eta, Ferrocarril de Cárdenas y Júcaro-koan 500 peso bakoitzeko 140 akzio. Moila propioak ere bazeuzkan Kardenaseko portuan, eta Kardenas-La Habana eta Kaibarien-Kardenas lokarritzen zuen bapore lerroa.

La Habanako udalak 1860ko urtarrilaren 1ean zinegotzien eta hautesle kontribuzio-nagusidunen bilera egin zuen, udalbatza berria hautatzeko. Julian Zulueta, zinegotzi hautatu zuten 47 botoz. Urte bereko martxoaren 1eko ezohizko batzarrean, gobernu gorenak Zulueta berronetsi egin zuen bere karguan, beste 22 zinegotzirekin batera.

Uztailaren 13ko bileran, ibilbide publikoetarako burdinazko eserlekuen kostu eta gastuen aurrekontua azaldu zen, bakoitzak 42,75 peso balio zuela. Gainera, eserlekuen iraupen laburra oharpenak egin zirenez, Estatu Batuetatik mota eta itxura ezberdinetako dozena erdi eserku lagineko erosteko, udalak Julian Zulueta zinegotzia mandatu zuen.

Abuztuaren 25eko batzarrean, Zulueta zinegotziak Jesus del Monte galtzadaren itxura negargarriaren azalpena egin zuen. Arkitektura txarreko eraikinek eta batzuen hondamen egoerak arrisku handia sortzen zutelako galtzadan. Beraz, inguruaren erreforma egitea beharrezkoa zen. Udalbatzak, galtzadako aurrekari guztiak zinegotzi honi pasatzea erabaki zuen, egoki iruditzen zitzaizkion neurriak proposatzeko.

Ventoko urtegiatako ur ekarrera atzeratu egiten zenez, udalak Almendares ibaikoak aprobetxatzeko premia ikusi zuen. Orduan, Julian Zuluetak ur hauetaz baliatzeko mozio bat aurkeztuko du, 1862ko uztailaren 19ko udalbatzarrerera. Espedienteak baina, bederatzi urte iraun zuen. Obrak, Pedro Tome udal arkitektoak zuzendu zituen. 1871eko urriaren 23an hasi eta 1873ko irailaren 25ean amaitu ziren.

1871ko azaroaren 1ean, zinegotziak eta hautesle kontribuzio-nagusidunen ezohizko bilera ospatu zen, biurteko udalbatza berrizatzeko. Julian Zuluetak, 181 boto gorenak lortu zituen, alkateorde lehena hautatu zutelarik. Abenduaren 15eko batzarrean, Parisen egon berri zela aitatu zuen Zulueta alkateordeak. Bidaia aprobetxatuz, hiriburu horretan udalaren aginduz Bartzelona, Bizkaia, Asturias eta Santanderreko diputazioei entregatzeko lantzen ari ziren armariak aztertu zituela. Espainiaren ohorea eta lurraldearen osotasuna defendatzeko, probintzia haietako semeak lehen boluntarioak izan zirelako.

1874ko urtarrilaren 1eko udalbatzak, gobernari nagusi zibilaren azken abenduaren 27ko komunikazioa irakurri zuen. Julian Zulueta alkateorde leheneko kargua, 1874-75 biurtean betetzeko izendatu zuen hiriko agintariak. Urtarrilaren 30eko udaleko batzarra, Zulueta alkateordearen lehendakariitzean egin zen. Benigno Rebullida hiriko gobernari nagusia aginte gorenaren mandatuaz penintsulara joan zela-eta, hark txandatu zuen karguan.

Gobernaria eta udaleko presidentea lizentziaz zegoelako, otsailaren 19ko ezohizko batzarrean, zinegotzi batzuek Zulueta alkateordea udalerriko lehen kargurako proposatu zuten. Hiriko alkatetza gobernu gorenaren menpe egoteak ez ziola udalari ezelako mesederik egiten azaldu zuten ekimenean. Julian Zuluetak zortzi urte zeroanez karguan, hiriko alkate izendatzeko eskabidea nazioko gobernu gorenari luzatu zioten.

Apirilaren 10eko udaleko batzarrean, Zulueta alkateordea eta behin-behineko gobernari politikoa aretoaz kanpo zegoela, sindiko lehenak, antzinako harresiak botatzeko dekretua iritsi zenetik harrezkeko, haren ahalegin bereziak gorai-patu zituen. Inguru hartako plano orokorrak begiztatzeaz gain, Central kalea zabaltzea lortu zuela. Aurrerantzean, kale horren izena Zulueta deitzea proposatu zuen. Udalbatzak, onartu egin zuen proposamena; baita horren lekuko marmolezko harlauza, Albisu antzokiko aldameneko horman ezartzea ere.

Maiatzaren 1ekoan, Errepublikako lehendakariaren dekretua irakurri zuen udal idazkariak. Bertan, La Habanako gobernu politikoa deuseztu egiten zela jakinarazten zaio nazioari. Aldi berean, alkatetza bat sortzen zen, aurreko gobernu-

ren eskudantzei atxikiturik. Hurrengo, gobernari orokorraren dekretu bat ere irakurri zuen, alkatetza kargu hori betetzeko Julian Zulueta behin-behingo izendatuz.

Hurrengo urteko, uztailaren 21eko ezohizko batzarrean, zinegotzi nahikoak eta kontribuzio-nagusidunak bildu ziren udal berria biurterako konstituitzeko jomugaz. Julian Zuluetak, 170 boto jaso zituen, Frantzisko Viñal-ek 98 eta Juan Alvarez Baldonado-k 77 boto. 1876ko maiatzaren 5ean, Julian Zulueta alkatea Gasteizko hirian zegoela, udalbatzak La Habanako semeordea izendatu zuen.

Azukre-olen ugazabek Junta Ordezkarria eduki zuten, 1873tik harrezkero, Espainiako gobernuaren aurrean euren interesak defendatzeko. Junta hau, Ultramarreko ministroak baimendu zuen, 1870eko uztailaren 11an. Julian Zuluetak ere osatu zuen junta. 1878an, Ondasundunen Zirkulua fundatu zuen. Azukre-industria saileko erakunde ordezkarria izanik, hura hautatu zuten lehen presidente. Banco Hispano-Colonial-eko akziodun garrantzitsua izan zen, 300.000 pesotako akzioez.

Casino Españoleko sorkuntzan ere parte hartu zuen. Hasieran kasinoko araudi proiektua eztabaidatzean, Comite Reformistako espainiarzaleak baztertzeko proposamena mahairatu zen. Comite Españoleko taldeburua izanik, ez zuen ekimena begionez ikusi. Baina talde bi hauen kontrakarra areagotuz zihoan heinean, kasinoko presidentzia bereganatu egin zuen Zuluetak.

Asociacion Vasco Navarra de Beneficenciako, 1877ko apirilaren 8ko fundazio batzarrean ere hartu zuen parte. Joakin Kalbeton behin-behineko presidentea zela, Luis Aparizio Fernandez idazkari, Julian Zulueta araudi batzordeko zerrendaburu agertuko da, elkarteko sorkuntza agirian. Gainera, junta zuzendaria hautatzeko, ekainaren 17ko batzarrean, bokal izendatu zuten, Bizente Galartza orozkotarrarekin batera.

Hurrengo urteko apirilaren 20an, Kantauriako kostetan izaniko denboralean, ehundaka marinel itoko ziren. Andres Isasi, Baranbioko markesak telegrama bat bidali zion *vasco navarrako* elkarteari, marinelen familientzat laguntza eskatuz. Elkarreak, 1.000 urrezko peso bere fondotik bidaltzea erabaki zuen, baina Julian Zuluetak diru kopuru hori berak aurreratuko zuela azaldu zien bazkidei. Agindurikoa egun bi barru bete ostean, elkarreak eskerrak eman zizkion.

Testamentua Karlos Amores notarioaren aurrean egin zuen, 1878ko maiatzaren 3an. Ondasunen zerrendak, batz besteko ondoko ondasuntza laga zuen.

J. Zulueta y Cia. enpresako, 166.948 urrezko peso; Banco Mercantil de La Habanako, 250 peso bakoitzeko 58 akzio; badiako Progreso Cubano dike flota-garriko kapitaleko, 34.192 pesoko %10eko ordezkaritza; Fomento del Puerto de Pasajes enpresako 2.000.000 pezetako kapitaleko ordezkaritza, 8.000 urrezko pesotan; Almacen de Cardenaseko kapital partikularreko 121.907 peso; Ferrocarril de Zaza trenbideko 531.511 bileteko peso eta 344.396 urrezko peso; Sagastietako (Araba) Rio Zadorrako irin fabrikako 100.000 urrezko peso; Andoaineko La Guipuzcoana oihal fabrikako 436.874 urrezko peso.

Alava deituriko baporeko 172.805 biletezo pesoak; María Josefa goletako 9.678 urrezko peso eta 1.020 biletezoak; Almendares baporeko 10.136 biletezo peso. Gainera, ondoko hartzeko-kontua izan zuen. Tercio Vascongado armadako konpainari, 313 urrezko peso; La Habanako Boluntarioen 2. batailoiko zorra, 13.286 urrezko peso; gerra garaian, bigarren bidea eraikitzeko 27.055 biletezo peso. Banco Hispano Colonialeko, 50.000 urrezko pesoko 100 akzio. *Diario de la Marina* egunkariko, 20.000 urrezko pesotako 40 akzio. Gordailuko baloreen zenbatekoa 19.700 biletezo peso eta 409.920 urrezko zen.

Matanzas eremuko, Corral Falso alderdian, San Francisco izeneko moxaltokia ere eduki zuen. Bazkako eta ereintzako 36 kaballeriako (484 ha.) lurretan, 5 esklaboko dotazioa, eraikinak, abeletxeak, barrakoiak, hesiak eta gainerako lanabesak zeuzkan; guztiak, 37.728 urrezko peso balio zuela. La Habanako, Neptuno, Egido, San Rafael eta Zulueta kaleetan, Murallas izeneko 3.502 metro kuarratuko orubea zeukan, 16. zenbakiaz seinalaturik. Kardenaseko hirian, moilak, biltegiak eta alanbiketa ere zeuzkan, 37.298 urrezko peso eta 383.987 biletezo balioaz.

1873ko abenduaren 31an eginiko kitapenaren arabera, Julian Zulueta ondasuntzako ondorena, 4.783.435 pesotako kapital nagusi aktiboa izan zen. Honi, 939.282 kapital nagusi pasiboa kendu zitzaion, 3.844.153 peso geratuz. Kenketa honetan, lehen ezkontzako lau semeren amaren 900.000 pesotako senipartekoa sartzen zenez, 2.944.153eko kapital efektiboa geratu zitzaion. Bigarren ezkontzako 250.000 pesoak ere kitapenean sartu ziren, ezkontzako etekinak 500.000 peso izan zirela uste izateagatik. San Inazio kaleko, 14. zenbakian bizi izan zen.

1878ko maiatzaren 3ko egun batez, mando batek larriki ostikatu zuen. Bere heriotza La Habanako katedralean dago izena emanik.

La Habanako Boluntarioen 2. batailoiko koronela eta, 1873ean, Isabel Katolikaren erret ordena amerikarreko partaidea izan zen. 1875eko uztailaren 21eko Alfonso XII. ren erret despatxuz, Arabako markes titulua jaso zuen, eta Casa Blancako kondebigarrenarena ere.

Hurrengo urtean, gorteetara hautatu zuten Arabako herrialdetik, eta Filadelfia-ko (Estatu Batuak) erakusketan azukre laginagatiko domina jaso zuen. Baita erresumako senatorea bizitzarako eta Karlos III.aren gurutze handia ere izan zen.

## Iturriak eta bibliografia

G.E.H.A. Bataioak. Erreferentzi-Kodea: ES/AHDV-GEHA/F006.036(00374/001-01).

K.A.N. Arazo Politikoak: 48/24, 219/1 leg. zkak. Defunturen Ondasunak: 86/1522 leg. zka. Gonzalez Alvarezen Eskribautza : 39/10 leg. zka. Espedientetako Mizelanea: 1643/Dc. leg. zka.

L.H.A.H. Udal Agiriak: 148 lib. 1-3, 87-87a, 328-328a, 429a orr.; 159 lib. 416-419a, 455-455a orr.; 162 lib. 2a-3, 71a-72, 118a-119a, 241a-242, 268a, 297-297a orr.; 163 lib. 430a-434 orr.; 164 lib. 221a or.

AGIRREAZKUENAGA, J.: "Los vascos y la insurrección de Cuba en 1868". En: *Revista de Historia Contemporánea*. EHU/UPV. 2(1989); 139-164 orr.

## 5. ITURRIAK ETA BIBLIOGRAFIA

### 5.1. Kontsultatu izaniko artxiboak eta bibliotekak

Bizkaiko Elizaren Histori Arkibua  
Cienfuegoseko Artxibo Historiko Probintziala  
Donostiako Gotzaindegiko Histori Agiritegia  
Gasteizko Elizbarrutiaren Artxibo Historikoa  
Iruñeko Gotzaindegiko Artxiboa  
'José Martí' Kubako Biblioteka Nazionala  
Kubako Artxibo Nazionala  
La Habanako Elkarre Ekomikoko Artxiboa  
La Habana Hiriko Artxibo Historikoa  
Literatura eta Linguistika Institutuko Biblioteka  
Matanzaseko Artxibo Historiko Probintziala

### 5.2. Bibliografia

- ACTA de las Juntas Generales que celebró la Real Sociedad Económica de Amigos del País de la Habana, en los días 15, 16 y 17 de diciembre de 1856. Habana: Imprenta del Gobierno y Capitanía General, 1857.
- ALFONSO, Pedro Antonio. *Memorias de un matancero. Apuntes para la historia de la isla de Cuba*. Matanzas: Imprenta de Marsal y Cia., 1854.
- ANDUEZA, Jose María de. *Isla de Cuba pintoresca; histórica, política, literaria, mercantil e industrial; recuerdos, apuntes, impresiones de dos épocas*. Madrid: Boix, 1841.
- ARMONA MURGA, Jose Antonio. "Noticias privadas de casa, útiles para mis hijos". En: *Anales y Memorias de la Real Junta de Fomento y de la Real Sociedad Económica*. Nº IV. Habana: Imprenta del Tiempo, 1859; 92-131 orr.
- ARRATE, José Martín Félix de. *Llave del Nuevo Mundo antemural de las Indias Occidentales. La Habana descrita: noticias de su fundación, aumentos y estado*. Habana: Imp. y Lib. de A. Pego, 1876(Los tres primeros historiadores de la isla de Cuba, I. bol.)
- BACARDI Y MOREAU, Emilio. *Crónicas de Santiago de Cuba*. Santiago de Cuba: Tipografía Arroyo Hermanos, 1923. VI. bol.
- BACHILLER MORALES, Antonio. *Apuntes para la historia de las letras y de la instrucción pública de la Isla de Cuba*. Habana: Imp. del Tiempo, 1861. III. bol.



- BOLETÍN Oficial de la Capitanía General de la Isla de Cuba.* (1866), V urte, martxoak 15, 15 zka., 69 orr.
- BOLETÍN Oficial de la Capitanía General de la Isla de Cuba.* (1866), V urte, ekainak 5, 31 zka., 163 orr.
- BOLETÍN Oficial de la Capitanía General de la Isla de Cuba.* (1867), VI urte, abenduak 25, 71 zka., 409 orr.
- BUCH LÓPEZ, Ernesto. *Del Santiago Colonial.* Santiago de Cuba: Editorial Ros, 195.
- BUSTAMANTE, Luis J. *Diccionario Biográfico Cienfueguero.* Cienfuegos: Imp. R. Bustamante, 1931.
- CALCAGNO, Francisco. *Diccionario Biográfico Cubano.* New York: Imp. y Lib. de N. Ponce, 1878.
- CASTELLANOS, Gerardo. *Panorama histórico. Ensayo de cronología cubana.* La Habana: Ucar, García y Cía., 1934.
- . *Trinidad secular y revolucionaria.* La Habana: Ucar, García y Cía., 1942.
- CUERPO DE VOLUNTARIOS DE LA ISLA DE CUBA. *Escalafón general de los Sres. Jefes, Oficiales y Sargentos por el orden de antigüedad en 1º de enero de 1865.* Habana: Imp. de la Viuda de Barcina y Comp., 1865.
- DOLLERO, Adolfo. *La Provincia de Matanzas y su evolución.* La Habana: Imp. Seoane y Fernández, 1919.
- DORTICÓS, P. "Proyecto de Ferrocarril". En: *El Telégrafo*, nº 46: 2. Cienfuegos, 1865, irailak 26.
- EDO LLOP, Enrique. *Memoria histórica de Cienfuegos y su jurisdicción.* Cienfuegos: Imp. Nueva de J. Andreu, 1888.
- ESCOBEDO, Nicolas Manuel; [et al.]. "Representación dirigida al Excmo. Sr. Dean y Gobernador del Obispado D. Juan Bernardo O'Gavan sobre la erección de una estatua al Excmo. e Ilmo. Sr. Obispo D. Juan José Díaz de Espada y Landa". En: *Revista Bimestre Cubana*, III., 7 zka., 1832; 270-271 orr.
- FERRETY, Juan Agustín. "Viaje a Europa del difunto Sr. D. Lorenzo Larrazábal en 1856".- En: *Anales y Memorias de las Junta de Fomento y de la Real Sociedad Económica de la Habana*, nº III. Habana: Imprenta de Antonio María Dávila, 1856; 393-398 orr.
- GUÍA de forasteros de la Siempre fiel Isla de Cuba para el año 1823.* Habana: Oficina de Arazoza y Soler, 1823.
- GUÍA de forasteros de la Siempre fiel Isla de Cuba para los años 1834, 1862, 1873, 1883.* Habana: Imp. del Gobierno y Capitanía General por S.M., 1834, 1862, 1873, 1883.
- GÁRATE OJANGUREN, Montserrat. "Comercio Ultramarino e Ilustración. La Real Compañía de La Habana". En: *Colección Ilustración Vasca*, nº VI. Donostia-San Sebastián, 1993.
- GARCÍA MARTINEZ, Orlando. "Estudio de la economía cienfueguera desde la fundación de la colonia Fernandina de Jagua hasta mediados del siglo XIX". En: *Revista Islas*, nº 55/56, 1977. 1976-irail.-1977-apir., 117-170 orr.

- GARCÍA DEL PINO, César; MELIS CAPPÀ, Alicia. *Documentos para la historia colonial de Cuba: siglos XVI, XVII, XVIII y XIX*. La Habana: Editorial de Ciencias Sociales, 1988.
- GUERRA SÁNCHEZ, Ramiro. *Guerra de los Diez Años y otras actividades revolucionarias*. Habana: Editorial Historia de la Nación Cubana, S.A., 1953. 5. bol.
- . *Manual de historia de Cuba, desde su descubrimiento hasta 1868*. La Habana: Editorial de Ciencias Sociales, 1971.
- . *Guerra de los Diez Años*. La Habana: Editorial Pueblo y Educación, 1986; bol. 2.
- HUMBOLDT, Baron Alexander de. *Ensayo político sobre la isla de Cuba*. Itzulpena: José López de Bustamante. París: Lecointe y Lasserre, 1840.
- ÍNDICE biográfico de los miembros de la Academia de Ciencias Médicas, Físicas y Naturales de La Habana. La Habana: Compañía Editora de Libros y Folletos, 1942.
- INMIGRACIÓN de asiáticos en esta Isla, principalmente para los trabajos de la industria agrícola.- En: *Anales de la Real Junta de Fomento y Sociedad Económica de la Habana*, nº IV. Habana: Imprenta del Tiempo, 1851; 183-197 orr.
- INSTITUTO DE HISTORIA DE CUBA. *Historia de Cuba: Las luchas por la independencia nacional y las transformaciones estructurales 1868-1898*. La Habana: Editora Política, 1996.
- JUÁREZ CANO, Jorge. *Apuntes de Camagüey*. Camagüey: Imp. El Popular, 1929; 1. bol.
- LARRUA GUEDES, Salvador. *Grandes figuras y sucesos de la iglesia cubana*. Santo Domingo: Centro de Estudios Sociales, 1996.
- LEISECA, Juan Martín. *Apuntes para la historia eclesiástica de Cuba*. La Habana: Talleres Tipográficos de Carasa y Cia., 1938.
- LE RIVEREND BRUSONE, Julio; Academia de la Historia de Cuba. *La Habana, biografía de una provincia*. La Habana: Imp. El Siglo XX, 1960.
- . *Breve historia de Cuba*. La Habana: Editorial de Ciencias Sociales, 1995.
- LE-ROY CASSA, Jorge. *Historia del Hospital de San Francisco de Paula*. La Habana: i.g., 1958.
- LISTA de los magistrados, cuerpos, prelados, hacendados y comerciantes que han auxiliado a la Real Hacienda y a la renta de tabacos. En: *Memorias de la Sociedad Económica*, nº XX, 1845; 501-506 orr.
- MARRERO, Leví. *Cuba: Economía y Sociedad*. Madrid: Editorial Playor, S.A., 1974, 1976, 1978. II-VI. bol.
- . *Cuba: Economía y Sociedad. Del monopolio hacia la libertad comercial (1701-1763)(I),(II),(III)*. Madrid: Editorial Playor, S.A., 1978, 1980. VI-VIII. bol.
- . *Cuba: Economía y Sociedad. Azúcar, ilustración y conciencia (1763-1868)(I),(II),(III),(IV),(VII)*. Madrid: Editorial Playor, S.A., 1983, 1984, 1985. IX-XII, XV. bol.
- MARÍN VILLAFUERTE, Francisco. *Historia de Trinidad*. La Habana: J. Montero, 1945.
- MEMORIAS de la Real Sociedad Patriótica de la Havana. Havana: Imprenta de la Capitanía General, 1795, 36, 155 orr.

- MEMORIAS de la Real Sociedad Económica de la Habana.* Habana: Imprenta de la Capitanía General, 1817, 111 orr.
- MEMORIAS de la Sociedad Patriótica de la Habana. Apuntes para historia de la isla de Cuba. El Bayamo.* Habana: Imprenta de la Capitanía General, 1840; X, 313, 315, 344 orr.
- MEMORIAS de la Sociedad Patriótica de la Habana. Apuntes para la historia de la isla de Cuba.* Habana: Imprenta del Gobierno y Capitanía General, 1841; XII, 216 orr.
- MEMORIAS de la Sociedad Económica de la Habana.* Habana: Imprenta del Gobierno y de la Capitanía General, 1843; XVI, 76-78 orr.
- MEMORIAS de la Sociedad Económica de la Habana.* Habana: Imprenta del Gobierno y de la Capitanía General, 1844; XIX, 123, 126,139-142, 317-318, 504 orr.
- MEMORIAS de la Sociedad Económica de la Habana.* Habana: Imprenta del Gobierno y de la Capitanía General, 1845; XX, 69 orr.
- MEMORIAS de la Sociedad Económica de la Habana.* Habana: Imprenta del Gobierno y de la Real Sociedad Económica, 1846; II, 76-77, 194, 249-268, 394 orr.
- MEMORIAS de la Real Sociedad Económica y Anales de Fomento.* Habana: Imprenta del Tiempo, 1863; VIII, 12, 14-15, 17, 110-111,115,119, 125, 442 orr.
- MEMORIAS de la Real Sociedad Económica y Anales de Fomento.* Habana: Imprenta del Tiempo, 1864; IX, 58 orr.
- MEMORIAS de la Sociedad Económica de Amigos del País de la Habana durante el año de 1943.-* Habana: Molina y Compañía, 1944, 26-27 orr.
- MONGE MULEY, Gerardo. *Españoles en Cuba.* Barcelona: Tipografía La Académica y Talleres Gráficos Hostench, 1953.
- MORALES DEL CAMPO, Ofelia. "La evolución de las ideas pedagógicas en Cuba hasta 1842. En: *Recopilación para la Historia de la Sociedad Económica Habanera.* (Fernando Ortizek arg.). La Habana: Imp. y Lib. El Universo, S.A., 1929, 23-24 orr.
- MORENO FRAGINALS, Manuel. *El ingenio; complejo económico social cubano del azúcar.* La Habana: Editorial de Ciencias Sociales, 1978. 3 bol.
- NIETO CORTADELLAS, Rafael. *Dignidades nobiliarias en Cuba.* Madrid: Ediciones Cultura Hispánica, 1954
- NOTAS de los portátiles vendidos a los Sres. Hacendados. En: *Revista de Agricultura.* (1879), I urte, 9 zka., irailak. 30; 232-234 orr.
- NOTICIA de las fincas azucareras al comenzar el presupuesto actual de 1877-78, según los padrones presentados por los Ayuntamientos y aprobados para la contribución del 30 por ciento. En: *Revista Económica.* (1878), II urtea, 37 zka., ekainak 7;11,13, 16, 20 orr.
- O'FARRILL, J. R.; LANTZ, J.B. *Memoria sobre la cría de ganado mular y caballar, y mejora de sus castas, presentado al Excmo. Sr. Gobernador Capitán General y a la Junta Económica del Real Consulado.* Havana: i.g., 1797.
- PEZUELA, Jacobo de la. *Diccionario geográfico, estadístico, histórico de la isla de Cuba.* Madrid: Imp. del Estab. de Mellado, 1863-66. 4 bol.
- . *Historia de la isla de Cuba.* Madrid: C. Bailly-Bailliere, 1868-78. 4. bol.

- PONTE DOMÍNGUEZ, Francisco J.; Academia de la Historia de Cuba. *Matanzas, biografía de una provincia*. La Habana: Imp. El Siglo XX, 1959.
- QUINTERO ALMEYDA, Jose Mauricio. *Apuntes para la historia de Cuba con relación a la ciudad de Matanzas desde el año 1693 hasta el de 1877*. Matanzas: Imprenta El Ferrocarril, 1878.
- REBELLO, Carlos. *Estados relativos a la producción azucarera de la Isla de Cuba*. Habana: i.g., 1860.
- RIVERO MUÑIZ, José. *Tabaco, su historia en Cuba*. La Habana: Instituto de Historia, 1964-65. bol. 2.
- RODRÍGUEZ, V.M.; VELEZ, J. “Estado actual de la enseñanza del bello sexo en la Habana, y de su educación”. En: *Memorias de la Real Sociedad Económica de la Habana*. Habana: Imprenta de la Capitanía General, 1817, 121-132 orr.
- ; —. “Dictamen de la comisión nombrada por la Sección de Educación, sobre si conviene adoptar el Sistema de Lancaster en las escuelas de primeras letras de la ciudad de la Habana”. En: *Memorias de la Real Sociedad Económica de la Habana*. Habana: Imprenta de la Capitanía General, 1817, 133-145 orr.
- RODRÍGUEZ EXPÓSITO, César. *Finlay*. La Habana: Editorial Librería Selecta, 1951.
- ROIG DE LEUCHSENRING, Emilio. *La Habana: Apuntes históricos*. La Habana: Ed. del Consejo Nacional de Cultura, 1963. vol. I.
- ROSILLO ALQUIER, Fermín. *Noticia de dos ingenios y datos sobre la producción azucarera de la isla de Cuba*. Habana: Imprenta El Iris, 1873.
- ROUSSEAU, P.L.; DIAZ DE VILLEGAS, P. *Memoria descriptiva, histórica y biográfica de Cienfuegos*. Habana: Establecimiento Tipográfico “El Siglo XX”, 1920.
- ROIG SÁNCHEZ, Mario. “Notas inéditas sobre el grabado en Cuba”. En: *Revista de la B.N. José Martí*, 1966, 57 urte, 1 zka., urtar.-maiat., 68 or.
- SANTA CRUZ Y MALLÉN, Francisco Xavier. *Historia de familias cubanas*. La Habana: Editorial Hércules, 1940-50. 6 bol.
- . *Historia de familias cubanas*. Miami, Florida: Ediciones Universal, 1985-88. 3 bol.
- SEÑORES que componen el Ayuntamiento de esta Capital, agrupados en Comisiones para el actual bienio de 1878 y 79. En: *Revista Económica*. (1878), II urte, 41 zka., uztailak 7; 47-48 orr.
- TORRES LASQUETI, Juan; BETANCOURT, José Ramón, pról. *Colección de datos históricos-geográficos y estadísticos de Puerto del Príncipe y su jurisdicción*. Habana: Imp. El Retiro, 1888.
- TRELLES, Carlos M. *Ensayo de bibliografía cubana de los siglos XVII y XVIII*. Matanzas: Imp. El Escritorio, 1907.
- . *Biblioteca histórica cubana*. Matanzas: Imp. de J.F. Oliver, 1922-26. 3. bol.
- URRUTIA MONTOYA, Ignacio José. *Teatro histórico, jurídico y político militar de la isla Fernandina de Cuba y principalmente de su capital La Habana*. Habana: Imp. y Lib.de A.Pego, 1876 (Los tres primeros historiadores de la isla de Cuba. II. bol.)

- VALDÉS, Antonio José. *Historia de la isla de Cuba y en especial de La Habana*. Habana: Imp. y Lib. de A. Pego, 1877 (Los tres primeros historiadores de la isla de Cuba. III. bol.)
- VÉLEZ, Justo. "Oficio dirigido al redactor de estas Memorias". En: *Memorias de la Real Sociedad Económica de la Habana (1820-23)*. Habana: Oficina del Gobierno y de la Real Sociedad Patriótica por S.M., 1820-23; 43-44 orr.
- WEISS, Joaquín E.: *La arquitectura colonial cubana: siglos XVI al XIX*. La Habana: Instituto Cubano del Libro; Madrid: Agencia Española de Cooperación Internacional; Sevilla: Consejería de Obras Públicas y Transporte, 1996.
- WRIGHT, Irene A.; Academia de la Historia de Cuba. *Historia documentada de San Cristobal de la Habana en la primera mitad del siglo XVII*. La Habana: Imp. El Siglo XX, 1930.